

**EUSKAL PENTSAMENDU  
BERRITZAILEAREN  
SORRERAK**

*ZABAL*

**TESTU HAUTATUAK**

PRESTATZAILEAK

Paulo Iztueta

Jokin Apalategi



*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du*

© Paulo Iztueta eta Jokin Apalategi  
© Utriusque Vasconiae  
Lehen argitaraldia: Donostia, 2015eko ekaina  
ISBN: 978-84-942531-8-8  
Lege-gordailua: SS-665-2015  
Azaleko argazkia: *Zabalen* azala  
Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.  
20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzailak:  
BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa).  
Tel.: 948-302239

JAKIN – 64100 Baiona (Lapurdi)  
Tel.: 05592232

<https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/>

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreproduktzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

**EUSKAL PENTSAMENDU  
BERRITZAILEAREN  
SORRERAK**

*ZABAL*

**TESTU HAUTATUAK**

**PRESTATZAILEAK**

**Paulo Iztueta**

**Jokin Apalategi**

**Utriusque Vasconiae**



## AURKIBIDEA

AITZIN-SOLAS - <i>Paulo Iztueta</i> . . . . .	13
---	----

### KULTURA SAILA

EGUNGO KULTURAREN ILDOTIK	
<i>Paulo Iztueta</i> . . . . .	29
KULTUR MUGIMENDUAZ IKUSPEGI POLITIKO BAT	
<i>Jokin Apalategi</i> . . . . .	37

### POLITIKA SAILA

AZKEN GOSE GREBAZ ZENBAIT GOGOETA	
<i>Beñat Oihartzabal</i> . . . . .	53
EUSKAL DEPARTAMENDUAZ	
<i>Jean-Louis Davant</i> . . . . .	69
EUSKAL IRAULTZAZ GOGOETA ZENBAIT	
<i>Andolin Eguzkitza</i> . . . . .	89
BOZAK IPAR EUSKAL HERRIAN	
<i>Battita Larzabal</i> . . . . .	99
MILITARGINTZA EUSKAL IRAULTZAN	
<i>Jokin Apalategi</i> . . . . .	109
ETAko BATZUK AUTOKRITIKATUZ DATOZKIGU	
<i>Jose Manuel Odriozola</i> . . . . .	115
IRLANDA KOLONIZATUA	
<i>Paulo Iztueta</i> . . . . .	123

MARXISMOA ETA ALDERDIA	
<i>Joxemartin Apalategi</i> .....	143

### ERLIJIOA SAILA

ELEIZ-GIZONAK	
<i>Paulo Iztueta</i> .....	173

ELIZA BERRI BAIONAN	
<i>Piarres Xarriton</i> .....	187

### PEDAGOGIA SAILA

IKASTOLAK HEGO ALDEAN	
<i>Koldo Aristegi</i> .....	203

IKASTOLAK IPAR ALDEAN	
<i>Manex Goihenetxea</i> .....	217

UZTARITZEKO AGERPENA DELA ETA	
<i>Jesus Maria Larrazabal</i> .....	229

### FILOSOFIA SAILA

LOUIS ALTHUSSER-EN AUTOKRITIKA-GAIA	
<i>Jon Sudupe</i> .....	251

### GENERO SAILA

HILAURTZEAZ	
<i>Kattalin Idiart</i> .....	273

ZABAL-EKO LANKIDEAK .....	293
---------------------------	-----

## Hitzaurrea

Zilarrezko ezteiak egin eta urrezkoak egiteko bidean doa *Zabal* aldizkaria: 42 urte egin ditu 1973ko maiatzeko lehen zenbakiak. Data hartatik urruntzen goaz inoiz gazteagoak izandakoak eta, berantetsi gabe, haren bildumatik testu hautatu batzuk berrargitaratzea otu zaigu, orduko mezuak bere jarraipena izan dezan euskal irakurleria zaletuaren memorian.

Proiektu kolektibo horrek lau urteko iraupena baino ez zuen izan eta hemeretzi zenbaki argitaratu zituen. Urte intentsiboak izan ziren frankismoko azken urte haiek. Biziki beroak euskal politikaren zein kulturaren zelaian, zalapartatsu bezain nahasgarriak pentsamenduarenean. Gertatzen ari zen sakoneko gizarte-aldaketa baten seinale zen hura. Erritmo bizi-bizian sekularizatuz eta eraldatuz zertorien euskal gizarte asaldatu batean atarian geunden. Testuinguru soziopolitiko, kultural eta ekonomiko honetan jaio zen *Zabalen* proiektua, euskal pentsamendua paradigma berrietara moldatzeko bokazio irmoarekin.

Ez goaz hemen zergatik eta zertarako sortu zen esatera, ezta egin zuen ibilbideaz eta lortu zituen emaitzez jardutera ere, horietaz lehendik ere jardunak baikara *Erbesteko euskal pentsamendua* liburuaren bigarren zatian (Utriusque Vasconiae, 2001, 149-226). Han idatziak hemen errepikatzen aritzeak ez du zentzurik. Bego esana, halere, *Euzko-Gogoa* eta *Zabal* erbesteko bi aldizkari bezala elkarren ondoan aurkeztean, gerra aurreko eta ondorengo belaunaldi biren arteko antzekotasuna zein etena –aurpegi biak–, nabarmendu nahi izan genuela.

*Zabalek* bere burua aurkeztu zuenean lehen “Aitzinsolas”ean, ikuspegiz zabala eta jarreraz kritikoa, helburuetan sozialista eta independentista, antolaketa eta funtzionamenduaren aldetik autonomia, Euskal Herri osoko gizarte errealitateari so egingo ziona, izan

nahi zuela aitortzen zuen. Eta esan liteke bere hitza neurri handi batean bete zuela. Euskal Herriko arazoak, Iparraldekoak bezala Hegoaldekoak, aztertu ziren, baita mundu zabalekoak ere, bereziki Europakoak. Begiratu besterik ez dago landutako gaien zerrendari. Kudeatzaileek zioten bezala, “beste nehon irakurriko ez dituzun artikulua aurkituko dituzun *Zabalen*. Mugaz bestaldeko astekari eta agerkarietan ezin delakoz, gobernu-zentsurarenatik... Eta mugaz honaindikoetan (*Herria*, *Gure Herria*, *Otoizlari*...) apezen eskue-tan direnez gain, hauen zentsurarenatik” (“Aitzinsolas”, *Zabal*, 3, 1973, 1). Gaien berritasuna, beraz, bermatua dago.

Bestalde, alde bietako idazleak elkarlanean aritzea ere, aldizkari honen beste meritu aipagarri bat da, euskalgintzako proiektu kolektibo batean bateratze hori ordura arte ez baitzen ohikoa. Ezaugarri hauek nolabaiteko berezitasuna eman diote aldizkariari, bere mailan “bakarra” izatearena, hain zuzen, “Aitzinsolas”ean (*Zabal*, 7, 1974, 1) irakur daitekeen bezala. Sentipen hori bizi izan zen Iparraldeko taldekideen artean.

Gure xedea bilduma osoa argitara ematea zen, baina gaurko finantza egoerak amets horretarako bide ematen ez duenez gero, gure ahale neurrian, soilik testu hautatu batzuk eskaintzea erabaki dugu. Noski, edozein hautaketak nahitaez testu batzuk bazter uztea eskatzen du eta kasu honetan –doluz, noski–, merezi zuten hainbat artikuluk ez dute bilduma honetan sarbiderik izan. Eta murrizketa honek hautaketa egiterakoan zein irizpideri jarraitu diogun esatera garamatza. *Zabalen* proiektu kolektiboarekin identifikatuak sentitu direnen eta beren lankidetzan maiztasunez eskaini dutenen lanak lehenetsi dira, eta horien artean, berriz, gaiaren sakontasun eta gaurkotasunagatik adierazgarrienak iruditu zaizkigunak. Garaiko giro intelektualaren lekuko, eztabaida sukartsuak piztu ziren, zehazki nazio-arazoak eta marxismoak, sozialismo-mota desberdinez, estrukturalismoak, egun ere beren baliagarritasuna baluketena. Hainbat egilek parte hartu zuten eztabaida horietan. Eztabaiden kate osoa emateak luze jotzen baitu, hemen sorrera eman zutenak baino ez datoz. Nolanahi ere, zehaztu dezagun, Beñat Oihartzabal eta Jean-Louis Davantek Iparraldeko politikaz, edo Andolin Eguzkitza, Paulo Iztueta eta Joxe Azurmendik marxismoak eta nazio arazoak, edo Jokin Apalategik eta Larresorok hizkuntzaz, pentsaeraz eta herrikidetasunaz, edo Joxe Manuel Odriozolak eta Larresorok sozialismoak izandako eztabaidak bere testuinguruan eta elkarren segidan irakurri beharrezkoak direla.



Arestian esan da *Zabal* adi egon zela mundu zabalean eta Europan harrotzen ziren korronte intelektual eta gizarte mugimendu berrietara, bereziki kultura eta hezkuntzaren sailean. Bestalde, ordura arte ez bezala, sekularizazioak, feminismoak, sexu askatasunak eta nuklearren gaiak beren lekua hartzen dute eta horiei artikulatu bat baino gehiago eskaintzen zaizkie. Gai zabaletan, 1975eko 14. zenbakian, hain zuzen, “nukleartegien” gaia lantzen da hiru artikulutan. Gure testu hautatu hauetan, ordea, ez dator gai horri buruzkorik, horiek itzuliak baitziren, ez sortuak. Aipagarriak dira, halere, geroago Lemoizko auziaren inguruan sekulako hautsak harrotuko baitira.

*Zabaleko* lankideen zerrendan ikus daitekeenez, luze samarra da ezizenen eta izenik gabekoen soka. Horien atzean zeudenak nortzuk ziren ziurtasunaz jakin izan dugunetan bakarrik jarri ditugu beren izen-abizenekin.

*Zabalen* proiektu horretan parte hartu zuen kolektibo horri nola deitu behar zaion? Belaunaldiaren kontzeptuak oinarritzat adinarena hartzen baitu, iruditzen zaigu operatiboa dela kezka intelektual eta gizarte egitasmo bertsuak edo antzekoak dituztenen idazle taldearena erabiltzea. Kasu honetan, noski, taldearen batasuna ez litzateke oinarrituko faktore biologikoan soilik, bereziki espiritu-kidetasunean baizik. Dena dela, *Zabalekoen* artean haste-hastetik zegoen bere ekinaldiarekin euskal kulturgintzan eta, areago oraindik, euskaldungoan zerbait berria hasten zeneko ustea, beste “Aitzinsolas” honetan adierazia datorren bezala: “Behin baino gehiagotan entzun duguna da, euskal kulturaren, politikaren eta sozialismoaren sailtan euskaldungo berri bat sortu eta eraiki beharrez lan eta lan ari direnak, ideialari huts eta buru-bero batzuk baizik ez direla” (*Zabal*, 4, 1973, 1). Unibertsitate ikasketak bukatzean hasten da idazle talde hori bere ibilbide akademikoa egiten eta, berrogei urte pasa eta gero, curriculum profil aberatsa erakutsiko du, liburu honetan ikus daitekeen bezala.

Guk, ordukoa gaurko gaindegitik begiratuta, “euskaldungo berri horren sorreran”, euskal gizarte eraldatuarekin ematen den etena kausitzen dugu ohargarrien, *Zabal* baita, garaiko kultur aldizkariaren artean, errotiko gizarte aldaketa horren islarik garbienteko bat.

Liburu honekin batera etorriko beste argitalpen batean joango gara *Zabal* aldizkariaren edukia gaiez gai aztertu eta ezagutzera ematen eta orduan, seguru asko, hobeto ulertuko da euskal pentsamendu berritzailearen bilakaera izan duen garrantzia.

*Zabaleko* taldea aski homogeneoa da bai pentsamoldez eta bai adinez, gehien-gehienak 1940. urteaz geroztik jaiotakoak edo horren hurbilekoak eta, zentzu honetan, esan dezakegu bide berri bati ekiten dion talde homogeneo baten aurrean aurkitzen garela eta *Zabaletik* harago ere horko taldekideek beren jarraipena izan zuela Hegoaldean, oraingoan zabalagoa, lehenik *Zehatz* eta gero *Gogoa* aldizkarietan.

*Zehatzek* sei zenbaki argitaratu zituen 1977ko urtarril-otsailetik 1978ko uztaila-abendua bitartean, zuzendari Antton Iburguren zela, gazterik zendua Everesteko gailur elurtuetan. Aldizkari honen, lehen zenbakiko bere aurkezpenean, *Zabalen* ildotik zihozten xedeak agertu zituen. Maiuskulaz aipatzen da haren izena, haren oinordekotza hartzen duela aditzera emanez, baina testuinguru berri batean:

“ZABAL, zabaltzen, bide irekitzen, bide bat irekitzen saiatu gara Baionatik hiruzpalau urte hauetan. ZEHATZ, zehazten, bide zabaldu ahala zehazten saiatuko gara aurrerantzean Donostiatik. Bidea ez dago egina. Bidea egiten gatoz. Elkarrekin. Talde lanean, sozialista abertzalegoa indartu nahirik. Hauxe da gure xedea”.

Aldizkari honetako erredakzio eta edizio kontseiluetan *Zabaleko* artikulugintzan parte hartu zuten gehienak aurkitzen dira, besteak beste, hauek: Jokin Apalategi, Paulo Iztueta, Jean-Louis Davant, Gexan Alfaro, Balere Bakaikoa, Jesus Maria Larrazabal, Jose Manuel Odriozola, Jon Sodupe, Karmelo Arroiabe. Artikulugintzan parte hartzen dutenen artean, *Zabaleko* Jokin Apalategi, Joxemartin Apalategi, Balere Bakaikoa, Andolin Eguzkitza, Jean-Louis Davant, Ihartzabal Heiko Sagredo (Krutwig), Jesus Maria Larrazabal, Jon Sodupe, Karmelo Arroiabe, Jesus Mari Larrazabalez gain, izen berri batzuk agertzen dira aurkibideetan: Antton Iburguren, Jose Antonio Agirre, Koldo Larrañaga, Mario Onaindia, Julen Kaltzada, Alfontso Irigoien eta Pakita Arregi.

Tamalez, bizi-iraupen laburra izan zuen, jaio eta hurrengo urtean pentsaeraren aldetik etorkizun aberatseko proiektua izan zitekeen hura hila suertatu baitzen. Antza, finantzen aldetik, kudeagarri ez zelako.

Aurreko bien ildo beretik edo antzekotik doan eta EHUK finantzaturik 2001. urteaz geroztik argitaratzen den hurrengo aldizkaria *Gogoa* da. ILCI institutuaren diziplinarreko izaera jasotzen du, eta bertan filosofo, logikari, hizkuntzalari, psikologo, matematikari,

adimen artifizialeko aditu eta ezagutzari buruzko teorilari sozialen lanak jasotzen dira. Aldizkari honen alma mater, sortzaile, sustatzaile eta zuzendari, Jesus Maria Larrazabal da, *Zabaleko* kidea, hain zuzen, ezkutari Kepa Korta delarik. Lehen zenbakiaren aurkezpenean espresuki adierazia dator *Zabalen* espirituz gantzutua sortzen dela. EHUko lankide gazteak bereganatzeko gaitasuna frogatuz dator hamalau urteko bere bidean. Bi hilabetez behin argitaratzeko asmoarekin sortu zena urtean bitan baizik ez da kaleratzen, baina irauteak bakarrik badu bere meritua.

*Zabali* sorrera eta bizia eman genionentzat pozgarri da ikustea gure orduko asmoak izan zuela segidarik EHUko belaunaldi berrian eta bidean UEUko *Uztaro* homologoaren parez pare doala. Honen zuzendaria, hain zuzen, aspaldion Jokin Apalategi da, bera ere, sarra honen beste sinatzailea bezala, *Zabalkidea*. Honez gero ezingo da ukatu *Zabaleko* taldekideok ageriko emaitzak emanez gatzela unibertsitate-munduko zein beste bizibide profesionaletako jardun intelektualetan. Noski, ordukoan baino pentsamendu-unibertso askoz zabalago eta zehatzago batean. Garaiak ez dira alferik pasatzen. Eta ideiak. Eta borroka moldeak.

Donostian, 2015eko apirilean

*Paulo Iztueta Armendariz*

*Jokin Apalategi Begiristain*





## Paulo Iztueta Armendariz

### Ibilbide profesionala

Paulo Iztueta Armendariz Berastegin jaio zen 1941eko martxoaren 22an. Eleiz ikasketak aita sakramentinoen Kongregazioan burutu zituen, Arratiako Areatzan, 1964an, eta hurrengo urtean, Pastoral Madrilen egin ondoren, 1967an Filosofiako Lizentzia egin zuen Erromako dominogotarren Angelicum unibertsitatean. Areatzako Ikastetxe Nagusiko filosofi irakasle izan zen 1967an eta, aldi berean, Zeanuriko Ipiñaburu auzoko parrokian erretore ardua izan zuen.

Zazpi urtez (1969-1976) luzatu zen erbestealdian, Parisen goi-ikasketak gehitu zituen. Soziologiako ikasketak, mailaz maila, artean jaio berria zen Vincennes VIII unibertsitatean egin zituen, doktorego tesia 1976an lortuz. Izenburutzat *Sociologie du phénomène contestataire au Pays Basque Sud: l'exemple du clergé (Analyse de causes de la radicalisation du clergé basque dans la période 1940-1975)*, Paul de Gaudemar-en zuzendaritzapean burutua. Geroztik lan hau oinarrizko iturritzat hartu dute Mathieu Elgoyhen-ek *Le clergé du diocèse de Bayonne face à la question basque, 1964-1998* (Toulouse, 2001) eta William J. Callahan-ek *The Catholic Church in Spain 1875-1998/La Iglesia católica en España 1875-2002* (Crítica) liburuetan. Soziologiaren diziplina osagarri gisa, Historiako ikasketak egin zituen hiru urtez (1969-1972) École Pratique des Hautes Études-en, Pierre Vilar-en mintegietan. Parisen, bestalde, irakasle ospetsuen ikasle izateko parada historikoa izan zuen. Horietako batzuen artean

zeuden, esaterako, Michel Lowy, Nico Poulantzas, Paul de Gaudemar, Michel Foucault, François Chatélet, Alain Badiou, eta beste.

Idazle eta ikertzaile bezala, euskal pentsamendua euskaraz lantzeko erabakia hartuta itzuli zen erbestetik, jada sekularizaturik. Horretarako erroak botata zeuden Iparraldean, Jokin Apalategirekin batera, abian jarritako *Zabal* aldizkariaren eta Elkar argitaletxearen proiektuarekin.

Etxeratu eta gero, xedetzat euskararen normalizazio akademikoa garatzea duen UZEIren diziplina anitzetako proiektuan aritu zen lanean gizarte zientzietako arduradun bezala 1976-1988 urte bitartean, hiztegiak planifikatzen, talde lanak osatzen eta testuak zuzentzen. Orduan landutako lanak dira *Politika Hiztegia* I eta II (1980), *Filosofi Hiztegia* I eta II (1987), eta irakaskuntzarako prestatutako UBI I-II-III eta BBB I-II-III filosofi testuak.

UZEItik EHUra txangoa 1988an egingo du eta Pedagogiako sailean aurkituko du bere bizibidea irakasle titular eta ikertzaile bezala, 2006an erretiratuko den arte. Ohiko *cursum honorum*etik aski aparte ibili izan da, beti ere ideia unibertsalak testuinguru partikularretik begiraturaz eta aztertuz. Gai hauek landu eta irakatsi zituen: *Pedagogia Garai-kidea/Pedagogía Contemporánea* (1988-1995), *Hezkuntzaren soziologia* (1990-2006), *Hezkuntza Politikaren Leheria* (1995-2000), *Gizartea eta kultura Euskal Herrian/Sociedad y cultura en el País Vasco* (1995-2006), *Etnometodologia eta hezkuntza* (1995-2000). Doktorego lkastaroen zuzendari izan zen Gizarte eta Hezkuntza/Sociedad y Educación moduluan 1990-1993 epealdian. Guztira zortzi doktore-tesi ditu zuzenduak hemezortzi urteko epe estuan. Epai-mahaikide bezala ere hamaika aldiz hartu du parte. Erretiratuz gero ere, ekintza akademikoetan parte hartuz jarraitu du, hala nola EHuko Leioako Irakasleen Eskolak antolatutako Batzar desberdinetan eta HUHEZIk antolatutako EKT aditu tituluaren programan. Berak egindako lanaren aitopene aldera, bere hurbileko hogeita bat lankidek *Paulo Iztueta euskal pentsamenduaren eraikitzaile* liburua (2007) eskaini zioten erretiratu zen urtean. *Uztaroko*

Batzorde Zientifikoko kide eta Utriusque Vasconiae-ko sortzailekide eta kudeatzaile da.

Bizibide profesionalaz aparte, literaturaren sailean, Epaimahaikide lanetan ere aritu izan da hogeita hamar urtez bederen, 1980. urtean hasi eta, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak antolatutako Irun Hiria Literatur Sarietan.

Maila intelektualean haren ekarria nabarmentzekoa bada, ez da txikiagoa izan kultur ekintzaile bezala erakutsi duen garra. *Arnasen* zuzendari izan zen Areatzan, Iparraldean *Zabal* aldizkariaren sortzaile eta lankide, hasierako Elkar eta geroko Utriusque Vasconiae argitaletxeen sortzaile eta kudeatzaile, eta euskalgintza militantearen alorrean, berriz, EKB proiektuaren sortzaile eta lehen urteetan eragile. Han eta hemen hitzaldi asko eman ditu, euskal irrati eta telebistako emanaldietan parte hartu du, euskal aldizkari eta egunkari gehienetan azaldu izan ditu bere iritzia, *Arnas*, *Jakin*, *Olerti*, *Egan*, *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Zabal*, *Bat*, *Uztaro*, *Ttantak*, *Hik Hasi*, *Gogoa*-n, eta abar. Beti Euskal Herri euskaldunaren aldeko mezua eskainiz.

Haren ekarpen orokorretik lan hautatu batzuen aipamena egingo da segidan.

## Liburuak

- 1974: *Marxismo eta nazional arazoa Euskal Herrian* (Jokin Apalategirekin batera, *Zabal*, Baiona, 148 or).
- 1974: *Sei idazle plazara*, I-II (Jokin Apalategirekin batera, Jakin-EFA, Arantzazu-Oñati, 162 eta 152 orr.).
- 1976: *Sociologie du phénomène contestataire au Pays Basque Sud: L'exemple du clergé basque dans la période 1940-1975* (Doktorego tesia, argitaragabea).
- 1977: *El marxismo y la cuestión nacional vasca*, Itxaropena, Zarautz, 247 orr. (*Marxismo eta nazional arazoa Euskal Herrian* jatorrizkoaren itzulpena).
- 1981: *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco (1940-1975)*, Elkar, Donostia, 471 or. (Gregorio Labakak jatorrizko frantsesetik itzulia).

- 1988: *“Quito’n arrebarekin” irakurriz*, Etor, Donostia, 433 orr.
- 1989: *N. Ormaetxea “Orixe” (1988-1961)*, Bidegileak bilduma, Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza, Gasteiz, 12 orr.
- 1991: *Orixe eta bere garaia*, V, Eusko Jaurlaritza/Etor, Donostia, 1.407 orr.
- 1996: *Intelligentsia kimatuaren orbelak*, Kutxa fundazioa, Donostia, 489 orr. (Liburu honek 1995eko Irun Hiriko Saiakera Saria jaso zuen).
- 2000: *Euskal irakaskuntza Autonomi Aroan (1983-1994)*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 203 orr.
- 2000: *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 232 orr.
- 2001: *Erbesteko euskal pentsamendua*, Utriusque Vasconiae, 260 orr.
- 2002: *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-1936)*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 195 orr.
- 2003: *Orixe auzitan*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 127 orr.
- 2003: *Orixe gaitzesia*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 313 orr.
- 2003: *Orixe saiogilea*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 265 orr.
- 2005: *Euskal idazleen belaunaldiez*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 127 orr.
- 2010: *Berastegi I. Hiritartzearen bidetik*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 279 orr.
- 2010: *Berastegi II. Gatazken tenorean*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 345 orr.
- 2010: *Berastegi III. Eraldakuntzaren gurpilean*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 323 orr.



## Liburu atalak, artikuluak, hitzaldiak

- 1965: “Sokrate aurreko filosofia”, in *Filosofiaren kondaira*, I, Jakin taldearen ardurapean, Arantzazu-Oñati, 9-44 orr.
- 1974: “Altzürukuri ohar batzu”, *Zabal*, 8, Baiona, 18-20 orr.
- 1974: “Eleberri ziztagarri bat: *Hil ala bizi*”, *Zabal*, 5, 48-58 orr.
- 1975: “Bretania-Handiko herriak”, *Zabal.*, Baiona, 14-19 orr.
- 1980: “Autodeterminatzeko eskubidea”, in Paulo Iztueta (zuz.): *Politika Hiztegia*, I, Elkar/UZEI, Donostia, 55-65 orr.
- 1981: “Eliz ikastetxeetako aldizkariak”, in *Jakin (25 urte Euskal Kulturari)*; Arantzazu-Oñati, 49-71 orr.
- 1984: “Fenomenologia”, in *Gaur egungo joera filosofikoak*, EHU, Bilbo.
- 1985: “Autonomia, independencia, derecho de autodeterminación y democracia”, in Askoren Artean: *Autodeterminación de los Pueblos: un reto para Euskadi y Europa*, I, Bilbo, 392-403 orr. (Herria 2000 Eliza taldeak “Congreso sobre los derechos Colectivos de las Naciones minorizadas de Europa” gaiaz antolatutako Batzarrean, Gasteizen 1985eko martxoan emandako hitzaldia).
- 1985: “Euskararen adierazpen soziala gerraondoan”, in Joseba Intxausti (zuz.): *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmoa. País Vasco. Realidad y proyecto*, II, EFA-Jakin, 392-403 orr.
- 1985: “Euskararen plangintzarako oinarriak” (Paulo Agirrebaltzategi eta Kike Amonarrizekin batera), *Jakin*, 34, 9-176 orr.
- 1987: “Eliz mugimenduak Euskal Herrian: Baseri Gaztediaren eta Eskualdun Gazteriaren kasua”, in R. Lopez Atxurra (zuz.): *Kultura eta portaera erlijiosoak Euskal Herrian historian zehar*, III, EHU, Bilbo, 181-204 orr. (Hitzaldia EHUko Udako V. Ikastaroan, Donostian, uztailaren 23an).

- 1988: "Nazio-arazoaren pedagogia: Irlandatik Euskal Herriara", *Uztaro*, 27, 19-32 orr.
- 1990: "El trato de Dios", in Luis Mari Mujika (zuz.): *Orixeren aportazio literarioak*, EHU, Donostia, 27-46 orr. (Hitzaldia Donostiako VIII. Udako Ikastaroetan, Miramar jauregian).
- 1991: "Euskal literaturaren irakurketa berezia", *Jakin*, 63, 53-57 orr.
- 1991: "Orixeren bizitza", in Paulo Iztueta (zuz.): *Orixen Mendeurrena (1988-1988)*, IV, *Hitzaldiak*, Etor/ Eusko Jaurlaritza, Donostia., 21-39 orr.
- 1991: "Orixeren estetika-ulerpenerako hurbilketa", *Hegats*, 4, 71-84 orr.
- 1991: "UBI-rako filosofi testuen itzulpena dela eta ", *Uztaro*, 2, 83-93 orr.
- 1992: "Alfabetatze eta euskalduntzearen prozesua hizkuntza normalkuntzaren ildotik: 1940-1992", *ELE*, 11-12, 69-89 orr.
- 1992: "Boterea Niccolo Machiaveli baitan", *Uztaro*, 5, 151-179 orr.
- 1992: "*Nicolas Ormaetxea Pellejero*", in *Auñamendi Entziklopedia*.
- 1993: "Euskal eskolaren bila", in Paulo Iztueta eta Felix Basurko (koord.): *Euskal Eskola Berria*, EHU, Donostia, 124-177 orr.
- 1993: "Euskal kulturaren kontraesanak", *Uztaro*, 9, 119-152 orr.
- 1993: "Euskal nortasunaren bila", in Joxe Azurmendi (zuz.): *Hizkuntza eta talde-nortasuna*, I, Donostia, 17-95 orr. (Hitzaldia EHU Udako Ikastaroetan Donostiako Miramar jauregian, 1993ko uztailaren 23an)
- 1993: "Hizkuntza eta boterea", *Bat*, 9, Donostia, 45-59 orr.
- 1994: "Euskal Eskola Nazionala eginkizun", *Bat*, 14, 123-134 orr.
- 1995: "Hizkuntza, hezkuntza eta boterea: euskal irakaskuntzaren atarian", in Jokin Apalategi eta Xabier

- Palacios (arg.): *Identidad vasca y nacionalidad. Pluralismo cultural y transnacionalización*, IENC, Gasteiz, 91-149 orr. (Hitzaldia Gasteizko Filologia eta Geografi-Historia fakultatean, 1993-12-3an).
- 1995: "Irakurketaren garrantzia giza garapenean", *Tantak*, 13, 7-27 orr. (Hitzaldia Tolosako Kultur Etxean).
- 1995: "Sociología de la alfabetización y euskaldunización (1940-1992)", in Paulí Dávila (koord.): *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria*, siglos XIX y XX, EHU, Bilbo, 313-360 orr.
- 1996: "Euskal eliza eta seminarioak frankismoan", in J. M. Torrealdei (zuz.): *Rikardo Arregi. Gizona eta garaia*, M. Larramendi Kultur Bazkuna, Andoain, 121-257 orr.
- 1996: "Irakaskuntza katolikoa Hego Euskal Herrian", *Jakin*, 95, 65-85 orr.
- 1997: "UPV/EHUren hezkuntza elebiduna", *Jakin*, 100, 19-33 orr.
- 2001: "Euskal elizaren barne-zatiketa frankismoan: erresistentzi mugimendu baten kronika", *Herria 2000 Eliza*, 172, 29-33 orr.
- 2001: "Kontrola eta boterea euskal irakaskuntzan", *Hik Hasi*, 54, 1-14 orr.
- 2002: "Euskal curriculumari eskola kentzen", *Hik Hasi*, 71, 8-17 orr.
- 2003: "Euskara eta euskal kultura": *Euzko-Gogoa*-ren erronka", *Gogoa*, 3, Donostia, 69-96 orr.
- 2003: "*Euzko-Gogoa (1950-59)*. Erbesteko euskaltzaleen lan kolektibo gitza", in Txomin Peillen (koord.): *Euskaldun etorkinak Ameriketan*, Utriusque Vasconiae, 135-156 orr. (Université de Pau et des Pays de l'Adour-ek antolatutako "Euskaldun etorkinak Ameriketan jardunaldiak/L'immigration des basques aux Ameriques" izeneko Nazioarteko Batzarrean, Baionan 2001-05-18an emandako hitzaldia).

- 2003: "Identitate kulturala eta boterea", *Uztaro*, 47, 97-110 orr.
- 2003: "Orixe erbestetuaren autoerretatuak", in Askoren Artean *Herri bat bidegurutzean*, Saturraran, Donostia, 39-73 orr. (Hitzaldia "Euskal erbesteratuen kultura" izeneko Jardunaldien barruan, Donostiako EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Gradu Gelan, 2000ko azaroaren 7an).
- 2003: "Sabino Arana eta bere eragina Euskal Pizkundean", *Euskera*, XLVIII-2, 849-930 orr.; halaber, in Askoren artean: *Sabino Arana Goiri: euskara eta kultura*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo, 849-930 orr. (Hitzaldia, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, 2003-XI-21ean).
- 2004: "Pierre Vilar eta Euskal Herriaren borroka. In memoriam (1906-2003)", *Uztaro*, 49, 89-119 orr. (Jokin Apalategirekin batera).
- 2004: "Soziologia", in Xabier Garagorri (zuz.): *Euskal curriculum: Kultur ibilbidea. Adituen ekarpena*, Ikastolen Elkarte/Eusko Jaurlaritza, 399-414 orr.
- 2005: "Jesuiten pedagogiaren eragina Lauaxetarengan", *Euskera* (Separata) L-2, 627-669 orr. (Hitzaldia Esteban Urkiaga "Lauaxeta" jaunari Mungian egindako omenaldian 2005-X-21ean).
- 2006: "Euskal curriculumaz ohar kritiko batzuk eta zenbait gogoeta", in Bego Bilbao, Karmele Perez Urraza eta Gurutze Ezkurdia (arg.): *Ikuspegi soziokulturala Euskal Herriko hezkuntzan, I, Hezkuntzaren gaineko berbaldiak*, EHU, Bilbo, 19-41 orr., Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo. (Hitzaldia EHUko Bilboko Irakasleen Eskolan, 2006an).
- 2006: "Euskarazko pedagogiaren erronkak gaur", *Uztaro*, 58, 89-102 orr. Hitzaldia Gipuzkoako Diputazioko Jaurgi aretoan 2006ko maiatzaren 26an).
- 2008: "Euskalduntzeko era berriak. Kuadrillategiaren esperimentzia", *Ikastaria*, 16, 65-79 orr. Eusko Ikas-

- kuntza, Donostia. (Hitzaldia Donostiako Miramar jauregian).
- 2008: “Irakasle-Eskolak Euskal Herrian: perspektiba eta prospektiba”, in Karmele Perez, Gurutze Ezkurdia eta Begoña Bilbao (arg.): Hezkuntzaren gaineko berbaldiak II eta III, 1-18 orr., EHUko Argitalpen Zerbitzua, Leioa. ISBN: 978-84-9860-183-1 (CD-Rom). (Hitzaldia EHUko Leioako Irakasleen Eskolan 2007ko azaroaren 28an).
- 2010: “Euskal Herriko irakaskuntzaren euskalduntzea eta euskal curriculuma” (Hitzaldia Leioako Irakasleen Eskolak antolatutako Hezkuntzaren Inguruko jardunaldietan, 2010-04-28an. Polikopiatua, 20 or.).
- 2013: “Frankismopeko euskal kulturaren kronika laburra”, lau ataletan zatituta argitaratua: I, “Kultur gertakarien interpretaziorako giltzak”, in Dabit Anaut (zuz.): *Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria*, Euskal Memoria Fundazioa, Andoain, 202-209 orr.; II, “Idatzizko letren ekarria”, ibid., 760-769 orr.; III, “Euskal letren eboluzio ideologikoa”, ibid., 824-837 orr.; IV, “Euskara batua gurutzebidean”, ibid., 862-873 orr.
- 2013: “Hezkuntzaren bidea testuinguru partikularretik unibertsalera”, in Aintzane Etxebarria, Urza Garay, Asier Romero eta Iñaki Gaminde (editoreak): *Ondareaz eta hezkuntzaz I. Jardunaldak*, 11-23 orr. EHUko Argitalpen Zerbitzua, Leioa. ISBN: 978-84-9860-815-1 (CD-Rom). (Hitzaldia EHUko Leioako Irakasleen Eskolan 2012ko azaroaren 15ean).
- 978: “Eliza eta politika Euskadin”, in Askoren Artean: *Herria-Eliza Euskadi Pueblo-Iglesia*, I, Auñamendi, 240-280 orr. (Coordinación de la acción pastoral de sacerdotes de las diócesis vascas” taldeak antolatuta, Bilbon 1977an emandako hitzaldia).

## Hitzaurreak, epilogoak

- 1965: "Hitzaurrea", in Luis Mari Mujikaren *Urdin eta burni/ Azul e hierro, Estetika jainkoratze almenetan/La estética en las energías de la Redención*, Auñamendi, Donostia, 8-23 orr.
- 1980: "Hitzaurre modura", in Paulo Iztueta (zuz.): *Politika Hiztegia*, I, Elkar/UZEI, Donostia, 15-28 orr.
- 1993: "Epilogo. Oharrak", in *Hezkuntza eta Soziologia*, Klasikoak, Bilbo, 131-175 orr. (Emile Durkhem-en *Éducation et sociologie* itzulpenari egindako epilogo eta oharrak).
- 2000: "Zorren aitorra", in Luis Baraiazarra: *Jon Lopategi, bertsozko mezularia*, Bertsolari liburuak, Andoain, 9-13 orr.
- 2003: "Hitzaurrea", in Bego Bilbao: *Curriculum eta kultura Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 13-17 orr.
- 2004: "Hitzaurrea: Euskal curriculum lorkizun", in Bego Bilbao, Karmele Perez Urraza eta Gurutze Ezkurdia (arg.): *Euskal curriculum ala Euskal dimentsioa curriculumean?*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 9-25 orr. ISBN: 84-933270-9-3
- 2004: "Hitzaurrea", in Gurutze Ezkurdia: *Curriculum eta ingurunea Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 11-16 orr.
- 2004: "Hitzaurrea", in Karmele Perez Urraza: *Curriculum eta testuliburua Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 9-14 orr.
- 2006: (2006): "Sarrera" eta "oin-oharrak", in Paulo Iztueta eta Ibai Iztueta (prest.): *Orixen Gutunak (1917-1961)*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 11-16 orr.
- 2007: "Sarrera: Lizardiren eskutitzak. Euskal Pizkundearen historia intimoa", Lourdes Otaegirekin batera), in Paulo Iztueta eta Lourdes Otaegi (prest.): *Lizardi. Gutunak (1928-1932)*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 9-21 orr.

- 2007: “Sarrera” eta “oin-oharrak”, in Paulo Iztueta eta Jon Diaz (prest.): *Jokin Zaitegi. Gutunak (1923-1973)*, I-III, Utriusque Vasconiae, 11-19 orr.
- 2011: “Atarikoak: Euskal Herriko hezkuntza-sistema nazionalaren bidetik”, in Angel Irigoras “Kaleko”: *Hezkuntzaren lekuko batzuk*. Zegama 2011, Erroteta, 11-24 orr.

## Paratutako testuak

- 1991: Nikolas Ormaetxea “Orixe”ren *Idazlan guztiak. I: Sorkuntzazkoak, II: Itzulpenak, III: Artikulu eta saiakerak, IV: Hitzaldiak*, Eusko Jauriaritza/Etor, Donostia.
- 2002: Nikolas Ormaetxea “Orixe”: *Euskal literaturaren historia laburra*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- 2002: Aitzol, Lauaxeta eta Orixe: *Testu hautatuak euskal estetikaz*, Utriusque Vasconiae, Donostia.

## Poesia

- 1965: *Mailuaz* poema (Donostiako “Atracción y Turismo”k 1965eko udan saritua).
- 1979: *Herbestean*, CAP, Olerkiak, Donostia, 56 or. (Irun Literatur Saria 1978an).
- 1979: *Ibiltari*, Elkar, Donostia, 134 orr.

## Itzulpenak

- 1960: Michel Quoist-en *Prières/Otoitzak*, Luis Maria Mujikarekin batera itzulia (Argitaragabea).
- 1977: *El marxismo la cuestión nacional*, Itxaropena, Zarautz. (*Marxima eta nazional arazoa* jatorrizko testutik itzulia).
- 1980: *Gaztelania-euskara, euskara-gaztelania*, Sopena, Bartzelona (Jatorrizko *Mi primer diccionario Sopena Vasco: diccionario infantil ilustrado castellano-vasco, vasco-castellano*-tik moldatua).

1993: Emile Durkheim-en *Hezkuntza eta Soziologia*, Klasi-koak, Bilbo (*Éducation et sociologie* jatorrizko testutik itzulia).

2008: Manuel Olasagastiren *Jainkoaz beste berri batzuk*, *Utriusque Vasconiae*, Donostia. (*Otras noticias de Dios* jatorrizko testutik itzulia. “Berrikusle” bezala datorrena da egiazko itzultzailea).



## Aitzinsolas<sup>1</sup>

Kazeta bat gehiago gure artean. *Zabal* du izena. Izana ere hala nahi luke; zabal mugaren gainetik bere begiradan eta, bide batez, zabal bere herri mezuan.

*Zabal* Ipar eskualdean sortzen da eta ez Hego Euskal Herrian. Bada horretarako arrazoirik aski. Besteak beste, Hegoaldeko produkziogintzaren ugaritasunak eskualde honetako ahuleziaren aitzinean paratzen gaitu. Izan ere, lumarik bizkorrenak denbora luzetxoan Hegoaldera begira egon dira. Eta hango plangintza kulturalak hemendik zerbitzatzen ari izanak ez bide dio mesede handirik egin eskualde honetako kulturgintzaren azkartzeari.

Gauza bistakoa da, bestalde, gazteria dela ari iratzartzen Ipar eskualdean. Aski nabarmena da ikasle giroan hauen kultur iraultza baterako lehia. Segur aski baluke multzo honek zer esanik, ez agian non esanik.

Kazeta honek, beraz, egoera berezi honetaz jabetzen delarik, Ipar Euskal Herriko indar bizieta finkatu nahi lituzke bereziki bere kultur ahaltasunak. Iparraldeko euskal kulturgileen indar sakabanutuak elkartu beharra kartsuki sentitzen du; honela, arian-arian, bertako hutsune kulturalak betetzen zerbait egiten ahal da. Zerbait egin Herriarekiko gure helburu aurrerakoiak martxan jarri nahi badira, beharrezko bilakatzen da luma berrien esku-hartzea. Pentsaera aitzindarien bideratzeko eta luma berrien bizkortzeko, beraz, lanabes hautatua dateke kazeta hau.

*Zabal*, Euskal Herria gizarte maila orotan deuseztatua den aldetik, herri zapaldu batek bizi dituen arazo kontrajarrietan kokatzen da. Ezin izan daiteke neutroa. Hori dela-eta, eta aurrez onarturik herri eta gizarte zapalduetako askatasun bidean sozialismoak

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 1, 1973, Baiona, 1-2 orr.

eta abertzaletasunak egiteko historiko bat betetzen dutela, *Zabal* kazetak bide horretatik abiatuz aztertuko ditu Herriari buruzko bere ikusmoldeak. Eginik du jadanik bere hautapen kulturala. Jomuga nagusi horren ildoan ez da izanen aurrez ezarritakoa duena besterik. *Zabal* ez da mugimendu politiko batekoa, elkarrizketan landutako pentsaera aniztasuna onartzearen fruitu baino.

Kazeta honen pausuak jarraituko dituen publikoarentzat ere xoko bat irekirik egonen da. Onartuko dira eta begi onez ikusiko berari eginen zaizkion oharrak eta kritikak.

*Zabalek*, egitura aldetik, badu Euskal Herria kulturalki hezur-mamitzeko bere bidea. Hona hemen zein den.

Lehenik, Euskal Herria bera du gogoan. Hemen, eta Euskal Herria bere osotasunean harturik, egungo problemarik larrienak emanen dira, etxeko kontraesanetan lehertzen direnak, hain zuzen ere. Gizarte mailako labe beroan girotzen diren gaiak oro izanen dira azterbide eta kritika-bide: arazo politikoak, sozio-ekonomikoak, erlijiosoak, pedagogikoak eta abar.

Ondoren, mundu zabalean xoko bat betetzen dugula jabeturik, nonahiko herrialdeetara hedatuko da gure jakin-mina. Hemen, gaurkotasuna luketen gaiak erabiliko dira: ideien inguruko gorabeherak, gertakizunak, albisteak eta beste.

Eta, azkenik, euskal kulturgintzako alorra landuko da. Euskaraz bakarrik egindako alorra, noski. Kritika aldetik joanen da batik bat gure ikerketa. Hemen egungo joerarik seinalagarrienak markatuko dira: literatur saioak, saiakerak, beste kultur agerbideak eta abar.

Hauxe da *Zabal* bere sorreran.

“Hik hari, nik hiri, ez dezagun egin gaizkirik inori”, erran zahar batek dioen bezala. Saia gaitezen bakoitzak duen onenetik ematen elkarren aberastasunerako eta herri beharren zerbitzurako.

*Paulo Iztueta (“Zabal”)*

# KULTURA SAILA



## Egungo kulturaren ildotik

Gerra ondoko isilune beltzaz geroztik landa makartsuan nekez eta dolorez ereindako kultur hazia egun da hasi loratzen. Eta loratze honekin batera kritikak ere hasiak dira beren esplikabideak zorrozten.

Lantxo honek, ohar kritiko zenbaiten alderditik doalarik, egungo kulturaz puntu zenbait baizik ez du aipatuko lehen saio honetan. Beste batean jarraipena emanen diogu<sup>1</sup>.

### Egungo kulturgintzaren hastapenak

Beharrari ematea, ereitea omen da. Beharrak agindu zuen noizbait euskaldungoaren kontzientzia. Hain zuzen ere, beharra da eragilerik bortitzena zerbaiten falta sentitzen denean. Behar hori –nolabaiteko beharra, noski–, haragi bizian sentitu zuen 1955-1960 garaiko gazteriak. Epe honetan ematen da 1936ko gerrarekin zuzenean zerikusirik ez zuen belaunaldi berriaren lehen matxinada. Matxinada hau batik bat ekintza politikoan agertzen da, baina, une berean, politikagintza hura hertsiki loturik zetorren kulturaren kezkarekin. Alderdi kultural honen oihartzunak, berriz, fraidetegi eta seminarioetan jasotzen dira kutsu berezi batez. Zentzu honetan, esan dezakegu lehen mugimendu honen hastapenak, idazten hasten den gazteria multzoari gagozkiola bederen, komentualak direla. Ikusi besterik ez dago non argitaratzen diren orduko aldizkari berriak, bata bestearen segidan, hor 1959-1060 urte aldera.

---

<sup>1</sup> Lehen artikulua honen segida da hurrengo zenbakian, 1973ko uztaila-abuztuko 2 zenbakian (47-57 orr.), datorren “Amorrazioa... Joerak eta zentsurak” izenekoa. Jatorrizko idazketan testu bakarra zen, gero, luzea zelako, bitan banatuta eman zena.

Sasoi honetan sortzen den euskal produkzioari *klerikal-kume* deituko dio, agian, halako ideologia batek. Beharbada, arrazoiz. Alabaina, guretzat ezaguna da “mandoak umerik ez, umearen minik ez” dioen esakuntza. Hemen arazoa da gauza handirik ez zen mementoan, ofizialki eta errealki nonahi zapalkuntzaren menderakuntza nagusi zen une itsusi hartan, zenbait talde nolabaiteko hazi baten ereiten hasi zela. Nola-halako hazia izateak baino gehiago zer-bait ereiteak axola zion gazteria hari. Dudarik ez dago komentu eta seminarioetako hazia ezin zitekeela izan klerikala baino. Ez zen horregatik, ordea, herririk gabekoa. Zehatzago esanda: Herria, garaiko teologiaren ikuspegitik begiratuta aztertzen zen. Ikuspegi hau giza eskubideen filosofian finkaturik zegoen.

Honela, bada, biluzik zenarentzat besterik ezeko atorraren soinekoa bezala zen orduko ekinaldi kulturalaren herri-erantzuna. “Nolabaiteko” erantzun kultural bat. Horixe. Eta hau esatean, ideologia konkretu batean baino gehiago baldintza historikoen inposamenduan pentsatzen dugu. Norbaitek egoki esan du: “Erlatibotasun eta absolutasunaren (sic) arteko harreman dialektikoa, aldian aldiko giza egoera bereziak muga dezake”<sup>1</sup>.

Izan ere, beldur gara erantzun kulturalak oro, berdin politikoak, historiaren ardatzetik begiraturaz gero, ez ote diren “nolabaitekoak” izaneren, eta izan atzo, gaur eta bihar.

1960-1965 urte-aldera, beste kultur mugida bat sortzen da. Uhin gazteago honen bultzada estra-komentuala da, edota hein handi batean seminarioak husten hasten direnetarikoa. Herri-arazoez lehen baino politizatuago agertzen da, han-hemengo ideologiez jantziago. Multzo honek, euskal kulturgintza gehienbat literatura erlijiosoan ematen dela ikusirik, bere gain hartu nahiko du epe honetako kulturgintzaren gidaritza ideologikoa. Kultura teokratikoaren kontrako bozak entzuten dira. Euskal kultura, halabeharrez, desteologizatzen hasten da. Kultur aparatua, ordea, klerikoen eskuetan geldituko dira oraino.

Egun, 1973an, eta bereziki 1969 urteaz gero, mugimendu bizkorra bezain ausarta nabari da euskal pizkundearen alde. Epe honetan talde kulturalak sortuko dira. Kultur giro bakoitzak bere aparatutxoak ukanen du. Erabiliko den bibliografia batik bat atzerrikoa da. Talde berezien joerak gero eta zehatzago definituko dira.

---

<sup>1</sup> *Anaitasuna*, 250, 1973, 2 or.

Euskal arazoa, oraingoan, nazioartekotu egiten da. Herritasunaren elementu determinatzaileak pentsaera mota nagusien kredoetara mugatzen dira. Egun ere honetan gara.

Euskal kulturgintzaren pizkunde mugida, beraz, oro har, hiru epealdiotan sailkaturik ikusten dugu. Epealdi bakoitzak du guretzat bere berezitasuna.

## Asimilazionismoaren kontra

Dena dela, atseginez dastatzen dugu egungo kulturgintzaren primadera; egiten diren ahaleginak ez dira hain ttipiak eta hain erdeinagarriak. Gogotik txalotzen dugu euskal liburutegietako hornidura. Pozten gaitu astero liburu bat argitaratzen dela jakiteak. Gorazarre, beraz, euskal produkzioan fermuki diharduten lankide guztiei. Gogoan ditugu eta aiputan egungo argitaletxeak oro, diskoetxeak oro, berdin aldizkari berriztatuak, beste kultur erakundeak eta ekin-tzak ere: Ikastolak, Alfabetatzeko kanpainak, kantu-festibalak, eta abar. Borondate oneko kulturgileen izenak beude idatzirik gure herri-kultura bere egoera ez-osotutik eta luzaro zapalduetik libratu nahiriko desiran. Lehenik sor dezagun, gero kritikatu ahal izateko, hazirik gabeko uztarik ez baita.

Ez dugu ahazten, gainera, ez dugu ahantzi nahi ere, euskal kulturak baduela bere berezitasunik egungo Herrigintzan. Alde batetik aski garbi dagoela dirudi, ezin pareka daitekeela euskararen egoera frantsesarekin eta espainolarekin esaterako, batez ere, kontuan hartzen bada gure Herriaren menpekotasun hain luze eta hain erabatekoa. Etsaiek, ez dugu esaten zein eta nola, ur xortak arduraren arduraz harria zulatzen duen bezalaxe, zulatu dute eta zulatzen datoz Euskal Herriaren nortasuna eta bere hizkuntza den euskara. Hemen, oraingoz, gure herri zapalkuntzaren egiaztatzea baino ez dugu egiten. Azterketa bereziek erakutsiko digute zein diren zapalkuntza horren kausak.

Menpekotasun hau erabatekoa da Bidasoaren alde bietan. Frantziako estatu parlamentarioak ez bide dio abantaila handirik kentzen Espainiako estatu faxistari. Demokraziaren izenak, beraz, ez dio mesederik egin, eta egiten, gure euskaldungoari; aldiz, kalte. Diogunaren adibide bat Ipar Euskal Herria litzateke.

Gure Herriaren aurpegia, oro har, deuseztatu eta ukatua delako, hain zuzen ere, maila orotako zapalkuntza honen ildo beretik berreraiki nahi dugu Euskadiren jabegoa. Beraz, frantses hala espainol asimilazionismoaren kontra ari diren euskal kultur ahalegin guztiak ontzat hartzen ditugu, gure Herriaren egoera honetan. Areago oraindik: *beharrezkotzat*. Bide horretatik zihoan arestian aipatzen genuen omena.

Honaino asimilazionismoaren ukapena egin dugu, ondo dakigularik, ordea, asimilazionismo horrek badituela egun moduak eta moduak, eta baita modak ere. Puntu honetara beste batean itzuliko gara.

## Legalitatearen mugak

Alabaina, euskal kulturgintza ez da problemarik gabekoa. Haurrak haz, penak has. Ez da idazten idaztearen amore platonikoagatik bakarrik, idazten da zerbaitegatik ere. Jadanik erreboltaz iratzartua da egungo euskal idazlea eta honen lumaren puntan pintaturik dago Euskal Herriaren irudia. Pintaturik, berak ikusten eta bizi duen bezala, berak nahiko lukeen bezala.

Bistatik urrun, bihotzetik urrunago. Hala esan ohi da eta ez da gezurra. Eta ikusi nahi duenak, kulturgintza seriozki planteatu nahi duenak, hor duke, han eta hemen, alde bietan, gure Herriak askatasunaren alde daraman borrokaren esperientzia. Odoletan bustitzen den lumak badakike produkzioaren alderdi legala eta ez-legalaren arteko zenbait bereizketa egiten.

Zapaltzaileen makinari ofizialki atxikirik dagoen kulturgintzak baditu bere neurriak, eta neurriok sarritan aski murrizak dira borrokan ari den Herri bati ahalik eta erantzunik osoena eman ahal izateko. Honekin ez dugu esan nahi panfleto politikoekin bakarrik kultur iraultza egina legokeenik. Kultur mota hori ere beharrezkoa bada, ez da, halere, aski. Bestalde, berriz, aparatu ofizialean soilik muntatzen den kulturgintzak ez duela etorkizunik uste dugu. Zeren, mementozko egoera soziologikoa gogoan hartuz gero, uste dugu objektiboki baldintzatua ageri dela ikertzaileen askatasun kritikoak, eta hau ez bakarrik propaganda politikoa delakoaren mailan bakarrik, baita saiakera eta bilaketa jardunetan ere. Zentzu honetan



zer pentsatua ematen digu euskal produkzio ia osoaren lekua Hego Euskal Herrian kausitzen dela konstatatzeak.

Egungo problemez, herri beharrizanez eta abar, hizkuntza ofizialean serioski jarduteak ez dirudi hain gauza bistakoa. Guretzat ez bederen. Etorkizunari begira –eta etorkizun hau ez da biharko geroa–, beste bide batzuk beharko lirateke hedatu, profesionalismoaren gaitza beharko litzateke nolabait sendatu.

Esplika dezagun “profesionalismo” hitza. Hemen ez dugu nehor salatzen euskararen edo euskal kulturaren profesionalismotik aberastu delako. Euskara ez da oraindik komertzial bilakatu, nahiz eta batzuek komertzializatu nahi izan badute ere. Gu, beste profesionalismo mota batez mintzo gara. Nolabait esateko, hau adierazi nahi dugu hitz horrekin: alegia, egungo aparatu gehienak, ia denak, harpidedunen iturri ekonomikoetatik bizi direla. Seguru aski ez ondo, gaizkia baizik, baina, azken finean, profesionalismo mota horri esker bizi dira. Ez goaz produkzio legalaren kontra, ez. Uste dugu alderdi hau ere beharrezkoa dela eta, posible den neurrian, azken mailararaino eraman behar dela. Maila horretan bakarrik gelditzen den profesionalismo hori ukatzen dugu hemen, kontsideramendu legal eta ekonomikoak gainditzen ez dituen kulturgintzaren hegi estatiko hori, hain zuzen ere. Zeren, bitartean, beste kultur ahalegin batzuek non zer esanik ez dute. Hau ere egia da. Horregatik, zentzu honetan, gure eskabidea eta kultur ikuspegia aitzinago doaz. Hala nola: baldin Frantzia eta Espainiako estatu ankerrek gure kultur iraultzaileari sostengu ekonomikoaren orde z menderakuntzaren prezioa eskaintzen badiote, baldin, bestalde, egungo pizkunde kulturalak Euskadiren etorkizun askean badu hasperen eta sinesmen, bidezkoa dirudi, ondorio bezala, legalitatetik uxatuek leku kultural bat izan dezaten, hauen boza ere Herriak entzun dezan.

## Izarrik gabeko ideologoak

“Berezia da literaturaren hizkera. Hitza hil egiten du letrak. Eguneroko hizkuntza zerbait bizia da, eguneroko beharrei oso hertsiki eta funtzionalki atxikia<sup>1</sup>.

Testu honek herri bizitza litzatekeen hitzetik abiatu nahi du. Zer nahiago! Ez dakigu, ordea, desafioz beteriko hitzaurre horrek

---

<sup>1</sup> *Euskal literatura* 72, Lur, 1972, 17 orr.

zenbaitetaraino dardarazten ote duen oligarken ganbara. Hiztegi ezkertiarrek ez bide dituzte guztiak berdin kolpatzen. Kasurako: Herriari buruzko geure jokabideak zein ikuspuntuak jadanik arras kontrajarriak daude. Herriaren hitza ere bai, noski.

Dударик ez dago kulturgileon mintegi sakratuan jorraketa baten premia bazela, eta badela. Ez gara gu azkenengoak izanen hau esaten eta konplikatzen. Herriaren egoera larriari erantzunik ahal bezain jatorrena eman nahi zaio. Egun-egunekoa. Sorginkeriarik gabekoa. Eta zientifikoa. Hala diote. Hala diogu. *Intelektual* izeneko kasta honela mintzo da. Intelektual handiak zein diren ere esaten da. Bestalde, normala den bezala, etiketarik ez da falta: bontzoak, mandarinak, boluntaristak, terroristak, pekindarrak, vatikanoarrak, Parisko goxistak, eta abar.

Zergatik dakargun hau guztia? Laburra da gure erantzuna: egungo eztabaida ugarien giro trumoitsu hau egoera berezi baten adierazpide dela iruditzen zaigulako.

Hain zuzen ere, 1969 urteaz gero batik bat, mugimendu politikoak azkartzen etorri dira, tirabirak sortzen, ideologiak markatzen beren trazak. Eta kulturgintza neurri handi batean politikazko tentsio honetan umotu da. Literaturazko zenbait pasarteri manifestu edo ageri nabarmen baten usaina darie. Zergatik? Euskal Herria bera, oro har, auzitan jartzen delako. Hementxe hasten dira gure Herri honekiko penak eta tristurak. Berriki esana izan da, alegia Euskal Herria BAT izanen dela, baina jadanik hasiak direla gure Herriari buruzko ikuspegi desberdinak kontrajartzen<sup>1</sup>. Pasarte honen egiatik ez dabilta hain urruti sistema eskolen defendatzaileak. Ikusi eta irakurri besterik ez dago liburu eta aldizkarietako literatura poxin bat: marxismoa, etnia, estrukturalismoa, sexua, pedagogia askatzailea, eta beste. Polemika giroa da nagusi, tesi konfesional bati beste tesi konfesional bat kontrajartzen zaio eta, une berean, elkarrekiko akonfesionalak eta kritikoak autodeklaratuko dira; hark honi heterodoxoa deituko dio eta honek hari ortodoxoa. Luma gehienetan satiraren pozoiz gaiztoz kargatzen da, gutxitan serioski arrazoituz, sarriagotan eztabaida pertsonifikatuz.

Has gaitezen esatera moderno zenbait elkar kontrajartzen, nahi bada kidetzen, ondoko atsotitz zaharrago honen gerizpean: “nahi duena esaten duenak sarriagotan nahi ez duena entzun dezake”.

---

<sup>1</sup> *Euskal literatura* 72, 12 orr.

“Herri triste batetakoa naiz ni. Han ez da izarrik; mendiz es-talirik dago Alegia, eta ez bide dira handik izarrak ikusten”<sup>1</sup>.

“Ez dut inolaz ere onartzen, Bontzo Nagusi edo Ekialdeko mandarin baten gisako arbuio eta portaera zital eta katedratikorik”<sup>2</sup>.

Testu horien egilea herri ikusle bada, nonbaitetik beharko du bere argia. Dena dela, Alegiatik haranzko eremu zabaletan itzalik gabeko eguzkirik ez omen da. Hala esaten digu esaera zahar batek.

“Eta nik galdetzen dut: Zer da euskaldun bezala jokatzea? Edo Espainol bezala, edo aleman bezala? Euskaldun bezala jokatzea, euskaldun bezala hitz egitea eta abar, esaldi sakratu bilakatu dira”<sup>3</sup>.

“Nik esaten dut eta idazten dut, esaldi horik desakralizatu, desdogmatizatu eta erlatibizatu egin behar ditugula. Eta, horretarako, biluztu”<sup>4</sup>. Autore honentzat ideologiazko garbiketa oso bat beharrezko egiten da, beraz. Horretarako euskaldungoari buruzko aburuak eta esakuntza tradizionalak biluztu egin behar dira. Halere, aitortuko du: “Honekin ez dut esan nahi, gu dogma, sinismenkeria edo ideologikeria guztietatik osoki libre gaudenik”.<sup>5</sup>

Esan ohi da azeri zaharrari ilea erortzen zaiola, baina larrua gelditzen. Biluztasun horretan Euskal Herriari zer gelditzen ote zaio? Hau da galdera, eta galdera honekin batera hara hor Euskal Herria problematizatuta, ezkerretik eta eskuinetik gainera, eta erditik ere bai seguru aski.

“Mitur bateko eta besteko integrismoak ere inoiz baino biziago daude; eta honek ere bere alde onak eta txarrak ditu. Arriskugarriak batez ere”<sup>6</sup>.

“Mitoak puskatu nahirik, mitogintzan ari direnak ere ba ditugu”<sup>7</sup>.

Testu horien bitartez eta ekar litezkeen beste gisakoez giro kultural bat azaldu nahi izan dugu. Egiazta ahal daiteke giro hau jora eta jokabide desberdineko herri azterketatik sortzen dela. Ez da batere harritzekoa. Egun maneatzen den bibliografia orain artekoa baino hedatuagoa da, iturri arrotzekoa gehienbat eta, hauen artean,

---

<sup>1</sup> *Anaitasuna*, 249, 1973, 8-9 orr.

<sup>2</sup> *Ibidem*.

<sup>3</sup> *Anaitasuna*, 248, 1973, 3 or.

<sup>4</sup> *Ibidem*.

<sup>5</sup> *Ibidem*.

<sup>6</sup> *Anaitasuna*, 249, 1973, 1 or.

<sup>7</sup> *Ibidem*.


frantsesa eta alemana ez gutxi. Honela, bada, Euskal Herria gustu guztietako ideien azoka bilakatu da. Azkoitiko zalduntxoen garaiko oroitzapenak datozkigu gogora.

## Azken galdera

Azken finean, galdera honek biltzen duela dirudi eztabaiden zio luza: *zer da Euskal Herria?* Guk ere ez dugu dudatzen galdera hori seriosa ez denik. Eta biziki seriosa delako ez dugu sobera txalotzen azkenaldiotan idatzi den kritika negatibo joerakoa. Askoz jatorragoa litzateke norberaren mugak onartuz gero bakoitzari berea ematea eta ez gai eztabaidatuak literatur gai bihurtzea. Hiru gutxik eta hiru anitzek galdu omen zuten gizona: gutxi ukan eta anitz gastatzeak, gutxi jakin eta anitz mintzatzeak, gutxi izan eta anitz izan usteak. Badukegu esaera horretan zerbait ikasteko. Ordu da kritika osagarri bati ekiteko. Ideologo ahaideen kapitalismoarekin hautsi behar da, hau baitugu mitorik berriena. Mito honen lurrunetan ikonoklasta berriak aldarera igo ditugu.

*Herri* kontzeptuaz oso gutxi idatzi da, guk dakigularik bederen, ez noski interesantea ez delako, gai hori errotik aztertzea aski zaila delako baizik. Euskal Herria askatu behar dugula diogunean herri gintzaren zimenduetaraino sartzen gara, eta herri teoriari buruzko zola ilun horretan ez da oro oskarbi, ez ilargi bete, ez da apriorismorik gabeko astrorik. Gaitz-erdi han eta hemen atzemandako zenbait teoria eta sistemarekin erantzun prestu bat aurki ahal baledi. Baina, esan dezagun, frogantza mota hauek argibide fruitutsu direlarik ere, ez zaizkigu horregatik soluziobide konbentzigarri. Eta oraindano Euskal Herriari emandako erantzunak nonbait erosiak dira, batez ere politika eta ideologia mailakoak. Erdi Aroko ideia unibertsalek badute oraindik gugan zuztarrik.

*Paulo Iztueta (“Meakaberri”)*



## Jokin Apalategi Begiristain

### Ibilbide profesionala

Ataunen sortu zen 1943an. Hogei urterekin Euskal Herria nazio bila zebilen etnia bat zela ediren zuenez gero euskal nazioarentzat estatu propioa sortzeko ahaleginean, Parisko unibertsitateetan giza eta gizarte zientzietan ikasketak burutu eta euskal kultur politikan militante, organizatzaile eta eragile bilakatu zen.

Psikologia Sozialeko Katedraduna, Antropologiako Titularra, Soziologian Doktorea, Parisko Goi Ikasketako Sozialen Eskola Praktikoan Diplomatu, eta Filosofian Lizentziatua da. Goi heziketa aroan, irakasle-zuzendarien artean Alain Touraine, Pierre Vilar, Nicos Poulantzas, eta Paul de Gaudemar, eduki zituen, besteak beste. Idazle eta Unibertsitateko irakasle-ikertzaile bezala gauzatu du bere curriculumik oparoena, baina kultur gintzako beste hainbat ekimenetan partaide izateagatik ere nabarmendu da. EHUn, hogeita hamar urtez, "Soziologia orokorra", "Gatazken azterketa eta konponketa", "Mugimendu Sozialen Psikosoziologia" eta "Antolamenduen Psikosoziologia" erakutsi ditu. Aldizka ere irakasle izan da Pabe eta Aturriko Unibertsitatean, Toulousekoan, Perpignanekoan, eta abar. Gainera, Zabal liburudendaren, eta Elkar argitaletxe kooperatiboaren sortzaile-kudeatzaile, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutuaren eta izen bereko argitaletxearen sortzaile-kudeatzaile, UEUko *Uztaro* aldizkariaren Zuzendari, Gerriko Ikerlan Bekako epaimahaikide eta argitalpenetako Zuzendari Zientifiko eta Utriusque Vasconiae argitaletxearen sortzaile eta zuzendarikide da. Ibilbide horren lekuko

idazle-irakasle bazela ekoiztutako emaitza nagusienak laburbiltzen dira ondoko ataletan.

## Liburuak

- 1974: *Marxismo eta nazional arazoa Euskal Herrian* (Paulo Iztuetarekin batera), Zabal, Baiona.
- 1974: *Sei idazle plazara*, 2 tomo (Paulo Iztuetarekin batera), Jakin, Arantazu-Oñati.
- 1977: *El marxismo y la cuestión nacional vasca* (Paulo Iztuetarekin batera), Itxaropena, Zarautz.
- 1977: *Nationalisme et question nationale au Pays Basque (1830-1977)*, Elkar, Baiona.
- 1978: *Askatasunaren ibilaldia /Marcha de la libertad/ Marche de la liberté* (José Luis Ruiz Larzabal, Anton Agirre Sorondo, Patxi Maritxalar Leifienarekin batera), Elkar, Donostia.
- 1979: *Los vascos, de la nación al Estado*, Elkar, Donostia.
- 1983: *Euskal Herriaren oihua*, Conception SCOOP, Baiona.
- 1985: *Julio Caro Baroja. Premio Nacional de las Letras Españolas* (Joxemartin Apalategi, Antonio Carreira, Jesús Antonio Cid, Davyd J.Greenwood-ekin batera), Anthros, Barcelona.
- 1985: *Los vascos, de la autonomía a la independencia. Formación y desarrollo del concepto de la nación vasca*, Txertoa, Donostia.
- 1987: *Euskadi guduan/Euskadi en guerre/Euskadi en guerra* (Alfonso Sastre, J.L.Davant, J.L.Cereceda, M. Castells-ekin batera), Ekin, Baiona.
- 1987: *Gatazka eta bortxa*, Kriselu, Donostia.
- 1989: *Herria: sistima eta teoriak*, Kriselu, Donostia.
- 1989: *Soziologia orokorra*, UEU, Bilbao.
- 1992: *Sociología de una nación en movimiento*, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Vitoria-Gasteiz.

- 1999: *La anticipación de la sociedad. Psicología Social de los movimientos sociales*, Promolibro, Valencia.
- 1999: *Psicosociología de los movimientos asociativos vascos: sus representaciones sociales*, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Vitoria-Gasteiz.
- 2001: *La idea de nación en los niños vascos. Adquisición y desarrollo del concepto de la nación en la infancia*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- 2002: *Haurren nazioak. Solasaldiak*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- 2006: *Aitona gurearen Makilakixki*, (Joxemartin Apalategi, Jaionen Apalategi, eta Ur Apalategirekin batera), Utriusque Vasconiae, Donostia.
- 2006: *Los vascos, de la nación al estado* (Berralgitalpena), Herritar Berri S.L.U., Astero, Colección "Erroak", Iruñea.
- 2013: *Euskal Herriaren emantzipazioaz*, Utriusque Vasconiae, Donostia.

## Itzulpenak

- 1984: Jacques Blot-en *Les bergers basques*; Gazteleraz *Los pastores vascos* Elkar, Baiona-Donostia, 200 orr.
- 1985: Claude Lévi-Straussen *Race et histoire* euskaraz *Arraza eta kondaira*, Kriselu, Donostia, 111 orr.
- 1985: Claude Lévi-Strauss-en *Anthropologie structurale* liburutik *Langage et société, et Structure et dialectique* atalak euskaraz *Gizarteen jakintzak*, Kriselu, Donostia, 97 orr.
- 1991: Javier Palacios, J.L.Villacañas e Isidoro Regueraren *Textos de Filosofía* euskaraz *Filosofía testuak*, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, Bilbao, 550 orr.
- 1996: Euskarazko testua. *Edición cuatrilingüe preparada por Javier Palacios de l'Instruction d'un père à son*

*filis sur la manière de se conduire dans le monde, de Jean-Jacques Rousseau*, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Gasteiz-Vitoria.

## Artikulu nagusiak

- 1978: "L'état actuel du mouvement abertzale du Pays Basque Nord", *Le Peuple Breton*, 223, 15-22 orr.
- 1978: "Nicos Poulantzas soziologoa hil zaigu", *Jakin*, 12, 138-146 orr.
- 1984: "Marxismoaren sisteman nazioarentzat tokirik bai ote?", *Jakin*, 30, 49-74 orr.
- 1986: "Euskal nazio ideia modernoaren eta lehen nazionalismoaren bilakaera historikoa", *Revista Internacional de Estudios vascos*, 34, XXXI, 1, 57-75 orr.
- 1987: "Mende honen hastapeneko euskaldungoaren giro ideologikoa", *Zientziartekoa*, II bol., 1, 25-36 orr.
- 1989: "Abertzaleen elkarte bizitza gaurko Iparreuskalerrian", *Herria 2000 Eliza*, 104, 23-26 orr.
- 1989: "Bizitza politikoa eta abertzaletasuna euskal historiografian (1960-1988)", *Jakin*, 55, 81-130 orr.
- 1989: "Commentaire sociologique du texte "Nation, Classe et Révolution. L'expérience d'ETA." Michel Wieviorka-ren *Sociétés et terrorisme* obraren kritika, Euskadi Information, 61, 17-22 orr.
- 1989: "Die Basken in Frankreich 1789 und heute", *PROGROM*, 146, 20, 26-31 orr.
- 1990: "La conscience collective basque en France: de 1789 à nos jours", *ARFALZ*, 69, 17-27 orr.
- 1991: "Gaurko gazteriaren dibertimenduak irudi bizien metodoaz", *Uztaro*, 1, 139-169 orr.
- 1992: "Bidea eta bidailariak", *Aventures d'artistes sur les chemins (vers Saint Jacques de Compostelle)*, 1-7 orr.
- 1992: "Euskarazko kulturaren geroa Europa berriaren tenorean", *Uztaro*, 4, 155-162 orr.



- 1992: "Nationalismes: libération ou oppression?", *Euskadi Information*, 75. Dossier-separata 8 orr.
- 1993: "Langabezia: langabetuen psikosoziozia", *Uztaro*, 8, 133-163 orr.
- 1994: "El rol de los valores en los movimientos sociales. Aportaciones psicosociales", *Herria 2000 Eliza*, 133, 39-44 orr.
- 2008: "1968ko maiatza Parisen", *Nondik*, 29, 11-13 orr.
- 2008: "Erramun Baxoki gutun xumea", *Bat Soziolinguistika*, 67, 49-51 orr.
- 2008: "Identitate linguistikoa (lela) Euskal Autonomi Erki-degoan (EAEan)", *Bat Soziolinguistika*, 67, 131-148 orr.
- 2009: "Victor Hugo (1802-1885) eta gu geu", *Hegats*, 43, 33-42 orr.
- 2009: "Goierriko egitura industrialaren erradiografia", *Uztaro*, 68, 107-110 orr.
- 2012: "In memoriam. Txillardegi (Jose Luis Alvarez Enparantza, Donostia, 1929-2012)", *Uztaro*, 80, 5-10 orr.
- 2012: "Transformaciones en el proceso de morir: la eutanasia, una cuestión en debate en la sociedad vasca" liburuen aurkezpen-kritika, *Uztaro*, 83, 115-121 orr.
- 2013: «On Jose Migel eta mundu moderno», *Euskonews*, 0680 zbk. Ed. Digitala: 2013/12/25-2014/01/08
- 2014: "Utzak ona hobeagatik", *Ortzadar, Noticias* taldearen gehigarria, 2014-12-27a, 383)
- 2014: «In memoriam. Jean Haritschelhar», *Uztaro*, 88, 99-105 orr.
- 2014: Hiart Etxepeteleku, Hiart eta Mara Jose Azurmendi-ekin batera, "Des minorités en quête de survie", in *Congrès de l' Université de Perpignan, 2012. Édition Les Cahiers Européen des Sciences Sociales 4, 2013)*
- 2014: Hiart Etxepeteleku, Maria Jose Azurmendi eta Nekane Larrañagarekin batera, "Stratégies d'accul-

turation des groupes immigrants au sein de la Communauté Autonome Basque (CAB)”, in *Congrès de l’Université de Perpignan, 2012*, Edition *Les Cahiers Européens des Sciences Sociales*, 4, 2013).

## Kultur mugimenduaz ikuspegi politiko bat. Nota labur batzuk<sup>1</sup>

Kultur mugimenduaz dugu solasa eta berari lotuko natzaio.

Hasteko, agerian den konstatazio bat: azken urte hauetan euskal kultura bide eta abiada azkarrez aitzinatzen doakigu. Herria, bere gatazkan aurrerako pausuak ematen ari den heinean, kulturazko botereaz jabetzen ari da. Ez da dudarik; zenbaitetan polikiago, bestetan azkarxeago; baina, halaxe da. Pixkanaka-pixkanaka, Euskal Herri osoan sortzen hasi ziren eta egun nagusi ditugun ikastolak lekuko. Edo alfabetatze-euskalduntze alorrean sortu diren, argitale-txeak, kazetak, gau eskolak, sozial eskolak eta abar luze bat.

Ez nator orain horien soziologia egitera. Ezina nuke kultur agerpen guzti horren azterketa serioarik egitea. Alegia, perretxikoak bezala “sortu” zaigun hainbat kultur emaitza konfusioan, nahasmenean eta desordenuan sarturik ditugula. Xeheago eta zuzenago, memento larri bakoitzeko beharrei, izerdi franko bota ondoren, puntual erantzunak emanaz ihardetsi diegunez gero, egun hortxe dakusagu nola geure euskal produkzioa plangintza baten premiarik premiatsuenean dagoen, taxuz eta efektibitatez, xedeak ongi markaturik aitzina jo dezan borrokan.

Honetarako, kultur eta politikazko planteamendu eta programaketa oso baten beharra dugu. Gaurkoz, nik dakidala, existentziarik ez duena. Esan nahi baita, abertzalego sozialistaren mailan. Zeren, jakina, gure herrian mugitu den eta mugitzen den beste hainbat indar politikoren baitan horrelakorik ikusiak baikaude.

Etsai nagusiak, dudarik ez, espainol eta frantses oligarkia kapitalistak ditugularik, euskal kulturaren ukazioa erroetaraino sufritu dugu duela guti artio. Gaur zenbait gauzatxo erdietsia badugu, herria-

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 10, 1974ko Hazila-Abendua, 37-41 orr.

ren eta, bide okerragotik ala zuzenagotik, haren abangoardia politikoa izan den organizazioaren guduari zor diogu.

Jakina, ez gaude egun orain dela 20 urteko egoeran, 12 eta 10 edo 4 urtekoan ere. Etsai nagusitik harat badu euskal proletalgoak areriorik. Behar da honetaz analisisa zehatzik egin noiz norekin noren kontra gudukatu behar den jakiteko.

Dena dela, kultur alorrera gatozlarik –eta bereziki Hego Euskal Herrira mugatuz–, bistan da euskal proletalgoaren aldeko hautapen politikoa egin dugunontzat, ez digutela balio euskal eskuinean (ertzetik) EAJk agertzen dituen planteamenduak eta aitzina daramatzan ekintzak. Areago, zuzenago esanez, uste dut hainbat eta hainbat mailatan (guztietan, agian ez bada ere). Kalte izugarria egiten digutela, etsai nagusiaren jokoari frankotan bideak irekiaz, halatan etsaiarekin aldiz etsaikide bihurtzen delarik.

Euskal eskuinean (ertzeko) jotzen badut EAJ, hain zuzen eskuinean (gutxienez, ezkerretik baino hurbilago) beste talde batzuk kultur lanean ditugulako da. Ez dut uste ere, E.L.A.koen kultur praktika edo zenbait taldexkatxo kulturalistaren kolpetxoak euskal proletalgoaren interes funtsezkoen harian doazenik. Euskal burgesia ttipitik hurbilago daude, ene irudiko.

Ezin ahantz ditzaket, bestalde, beren buruak espainol ezkertzat dituzten Alderdi Komunistaren edo/eta Alderdi Sozialistaren joko lotsagabeak. Ez dute, zorionez, euskal kulturari indarririk, hizkuntza eta herri inplantazioa baitituzte oztopo. Menturaz, lanjerosago dateke hainbat talde espainolista eta ultraezkerkerian murgildurikoaren lana. L.C.R.-VIa Asambleatik H.C.E.ra. “Minoritarioetatik” eta bestetatik pasatuz, bazuten duela hiruzpalau urte egun baino kemen gehiagorik. Borrokan aitzina goazen heinean, agerian azaldu dira lehen ezin ezkutaturik ibili dituzten interesak nahiz manejoak zeinen zerbitzutan zeuden: objetiboki, burgesia espainol ttipiaren defentsan ari dira, beste lelorik badiote ere. Noski, herriaren nazio zanpazioa gogoan hartzen badugu batetik, eta euskal burgesia ttipiaren sektore batzuen kontzientzia guztiari langile immigratuen (gehienean, oso eskas politizatuak laborantza girotik datozenek) egoera eranstean badiogu bestetik, badukegu hortxe analisisa baten printzipioa, delako talde politiko horien lan osoak –batik bat kultur lanak–, memento batez ukan duen arrakasta esplikatzeko.

Honetatik guztietatik hauxe azpimarratu nahi nuke. Guri horitik kalte anitz etorri zaigularik, ohartu garelako horien lanen efektibi-

tatearen kausarik nagusienetako bat zera zela (neurri batez oraino ere dela) euskal kultur produkzioarekiko programaketa bat, antolaketa lan bat, planteamendu logiko eta politiko koherente bat... eta finantzaketarako iturri jori bat.

Gu, berriz, orain arte hor ibili gara zera, guztiz kontent giro bat alde bagenuelako, edozein modutan ere indibiduo batzuk lanean ikusten genituelako... eta nehor dudan bazegoen militar kolpeen faltarik ez ukanik, gauzak poliki-poliki eta berez, Lourdesko mirakulu batez edo, beren onera etorriko zirelakoan. Horrekin aski balitz bezala!

Gaur, euskal kultur mugimendu sozialista baten beharra garbi ikustera heldu gara. Esan nahi baita, esku artean erdi espontaneoki edo aski indibidualistiki ditugun lanen koordinaketara, saretzera. Euskal kultur mugimendu sozialista diot, eta ez euskal sozialista kulturaren aldeko mugimendua, azken hau nola teorian hala praktikan ultraezkerreko (azken finean, eskuineko) desbideratzea baita, ene irudiko.

Euskal kultura indartzeko, behar dituen erakunde eta aparatuetan bilakatzeko, egun ez da beste alternatiba efektiborik sozialista bidean doana baino. Mugimenduaren noranzkoa dateke sozialista eta ez kultura bera, halatan euskal proletalgoaren eta herritar klaseen nazio eta klase interesak eraman baititzakegu aitzina.

Jakina, berriro azpimarratu nahi dut estrategia orokor baten barnean eta taktika xehe baten barnean, egiturei eta koiunturei behatuz, behar dela jakin norekin noiz bat egin eta zertarako. Ez naiz ni nor hau gehiago mugatzeko.

Behar ditugu, beraz, bidea egiten goazen heinean, euskal kultur mugimendu sozialistaren xedeak argi markatu, gure kultur borrokaren zer-nolakotasuna ongi mugatu. Lanerako eremu zabalik ez zaigu falta. Baina gaur bertan esku artean dugunetik, funtsezkoena izanik bestalde, hasi behar. Eta ez dut uste zalantzatan denik egungo euskal kulturaren ardatzik garrantzizkoena ikastolen, alababetatze-euskalduntzeen eta kazeten, nahiz argialetxeen inguruan finkatzen dela. Honetaz, helburu, bitarteko eta premia xeheagoez badukegu zer mintza eta zer erabaki.

Euskal kultur mugimendu sozialistaren xede eta bitartekoak pixkanaka zehazten joan behar dugunez, ez da hau instant batean egiten dena. Kultur borrokaz planteamendu oso baten premian gaude. Zein da borroka sail honen funtzioa eta lekua iraultza osoa-

ren barnean? Beste modu batez esan da: kultur eta politika egiturei behatzen diegularik, nondik bideratu behar dira kultur borrokak? Nondik abaiarazi bere pausu konkretuak mementoko kultur eta politika koiunturan?

Batek baino gehiagok aisa erantzun die galdera hauei, dioelarik kultura gainegiturako errealitate bat dela, areago gainegitura “metafisiko” bateko “epifenomeno” bat. (Ez pentsa hau horrela adierazten badut, karikaturarik egin nahi dudalako denik. Formulazioak, beren horretan, maiz aski plazara agertzen ez bazaizkigu ere, beroien mamia sarri askotan atzemaña dugu). Horrelakoei, bada, kultura proletarioaz edo sozialistaz hitz egitea zilegi zaie, non teorian desbideratzen direlarik eta praktikan bidegabekerietan jausten direlarik. Faltseria hau oraino bizirik dugu gure herrian, indartsu dugu bere bariante ezberdinetan (gainera, gehienetan politikari –hau bai gainegiturala dela–, bere autonomia erlatiboa eman beharrean, zeharoko autonomia absolutu bat eskaintzen diotenen artean, praktikan bederen)... Badukegu hemen zer emendatua.

Horregatik, ene iduriko, kultur borrokaren egungo lanik premiatsuena koordinatatzkoa, sareketatzkoa bada ere, –esan nahi dut geuron erakundetzezkoa–, ez dateke hau posible aldi berean teoriarako mistifikazio ideologiko eta praktikazko joko maltzur anitzen kontra aritzen ez bagara. Ez dut hau gehiago mugatzen, denon artean ikustekoa baita.

Hartaz, beste puntu honetara pasatzen naiz: zergatik eta nola politikan, teoria izkribuetan nahiz praktika eginahaletan, abertzale sozialista definitu den abanguardia –E.T.A.- ez den aldi berean, nola kultur borrokaren planteamenduaz hala bide praktikoen lortzeaz nehoiz serio samar kezkatu?

Uste dut denok ados etorriko zaretela zera hau badiot, alegia E.T.A.ren historian ez dugula ezagutu kultur ekintzetarako programaketa izenik mereziko lukeen zerbait. Egia, betidanik edo planteatu izan da –esate hutsaren mailan gehientsuenetan– halako Kultur Frentearen beharra. Guztiok ezagutzen dugu zein izan den honen emaitza. Aski alferrikako deritzat honetaz intsistitzeari. Ez, kultur lanean ibili den militanterik ez da falta izan, ez eta lan baliosik egin duenik. Haatik, guti izan dira, isolatuak askotan, eskuetan plangintzarik gabe, aldi berean beste militante lan batzuk ere eginaz. Bistan da, ia beti herri beraren, eta edo nola militante ez zirenen, kultur arrapostuak aitzinagotik zihoazkien.

Duela 10 bat urte edo 6 bat urte oraino konprenigarri zitekeen egoera hau, gaur konprenigaitzago egiten zaigu, ez badugu behintzat horren kausarik nagusienetarikoa agerian jartzen.

Badakigu denok 1970ean zer-nolako zatiketa gertatu zen E.T.A.n. Handik gerorako bilakaera ezaguna dugu. 1971tik 1973ra E.T.A. izenarekin abertzale sozialista mugimendu baten indartzea dakusagu. Azpimarratzekoa hauxe da: delako hiru urte hauetako prozesuan abertzalegoaren eta espainolismoaren arteko borrokan biziki markatu duela organizazio osoa, bai bere egituren mailan, bai sortu duen militantearen tipologian. Gehiago, borroka hori batez ere Militar Frontearen inguruan soluzionatzen denez (izan ere, likidazionista jokabideak militargintzaren aurka azaltzen baitira), ez da harritzekoa organizazioaren egituretan Militar Frontea gelditzen bada nagusi.

Fronte horren nagusigoaren pean asmo eta borondate onik ez da falta izan. Gaineratiko Fronteak indartuak izango zirela esperantza zabaldu nahi zen. Organizazioaren pisua, ordea, –bidenabar zuzendaritza pisua– Militar Fronteak darama. Hartan, kultur eremuari gagozkiolarik ia dena, dena, dago egiteko.

Egia da, bestalde, teoria analisietan argi bezain argi baieztatzen dela Fronte ezberdinek eguneroko lanean ezinbesteko duten autonomia. Praktikan ez da horrelakorik jazotzen, egiturazko erru konstante bat dela bide: Militar Frontearen erabateko nagusigoa. Agerian da honek dakarren ondorio guztiz lanjerosa zein den: zera, organizazioa (E.T.A.) Fronte bakar horrekin identifikatzekoa. Halatan, Militar Frontearen bilakaerarako gainontzeko orok egin dute lan; aski sarri lan eskusiboa.

Ez da batere harrigarri gertatzen, orduan, gaur Militar Fronteak zeharoko hegemonia posizioa erakusten badu organizazioaren egituretan, oker honen errua militante konkrituak ezik, zuzendaritza berak ere baduelarik.

Gauzak horrela, militartzea eta paramilitartzea ukaezineko errealitate bat bilakatzen da eguneroko praktikan. Bistan gelditzen da, beraz, Kultur Frontearen autonomiarik eza, Fronte honetaz mintzatzerik dagoen heinean behinik behin.

Egun horrelaxe gabiltza 1973ko VI Batzar Nagusiaren Lehen Parteak esperantza berriak sortarazi nahi bazizkigun ere –tamaina batez lortu zuena–, gaur lehengo bideetara itzuli garela ohartu gara. Iazko udako hitz leunak eta promesa gozoak ez ditugu lanean erres-

petatuak ikusi, arras alderantziz baizik. Kultur Frentearen autonomia pikutara bota nahi izan da, kasik lanean hasi orduko. Hori, gainera kultur mugimendu honen lehen plangintza ia kanpotik eskainia ematen zitzaiolearik organizazioari.

Hartaz, geroztik nahasmenduen faltarik ezin zitekeen izan. Jakineko da azken urte hau oso kritiko izan dela organizazioarentzat, lehendik lehertzeraz zetorren egonezin anitz bertan lehertu delako. Kultur mugimenduari lotzen bagatzaizkio, azaleko fenomeno eztabaidatsu batzuen azpian eta indibiduo konkretuen atzean<sup>1</sup>, konponezineko planteamendu ezberdinen konfrontaketa nabaritzen da. Ez politika teorizaketan, bai ordea kulturgintza aurrera eramateko lan formen ikusmoldeetan.

Egun, zein dateke, bada, gure eginkizun nagusia? Ene irudiko, hitz bakar batez adieraz daiteke: antolaketa, euskal kultur mugimendu sozialistaren antolaketa. Hasiera beretik, autonomia osoz jokatu duen E.K.M.S. Autonomia osoz diot, eta horrelaxe nahi nuke azpimarratua dadin. Zeren, hemendixe bertatik baztertu nahi dut halako mesinterpretazio gaizto bat, zeinak bat egiten baititu autonomia eta separakuntza.

Ez dugu nehola E.K.M.S. separatu baten premiarik, desbideratze kulturalista arbuizatzen bat gatozenez. Gure herriko kulturgintzako entseguetan korporalista posizioarik aski ezagutu dugu. Sobera dugu horretatik.

Haatik, ezin ahantz dezakegu gaurko baldintzetan –herriaren nahiz organizazioaren mailakoak– autonomiaren lehen errekerimendua zein den: hain zuzen, geu geure kabuz geure indarretan uztar-

---

<sup>1</sup> IRATI sailaren kasua da aipagarriena. Euskal idazle talde batek Hego aldeko zentsurari ihes egin beharrezko liburua argitaratzeko ideiatua. Diru arazoa zuelarik euskal erresistentziako antolamenduei laguntza eskatu zitzaien. Laster, hemen orain, aipu den antolamendua ordaintzeko eskaini zen. Idazleek beren lanak ezere baldintzarik gabe eskaintzen zituzten. Irabaziak ala galerak, delako antolamenduaren kargu joango ziren. Idazleei beren lanak argitaratzea zitzaien axola bakarra. Guztia martxan jarririk zegoela eta lehen liburua maketaturik, delako antolamendu horretako jaun bat ondoko baldintza hauek jarriaz agertzen da:

1. Lanen autoreek ez dute beren egiazko izen eta abizenekin izenpetuko.
  2. Bigarren lanetik hasita aterako diren liburuen aukera eta zentsura delako antolamenduko batzorde batek egingo du.
- Hau horrela gertatuz geroko historia guztiok ezagutzen dugu guti gorabehera, hau argitaratzen dugun aldizkari honetan. IRATI saileko autoreek, beren autonomia gorde nahirik, diru arazoa berek beste modu batera soluzionatzea.



tzen hastea. Gerora –noiz ezin egin xeheki muga, zenbait gauzaren funtzioan denez, hala nola organizazioaren bilakaera, geure lanen fruitua eta abar–, gerora, bada, behar den programa zuzenean bat egingo dugu gaineratiko adarrekin, iraultza osoaren zuzendaritzak derrigorrezko duen koordinaketaren mailan. Horretarako, ezinbestekoa dugu orain geroztik beste adarretan militatzen dutenekin harreman politikoetan erlazionatzea. Ez hainbat, gaurkoz, adar zuzendaritzatik adar zuzendaritzara, lehengo bide faltsuetan erori nahi ez badugu gutxienez.

Guzti honek planteamenduen sakontzera garamatza. Politika harremanak eta politika programaketak analisi zehatzik eskatuko digute, segur. Agerian da kultur iraultzak honen barnean kokatuz bakarrik jo dezakeela aitzina.

Ez dukegu lan guti guzti hau aurrera eramaten, kulturgintzak behar duen militantearen tipologia zedarritzen eta nahitaezko den diziplina mailaz maila mugatzen.

*Jokin Apalategi (Izenik gabe)*



# POLITIKA SAILA





## Beñat Oihartzal Bidegorri

### Ibilbide profesionala

Beñat Oihartzabal Bidegorri Parisen jaio zen 1948ko martxoaren 17an. Euskal idazlea da, euskalaria, Zuzenbideko lizentziaduna, Euskal Ikasketetan doktorea eta Frantziako Estatuaren CNRS ikerketa erakundeak Baionan duen IKER guneko ikerketa zuzendaria. Euskaltzain oso izendatu zuten 1990eko irailaren 28an. *Zabal* aldizkariaren zuzendaria izan zen lehen 1-6 zenbakietan.

Aita hazpandarra eta ama heraiztarra, euskara entzun du ume-umetatik, Parisen bizi zela ere, eta are gehiago oporraldietan Euskal Herrira etorri eta aitatzirekin izaten zelarik. Eskolara joanda, ordea, euskara arrotzu zitzaion: hogeitertietan, euskara ulertuagatik, ez zuen trebetasun handirik euskaraz aritzeko. Beraz, euskararen zaletasuna piztu zitzaionean, 1970eko hamarkadaren hasieran, Nafarroa Garaiko Ziurrera jo zuen, alfabetatze ikastaro bat egitera. Piarres Lafitteren aholkua ere bilatu zuen, euskara funski ikasteko. Beñat Oihartzabalengan euskaltzaletasunaren eta eusko abertzaletasunaren pizte horretan, eragin handia izan zuten, halaber, Beñaten anaia Gabrielelek eta Hego Euskal Herritik joandako iheslariek.

Nanterreko unibertsitatean Zuzenbideko lizentziako ikasketak bukatuta, Seaskako euskara irakasle izan zen, eta Hizkuntzalaritzako lizentzia eta maisutza egin zituen Parisen. Hirugarren zikloko tesia egitera jo zuen Jean Haritxelharrengana Bordelera. Hizkuntzalaritzako lizentzia eta maisutza eskuratu zituen 1981ean, eta hirugarren zikloko doktoregoa 1982an. Koldo Mitxelenak haren doktore te-

sia (*Charlemagne pastoralaren edizio kritikoa*) goraiatu zuen.

1981etik aurrera, Euskal Gramatika irakatsi zuen Baionan sortu berri ziren Euskal Ikasketetan. 1984an, Frantziako Estatuaren CNRS ikerketa erakundearen sartu zen, Estatuako doktoregoa lortzeko lanean buru-belarri aritzeko; urte berean, euskaltzain urgazle izendatu zuten. 1987an, Parisko VII. unibertsitatean irakurri zuen bere lana: *Etude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*, 759 orrialdekoa. Epaimahaiak aho batez eman zion *mention très honorable*, aipamen gorena. Geroztik ikerketaburu da CNRS erakundearen eta IKER zentroaren. Lan egiten du euskal hizkuntza eta euskal testuak ikertzen.

1989/1990 ikasturtea Massachusetts Institute unibertsitatean egin zuen, ikertzaile trukaketa baten bidez. 1991n, CNRSk brontzezko domina eman zion, eginiko ikerketa lanengatik.

Euskaltzainburuorde izan zen 2004ko abenduaren 17tik 2009ko azaroaren 4 arte.

2010eko martxoaren 5ean, hirurogeita hamahiru euskarlariren omenaldia jaso zuen: *Beñat Oihartzabali gorazarre* liburuan bilduriko euskal hizkuntzalaritzako berrogeita hamazazpi artikulua eskaini zizkioten, euskaraz, frantsez, gaztelaniaz eta ingelesez idatziak.

## Liburuak

1985: *Euskal gramatika: lehen urratsak I (berrargitalpena)*.

1985: *Euskal gramatika: lehen urratsak*.

1986: *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*.

1987: *Euskal gramatika: lehen urratsak I-II (gai aurkibidea)*.

1987: *Euskal gramatika: lehen urratsak II*.

1990: *Euskal gramatika: lehen urratsak III*.

1991: *Euskal gramatika: lehen urratsak I*.

1991: *Hitz-elkarketa/3*.

1997: *Euskal gramatika: lehen urratsak II (2. argitaraldia)*.

1999: *Euskal gramatika: lehen urratsak V (Mendeko perpausak-1, osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak, ondoriozkoak)*.

2003: *Laffitteren sortzearen mendemugako biltzarra*.

## **Itzulpenak**

1992: *Sisyforen mitoa*.

1993: *Gizarte-hitzarmena*.

## **Irakasgaiak**

2003: *Oinarrizko Hizkuntzalaritza II*.

2004: *Oinarrizko Hizkuntzalaritza II*.

## **Hitzaldiak**

1984: «Gramatika Batzordearen X. Biltzarrean hitzaldia».

1985: «Erlatibakuntza: perpaus erlatibatuaren egitura, izen erlatibatuaren betakizuna haren barnea».

1985: «Hitz ordena hizkuntza tipologian».

1986: «Aditz forma ez jokatuak».

1986: «Hitz ordena».

1986: «Pastoralaz».

1987: «Euskarazko erlatiboa».

1987: «Frantsesaren eragina euskaran».

1987: «Koordinazioari dagokion atalaren aurkezpena».

1987: «Pastoralaz (I)».

1987: «Pastoralaz (II)».

1988: «Asmo elkarteak, izate elkarteak, ezkonberri elkarteak, elkarte sintetikoak, aposizioak eta hitz-andama ihartuak».

1988: «Juntagailuen kopulatiboa».

- 1988: «Juntagailuen sailkapena».
- 1988: «Zenbait kategoria isil euskaraz».
- 1989: «“Gainera” loktailua».
- 1989: «Gerraurreko sintasi ikerketak».
- 1989: «Sarrera hitzaldia: Euskal gramatikaren hastapenak (XVII eta XVIII mendeak)».
- 1989: «Sintaxia Gerraostean».
- 1991: «“-goa” eta “-keta2” (jendeketa) eta “-keta3” (urketa)».
- 1991: «Hika (I)».
- 1991: «Hika (II)».
- 1991: «Hika (III)».
- 1991: «Sarrera-hitzaldia: Jean Hiriart-Urrutiren obrak».
- 1992: «Oihenart, euskal gramatikarien aintzindari ezezaguna».
- 1992: «Zenbaki-komunztadura (I)».
- 1992: «Zenbaki-komunztadura (II)».
- 1994: «Hitanoaren morfologia».
- 1994: «Pastorala opera».
- 1996: «Euskal Herriko Hizkuntz Atlasari buruzko hitzaldia».
- 1997: «Euskaltzaindiaren hainbat corpus».
- 1997: «Euskara iparraldean (I)».
- 1997: «Euskara iparraldean (II)».
- 1998: «Izen sintagma juntatuak».
- 1998: «Pastoralak».
- 2000: «Andre Martinet (hilberri-txostena)».
- 2000: «Euskal testuen edizioen arazo batzuk».
- 2000: «Pastoralen edizioaz».
- 2004: «“Sainte Elisabeth de Portugal” (1750) eskuizkribuaren garrantzia Zuberoako ohiko trajedien historian».



## Artikuluak

- 1983: «Euskarazko erlatiboez oharño bat».
- 1984: «Ba-baiezko aurrezkoa».
- 1985: «Behako bat ezezko esaldieri».
- 1986: «Erlatibakuntza: perpaus erlatiboaren egitura; izen erlatibatuaren betakizuna haren barnean».
- 1988: «Operatzaile isila euskarazko perpaus erlatiboetan».
- 1989: «Izenordain espletiboak eta euskal aditzaren morfologia».
- 1990: «Euskarazko kazetaritzaren lehen entseia: A. Chahoren Euskal Herriko Gaseta (1848)».
- 1991: «Beñat Oihartzabalen Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia».
- 1992: «Elizanburu kondatzailearen euskara».
- 1992: «Euskararen mugez egin lehen mapak (1806-1807)».
- 1992: «Lehenbiziko inkesta geo-linguistikoa Euskal Herriaren frantses lehen inperioaren denboran: Ipar aldean bildu dokumentuak».
- 1993: «Euskara batuari Iparraldetik behatuz».
- 1993: «Oihenart eta euskal letrak».
- 1993: «Pastoralaren jatorriari eta noizkotasunari buruzko ikerketak».
- 1994: «Eratopenaz».
- 1994: «Gramatika batzordearen jardunaldiak».
- 1994: «Hikako adizkeren paradigmen aurkezpena».
- 1994: «Oihenart, euskal gramatikarien aitzindaria».
- 1995: «Euskararen mugak hego aldean 1807.ean: Eugène Coquebert de Montbret-en artxiboetan gelditu dokumentuak».
- 1995: «Hizkuntz atlasa dela eta».
- 1996: «Euskara batua eta euskalkiak».
- 1996: «Euskararen hizkuntza atlasa: zenbait ezaugarri».

- 1996: «Hitz eratorriak Marterrerren dotrina christiana delakoan (1617)».
- 1997: «A. Abbadieren euskal gramatikari buruzko ideiak eta ordu arteko euskal ...».
- 1997: «Euskalkietako hitzen morfologia finkatzerakoan agertzen den arazo batez».
- 1997: «Hiru aditz aurrizki zahar 16. mendeko testuetan».
- 1997: «Persona izenorde indartuen erabilera erreflexiboa Leizarragaren idazlanetan».
- 1998: «Piarres Xarriton Iparraldeko 20. mendeko euskaltzaletasunaren lekuko».
- 1999: «Euskarazko irakaskuntzaren historia: ooren eskolen ildotik, frantses iraultzaren garaiko eskola liburuxka bat».
- 1999: «Noizkoak diren Zuberoako pastoralei dagozkien lehen dokumentuak».
- 2000: «André Martinet (1908-1999)».
- 2001: «Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakaeraz ( XVII-XVIII. mendeak)».
- 2002: «Kausazio aldizkatzea euskal aditzetan».
- 2003: «“kor” atzizkiak».
- 2003: «P. Laffitteren sortzearen mendemugako biltzarra».
- 2004: «Euskaltzaindiaren corpusez».
- 2006: «DSaren barneko zenbait ordena kontu».
- 2006: «Lardizabalen gramatikaren iturri, ezaugarri eta helburuak».
- 2006: «Testuen historia dela-eta: Duvoisinin literatura iruzurrak eta santa Jenobebaren koplak».
- 2008: «Aurelia Arkotxaren hitzaldi-sarreraren egin ihardespena».

## Azken gose grebaz, zenbait gogoeta<sup>1</sup>

Azken hilabeteotan Ipar Euskal Herrian gertatutako gauza aipagarrienetarik bat, urri eta hazileko gose greba izan dela gutxik uka lezake; baina, hots, garbi bedi horrek ez duela erran nahi, gertakari inportantago edo garrantziagorik izan ez denik (maila sozialean batez ere), baizik eta, euskal mugimenduko mobilizazio handiena orduan egin izan dela –besterik ez–. Dena dela, nahiz gertaera horren zergatiak eta ondorioak guztiok gogoan ditugun gaur egun ere, ez dateke alferrikakoa orain iker badezagu azken gose greba.

### Gose-greba: gizabanako ala masa ekintza?

Gose greba edo gose-oporketa, Indietako abertzaleek, ingeles inperialismoaren gudukatzerakoan, duela 50 asmatu-rikiko gudu-bide bat dela edozeinek daki, bai eta Gandhi famatuak zein heinetara altxatu zuen ekintza molde hori. Garai eta leku hartako gose oporketari begiratuz, honi ohartzen gatzazkio:

- politikazko arma bat izaki, zibilizazio eta erlijio bati atxikia zitzaizela ekintza molde hori.
- gogor eta bortxa bideak ezeztzen zituztenek zerabil-tela.

Nahiz, orainokoa, moralezko eta erlijiozko aitatasun hori arras eta osoki galdu ez duten, geroztik, eta Europara hurbiltzean, gose grebak nolabait aldatu zaizkigu. Aldatuz aldatu-rik, gaurko egunean, Mendebaleko erresumetan bederen, bi gose oporketa mota bereiz dezakegu:

*Gizabanakoa edo indibiduala:* Zuzengabekeriak zuzenki hunkitzen duen norbaitek egina. Bere burua funditzeko edo hiltzeko arris-

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 1, 1973, 3-9 orr.

kuan ezarriz, jan-uzteari ekiten dio makurkeriaren zuzen edo ke- narazteko –baina, hots, beti bere kasu berezian eta partikularrean egonez.

Horrelako gose grebak, nahiz oinarri politikoak izanik ere, ez dira –berez– politikazkoak. Adibide gisa, aipa genezake duela zen- bait denbora J.M. Deveaux-k egin zuena (gizon hark, gose greba eginez, berriz epaitua izatea erdietsi zuen. Gaztigatua eta presonde- giratua izan baitzen egin ez zuen krimen batengatik).

*Masakoa:* Zuzengabeko erabaki bati ihardukitzeko egina da hau ere. Aldiz, grebalariei, zuzenki hunkituak izatea ez zaie beharrezkoa, zeren problema indibiduala bigarren mailan gelditurik, funtsa poli- tikoak hartzen baitu nagusigoa. Gose oporketaren helburuak dira: lehenik, mobilizazio zabal baten lortzea; bigarrenik, mobilizazio honek bortxatuz, Administrazioaren gibelaraztea.

Horrelako ekintza bat borroka zabalago baten adar bat da, eta, jakina, borroka haren estrategiari egokitua izan behar du.

Gisa horretako gose greben etsenpluak, duela 14 urte, Fran- tziako presondegietan zeuden Aljeriako abertzaleek egin zutena izan liteke. Frantziako gobernuak, FLNeko gudariak gaizkile huts ba- tzuk besterik ez zirelako, ez zuen nahi FLNeko presoak preso poli- tiko bezala hartuak izan zitezen. Gauza horren aldatzeko, 1959an, FLNeko presoak, haien lagunek kanpoko bazterrak harrotzen zi- tuztelarik, gose greban jarri ziren. Mugimenduaren helburuak, bere xede konkretuez gainera, ziren:

- Frantziako indar demokratikoen biltzea (haiek horretarako prest baitziren Alger-eko batailaren ondoren).
- Frantses populuari erakustea: lehenik, FLNa Herri baten mugimendu askatzaile bat zela (eta ez basa odolzale andana bat Frantses propagandak zioen bezala); bigarrenik, Fran- tsesaren kontra ez, baina Frantses inperialismoaren aurka ari zirela gudukatzen Aljeriarrak. (Ikus *La Révolution Algé- rienne*, Mohamed Lejjaoui).

Ipar aldean egin diren gose oporketei so eginez, zera nabari- tzen zaigu: ekintza bezala “masa” delako ekintza moldeari gero eta hurbilgotuz, gero eta politizatuagotuz joan direla. Etxabek egin zuen lehen grebatik azkeneraino garbiki agertzen zaigu eboluzio edo bilakaera hori, zeinen erroak azken hiru urte honetan euskal mugimenduak egin dituen aintziramenduetan kausi baikenitzake dudarik gutxi.

## Azken gose grebaz, masa ekintza baten azterketa kritikoa

Masa ekintza iraultzaile baten eginkizuna da: indar demokratikoak eta aurrerakoiak bildurik, mobilizazio zabalaren erdiestea, haren bidez herri borroka aitzinaraziz. Hartaratzekotan mobilizazio hori errebindikazio konkretu batzuetan finkatua izan behar denez gero, ikusteko den lehen puntua zera da: zein itxura eman behar zaien errebindikazio eta berehalako xede horiei, nolakoak izan behar diren. Galdera honi ihardespren bikoitz bat eman lekiok: ekintzaren berehalako xedeak demokratikoak eta ahalezkoak izan daitezten, alegia:

- demokratikoak, erran nahi baita urrunegi ez doazenaz (ez sobera “iraultzaileak”) eta organizazio edo erakunde demokratiko guztiek onets ditzaketenak.
- ahalezkoak, berehala erdiesten ahal direnak, hain zuzen. Jakina, ekintza lor ez daitekeen xede bati lotua balitzaio, huts eginen lukeela hain segur.

*Azken gose grebaren berehalako xedeak.* Azken gose grebaren berehalako xedeak hain nahastekaturik agertzen zaizkigu, non biziki neke baita erratea zuzenki zein ziren. Eta, hauxe izanen dateke ekintzari egin geniezaiokeen lehen kritika: xedei buruzko nahasmen-dua. Hala nola, hona hemen zer emana izan zitzaion gose grebari berehalako xedetzat:

- Urriaren 6tik eta geroztik Administrazioak harturiko botatzeko erabakiak kenaraztea.
- Administrazioak, berak hartu zituen botatzeko erabaki guztiak (Urriaren 6tik aitzin eta geroztik) ken zitzaion.
- Administrazioak hartutako errefuxiatuen kontrako erabakiak oro (botatzek eta besteak) ezeztatuak izan zitezten.

Horretaz gainera, galdatua izan zen:

- Geneva-ko nazioarteko hitzarmena segitua izan zedin hitzez hitz.
- Euskal errefuxiatuek estatuko berezi bat ukan zezaten.

Garbi dago, errebindikazio gisa, hainbeste gauza horrela ezartzek funsgabekeria bat iduri duela. Zerbait funski egitekotan, bai-

tezpadakoa baita ekintza bati ematen zaizkion berehalako xedeak ongi finkatuak eta mugatuak izan daitezten.

Ildo berean, xedeen mugatzeari buruz: ikertze labor baten egiteko, ikus dezagun zein ziren praktikan grebalariek kenarazi nahi zituzten erabakiak.

### *Administrazioak bakarrik ala baita ere justiziak harturiko erabakiak?*

Esperientziak erakutsi digunez, gaurko justizian errefuxiatuak zenbateraino fida litezkeenez amets gutxi egin daiteke. Halarik ere, bi arrazoiengatik bederen beharrezkoa zen bereiztea batzuk bestee-gandik Administrazio eta justiziaren erabakiak: lehenik, nahasiak izan balira, urrundurik geldituko baitzitezatekeen mugimendua indar demokratiko zenbaitengandik, bigarrenik, lekutuak izan ziren errefuxiatu gehienak (eta bereziki azkenak), Administrazioak bota baitzituen. Ez zuen balio mugimendua ahuldurik geldi zedin, praktikan ondoriorik gutxi zuen arrazoi batengatik.

Zein erabaki? Urruntzekoak bakarrik ala besteak ere? Urriaren 6tik hara hartutakoak ala lehenak ere?

Gorago ikusi dugun bezala, grebaren denboran puntu hauek ez ziren arras garbiki finkatuak izan, nahiz praktikan ekintzaren berehalako xedeak honela mugatuak izan: Urriaren 6tik eta geroztik euskal errefuxiatuen kontrako botatzeko erabakien kenaraztea.

Funtsean, gure iduriko, mugatze bikoitz hau hobekienik zego-kion azken gose oporketan. Edozein ekintza testuinguru berezi batean loratzen baita beti, ekintza hurbilenik, hertsienik, lotua izan behar zaio testuinguru horri. Azken gose grebaren testuinguruaren bereizgarri ohargarrienak hauek ziratekeen:

- problema, nazio gisa zapaldurik zegoen herri batean, eta nazio arazo honekin nolabait nahasturik gertatzen zela.
- erabakiak gobernu eskuindar batek hartu zituela.
- organizazio iraultzaileek indar gutxi zutela.
- erabaki azkenak, sua piztu behar zutenak, urruntzeko erabakiak izan zirela.
- Erabaki horiek, giro berezi batean, gertakari batzuen ondoren hartuak izan zirela: Baionako “Sous Préfecture” delakoaren zartaraztea; Urdazubin eta mugan gertutako gorabeherak, etab...

Puntu horiek baldintzatzen zuten, besteak beste, xedeei buruzko ekintzaren mugatzea. Eta, jakina, biziki zaila izanen zitzatekeen testuinguru eta giro berezi horiez aparte sorturiko problemak ekin-tzan sarraraztea.

## **Euskal errefuxiatuekiko estatu bereziaz...**

Beste xede bat emana izan zitzaion gose oporkeari: Euskal errefuxiatuek estatutu egoki eta berezi bat ukan dezaten, alegia. Helburu hori, agian, ez zatekeen segidan lortzeko galdutua izan. Gainera, noizbehinka bakarrik agertu zen ekintzaren xede bezala. Hala eta guztiz ere, kritika baten egitera. Gainera, noizbehinka bakarrik agertu zen ekintzaren xede bezala. Hala eta guztiz ere, kritika baten egiterakoan, xede hori oso desegoki hautatua izan zela erran beharrean gaude.

Euskal errefuxiatuen problema, beste Herrietako errefuxiatue-netatik bereiz dela ezin ukatzekoa da, non euskal iheslariak beren herrian egonik ere, legez, arrotzak baitira. Ondorioz, (eta, jakina, gaurko gizartean arrotzak herritarrak bezala kontsideratuak izan daitezen ez baita posible) haiekiko, euskal errefuxiatuekiko, estatutu berezi bat egin beharko litzatekeela, fede oneko eta oroko onetsi behar zuketean puntu bat zen.

Zorigaitzez, errealitatea besterik zen: Euskal Herrian, frantses legeetan, neholako, edozein eratako, izaterik ez duenez gero, ezin erdiestekoa zen delako estatutu berezi hori. Zeren eta, frantses esta-tuak Euskal Herriari politikazko izate bat, politikazko ezagutza bat ematen ziola erranen nahi baitzukeen horrek.

Bestalde, mugimenduak, karia horretako bereganatu behar zituzkeen frantses indar demokratiko askok ez zezaketean onar puntu hori (berak, zentralismoan burutik behera sarturik baitaude, naski).

Horregatik, orduan ezin ahalezko xede horrek mugimendua bakartu egin zezakeelako, hain zuzen diogu masa ekintza bat zen azken gose grebari ez zegokiola xede hori.

## **Gose grebaren norabidea edo orientazioa**

Masa ekintzek beren berehalako xede konkretuez gainera, besterik badute: estrategia bati egokituak eta borroka zabal baten

adar bat izanik, borroka horren aitzinaraztea dute helburutzat. Horretarako problema zehatzez interpretazio egoki bat eginez, ekin-tza noratzen da, erran nahi baita, egoera sozio-poliokoa eta indar politiko bakoitzaren ahalak kontuan hartuz, orientazio bat ematen zaiola.

Norabide horren garrantzia handia da, horretan agertzen baita zein ideologiak, zein talde politikok hartzen duen nagusigoa. Ezen indar bakoitzak bere ideologia inposatuz eta ekintza bere taktikan sararazi nahiz, bereganatu nahi baitu mugimendua. Horregatik, zuhurki eta gotorki jokatu behar da gatazka horretan, indar bakoitzari merezi duen eta utz dakioken tokia emanik, eta mugimenduko giderrak eskuetan fermuki atxikiz.

Sail horretan, azken gose oporketan, hiru mehatxu baztertu egin behar izan zituzten euskal iraultzaileek, ekintzari eman zioten norabidea besteek makurturik gelditi ez zedin. Mehatxu horiek izan ziren:

- talde abertzale eskuindar batena.
- frantses alderdi politiko batzuen.
- seigarrenekoena.

### *Talde abertzale eskuindar batena*

Talde honena izan zen mehatxu lanjerosena, errefuxiatu eta hemengo askorengan zuen influentziagatik. Greba hasi zenetik azken eguneraino entseatu da talde hori bere jokabidearen inposatzera. Jokabide horren ezaugarri nabariena zera zen: mugimenduaren funtsa herrikoia kentzea.

Lehenik, errefuxiatuak greban sar zitezten eginahalak eginez.

Lau ipar euskaldunek greba hasi zutelarik, antzinako grebek ezin erdietsi izan zuten gauza bat lortu zuten: hemengo jende ez-abertzale anitz tokatua senti zedin. Horrela, errefuxiatuen problema, nolabait errateko, desarroztu, desespainolizaturik gelditu zen, eta mugimendua abiaburu herrikoi batez horniturik aurkitu zen. (Gertaera hau itsas hegiko hiritar gazteen artean nabaritu zen batez ere).

Garbi zegoen, errefuxiatuak greban sartuz gero (burrustan, gainera), funtsezko herrikoitasun berri hori galduko zuela mugimenduak, eskandaluaren faboretan.

Bigarrenik, gose grebaren aitzinarazteko, mugimendua notable edo herriko jaun sasi-euskaltzaleen eskuetan utziz.



Ustez eta, mobilizazio herrikoi zabal batek bakar-bakarrik erdiets zezakeena, jaun horien bitartez lortuko zela. Bizkitartean, itsua izan behar zen zerari ez ohartzeko: jaunskile haiek axola gutxi zutela euskal errefuxiatuez eta, gainera, ahalik gabe zirela zerbaiten erdies- teko Administrazioetik.

Hirugarrenik, informazioan, traktetan, triunfalismo eta aber- tzalekeria hutsenez mintzatuz.

Alta, egite molde horiek, zenbat arrotz eta ulergaitz zitzaizkien ipar euskaldunci, ez zen gauza berri bat!

Propagandari dagokionez, nola ez aipa talde honek egin zuen traka arrazista. Hartan adierazten zen nola frantses estatuak euskal- dunak herritik kanpora lekutzen zituelarik, begitarte on batez (hala balitz!) errezibitzen zituen portuges, arabiar eta beste arraza likits ba- tzuen kanpotarrak. Beharrik, ez zuen jarraipenik ukan trakta horrek.

Euskaldunek beren borroka beste zapalduen bizkar eraman behar balute bezala! Haiena eta berena, borroka bat eta ez balira bezala!

### *Frantses alderdi politiko batzuen*

(Alderdi sozialista eta komunistarena bereziki).

Garbiki azaldu zuten beren jokabidea alderdi horiek, euskal- dunen bozak berenganatu nahiz Martxoko Maskaradarako. Huts egin zuten beren jukutria (alderdi sozialistarena, batez ere) sobera ageria baitzen. Gainera, indarrrik gabe ziren zerbaiten inposatzeko. Azkenean, euskaldunak bazterturik egin nahi zuten manifestazioak porrot egin zuen... kari horretan nehoen mobilizatzeko gauza ez baitziren talde horiek.

### *Seigarrenekoa*

Errefuxiatuak greban sartu zirelarik (Urriaren 26an), ekintza barneko mokoka eta eztabaidetan ito ez zedin, erabakia izan zen Seigarrenekoek ez zutela parte hartuko ipar aldekoek hasi zuten mugimenduan. Orduan, greba nagusitik at egon beharrean, beren propaganda bakarki egitea bortxaturik gelditu ziren seigarrenekoak.

Izan ere, hastapenean, oso propaganda ona egin zuten, zori- gaitzez beti ezkerkerietara lerratzen? Hala nola, Ipar Euskal Herriko egoera sozio-politikoa gogoan hartuz, eta gose oporketa zein gisa-

tako ekintza zen ikusiz gero, ordu hartan, “Gora Euskadi Gorria” oihu delakoaren errepikatzeak subjektibismo eta boluntarismo hutsenak, besterik ez, azaltzen zituen. Oihu horrek zer erran nahi zuen esplikatua izan balitz bederen!

Bigarren ibiltze isilean, mugimenduaren berenganatzera alferrik entseatu ziren zenbait oihu botatuz (oihuak ez ziren ere bateratzaileak). Berriz ere, bakar-bakarrik gelditu ziren, oportunitismoa eta ezkerkeria arras ongi uztartzen direla aldi bat gehiago frogaturik...

## Gose grebaren norabideari buruz beste ohar bat

Azken gose-oporketari orientazio bikoitz bat eman izan zitzaion: bata. Antifaxista, bi gobernuen elkar laguntzaren zolatzean hezurmamitzen zena; bestea, “euskalduna” (nolabait esateko) Frantziako gobernuaren euskal kontrako politikaren gaitzestean gorpuzten zena, bereziki politikazko eta ekonomiazko botatzeak juntatuz eta bateratuz.

Azken puntu honi buruz anitz eta zernahi erran zitekeen hain zabal eta ilun zen. Zeren argibide batzuen ematerakoan, bi mota-tako botatze horien arteko lokarriez interpretazio asko egin baitzitezkeen (jakina, horretarako –hots, hain desberdin ziren bi gauza horien arteko zerikusien argitzeko- edozein adierazpen euskal erreallitatearen analisi batean finkatua izan behar zen nahitaez.

Aitortu behar da, azken gose greban, errefuxiatuen botatzeak eta ipar euskaldunen urruntzeak bateratzeko gehienbat eman izan zen bidean gutiz txarra agertzen zaigula. Bide hori zera zen: urruntze horiek “euskaldunen kontra” eginak zirela.

Adierazpen horrek, gure “euskal fiertasuna” zimikatzen ezik, ez zuen deus ekartzen, ez argitzen, baldin zerbaite gehiago gaineratzen ez bazitzaion; hots, batean, Euskal Herriko egoera zehazki azaltzen ez bazen. Gehiagorik gabe, “adierazpen” hori euskalkeria hutsenean oinarritzen zen. Eta euskalkeria horren arriskuari ohartzeko aski da ikustea nola baliatu diren jaun batzuk euskal bihozkeria honetaz, beren jokabide maltzurren zuritzeko (bai orduan, bai bozen denboran).

Ekonomiazko urruntzeak eta politikazkoak horrela lotu nahi baldin bazen, argibide zehatz anitz eman ez egin behar zen. Deus esplikatu gabe, ipar euskaldunen lekutzeak “euskaldunen kontra” ger-

tatzen direla erratea gezur bat besterik ez da. Urruntze ekonomiko horiek baitira gaurko egitura ekonomikoen ondorioak eta nehola ere –zentzu zuzenean eta hertsian– “euskal kontrako” politika bate-nak. Gaurko gobernuak daraman politikak, egitura ekonomiko horien antolatzea eta zaintzea (beraz, frantses oligarkiaren interesen zerbitzatzea) du batik bat helburutzat. Hori adieraziz gero, politika hau “euskaldunen kontra” gertatzen dela onartzekoa da, baldin arrazonamendu honi eransten bazaio euskaldun batzuk ongi baliatzen direla politika) biziki ontsa bizi baitira delako “euskaldunen kontra” politika horri esker.

Horregatik, errefuxiatuen kontrako eta ekonomiazko botatzeak lotzerakoan, guztiz kontuz ibili behar zen nazionalismo txarrenean ez erortzeko. Euskal Herriak jasandako zapalkuntza errealitatean finkatuz eta ez asmo sentimentsuetan.

Lotze hori, ezinbestean, Euskal Herriko egoeraren azterketa batean oinarritua izan behar baitzen, garrantzi handienetarik zuen hartaz egindako interpretazioak.

## Gose grebaren antolamenduaz

Masa ekintzek bi baldintza behar dute bete: lehenik, herrikoiak izan, erran nahi baitu jendeari hurbil herria tokatua izan dadin; bigarrenik, eta ondorioz, hitza herriari emana izan.

Horretarako informazioak duen garrantzia neurgaitza da. Be-reziki –azken gose grebari zegokion bezala–, ekintzaren estakurua jendeari franko arrotz eta konprenigaitz zaiolarik. Preseski, informa-zioaren eginbeharra da: problemaren argitzea eta herriarenganatzea.

Funtsean, mugimenduaren helburua mobilizazioak zabal ba-tera heltzea denez gero, ekintzek (gose greba bera, barurak, ibil-tzeak, biltzarrak, etab.) eta informazioak bat egiten dute: jakina, in-formazioa ekintzen bitartez egiten baita, eta ekintzen eginkizuneta-ko bat informatzea baita.

Sail horretan jarraituz, azken grebaren antolamenduari dagokio-nez, baliteke zer erran: adibidez, handikiengan gehiegi fidatzea; trak-tak jendeari ez egokitzea, etab.

Ez da hemen lekua gauza horien barna ikertzeko. Bakarrik erran daitekeena da: huts horiek guztiek egote molde bat ondoriotzen du-

tela; egite molde bat zinetan, hots, zalapartari eta azalkeriari ematen baitzaien inportantzia beste funtsezko gauzei baino.

## Bururapen gisa

Azken gose grebak gogora erakartzen digun kezka larriena ez dugu orain arte aipatu. Eta hauxe da:

Berriz ere aurtan; euskal mugimenduko mobilizazio handiena errefuxiatuen aldeko ekintza batean egin izan dela.

Kezka erran dugu, beste hitz bortitzago bat erran ordez, horrekin azaltzen baita ipar euskal abertzaletasunaren hutsunea: hego aldeko giro politikoan errotua izatea eta mugaz honaindiko errealitate sozialetik at egotea.

Ipar euskaldunek dituzten problemen artean, hego aldeko iheslarietarako dagokiena ez da urrundik ere lehena. Ondorioz, euskal mugimenduak erdiesten dituen mobilizazio politiko bakarrak errefuxiatuen alde gertatzen direla, honek frogatzen digu ipar aldeko abertzaletasuna ez dela oraino eta aparantziarik ere ez, hemengo errealitate sozio-politikoaz jabetu, praktikan bederen, ez eta ere teorian, agian.

Izanen balitz aurtengo Aberri Eguna jokabide horren azken agerpena eta bide herrikoi baten abiaburua!

*Beñat Oihartzabal ("B.O.")*



## Jean-Louis Davant Irtzabal

### Ibilbide profesionala

Zuberoako Ürrüstoi-Larrabilen jaio zen 1935eko uztailaren 5ean. Laborantza ingeniartzako ikasketak egin zituen Angerseko ESA laborantzako ingineri eskolan (1954-1957) eta agronomia irakasle izan da Hazparnen LAHP Laborantza Eskolan, 1995ean jubilatu zen arte. Ikastetxe horren sortzailetakoa bat da. Aljeriako gerran ibili zen 1958-1960 urte bitartean. Kultura mugimenduetan parte hartu du, hala nola Euskaldun Gazterian, Euskaltzaleen Biltzarrean. Halaber, kulturarekin eten gabe, politikagintzan urte asko egindakoa da. Enbata oldearen eta EHASen sorreran egon zen eta Euskal Batasuneko kidea izan da. Soldadutza Aljerian egin zuen (1958-1960) eta hango bizi-penak *Aljeriaz* liburuan jasotzen ditu.

Euskaltzain osoa izendatu zuten 1975ean. Saioa eta literatuan poesia, nobelak eta pastoralak landu ditu. Kazetaritza munduan ere sarritan parte hartu du, batez ere, *Euskaldun Gazterian*, *Jakinen*, *Herrian*, *Zabalen*, *Euskaldunon Egunkarian*, *Argian* eta *Enbatan*. Iritzi artikulugari ditu argitaratuak euskaraz zein frantsesez. Euskarak Zuberoan duen erreferentzia nagusietako bat da.

### Saikera

1977: *Aberri eta klase borroka eta klase borroka euskal mugimenduan* (Elkar).

2000: *Histoire du peuple basque* (Elkarlanean).

2001: *Zuberoako idazle zenduak* (Elkar).

2006: *Le "problème basque" en 20 questions* (Elkarlanean).

2008: *Zuberoako literaturaz: Antologia laburra* (Euskaltzaindia).

2014: *Aljeriaz* (Maiatz).

## **Poesia**

1980: *Makila gorria* (Elkar).

1982: *Denboraren aroak* (Bilbo Aurrezki Kutxa; Azkue saria 1981ean).

1985: *Nahi gabe* (Iruñeko Aurrezki Kutxa; Xalbador saria 1984an).

1986: *Itsasoak iraultzan* (Maiatz).

1990: *Ihesi* (Maiatz).

2003: *Harri txintxolak* (Elkar).

## **Pastorala**

1990: *Abadia Urrústoi* (Maule; Durangoko udalak saritua 1996ko Euskal jaietan).

1993: *Euskaldunak Iraultzan* (Gotaine-Irabarne).

1995: *Agirre Presidenta* (Arrokiaga).

2001: *Xiberoko Makia* (Sohüta).

2004: *Antso handia* (Maule).

2008: *Xiberoko Jauna* (Espeize-Urdüreine eta Pettarreko beste herri batzuk).

2013: *René Cassin* (Sohüta).

## Euskal departamenduaz<sup>1</sup>

Baionako komertzio gelaren hilabetekaria dugu *Activités en Pays Basque* izeneko agerkaria. Urriko zenbakiaren atarian komertzialdegiko presidentea edo lehendakaria den Saint-Martin jaunaren iritzi hau dakar: Baionan prefektura bat behar litzatekeela. Iparraldeko euskaldunon amets zaharra dugu euskal departamendu baten erdiestea. Segurki, ez du euskal departamendurik aipu Saint-Martin jaunak. Baina guti edo asko horretara darama komertzialdegiko aitzindariaren asmoak.

### Frantziako iraultza denboran

1789an, Zuberoako eta Lapurdiko lege zaharrak eta biltzarrak atxiki nahi dituzte bi probintzia horietako (parlamentari) diputatuek. Baxenabarrekoak ez dira Frantziako legebiltzarrean sartzen ere, beste erresuma batekoak direlakoan. Legez arrazoia dute: bi erresuma bereizitako erregea da Louis XVI.a, bere aitzinekoak, Henri IV.etik haste, izan ziren bezala: Frantziako eta Nafarroako errege. Baina bigarren etxaldeko etxetiarrak, egia erran bordaldeko bordariak, ez ditu errezibitzen etxajaun horrek. Dena dela, beren autonomia galtzen dute Zuberoak eta Lapurdik, independentziaren hondarrak eta azken itxurak ere halaber Baxenabarrek.

1790ean, Frantzia departamenduka zatitzen dute (parlamentuko) diputatuek. Beren departamendu bereizia nahi dute euskaldunen ordezkariak, eta departamendu handiago bat Biarnokoek, Bigorra barne. Debaldetan. Euskaldunak eta biarnesak «*Basses Pyrénées*

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 11, 1975, 1-13 orr.

*nées*) (Pirinio Apaletako) zaku berean sartuko ditu Frantziako diputatuen biltzarrak.

Alta bada, xede horren aurka beren eginahalak oro eginen dituzte Lapurdiko diputatu dauden Garat anaiek. Uztaritzen sortuak (Dominique 1735ean, Joseph 1749an), abokatu daude Bordelen.

Bi departamendu behar direla diote, zeren hizkuntzaz oso desberdinak dira biarnesak eta euskaldunak. Arrazoi ahula zaie frantsesei. Departamendu bakar baten aldeko erabakia hartzen du 1790eko urtarrilaren hamabian diputatuen biltzarreko lege batzordeak (komiteak). Beste arrazoinamendu batera iristen dira orduan bi anaiak: ekonomiazko arazoari dei egiten diote.

Garat gehienak dio: «Komiteko aburuaren aurka dei egiten dut. Herri pobre eta eskasen aldekoa da ene eskaria; baina horrez beraz, zuen justizia argituaren erdiesteko eskubide sakratuagoak ez ote dituzte?»

Garat gazteak: «Euskaldunek ez dute etxetiarrik, ez dute mutilik; lurra berek lantzen dute... Doi-doia aurkitzen dira eskualde horietan Diputatuen Biltzarrerako bozketetan presentatzeko aski aberats liratekeen familia zenbait. Batasun horrekin, ordezkarri guztiak izendatuko ditu Biarnok, bihi bat ez duke Euskal Herriak...»

Halere, komitearen aburua ontzat hartzen du diputatuen biltzarrak: 1790eko otsailaren zortzian, Pirinio Apaletako departamenduan urtzen ditu euskaldunak eta biarnesak. Euskal Herririk ez dago! Biarnorik ere ez! Doueil prefetak, 1965eko urtarrilean, Madariaga, Irigarai eta Txillardeggi hemendik ohildu ondoan, argi eta garbi erranen dio Aita Xarritoni: «Le Pays Basque, monsieur, ça n'existe pas!» (Euskal Herririk ez da, jauna!). Eta egia da, zoritxarrez...

Garat gaztea jaikitzen da: «Eginbide bat betetzeko gelditzen zait; izendatu nautenek, ene arrazoiak, ene kontzientziak manatzen didate; munduan ezerk ez dit ahantzaraziko. Boz bakar batez, ene probintziak protesta egiten du...» Oihuka isilarazten dute frantses diputatuek, mehatxatzen du legebiltzarreko lehendakariak... Oi frantziar liberalismoaren ederra!

Egia eran, arte horretan ahul agertu ziren euskal diputatuak, guztiz 1789ko abuztuaren lauko gau famatu hartan, lege pribatu edo «privilèges» guztien kentzea erabaki zenean. Jaunen abantailekin batean, herrien eta probintzien lege zahar eta berezi, konstituzio, askatasun, libertate, autonomia eta biltzarrak ukatu zituzten. Ondotik, euskal diputatuak zinez gaizkitu zituzten beren boz-



emaileek, eta guztiz Lapurdiko Biltzarrak. Honek ezinago finki aztoratu, berotu eta akuilatu zituen Garat anaiak. Hortik dator, parte handi bat, 1790ean erakutsiko duten kemena. Beren gorabeherak ukanen dituzte geroan ere, bertso zahar batek aditzera ematen digun bezala: zeren eliza dorre gaineko oilarrari konparatzen du Garat anaia bat, (txori) hura bezain aldakorra delakoan.

Politikan bere bidea eginen du Joseph Garat gazteak: 1792ko urrian Justiziako Ministro da (horri esker, Louis XVI.ari diputatuen biltzarrak hiltzera kondenatu duelako berria eman beharko dio laster), barneko ministro 1793ko martxoan, «Zaharren» biltzarkide 1799an, Inperioko Senatari eta Institutuko lagun berantzeago... Gutxienez diplomaziarako dohain politikak bazituzkeela frogatzen digu, denbora nahasi haietan eten gabe, toki desberdinetan jarraitu zuen karrera luze eta ederrak.

Halere aitortu behar da bere euskaldungoari ez ziola uko egin zeren, euskal departamenduaren xedea huts eginik, beste bat handiagoa asmatu zuen: frantses inperioaren itzalean eta honen baitan, Euskal Herri osoaren batasuna eskatu zion Napoleon Enpedoreari!

«Inperioko bizpahiru departamendu berri egin ditzatela espainiar laur euskal lurraldeek eta frantziar hirur euskal lurraldeek... Lurralde horietan Frantziak eta Espainiak sartu ahal ukan dituzten desberdinkeria guztien segurkiago eta lasterrago ezeztatzeko, departamendu bakoitzean nahastekatu behar lirateke, tokiek baimentzen duten heinean, frantziar eta espainiar eskualde batzuk. Frantziako Baxenabarrek eta Espainiako Nafarroak elkar hunkitzen baitute, eta biak euskaldunak baitira, erraztasun handiak eman litzakete horretarako; halaber Espainiako partean dagoen Baztango ibarrak eta Frantziako partean dagoen Errobiko ibarrak edo Lapurdik...» Debaldetan izan zen hau ere. Erabat huts egin zuen euskal jakobinismoak.

Moralistak baikara euskaldunok, hemen moral puska baten egiteko gutizia banuke. Baina oraingoan ez dut eginen, eta ez dut erranen zergatik: hori ere moralismoan artzea bailitzateke.

### *Gau luzean amets soil bat*

Iparraldeko euskal departamendu hilaurtuaz erran dezagun ez zela hain euskalduna. Eiki, Dominique Garatek eskatzen zuen ho-

netan sar zedin Akizeko eskualde gaskoia, Landetako departamenduan dagoena. Hiriburua Baiona izanen zen, bistan da<sup>1</sup> (1).

1836an berpiztu zen Dominique Garaten xedea. Baiona, Maule eta Akize eskualdetako jaun askok izenpeturik, eskari bat zuzendu zioten Louis-Philippe «frantsesen errege» liberalari: «Adour» izeneko departamendu bat nahi zuten, prefektura Baionan. Berriz ere debaldetan!

Gero, mende batentzat bederen, lotan bezala sartu zen, politikoki, Iparraldeko Euskal Herria. Zergatik azaltzea luzeegi gerta liteke hemen. Gertakari nagusi zenbaitez oroit gaitezen halere, bidenabar. Lehenbiziko karlistada galdurik, umezurtz egon zen Hegoaldea. 1841ean, Ebrotik Bidasoara pasatzen zaigu muga. Lurrera doa Iparraldeko lantegi txiki asko. Ameriketara ihes egiten du gure gazteriak. Mende batez, bizitzaile baduen bezainbat seme horrela galtzen du gure eskualdeak. Alemaniaren aurka eginiko hiru gerlek, eta guztiz hirugarrenak, odol husturik eta arimaz aldaturik eman dituzte gure hiru probintziak.

Baina Frantziaren omena mendraturik utzi du hirugarren gerla handiak. Hor hasten da urruneko herri desjabetuen askatzea. Nonbaitik, esnatzen dira Iparraldeko euskaldun zenbait ere.

## Legasseren legegaia

1945eko irailean, autonomiaren aldeko legegai bat antolatzen du Marc Legassek, hiru lagunekin. Xede horren ezagutarazteko, (departamenduko) bozketan presentatzen dira. Gero, Etcheverry-Ainchart (parlamentuko) diputatuaren bitartez, Konstituzio berri bat antolatu beharra duen legebiltzarrari helarazten diote. Horretan gelditzen da legegaia, ezen legearen apailatzeaz arta duen batzordeak ez du aintzakotzat hartzen, eta ez du diputatuen biltzarrari presentatuko. Holaxe dabil frantziar demokrazia, tantiruliruli, besteak iduri, azkarrari ezti, behardunaz irri... Baina bego morala.

Marc Legassek eta honen lagunek eginiko legegaiaren eskatzen dena hauxe da<sup>2</sup>: Iparraldeko Euskal Herriaren barneko autonomia

---

<sup>1</sup> *L'Écho du Sud-Ouest*, 19-11- 1974

<sup>2</sup> *Statut d'Autonomie du Pays Basque dans la République Française, projet de loi*, Editions Hordago, Imprimerie Mugalde.

Frantziako Errepublikaren baitan. Departamendu bat eginen dute hiru probintziek. Baina lege batzuen bozkatzeko eskubidea ukanen du kontseilu jeneralak (departamenduko diputazioak). Gobernu txiki baten eskubideak ere ukanen ditu, administrazio eta zerga bereziekin. Hots, araudi honetan Frantziako Estatuari uzten ez dizkion gauza guztietan, osoki beregain litzateke Ipar Euskal Herria.

Estatuari uzten diren eskubide premiatsuenak dira: Errepublikako lege nagusia (konstituzioa), diplomazia, aduanak, dirugintza, gerla, postak eta komunikabideak.

Euskararentzat ofizialtasun osoa eskatzen da, frantsesak dituen eskubide berekin. Praktikan eskatzen dena gutiago da. Lehen mailako eskoletan, euskaraz eginen da lehen hiru urteetako irakaskuntza guztia. Gero, lau urtez, euskaraz finkatuko da ikasketa: euskaratik abiatuz ikasiko da frantsesa. Zertifikatu, «brevet» txikia eta «brevet» handia, Euskal Herriko arduradunek zuzenduriko ikasgaien araber emanen dira. Bigarren mailako irakaskuntzan, euskara arrotz hizkuntza bezala har daiteke (ingelesaren eta gaztelaniaren heinean beraz). Bordeleko eta Tolosako fakultateetan, letretako lizentzian sartuko da euskal diploma.

Hegoaldean demokrazia berriz jarri orduko, Hego Euskadiko arduradunekin kultura mailako harremanak finkatuko ditu Frantziako gobernuak, Ipar Euskal Herriko kontseilu jeneralarekin bat: Ipar eta Hegoaldeko euskaldunen diploma batzuen berdintasunaz bereziki.

Hots, garrantzizkoak dira euskarari dagokionez eginiko eskakizunak, lehen mailako irakaskuntzari begira eginak behintzat. Halaber ekonomiari dagokionez, gobernu, administrazio eta zerga bereziak erdietsi nahi direnaz geroz...

Gerla ondoan Espainiako Estatuan ere demokrazia berriz eraiki beharra zuten Frantziak, Ingalaterrak eta Amerikako Estatu Batuek: beraz Hego Euskadik autonomia berriz eskuratu beharra zuen, eta horrek Iparraldeari lana erraztuko zion. Baina holakorik ez zen gertatu, eta oraino ere ez da gertatu. Ondorioz, huts egin zuen Legasse eta horren lagunen estrategiak edo jokabideak. Baina ez dut uste debaldetan izan zirenik horien lanak eta bestalde egin zituzten guztiak. Honetan mugatzeko, oso interesgarria deritzot antolatuta zuten legegaiari, eta nork daki ez denez egun batean egiazki baliatuko?

## Enbataren entsegua

1963ko apirilaren hamabostean Itsasun, Aberri Eguna. Haritz gazte baten inguruan bildurik gaude mila euskaldun. Enbata mugimenduko lehen biltzar nagusia da. Itsasuko Ageria bozkaturik, politikazko ageri bat onartzen dugu<sup>1</sup>. Hor lehenik eskatzen dena, euskal departamendu bat, euskararen aldeko lege (statut) batekin.

Legassek, 1973an bere legegaia berriz argitaratuko duen liburuxka hartan, Enbataren xedea pixka bat gutxietsiko du, nahiz ez gaiztoki: legegaiaren zati txiki bat duela bere gain hartu Enbatak, autonomiarik eskatu gabe. Hala da.

Baina autonomiaren eskatzeko garaia ote zen? Zernahi gisaz, departamenduaren eskakizunari ez zion garrantzi gehiegi ematen Enbatak, zeren laster etorri beharrak zitzaizkion Euskadiren batasuna eta beregaintasuna: berehala itzaliko ziren Franco eta de Gaulle, Europaren batzea eta eskualdekatzea aurrera eramane ziren, demokratizatuko ziren espainiar Estatuko erakundeak, eta abar... Orain irriño bat egin dezakegu. Baina hamabost urte badu aterpetuek erraten digutela urte oroz «datorren Eguberriko etxera goaz».

Enbataren politikazko ageri horretan eskas dena, bizibidezko eskubideen aipamena da, ene ustez. Aldiz kultura mailan, Legasse-  
ren legegaia baino urrunago zoan, iduriz, Enbataren eskaria. Itsasuko biltzar nagusian, Martxalin Arbelbidek oldearen izenean eskatu

---

<sup>1</sup> «Gure política saila

Ikusirik: –Euskal Herria orain bi zatitan berezia daukatela Frantziak eta Espainiak;

–Euskara gibel ari dela;

–Ipar aldeko hiru probintzien bizipideak errekarra doatzila, gazteria heritik kasatuz;

Ikusirik:

– Oraiko frantses politika mota guztiek Euskaldunen interesak osoki bazterrera uzten dituztela, bai bizipideen, bai kulturaren aldetik, dela Frantziaren gerizan, dela Europaren batetaratzeke moldeetan, Enbata oldeak, Lapurdido Itsasun bildurik, 1963ko Apirilaren 15ean, huna zer proposatzen dien Euskalduneri:

– Lehenbiziko epean, eta Frantziako Errepublikaren legepean, Ziberoa, Basa-Nabarra eta Laburdi elgarretaratuko dituen Euskaldun departamendu bat, Euskararen alderako lege batekin;

– Bigarren urrats batean, eta Europaren batasunean, Zazpi Euskal Probintziak elgarretaratuko dituen Eskualde bat, politikako, administrazioeko eta kulturako sailetan bere gaintasunekin, Europako beste Herriari datxikola».

zuen haxe zen: irakaskuntza guztian, administrazioan eta bizi publiko eta ofizial osoan frantsesa bezain gora emana izan zedin berehala euskara. Baina autonomiaren bidez helburu bera erdietsiko zuen beharbada Legasseren legegaiak.

Dena dela jarraik dezagun. Eta horretarako, lehenik urrats bat atzera edo gibel egin dezagun. Nola sortu zen euskal departamendua- ren aldeko xedea? 1962ko udazkenean, *Enbata* hilabetekaria egiten zuen multzoaren inguruan hartu zen xede bat: ondoko Aberri Egunean Enbata mugimendua eraiki behar zela. Horretarako bilkura txikiak hasi ziren. Anaia gehienak erran zidan: «Gero urrun bati buruz doatza Enbataren xedek. Ontsa da. Baina jendea ez duzue horrekin berotuko ez bilduko. Arren (beraz) helburu hurbilagoak eta errazagoak ere behar dituzue.»

Frantzia behere horretan ikasle nintzelarik, euskal departamen- du baten beharraz ari izana nintzen beste euskaldun ikasle batekin, Legasseren legegaiak eta aitzineko entseguez deus jakin gabe. Anaia- rekin nuen solasean asmo horretaz oroitu nintzen eta aipatu nion. Ontsa iruditu zitzaion, ezen laster bete zitekeen jomuga baitzitzaion hari ere. Enbataren bilkura batean aipatu nuen, urrats irian. Onartu zuten. Baina biltzar nagusiak erabaki beharra baitzuen, ez zen Abe- rri Egunera heldu arte kanpora zabaldu behar.

Udaberriari buruz, euskaldunen nortasuna eta eskubideak oihuztatuko zituen Ageri baten idazteko talde bat egin zen. Horko lankide bakoitzak zerbait asmatu behar zuen. Horiatarik bat zen Mixel Labeguerie, abenduan (parlamentuko) diputatu hautatua eta *Enbata* kazetako lagun isilkaria (1963ko udan utziko gaituena). Berak proposatu zuen idazlanean, lehenbiziko epe batean euskal departamendua eta bigarren batean Euskadi Europan eskatzen zi- ren. Horiek denbora bateko eskakizun mugatuak zirela erantzun zitzaion: politikazko ageri batentzat egokiak zirela, baina euskaldu- nen ageri bezala, zerbait orokor eta iraunkorragoa behar zela. Beraz Labeguerieren agerigaia, pixka bat aldaturik, politikazko xede bi- hurtu zuen taldeak. Horrela sortu zen Enbatak euskal departamen- duaz egin zuen eskaria.

1964ko udaberrian, xede hori aipatu genuen kontseilu jen- eraleko bozketan, Donibane Lohizungo kantonamenduan Ximun Haranekin, Baigorrikoan Etcheverry-Aincharten bitartez.

Udari buruz, Labeguerie diputatua bultzatu nahi ukan genuen diputatuen biltzarrean gure xedearen sustatzera. Erantzun zigun

diputatu baten legegaiaren eztabaidatzea ez daitekeela onar, ordainik gabeko gastu edo xahutze batzuk ekar baldin baditzake. Egia da. Erran genion diputatuen biltzarrean aipatzea behintzat egin zezan. Erantzun zigun debaldetan izanen zela. Hori ere hala zen. Baina diputatuei gelditzen zaien botere bakarra, mintzatzekoa da: zergatik ez horretaz balia, herri kontzientziaren pizteko bederen? Hau zen Enbatak lehenik nahi zuena. Baina ordukoz Enbatatik urrundua zen Labeguerie.

Urte hartan, Pariseko eskualdean bospasei departamendu berri eraiki zituen gobernuak. Karia horretara, ez zigun kalterik eginen «kukuruku» on batek behintzat.

1967an euskal departamendua berriz aipatu genuen. Udaberrian (parlamentuko) diputatuen bozketan eta udazkenean kontseilu jeneralekoetan ari izan zen Enbata. Xede horretaz egin zuen bere propagandaren parte on bat. Diputatuen bozketan, bigarren itzulian lekuak hustu behar izan zituen, boz eskasez. Beste kandidatuei gure helburuez zer zioten galdetu genuen.

Erantzunik ez ziguten eman komunistek, ezta Inchauspek (Euskal Herri barneko gaullistak). Departamenduari dagokionez, hein bat alde agertu ziren Grenet erdikoa eta Marie gaullista, biak Kostakoak. Labeguerie aldiz (barnean erdikoa), kontra. Nagusitu ziren Marie eta Inchauspe. Departamenduaren alde ez zuten fitsik entseatu.

Kontseilu jeneralerako bozketan, Enbatak agertu zituen, azkenez, euskal departamendu aldeko arrazoi funtsezkoak<sup>1</sup>.

“Departamendukatzearen hizkuntza da frantses Estatu erdirakoiak ulertzen duen bakarra. (...) Hortakoz du Enbatak, euskararen aldeko lege batekin, euskal departamendu baten eraikitzea eskatzen”.

### *Legezko nortasun bat*

«Departamendu bilakaturaz, legezko nortasun bat erdiets lezake Euskal Herriak...» Batasun gehiago ere balukete gure hirur probintziak: Oloroneko suprefekturari loturik dago Zuberoa (bai eta Paueko komertzialdegia). Gaur ez dago, legez, Euskal Herririk. Honen zerbitzuko erakunderik ez dago. Jende batek paperak behar dituen bezala, «statut» bat behar du herri batek.

---

<sup>1</sup> *Enbata*, 76, 1967ko iraila.

## Tresna eraginkor bat

Bere kontseilu jenerala eta bere diru-kutxa balituzke Euskal Herriak. Euskaldunen zerbitzuko lirateke horiek. Gaurko departamenduan, beti gutxiengoan gaude. Lacqeko industria eta Pirinio mendietako negu-tokiak zinez lagundu ditu kontseilu jeneralak. Gure industriaren eta mendiko hazkuntzaren alde ber heineko indarra egiten ahal luke euskal erakunde batek. Bestalde bagenituzke komertzialdegi bakar bat (Zuberoa barne), laborantzako gela (ganbera) bat, eta abar...

## Kulturako erakunde bat

Irakaskuntzan behar dugun guregaintasunetik zerbait bagenuke: Akademiako inspektzio berezi bat, irakaslegaientzat bi hizkuntzetako ikasgai bat, bilinguismo ofizial bati buruzko bide bat, Alsazian edo Quebecen bezala...

Ohar berezi bat hartze du puntu honek. Ez da dudarik euskalduna ez den departamendu batean, irakaslegaien eta irakasleen artean bereizkuntza bat nekez egin daitekeela: adibidez Lescarren dagoen «eskola normalean», nolaz batzuk euskaraz ikastera bortxa daitezke, besteak aldiz ez. Halaber irakasle bat izendatzen delarik, Biarnora igortzen da berdin euskalduna, eta biarnes bat halaber Euskal Herrira: departamendua bat denez geroz, zergatik ez?

Are gehiago, bi hizkuntzetako administrazio bat ezin asmatua da euskal departamendu bat gabe. Eta Euskal Herrikoak ez diren kontseilariak badauzkan kontseilu jeneral batean, kasik ezinezkoa da, euskaltzale gogorrenentzat ere, euskaraz mintzatzea. Aldiz Euskal Herrikoa litzatekeen biltzar batean, ahal litzateke, guztiek ez jakinik ere.

Horretaz eredu bat emanen dut: Zuberoako mendien sindikatuarena. Azken urte hauetaraino, euskara hutsean egiten ziren bilkura guztiak. Alta bada, euskararik ez zekiten zenbait hor bazeuden: aspaldixkon biarnestuak diren Ozaraine eta Jestaizu / Jetzateko herrien ordezkariak. Ez ziren bozik gelditzen hauek. Baina biziki aise isilarazten ziren erranez: «Zuberoako biltzarrean gaude, beraz egoki da zubereraz egitea. Ez dakienak ikasi behar du». Baina

geroztik euskaraz ez dakien lehendakari bat hautatu dute, jauna behar zelakoan, eta geroztik, bistan da, frantsesez ari dira...

Kulturaren garrantziaz ez dut predikurik eginen: ohartu nahi duenak berak ikusiko du ekonomiaren hazkundera gero eta gehiago jakitatearen eta jakintzaren gain oinarritzen eta finkatzen ari delarik.

## Euskal botere bat

Nahiz (departamendua) tinkatzen duen Pariseko erdirakoikiariak, legezko ahal bat baluke Iparraldeko Euskal Herriak. Beti eskelari bezala, goiti beha egoteko orde, geure kasa zerbaiten egiteko eskua bagenuke euskaldunok: horrela autogestioaren, guregaintasunaren aprendizgoa egiten ahal genuke.

### *Arartekari bat*

Euskaldunon eta Frantziako Estatuaren arteko arartekari bat litzateke euskal departamendua. Hegoaldeko lau probintziek beren departamenduak, beren biltzarrak, beren diru-kutxak (nahiz ez orain herritarrak) baitituzte, haiekiko bitartekaria litzateke, halaber, departamendua. Horrela, egiazko harreman serio eta eraginkorrek bagenituzke maila eta sail guztietan. Ezen Hegoaldekoak badira (nahiz gaizki erabiliak) eta gu oraino ez gara.

### *Batasunari buruzko atea*

Euskadiren batasuna eginen delarik ere, baitezpadakoa izanen da Iparraldeko euskal departamendua. Ezen Bizkaiko industriaren indarrak baliatu behar dugu, baina haren azpian itotzera egon gabe. Gipuzkoarrek eta nafarrek bezala, gure nortasuna atxiki behar dugu, biltzar bereizi bati bermatuz.

Hara, guti gora-behera, asko laburturik eta horrez beharbada pixka bat ahuldurik, Enbataren arrazoiak.

1968tik, departamenduaren xedea ez du hainbat aipatuko, gazteek asmo hori gutxiesten baitute. Nahiz ez duen horregatik ukatua, 1972an idatziriko azken liburuxkan ez du aipatzen ere <sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> "Enbata oldearen xedeak eta jokabideak".



Puntu bat ahanztear dut: prefeten ohiltzea eskatzen du Enbatak, zeren demokrazia batean ez da horrelakorik. Herriak bozez hautatu dituen pertsonak dute gobernatu behar, ez goitik behera izendatuak diren arduragabeko kargudun batzuek. Kolonia bateko gobernaria da prefeta, besterik ez. Eta hain zuzen, ingeles bati, edozein demokraziako (herritar) bati prefeta zer den azaldu nahi baldin badiozu, ez zaitu inolaz ere ulertuko, non ez diozun hau erraten: urrungo kolonietan gobernadoreak izendatzen zenituzten, badakizu? Hara, holakoetarik dira prefetak.

Frantziako iraultza denboran, ez zen prefetik. Tresna hauek, Napoleonek asmatu zituen, eskumakila bezala, herriari zigorraren emateko. Ez da ikustea bezalakorik: gerlako jauntzitan da prefeta. Herriari gerlaren egiteko.

## Komertzialdegiko lehendakariaren xedeaz

Besterik da Saint-Martin jaunaren arrazoinamendua. Honek dio elkarretarik urrun daudela Baiona eta Pau. Horretakoz zuten 1947an Baionako komertzio gela (ganbera) bi zatitan eman, Pauen beste bat eraikiz (eta Zuberoa honi lotuz). Alta bada, 1726an egina zen Baionakoa. Halere ontsa gelditu dira baionesak eta pautarrak. Beste maila eta sailetan ez ote litzateke gauza bera egin behar? Ezen ez dira komertzioko gelen gorabeheretan mugatzen bi hiriburuen nortasunak eta beharrak.

Nahiz bideak hobetzen dituzten, luzatuz doaz Paueren eta Baionaren artean: gero eta gehiago korritzaile bada, beribilen ibilerari legezko trabak ezartzen dizkiote, beti kariotzen ari da ezantza, gasolina edo bentzina... Joan-jinaren egiteko, hiru ordu behar dira, askotan ordu laurden bateko bilkurarentzat, edo baliorik ez duen bilera zerbaitentzat: nagusi, kargudun, funtzionario, sindikalistak noiznahi bidez-bide hor dabilta, beharrez edo behargabe: zenbat denbora galtze...

Bigarren arrazoi bat balitzateke: Espainiako atean dago Baiona, Europako bide handienetarik baten atezaina. Ondoko urteetan aldakuntza handiak ekar diezazkioke leku horrek. Bere kargu, baldintza eta behar-ordu berriei buruz apailatu behar du. Bere eginbidearen betetzeko, bere hazkundearen obratzeko eta zuzentzeko, baitezpadakoa, derrigorrezkoa zaio bere eskuko tresna bat.

Jadanik bi buru dauzkate departamenduko administrazio batzuek: segurantza, posta, eta abarrek... Ez ote da bururaino joan behar, prefektura bat Baionan jarritz?

Hara Saint-Martin jaunak agertu dituen argudioak. Herritasunik, ez kulturarik, ez euskaldungorik ez du aipu. Ez gara harrituko. Alde batetik industrialaria da jaun hori, industrialarietako hautatua, horien interesez arta hartzeko izendatua. Bestetik diru arrazoiak baizik ez ditu entzuten diruak zuzentzen duen gaurko gizarteak. Azkenekoz, edo lehenik, eta oroz gainera, ez da «separatistatzat» agertu behar. Sexualitateari konpara nezake euskaldungoa: hura bezala ahalkegarria, ezkutuan eduki eta isilean utzi beharra dago.

Saint-Martin jaunaren iritziaz herri-gizonen artean ikertze bat eginik, *L'Echo du Sud-Ouest* egunkarian (abenduaren 12, 13 eta 14an) hiru egunez erantzunak agertu ditu Gexan Lantzirik.

Henri Grenet, Baionako auzapeza xede horren alde litzateke, ekonomiazko arrazoiz. Landetako zati bat departamendu berrian sartu behar litzateke, Akizeko eskualdea barne. Bestalde, bi herrialde eta bi hiriburu baitaude gaurko departamenduan, etnien aldetik zuzentze bat dakarke departamendu berriak. Baina mementoan, neke iruditzen zaio Baionako auzapezari.

Victor Mendiboure, Angeluko auzapeza, iritzi berdinekoa da era guztietara (ekonomia, etnia, Akize... nekezia!). Deituraz euskalduna izanagatik, bere ustez gaskoia dugu jaun hori, Baiona-Angelu-Miarritzeko jende anitz bezala. Ez da harritzekoa, bizibidezko arrazoietatik at ere, Akizeri begi onez so egiten baldin badiote: Landetan inperialismo pixka bat eginez, ber denboran euskaldungoa ito dezakete. Adibidez, euskal jakintzako taldeei diruzko laguntza hertsiki neurtu dezake departamendu berriko kontseilu jeneralak, gaskoiak ere hor daudelako estakuruan. Aldiz euskal departamendu batean holako aitzakiarik ez luke: bakoitzak argi eta garbi, alde edo kontra agertu behar luke. Halaber bilinguismo bat irakaskuntzan eta administrazioan nekez eman daiteke Landen zati bat har dezakeen departamendu batean. Kultura aldetik behintzat, gaurko egoera berean gerta gaitezke euskaldunok: gaur biarnes gehiengoaren izenean baztertzen digutena, bihar landes gutxiengoaren izenean uka liezagukete euskaldun herri-gizonek berek. Gure azeriak ongi ezagutzen ditugu engoitik. Horietaz Henri IV.aren hitz bat erran genezake: askok traditu gaituzte itsuski, baina gutik gaituzte tronpatu.

Bernard Marie, Kostako diputatu gaullistak, asmo bera dauka, guztiz ekonomiazko arrazoiz. Landen zati bat, Akize barne, departamendu berrian ikus lezake. Praktikan ez zaio hain erraz administrazioerako erakundeen arramoldatzea, mugen aldatzea, eta abar. Hegoaldeko ekonomiari loturik ikusten du Baionako eskualdearen hazkundera: hortik etorri beharra zaio departamendu bereizi baten premia.

Atchoarena, Bidarteko alkatea eta Lapurdiko auzapezen Biltzarreko lehendakaria, departamendu berri baten alde dago: Lapurdiko mera guztiak bezala, berak dioenez. Paue urrun zaie. Hegoaldearekiko harremanekin haziko da Baiona. Lan luzea eta karioa zaio halere.

Ithurralde, Donibane Lohizungo auzapezak: zergatik ez? Baina lehen zaio (Okzitaniako) Tolosa, Bordele eta Hegoaldearekiko bideen hobetzea. Gaullista berria dugu jaun hori, Antchoarena bezalaxe; erdikoak aldiz Mendiboure eta Grenet; hau etorkiz Frantzia behere horretakoa.

Errecart, Hendaiaiko auzapezak: bai, Biarnotik bereizi gabe (sic!). Akize hartuz. Baina departamendu berri horren esperantza handirik ez du frantses sozialista honek. Etorkiz euskalduna dugu, euskal kontzientzia bizkorrik gabekoa naski, baina franko demokrata.

Celay «radical» alderdikoak: bai. Haatik, ez ote litzateke lehenik egiazko suprefetura bat antolatu behar Baionan? Beharbada aski litzateke. Baionari eskubide gehiago eman behar lekioko. Departamendu berri baten eraikitzea onar ote dezake gobernuak? Hala balitz, Tarnoseko eskualdea hartan sartu behar litzateke.

**Ene oharra:** egia da eskualde txiki hori Bokaleko industriaren peko dela, bai eta era guztiez Baionari josia: departamendu berrian sartzeak ez liezaioke inori kalte handitik ekar, horko jendeak onartzen lukeen ber.

Herriko Alderdi Sozialistak: gaurko departamenduak bi buru dauzkala, denek ezagutzen dute. Biarnesen eta euskaldunen nahia-  
ren aurka egin izan zen. Garat anaien protestez oroit gaitezen...  
Eskualde askotarik abantailak ekar litzake Ipar Euskal Herria departamendu bilakatzeak. Baina, ber denboran, Baionan prefektura baten eraikitzeak administrazio erdirakoia azkar dezake eta honen barranda hertsia egin. Napoleonengandiko sistema erdirakoi eta zapaltzailea ez dugu hazi nahi.

Halere, arteko urrats bezala, egiazko eskualdekatze baten baitan, Euskal Herriko eskualde-departamendu bat (ber denboran eskualde baten eta departamendu baten eskubideak lituzkeen erakunde bat) eskatzen dugu, diru mailako beregaintasun batekin, plangintzako erakunde batzuekin, eta horrek nahi du prefekturaren ezeztatzea.

Ohar bat hartze du HASen eskakizun horrek. Enbataren departamendu xedea eta frantses ezkerraren eskualdekatze herrikoia elkarri uztartu ditu, Enbatak bere azken denboretan guti edo asko (egia erran, guti) aipatzen zuen bezala. Baina bizibidezko eskubideak jakintzazkoei eta politikazkoei hobeki josten ditu. Frantses Alderdi Sozialistako buruzagiei xede hori presidengorako bozketan ezagutarazi zien: printzipioz onartu zuten, «c'est logique» erranez.

Eskualde-departamendu baten eredia bada, edo bazen: ber denboran eskualde bat eta departamendu bat zen Korsika uhartea. Orain bi departamendutan zatitzen dute, Frantziako iraultza denboran zen bezala. Alde batetik autonomiazaleen aurka egiten dela erraten da, bestetik mendiak uhartea eta honen hizkuntza bi zatitan ematen dituela aitortu behar da.

Korsikaz azken ohar bat: barneko autonomia eskatzen dutela horko bost alderdi ofizialek. Duela urte zenbait masa borrokara igan behar zutela iduri zuten Britainiak eta Ipar Euskal Herriak: Korsika lehendu zaie.

Sauveur Narbaitz, frantses Alderdi Sozialistakoak: Aturri behereko departamendu bat behar litzateke, zeren urrun dago Paue, eta goiti-beheiti asko tokian berean zuzendu behar lirateke. Bakoi-tzaren ardura ere hobeki mia daiteke. Baina mementoko asmo hori kasik amets bat zaio. Euskaltzale eta demokrata fina dugu (Sauveur Narbaitz) jaun hori: bera ez abertzalea izanagatik, abertzaletasuna beti errespetatu du, gutik egin duten bezala. Halere euskaldungorik ez du aipu hemen. Sexua bezalaxe ezkututzen da bizian garrantzi bertsua daukan gauza debekatu hori. PS alderdiaren kontraerriak usnatzen ahal ditugu: euskaltzale suhar zenbait ukanagatik, erdirakoia da orainokoa gehiengoa.

Georges Menaut, PSUkoak: gobernuaren eskumakila da prefeta. Holako jaun bat Baionan izatean, zer abantaila lukete jende xehet? Berdin xuhur lirateke diru laguntzak, berdin baratx (geldo) administrazioko lanak. Biarnora joaten direla laguntza gehienak, ez da egia. Laguntza gutiegi ematen du batzuei eta besteei Estatu erdirakoia. Gure eskualdea turismoarentzat dauka bere plangintzan.

Kanore zerbait badute jaun horren erranek. Baina euskaldunen eskubideak ezagutzen baitituzte berak eta horren alderdiak, ordainez deusik ez proposatzea handi zait. Departamendua gisa bertsuan jorratu du HASek, baina ez da horretan gelditu: beste xede bat, herriarragoa, bere aldetik agertu du.

Mixel Labeguerie, Kanboko auzapez eta Pirinio Atlantikoetako senatari denak: Baxenabarre eta Lapurdiko herri-gizonentzat, Paue baino hurbilago litzateke Baiona. Haatik Zuberotarren iritzia ezagutu behar litzateke: betidanik Biarnori josiak daude, Baiona urrun dute.

Bestalde, departamendu berri horren abantailak eta guztiz trabak ikusi behar lirateke. Politikaren aldetik, bigarren mailakoa zaio euskaldunen batetaratze hori, ezen Landetako eskualde batzuei lotzea manatzen diete bizibidezko interesek. Euskalduna eta landesa litzateke, ber denboran, departamendu hori.

Departamendu berri baten asmo hori agertu dutenek, orain serioski aztertu behar lukete. Gero berriz aipatuko dugu...

**Ene oharra:** Euskaltzaleen Biltzarreko burua dugu Mixel Labeguerie. Politikarekin deus ikustekorik ez ote du euskarak? Ekonomiaz mintzatzea errazago da, modan baitago sail hori. Ekitea besterik da. Gaurko jendartean, (ekonomia) herri-gizonek zuzentzen ote dute?

Departamendu batean kokatzen ote dira bizibidezko harremanak? Ekonomiaren zuzentzeko, hazteko eta kudeatzeko gai den erakunde bat ote da gaur departamendua? Ez ote da jendeari eta herriari kasu gehiago egin behar?

Zuberoa luzaz Nafarroari loturik egon da. Denbora batez, horren zati bat baizik ez zen. Gero zenbait mendez horren hegalpean bizi izan da. Eta gaur, Baxenafarrekin ditu laborantzako harreman gehienak, Donapaleuko «Lur Berrin» eta merkatuan ikus daitekeen bezala. Baiona urrun dugula, egia da: horretaz bi hitz erranen ditut sarri.

Guy Petit jauna, Biarritzeko auzapeza, Pirinio Atlantikoetako senataria hau ere, ez da auzi horretan busti nahi. Garrantzi handikoa zaio. Arazo asko harrotzen ditu departamendu berri baten xedeak. Ez omen da goizegi eztabaidan sartu behar. Adinaren beha ote dago jauna? Beste auzi batzuetan badaki goraki mintzatzen: bereziki frankotiar kazetei aterpetuen eta abertzaleen aurkako ihardesprenak ematen dituelarik. Axalez liberala eta erdikoa dugu jaun hori, baina ideologian eta egintzetan eskuina baino eskuinagokoa.

Labrousse, Frantses Alderdi Komunistako idazkariak: prefektura berri baten eraikitzeak eskualdearen hazkundera lagundu deza-

keela dio xedearen agertzaileak. Gaurko herstura gure eskualdean hauts ote lezake Baionan prefektura baten ukaiteak? Ez da serio hola mintzatzea. Nahiz edo ez nahiz, begietara errauts aurtikitzea da. Egiatzko arazozen bazterretik ibiltzea da.

**Ene oharra:** alderdi horrentzat, euskal arazorik ez dago. Problema guztiei erantzun bat ekarriko die frantses ezkerren programa batuak. Frantziako Estatuan ez dago herri bat baizik. Eskualdeetako mintzairak lagundu behar dira halere. Baina praktikan, ezer ez du egiten Frantses Alderdi Komunistak, ez eta ezer konkretuki proposatzen. Horrekin egin dituzten harremanetan aski frogatu dute bai Enbatak, bai HASek. Euskal ezker ahul egonen deino, horrela gertatuko da PCFrekin bai eta oro har, nahiz polikiago, PSrekin.

Saint-Martin jaunaren hitza: (departamendu berri baten) asmo horren sortzaileok, ez gara haurrak. Jakin osoan dugu zabaldu. Gainera, erantzun ona du iritzi horrek eskualdean, Saint-Martin jaunak dioenez.

Herri osoari dagoela horrelako erabaki baten hartzea. Herri-gizonen iritzia ezagutu nahi luketela asmoaren ereileek. Beraz laster beren gogoeta, urrats eta ekintzetan parte hartzera deituko dituztela. Haiekin ikusi beharko dela zer erran eta zer egin.

Hara *L'Echo du Sud-Ouest* egunkariak eginiko azterketaren bukaeran, Baionako komertzio gelako (ganberako) lehendakariak dioena. Gerokoak geroko. Beha gaude, ni behintzat halako Sant Tomas aire batekin. Departamendu berri batentzat aterabiderik bai ote da? Zer abantaila ekar dezake? Zein izanen da Zuberorearen zortea?

## Suprefetura Maulen?

Euskal departamenduaren asmoaz eztabaidan, laster kalapitan, kasik aharran eta mokokan ari izan nintzen Xan Irigaray adiskidea-rekin, duela hamar urte, *Herria* astekarian. Berak: «Ez dugu departamendu txar baten beharrik». Nik aldiz: Ez genuke batere gaizki, dela eskualdeko ekonomiaren, dela euskal politikaren, dela euskararen hobeki laguntzeko...

Orain, aitor dut, ez nuke departamendu-gai horretaz aharran artzeko gutziarik... Ez asmoari uko egin dudalakoan, baina holako zerbaitek Euskal Herriari ekar lezakeen ongizatearen bazterra hobeki

asmatzen dudala uste baitut. Beste aldeko probintzietan gertatzen denak ez ote duke guretzat ere ondorio handiagoa?

Halere ez zait iduri mespretxatzekoa denik Komertzio gelako (ganberako) buruzagiak agertu duen xedea. Holako jaun serioa ez daiteke ustekabea eta nolana mintza. Zerbait onik ekar lezakeela segur iduri du, eta horren erdiesteko esperantza zerbait ere baduke.

Herri-gizonen eta alderdien artean horretaz *L'Echo du Sud-Ouest* delakoak agertu duen ikerketak erakusten digu: guti dira oso kontra agertzen diren jaunak eta alderdiak. Bestalde, Draguignan hirian berriki gertatu denak frogatzen digu hiri eta eskualde baten-tzat bere garrantzia baduela prefektura batek, bizibide mailan ere: enplegu asko ematen du. Erranen da, ez arrazoirik gabe, kanpotik etor daitezkeela enplegatu gehienak. Baina tokiko jendeei hor lanaren erdiesteko borroka egin daiteke. Bestalde, irabazpide polita izan daiteke tokiko sal-erospenentzat.

Baina zuberotar naizen bezala, honetara iritsi nahi nuke: norako duten Zuberoa, Biarnokoan ala Euskal Herrikoan sartu nahi duten. Zeren Landetako zati bat Baionari lotzea anitz aipatu dute, aldiz gure Zuberoaz ez dute hitzik salatu jaunek, Labegueriek salbu.

Zuberoa Euskal Herriko departamenduan sartu behar dela dudarik ez dugu abertzaleek, guztiz Zuberoakoek: euskaldunak baikara, norbait izatekotan. Bestela guztientzat galtze handia litzateke. Euskal Herriatik luzezko bereizirik legoke Zuberoa, gero eta gehiago euskaldungoaren galtzera kondenatua. Ez litzateke aldiz euskalduna departamendu berria, guztiz Landetako puska handi batekin, Zuberoa gabe. Eta gero ere, Euskadiren batzeko orduan, nekezago gerta liteke Zuberoa beste probintziei lotzea. Ez genuke beraz Zuberoarentzat onartu behar denboran Nafarroari egin zitzaiona: beste euskaldunetarik bereiztea.

Baina Zuberoa euskal departamenduan sartuz geroz, ez genuke zoko batean bazterturik utzi behar, Baionatik urrun... Horretaz ere min dudan tokian ematen dut mihia. Eta ez nago batere bat Jose Luis Lizundia adiskideak idazten duenarekin<sup>1</sup>: euskal departamenduko suprefetura Donibane-Garazin behar litzatekeela, Iruñeari hurbil dagoelakoan! Ene ustez, euskal departamendurik egiten baldin badigute, suprefetura Maulen behar da. Zergatik eta zertako?

---

<sup>1</sup> *Euskal-Herria, lur eta gizon*, 58 or., Jakin Sorta.

Duela berrogeita hamar urte oraino, suprefetura bat Maulen bazen: ez dute ahantzia adin bateko zuberotarrek, eta besteek ere badakite, plazatik hurbil han baitago beti «suprefetura» deitzen dugun etxe hura. Ez da zuzen berriz ere besteen meneko izan gaiten zuberotarrok, biziko urrats guztietan jo hara, jo hona, txakur errabiatuk bezala, beti bidez bide. Garazi (eskualdea) aldiz ongi kokaturik agertzen zait, Maule, Iruñe eta Baionaren artean. (Parlamentuko) diputatua ere ardura bertako dute aspaldiko ohituraz: Renaud, Floquet, Ybarnegaray eta Inchauspe batzuen aipatzea nahikoa da...

Abertzaleei ez dut luzaz azaldu beharrik Zuberoak, halaber Hegoaldeko Nafarroak, kasu berezi bat hartze dutela, historian barna euskal guduketan lehen lerroan egonez hartu dituzten zaurien sendagailu, bai eta euskaldun haurrideengandik ere merezi ez zituzten mespretxu gehiegi haien ordari. Hots Zuberoa beste probintziei loturik atxikitzekotan, suprefetura Maulen behar dela uste dut. Nafarroari dagokionez, Iruñea genuela euskaldunon hiriburua ez dugu agian ahantziko. Horretaz ez dut gehiagokorik erranen gaur.

## Bukatzeko

Ez digute guri galdeginen euskal departamendu bat behar den ala ez. Gaurko gizartean jaunen aferak baitira horiek oro, bai eta gainerateko gehienak. Ikusiko da laster norainokoa den euskal jaunen indarra. Gaineko Euskal Herriaren egitea horien esku dago. Baina peko Euskal Herriaz arta hartzen dugunontzat, bere garrantzia baduke gainekoak, gizarte kapitalista batean gaudeino. Beraz jaunak, herriaren interesak eta etorkizuna ahal bezainbat kontutan harturik, beren eginbidearen betetzera bortxatu behar ditugu abertzale sozialistek, nagusi direino, gure lan berezia behin ere bazterrera utzi gabe.

Departamendu berri baten egitea ez da beharbada gure meneko. Baina holakorik egiten baldin bada, ez ote diogu mami herritar bat emanen?

*Jean-Louis Davant ("Johañe Aizager")*





## Andolin Eguzkitza

### Ibilbide profesionala

Andolin Eguzkitza Santurtzin jaio zen 1953ko abenduaren 6an eta Bilbon hil 2004ko martxoaren 24an. Euskal idazlea eta Euskal Filologiako fakultatean irakaslea, 2002an euskaltzain osoa izendatu zuten, Ezkerraldeko lehenengoa. Era berean, Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari ere izan zen 1997tik 2001era bitartean. Eusko Jaurlaritzaren euskara Kontseiluko partaide ere bazen. Halaber, Aralar alderdi politikoko kide eta bultzatzailea izan zen. Langile porrokatua, euskalkiak eta beste hizkuntza batzuk ere ikasi zituen, tartean kataluniera.

Bilboko Deustuko unibertsitatean Filologia erromanikoa ikasi zuen, eta 1976an Salamancara joan zen Koldo Mitxelena hizkuntzalariaren irakaspenak jarraitzera. Handik gutxira, 1980an, Iowa unibertsitatean Hizkuntzalaritza orokorrean metrisa lortu zuen eta Los Angeles (UCLAn) Kaliforniako unibertsitatean doktoretza 1986an. Eta bertan Euskal ikasketen saileko kide izan zen hil artekoan. EHUKo katedraduna.

### Poesia

1986: *Orhiko mendirantz urratsez urrats* (Pamiela)

1993: *Mila urte igaro eta, ura bere bidean* (Susa)

2004: *Arimaren ondoko ezkien artetik ibilki* (Susa)

## Itzulpenak

- 1995: *Olga Omatosekin lankidetzan Konstandinos Kavafis: Poema-antologia* (Pamiela, 124 orr.).
- 2002: *Gunter Grass-en Das Treffen in Telgte / Batzarra Telgten* (Alberdania).

## Eleberriak

- 1979: *Lehen orenean* (Elkar).
- 1987: *Urkidian zehar* (Pamiela).
- 1998: *Herioaren itzalpeetan* (Txalaparta).

## Antologia/Sorta

- 2001: *Quan plou en les entranyes - Errailetan barrena euria egiten digunean* (Brosquil).

## Bestelako lan batzuk

- 1987: *Topics on the syntax of Basque and Romance* (Indiana University Linguistics Club, 214 orr.).
- 1991: Gorka Palaziorekin lankidetzan, *Geografidatutegia, geografi-izen arrotzen ortografia, eta ortoepia finkatzeko saioa* (UPV/EHU, 183 orr.).
- 2001: *Escribir – Santurtzi* (Santurtziko Udala, 148 orr.).
- 2003: *Lore-koroa neure herriari* (Santurtziko Udala, 31 orr.).
- 2004: Maite Etxebarriarekin lankidetzan, *Hizkuntzalaritza orokorra: arazoak eta ikuspegiak* (Arabako Foru Al-dundia, Kultura, Gazteria eta Kirol Saila, 230 orr.).

# Euskal iraultzaz gogoeta zenbait<sup>1</sup>

## 1. Aurre-ohar batzuk:

1.1. Gure kontuari zuzen ekin baino lehen, zera erran behar dut, lehenbizikoz, hauxe dela, izan, proletario ikusmiraz, gogoz eta borondatez bederen, euskal iraultza sozialista, euskal proletalgoaren iraultza, nola buru daitekeen argitzeko egin saioa. Erdietsi dudana, irakurleak esan beza! Bigarrenez, elkar uler ahal dezagun, puntu zenbait aipatu behar dela sinetsita egonik, mugaketa batzuk eginen ditudala, ezagunak seguru asko, ez horregatik baina premiagabekoak. Azkenez, derradan, *Zabal* honetara agertu naizela, aldizkari hau baita euskaldun abertzaleen adierazpide libre bakarra, hain da beraren ZABALtasuna handi, eta, behar bada okerturik egonda ere, gure Herriaren iraultza sozialistarako neure xixker edo ondarhauts ttipia jartzeko ahalegina egin dudalako.

1.2. Bestela badirudi ere, ez dut hemen problema konkretu batez mintzatu nahi, hots, arazo nazionalaz edo herri zapalkuntzaz, euskal, eta mundu osoko proletalgoaren alde borroka egiteko prest gauden euskaldun sozialisten estrategia jeneralaz baizik.

1.3. Ene aburuaz, “nazionalista izatea” zera da, burgesiaren alde jotzea, h.d. “nazio burgesa” edo “Estatu burgesa” eraikitzeke edo iraunarazteke ihardukitzea. *Inork hau egiten ez duen bitartean ez da, nik uste, nazionalista*. Nazionalisten joera, nazional ezaugarriak, eta zapalkuntza ere, burgesiaren alde behar eta izaten ez diren legez erabiltzean datza. Zentzu honetaz, uste dut, ulertu behar dela

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 7, 1974ko Maiatza-Ekaina, 24-29 orr.

zer den nazionalismoa, E.T.A.koek, VI.koek hain zuzen, hainbeste aldiz errepikatua ondo konprenitzeko, hots, “nazionalismoarekiko apurdura edo hautsidura”. “Nazionalista” hitza honela hartzen dut historia dela zio, ba ezina da honez gero / nazionalista=xobinista / berdintasuna desegitea.

1.4. Bestalde, Marx-ek onduriko esaera ospetsu eta sonatua, hots, “Langileek ez daukate herririk”, zein zentzuz erabili ohi zuen argitu behar da:

- a) Berak lanerako asmatu “nazio burgesaren kontzeptua (*concept opératoire, concepto operatorio*) erabilia, h. d., XVI. mendean sortu eta XVIII.ean finkatu egin ziren Europako nazio edo estatu burgesak, oraindik dirautenak.
- b) Burgesiaren eskuetan dagoen *nazioa*, langileena ez baita. Beraz, honek ez du zerikusirik guk darabilgun kontzeptu eta kontuarekin, eta ez du berauetan inolako baldintzarik jartzen.

1.5. Hitzak honela erabiliko ditut:

**Estatua:** erakunde politikoa, esparru batzuek (mugek) mugatua dagoena. Adibidez, Sobietar Batasuna, edo eskoletan alde bateko eta besteko euskaldunoi erakutsi dizkiguten Espainia eta Frantzia. Estatua burgesa bada, Marxen nazioa osatzen du.

**Estatu burgesa** = Marxen nazioa

**Nazioa:** Herria. Ez, eiki, Maoren zentzuaz, h. d., burgesia handiaren kontra interesak dauzkaten klaseek osaturikoa, Stalinen zentzuaz baizik esate baterako, hots, hizkuntza, historia, ezaugarri etniko e.a.ko ezaugarri konkretu batzuek osatutako giza elkarte edo komunitatea.

**Nazionala:** Herri zapalkuntza adierazteko: “arazo nazionala”. Inondik ere baina, burgesia batek bere Nazio edo Estatu burgesa eraikitzeke omen daukan eskubidea azaltzeko.

**Nazionalista:** lehen (1.3.an) esan dudan moduan, daukan zentzu txarraz. Kontzeptu honen aurka eta kontra alde bi daukan beste bat dago:

**Internazionalista** eta **Abertzalea**, nire ustez, berdin daitezkeenak, ba internazionalista izateko modu zuzen bakarra abertzale izatea da.

**Nazionalista/Internazionalista = Abertzalea**

**Nazionalitatea:** nazioa edo herria osatzen duen jendea.

1.6. Humberto Eco-k bere *Egitura urrutiratua* deritzan liburuan dioena ipiniko dut hemen:

“Metodo dialektiko bat erabiliko dugu: azterketa teoriko bat burutzeko, teoria bat proposatu gabe, ez dugu uste aurrera jo daitekeenik, h.d., eredu elemental bat gabe, aitzineratuko dugun arrazonomenduaren gidaria izanen dena; baina badugu ere uste, azterketa guziek kontraesanak oro ateratzeko prest egon behar dutela, eta ez badira agertzen aterarazteko”.

## 2. Euskadi eta euskal proletalgoa

2.1. **Euskal Herria bat da.** Baten batek badioke hau egia zozoa baizik ez dela, baina aspalditxo honetan entzunak entzun eta gero, berresan egin behar da ondikotz. Gure Herria bada herri, kultura bat daukalako, historia, hizkuntza eta kontzientzia nazionala. Ene iritziz argi eta garbi dago, Barkoxe (Zuberoan) eta Mungiako (Bizkaian) baserritar bi euskaldun direla biak, herri berekoak, alegia. Eta inork, kasu, ez badu nazional kontzientziarik, Ipar Euskadin edo Nafarroako Erriberan usu gertatzen den bezala, ez da Euskal Herria ez delako, gizarte honen gainegiturak edo gainestrukturak jartzen dizkigun baldintzengatik baizik. Era beran, bere klaseaz edo egoeraz ez balu proletario batek kontzientziarik, ez luke proletalgoak proletalgo izaten uzten. Luis Ninyoles kataluniar soziohizkuntzalariai zuzen dio: “kontzientziarik ezak gizarte honen egoera lazgarria baizik ez derakuskigu”, h. d., hain dela zapalkuntzaren gogora, ezen jendea ez dela gai problema ohartzeko, eta arazoak ez direla, beraz, ezagutzearen neurrian, benetan direnen neurrian baizik. Lehen jora, ene ustez, idealismokeria hutsa da.

2.2. Beraz, bi estatu burgesetan erdibiturik dagoen herria da gurea, Frantses eta Espainiar Estatuetan erdibituta, hain zuen.

2.3. Errealitate guztietan, ene aburuz, faktore bi ezberdin daiteke, edo are hobeki, errealitate guzien azterketarako “lanerako faktore” bi erabiltzeak merezi du (*facteur opératoire/factor operatorio*). (Argi gera bedi, beraz, ez dela hau erdibiketa manikeo bat, eta bakuna, errealitateaz hobetoago jabetu ahal izateko erabili metodoa baizik):

- a) Objektibotasuna.
- b) Subjektibotasuna.

Lehena ekonomiak eta uneko politikak egiten duena da, bai eta berdintzen gaituena estatuan estatuko; bigarrena, berriz, gure kasu honetan euskalduna euskaldun egiten duena dugu, edo eta espainiar eta frantziar. Agerian dago, Espainiako edozein proletario eta Hego Euskadiko beste edozein, kapitalismoak era berean zapalduak direla, baina agitzen dena zera, *bi proletario ezberdinen zapalkuntza bera*, h. d., euskaldun eta erdaldun batzuen zanpaketa bera. Berdintsu Frantses Estatuaz erran dezakegu.

2.4. Euskal proletalgora erdibiturik dago beraz, bi estatu burgesetan erdibituta, Frantses eta Espainiar Estatuetan. Eta subjektiboki berdin zapalduarik badaude ere, alde bateko eta besteko euskal proletarioak, objektiboki, hots, langile eta proletario diren aldetik, modu ezberdinetara zapalduarik daude, egon.

2.5. Haatik, ez dut erran nahi, nazional arazoa kultur arazoa denik, ez eta gutxiagorik ere; ene iritiz, eta honexegatik egin dut lehen bigarren oharra, euskal iraultza sozialistak helburu eta jomuga hauek ukan behar dituzke:

- a) Euskal proletalgora askatzea: objektiboki proletalgora bezala, eta subjektiboki euskaldun bezala. Honexetarako, eiki, Frantziar eta Espainiar Estatu burgesak desegin behar dira, ezen ez benetako Espainia eta Frantzia.
- b) Euskadiko indar produktiboak eta produkzio-bideak euskal proletalgoraren eskuetan jartzea.
- c) Herri bakarra osatzen dugularik, Euskadiko bi aldeak bat egin eta gero, autoerabakikuntza edo autodeterminazioa burutzea.
- d) Euskadi osoaren *berreuskalduntze osoa*.
- e) Kapitalismoa aienatzearen, mundu osoko langile klasearekin burua bat eginik borrokatzea.

Honegatik badiot nik bat ere beldurrik eta lotsarik gabe:

GORA EUSKADI ASKATUTA!  
MUNDUKO HERRI ETA LANGILE ZAPALDUAK ELKAR GAITEZEN!  
IRAULTZA ALA HIL!

### 3. Internazionalismoa

3.1. Ene iritziz, nazioarteko zaletasuna oinarri honetan datza, munduko langile guztiak, diren direlako ezberdintasunak, objektiboki era berean kapitalismo internazionalak zapalduak izatean.

3.2. Nazioarteko zaletasunak eskatzen eta galdetzen diguna zera da beraz, mundu osoko proletario guztiekin burua bat egitea mundutik kapitalaren tokian egin behar da iraultza, elkartasunari eta elkartasun horren interesei eutsiz haatik. Noski, noizbait gure azterketak direla bide, interes horiek eta gure iraultzarenak elkarren kontrakoak izan balitez, edo eta ager balitez, pentsatu behar dena zera da, gu okertu egin garela, eta ez errealitatea, kontraesanaz kontraesan edo jazargorik jazargo zirkin eginen genukeelako bestela.

3.3. Jadanik esan dugunez, euskal proletalgoak bere iraultza munduko iraultzak jartzen digun testuinguruan burutu behar du, hari beti ez bada, gero, besteekin bat egitea modu konkretu batez eskatzen digu, baina gurea bukatu ez dugula, utz dezagun oraingoz. Gure Espainia eta Frantziako proletalgoekiko harremanek internazionalismoan behar dute funtsa ukan, eiki; hurrengo puntuan arituko gara horretaz baina!

### 4. Euskadi bi estatu burgesetan erdibituta dagoelarik nola egin iraultza?

4.1. Euskal proletalgoak munduko beste proletalgoekin interes komunak badauzka, are komunagoak, edo eta urrunagoak behinik behin, Frantziar eta Espainiar Estatuetakoa proletalgoekin, Estatu hauek osatzen dituzten herrietako proletalgoekin, dauzkala begien bistan dagoen gauza da. Arrazoia, aurki, Estatu bakoitzean, Estatu bat bederan, zapaltzaile berak edukitzean dago.

4.2. Hau dela eta, denboraldi batzuetan iraultza elkarrekin egin behar izateak ez du eragiten Euskal proletalgoak, ez eta euskal iraultzak berak ere, beren nortasuna galtzera, zeren euskal proletalgoaren iraultza hori, faktore subjektiboak direla bide, Estatu bat-bederan bertako iraultzeekiko ezberdin baitira. Ene aburuz, orduan,

euskal proletalgoak *internazionalki* bat egin behar du erraniko bi Estatuetako proletalgoekin, eta ez proletalgo bera osatzen duelako (2.3.eko zentzuaz bego!), direlako Estatuak, espainiarra eta frantsesa, irauli arte batera joatea beharrezko delako baizik.

4.3. Batasun nazioartekozale horrek hau erran nahi du ene aburuz:

- Herri batzuetako langileek bat egiten dutela, neurri batzuetan bederen, langilea izatearenaz gain, helburu eta interes berberak dauzkatelako.
- Batasun hori berdintasun absolutuan finkatuta dagoke, eta iraultza batbederak bere *estrategia* propioa daukalarik beti, garai bateko taktika berdina edukiko duke ardatz.
- Batasun hau proletalgo batbederaren ordezkari diren alderdi iraultzaileek osatua izanen dateke, eta honez gero esan dugunez, alderdi bakoitzak baldintza eta estrategia ezberdinak dituen aldetik, libre dateke komun ez diren helburuen erdiestean, hori bai, berauek lortzearren ere; guztien laguntzez, gure kasuan, adibidez, autoerabakikuntza egitearren, askatasun eta batasun nazionalera heltzeko borrokan.

4.4. Noski, euskal proletalgoak erdibiturik dagoen Estatuetan, erran dugun legez, interes berak dauzka, eta horretatik iraultza *bat* da, bera da; ezberdina dela, bestalde, Estatu bat-bederan, faktore objektiboak direla eta.

4.5. Ene irudiko, beraz, hauek dira euskal iraultzak eduki behar dituen burukaldiak (Lan osoan diodana Europa batugabeko euskal iraultzaren estrategiarako diodala):

- a) Espainiar Estatuan (gauza bera Frantziar Estatuan) bizi den euskal proletalgoak, bertako (espainiarra, kataluniarra, e.s.) proletalgoekin sozialismoa erdiestekoz burges Estatu eza-batu arteko borrokaldia, Estatuaren desegitea erdiesten ez den bitartean “Eskualdekatze” handi eta *zuzen* (?) baten alde borrokatuz.
- b) Estatu bi horiek deseginik, Euskadi sozialistako bi aldeak bat egiteko borrokaldia.
- c) Autoerabakikuntzarako borrokaldia.



## 5. Autoerabakikuntza edo autodeterminazioa

5.1. Euskal Herriak burutzear duen autoerabakikuntza ez da:

- Libre eta aske izateko desirkundea, berau edozein herri normalagandik espero daitekeen joera normala besterik ez baita; ene ustez, zalantzan ezin jar daitekeen joera, bestalde.
- Euskadiko bi aldeak bat egitea, berau Herriaren izateak berak eskatzen duelako. Nola demontre buru lezake, bestela, autoerabakikuntza ez bada aldez aurretik, izan.

5.2. Hau da ene iritiz:

- Euskal Herria “libre eta baturik egonda” nola bizi nahi duen (norekin, elkaturik, bakarrik e.a.) erabakitzea.

5.3. Autoerabakikuntza bat eta bakarra da beraz, Euskal Herriak autoerabakikuntza bi egitea, hegokoek eta iparrekoek, bakoi-tzak bere aldetik, kontraerran hutsa delarik, kapitalismoa zapaltzaile honek jartzen dizkigun jazargo bera onartzea eta hartaz baliatzea baita.

## 6. Euskal Alderdi Sozialista Iraultzailea: E.A.S.I.

6.1. Aurreko guziaren alde borroka eta gatazka egiteko, eta guzia erdiestearren, alderdi bat osatu behar dugu, h.d., Euskal Alderdi Sozialista Iraultzailea, euskal proletalgoaren alderdia, alegia. Alderdi honek 2.5.an aipatu jomugak eduki beharko lituzke bere ekintzaren zuzentzaile.

6.2. Gure estrategia marxismoa leninismoan funtsaturik legoke, salbuespen batez, alderdiaren egitura edo egestura ez legoke gutxiengo zuzentzaile batean ezarritik, “oinarriarengan” baizik.

6.3. Bideak: *Masa-lana eta orroka armatua*. Masa-lanaren emaitza erdiestearren, eta gobernuak berean jarraitzen duen bitartean borroka armatuak jarraitu beharko luke.

6.4. Euskadi eta Euskal Herria bi estatutan erdibiturik dagoenez, subalderdi bi egin beharko liriateke:

- a) Hego Euskadikoa.


b) Ipar Euskadikoa.

Biek arazo nazionalaren aldean berdintsu jokatuko lukete, objektibotasunarenean taktikak ezberdinak izanaz.

6.5. Alderdikide guziet, *epe mugatu batean*, Euskara ikasi beharko lukete barruko harremanak ahalik eta gehien euskaraz eginez.

Alderdi honen strategiaren puntuez askozaz gehiago berba egin beharko litzateke baina, erranak oinarrizkoak joaz.

*Andolin Eguzkitza (“Altziurükü”)*



## Battita Larzabal

### Ibilbide profesionala

Battita Larzabal (Frédéric, Baptiste Larçabal) Hazparnen sortu zen 1938an. Bere adineko guztiek bezala 28 hilabete soldadu zerbitzu egin zituen, parte Frantzian eta Alemanian eta azken urtea Aljerian. Banketxe batean lan egin ondoren Parisera joan zen 1965ean eta Lizeo profesionaleko Letrak eta Historiako sailean aritu zen irakasle bezala. Goi ikasketak ditu: Filosofian metrisa Parisko Sorbonan, DEA (Diplôme d'Études Approfondies, Eusko Ikasketetan Bordelen). Bizibidez irakaslea izan da; erretiratu arte.

Iparraldeko ahots ezaguna da, batez ere ekintzaile politiko bezala: Enbata oldeko kidea, Herriko Alderdi Sozialistaren (HAS) sortzailetako bat 1974an, Manex Pagola, Manex Goihenetxe eta beste batzuekin batera, hurrengo urtean Eusko Herriko Alderdi Sozialista (EHAS) bilakatu zena. Jose Antonio Urrutikoetxea ETako buruzagiari bere etxean babesa emateagatik atxilotu egin zituzten senar-emazteak 1989ko urtarrilean Aljerreko ETA eta Estatu espainolaren arteko elkarrizketak hastean eta bera preso egon zen sei hilabete pasaturik Pariseko La Santé kartzelan. Ber denboran herriko hauteskundeetan hautagai izendatu zuten "Baiona hiri nagusi" zerrendan. Egun 1969an sortutako Anai Artea elkarteko idazkaria da eta horren kudeaketan dihardu Mixel Mendibururekin batera.

## Idatziak

Sortzetik *Zabaleko* kidea izan da, azken zenbaki biak bere ardurapean argitaratu ziren, eta hor eman ditu sakoneko zenbait artikulua, beti ere Iparraldeko egoera politikoari buruz dihardutenak; EHASeko *Euskaldunak (1974-1981)* kazetan, aldiz, alderdiaren iritziak eman ditu. Idazki gehienak talde lanean eta izenean eginak ditu. Aipagarriena, Mixel Mendiburu, Mirentxu Purroy eta beste batzuekin batera, 2011n argitara emandako *Xibertako aktak*, non 1977an Angeluko Xiberta hotelean egindako bileraren berri ematen baita lehen aldiz, han esandakoaren lekukotasuna utziz. Geroztik Anai Arteak argitaratu *“Frantziaren esku hartzea euskal gatazkan”* liburuxkan ere parte hartu du.

## Bozak Ipar Euskal Herrian<sup>1</sup>

Frantziako politika joko goiti-beheitiak behar ote dira Frantse-sentzat utzi, ala badute Euskaldunek ere gauza horietan zer ikusirik? Arinkeria litzateke pentsatzea frantses ezkerrek eskuinaren politika bera lukeela Madrili buruz. Gero, ikusi behar da Ipar Euskal Herria itoa dela frantses Estatuaren barnean (jende guti eta ekonomia ahula duelakoan) eta garrantzizkoenatarik litekeela zenbait antolamenduren lortzea, ekonomiaren aldetik, gazteen herrian atxikitzeko eta kultura aldetik herri kontzientziaren sorarazteko. Hori, behar bada, «erreformismoa» da, baina nork non ikusi du iraultzarik egiten desertu batean, herri eta sozial kontzientziarik gabe? Zeren, Ipar Euskal Herri barnean bederen, parterik euskaldunenean, jadanik horretan gara: jende guti eta gehienak frantses eskuindarrek bezala pentsatzen eta bozkatzen. Egia dorpea... baina egia.

Baina aski da bozen kartari so egitea ikusteko ez dela Ipar Euskal Herri guztian politika giro berdina eta bada hor zenbait gogoetaren gaia.

### Soziologiaren legeak

Politikan ez da mirakulurik. Bozkatu duten puntutik euskaldunek eskuinaren alde bozkatu dute, erran nahi baita kontserbado-reen alde. Behar da konprenitu abertzaletasunari, eta abertzaletasuna sozialistari bereziki, euskaldunek, Euskal Herriko barnekoek bederen, frantses ezkerari bezala ihardukiko dutela, kontserbadoreak beti ideia bereri jarraikitzen baitira eta beste guziei hesten.

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 8, 1974ko Uztaila-Abuztua, 1-9 orr..

Ez dira haatik Euskaldunak eskualde guzietan berdin kontserbadoreak. Zendako? Hori ikusi behar genuke kantonamenduka azterketak eginez.


Lehen begi ukaldian ikus daiteke Euskal Herrian hiru politika eskualde eta giro badaudela: Zuberoa, herri barnea eta kosta.

*Bigarren itzuliko emaitzak*


Kantonamenduak	Bozak	Giscard	%	Mitterrand	%
Maule	6815	3751	55	3064	45
Donibane Garazi	4471	3144	70	1327	30
Bidaxune	2659	1620	60	1039	40
Donapaule	5583	4094	73	1489	27
Ezpeleta	5503	4029	73	1474	27
Hazparne	4476	3396	75	1080	25
Iholdi	2946	2452	83	494	17
Atharratze	2916	1413	48	1503	52
Baigorri	3916	3097	79	819	21
Bastida	2397	1789	74	608	26
Hendaia	10752	5732	53	5020	47
Donibane Lohizun	9600	6101	66	3499	34
Uztaritze	5216	3769	72	1447	28
Baiona	28249	14907	52	13342	48

**Ohar bat:** Bozetako, Baionako eta inguruetako herri batzuk hiru kantonamendutan zatituak dira. Hemen aldiz hiru kantonamendu horietako zifrak elkarrekin dira. Hiru kantonamendu horietarik batean, Ipar Baionan, Mitterrand-ek bildu ditu Giscard-ek baino boz gehiago eta hori Bokaleri esker.

IPAR-EUSKAL-HERRIKO JENDEA NUN BIZI DEN



GISCARD D'ESTAING ESKUINDARRAREN BOZAK



## Zuberoa

Bokale hiriaz kanpo, Atharratzeko kantonamendua da ezkerrenik bozkatu duena. Ez dira hemen Bokaleko arrazoi berak, ez baita industriarik. Baionan ikusten ahal da Atharratzeko kantonamendua Maulekoari josia dela eta hortakotz bi kantonamenduetako jendeak gurutzatzen dira eta jendeak gurutzatzen diren tokian ideiak zabal-tzen dira.

Baina nolaz da frantses ezkerria Zuberoako aldean hola sartua?

Zuberoak, Ipar Euskal Herrian, badu berezitasun bat, mintzairaren aldetik lehenik, ekonomia aldetik ere bai. Alabaina Atharratzeko kantonamenduak mendiko ekonomia du. Etxaldeak ez dira handiak eta artzaintzat eta artaldeak dituztenentzat bortuetako lurak garrantzizkoak dira. Lur horiek oorenak dira eta hor bada, hain segur, egundainoko sozialismo hazi bat eta hortakotz Xiberotarrak ezkerreko ideiei beste euskaldunak baino irekiago daitezke.

Gero, behar da ikusi ekonomia aldetik menditarrak azkarki hunkiak direla, denetan bezala, Zuberoan laborantzaren aldakuntzak mendiak gazteriaz hustu baititu. Menditarrek konprenitua dukete laborantzaren aldakuntza, orain bezala kapitalismoaren legeen arabera egiten bada, mendietako ekonomia itotzera doala. Ez dute beraz eskuinaren baitan esperantza handirik.

Zuberoan ere, Mauleko industriaren inguruan bereziki, bada langile pentsamoldea eta pentsamolde hori frantses ezkerreko alderdiek eta sindikatuek lantzen dute. Zuzen da beraz langileek, klase kontzientzia izpi bat duten puntutik, esker bozka dezaten.

Ez dira Zuberotarrak bet-betan esker lerratu. Aspaldian sozialistak azkartuz doaz. Zendako? Behar bada Biarnoa hunkitzen delakoan Zuberoak eta ideia berriak ordokietarik mendietan barna sartzen direlakoan? Lehenago protestantismoa sartu zen Zuberoan Biarnotik... Gero, konparatuz bertze probintziekin, Zuberoan, behar bada, errientak apaizei nagusitu dira. Zuberoan ez da eskola libro guti baizik, eta horrek ere zerbait erran nahi duke. Alabaina, errientek ezkerreko ideiak zabaltzen dituzte, apezek eta serorek "eskuineko apolitismoa" predikatzen eta praktikatzen dutelarik. Gehienek bederen.

Zuberoan agertzen da, ekonomiako eta gizarteko egiturek badutela pentsamoldearekin zer ikusirik.



## Euskal Herri barnea

Nolaz dira Zuberoaren eta Euskal Herri barnearen artean hola-ko diferentziak? Maule eta Donapauleren artean ez da mendirik, Garaziko eta Baigorriko aldean askok Atharratzeko mendi ekonomia dute. Euskal Herri barneak kostarekin ere baditu harremanak: asko langile erabiltzen da Baionan Hazparneko eta Uztaritzeko kantonamenduetarik. Euskal Herri barne hori da mintzaira aldetik euskaldunena. Hori da ere ezkerreko ideiei buruz uzkurrena. Gauza horrek zenbait azterketa eskatzen ditu.

Ez da oraingoa. Betidanik Euskal Herri barne hori izan da “xurien” ontasun bat bezala. Nolaz dira Euskaldun gehienak beti eskuinari jarraiki? Hastean erregetiarren eta errepublikanoen arteko auzia zen. Euskaldunak erregetiarrak zitezkeen, erregeen garaian beregaintasun bat bezala bazutelakoan. Errepublikak denak aldatu zituen, denak zentralizatu, elizatiarrak zigortu. Euskaldunak orduan hasi ote ziren pentsatzen errepublikatik eta gero ezkerretik ez zela deus onik ateratzen ahal?

Berrehun urtez zer aldakuntza izan da Euskal Herrian? Ez gauza handirik beste eskualde batzuen aldean. Industria ez da nehon laborantzari nagusitu eta sartu den tokietan, hala nola Hazparnen, ez du langileen pentsamoldea aldatu, langileak laborarien artean bizi baitira eta askotan bizi erdi laborari eta erdi langile.

Gehiago dena, kostako hirietan lanean ari izanik ere, laborarietarik ateraia diren langileak luzaz egoten dira beren laborari pentsamoldeekin. Badute laborantzan ez den segurtamen bat, ordu gutxiago lanean ari, gehixeago irabazten... ez dira laster ohartzen nagusia haietaz baliatzen dela.

Laborantzaren egiturak ez dira biziki emeki baizik aldatu eta iduri luke aldakuntzarik handienak hogeitau urteren buruan egingen direla, orduan agertuko baita gazteak joanak direla, bereziki neska gazteak, eta ehunka diren donadoek utziko dituzten funtsen erabiltzeko nehor guti izanen dela.

Anartean, ekonomiaren eta gizartearen egitura bertsuekin biziko da Euskal Herri barnea, eskuindar, elizatiar, euskaldun baina abertzaletasunari hetsia, euskaldun baina eskolaren eta telebistaren bidez gero eta gehiago frantsesua.

Artetik ohar bat egiten ahal dugu euskaraz: gure mintzaira egitura zaharrerri lotua da eta pentsatzeko da egitura horiek aldatuko

direrarik Euskara laster galduko dela non ez den herri kontzientzia orain baino biziki gehiago pizten. Baina ez bada industria Euskal Herri barnean gehiago sartzen, ez badira hiriak handitzen, laborarrien kopurua urtuko baita, zenbait urteren buruko ideiak ere ez dira berritzen ahalko.

## Kostaldean

Kostako kantonamenduak ere desberdinak dira, nahiz, oro hartuz, Euskal Herri barnekoek baino ezkerago bozkatu duten. Frantsestuagoak direlakoan ote? Ez bakarrik.

Baionak eta itzulietako herriek hiru kantonamendu egiten dituzte. Hiru horietarik Ipar Baionak du ezkerrenik bozkatzeko, Bokale barne delakoan. Bokalen aspaldian ezker nagusitua da, gehienik komunistei esker. Baina Bokalez kanpo, ez daiteke erran langileak klase kontzientzia handirik baduela. Lantegi handietako langileek, izateko ere, langileari aristokraziaren pentsamoldea dute.

Gero, Baiona komertzio hiri bat da eta ez da merkatarien politika giroa ezkertiarra.

Angeluko eta Miarritzeko herriek bedera kantonamendu egiten dute. Angelun klase guztiak badira, baina Miarritzen langileria guti da eta turismotik handitu hiri hau izatez eta pentsamoldez burgesa da. Hori bozkek garbiki salatzen dute. Lehen itzulian berean Miarritzek hautatua zuen bere gizona, burgesiaren zaindaria: Giscard d'Estaing. Euskal Herri barne ohiturazko eskuindarrak Chaban-Delmas bozkatua zuen.

Donibane Lohitzuneko kantonamenduan badira laborariak, langileak, arrantzaileak, merkatariak... Hemen ere eskuina nagusitu. Ez da langileetan klase kontzientzia handirik, arrantzaleetan ere ez, hauen pentsamoldea askotan korporatibista baita. Hemen, Miarritzen bezala, turismoak garrantzia badauka eta turismotik bizi diren merkatariak eskuindarrak dira.

Hendaia, Donibane baino ezkerago dugu. Mera sozialista da, horrek erakusten baitu ezkerreko ohiturak badirela herri honetan. Euskaldunek ote dute hemen ezker bozkatzeko ala mugak ekarri dituen bulegoetako eta administrazioko enplegatuek? Azken hauek hain segur.

## Nolako txori halako ohantze

Gainez gain holako ohar batzuen egitea ez da aski. Behar litezke Euskaldunen bozak hobekiago ikertu, bereziki ikusiz zer aldakuntza izan den azken urte hauetan.

Askotan pentsatzen da “notableek” edo herriak hautatu gizonak daukatela politika eskuetan eta herria jauntxo horiei itsua bezala jarraitzen dela. Baina egia besterik da. Politikan ez da nolako txori eta holako ohantze, kontrarioa ere egia da: nolako ohantze eta halako txori. Euskal Herri barnean, Michel Labeguerie eta Michel Inchauspe bozketa doazelarik, ez da bat bestea baino ezkerago, biak eskuindarrak dira, nahi izanik ere bat “zentrista” eta bestea “gaullista”. Aldi honetan biek salatu dute non diren, biak erori baitira eskualde berera, eskuinera, erran gabe doa.

Bi jaun horiek eta herri gizon gehienak eskuindarrak dira, herria eskuindarra delakoan, bere ekonomiako eta gizarteko egiturek, bere historiak frantses eskuindar pentsamoldea ematen diotelakoan.

Baina pentsamolde kontserbadore hori ez da bakarrik ezkerreko ideien etsaia, gehienetan abertzaletasunaren kontrakoa da ere. Nahiz badiren eskuindar abertzaleak ere, ikusiko dugun bezala.

## Abertzaleak eta frantses politika

Hastean erran dugu abertzaleak ez direla isilik egoten ahal bozkatzea frantses sistemaren sartzea delakoan. Nahi ala ez frantses sistemaren peko eta arabera bizi gara eta frantses sistemaren aldakuntza laguntzen ahal badugu gure onetan, egin behar dugu. Eta zerbait egiten ahal dugu ez garelakoan, gu euskaldunak, bakarrik: hor dira ere bretoiak, korsiarak, okzitaniarrak, alsaziarrak, flandiarak... Nazio txikien problema denek betan agerraraziz erakusten ahal dugu badugula indarra.

Azken bozaldi honetan, minoria hauetako erakunde sozialistak ari izan dira elkarrizketan Mitterrand-en ordezkariekin. Ez tratu baten egiteko baina erakusteko zer aldakuntza irudikatzen zuten ezkerreko gobernu batetik. Ez du ez Mitterrand-ek autonomiarik nehoi hitzeman, baina Britainian eta Korsikan mintzatu da egundaino hein horretako gizon bat mintzatu ez den bezala, garbiki erranez nola ikusten zuen eskualdekatzea; ezagutuz badirela minoria

batzuk beren nortasuna atxiki behar dutenak, bereziki mintzaira eskoletan ikasiz.

Herriko Alderdi Sozialistak lehen itzulian Mitterrand-en alde bozkarazi duelarik zenbait abertzalek ez dute konprenitu. Nahiago izan dute Guy Heraud euskaldunen adiskide federalistaren alde bozkarazi, ikusi gabe ere alderdi batek ere nehon ez zuela Guy Heraud laguntzen eta boz gutiren biltzea zela erakustea nehor ez dela frantses estatuaren gutxiengoz eta federalismoaz axolatzen.

Azkenekoz, Guy Heraud-ren alde agertuak ziren zenbaitek Giscard-en alde bozkarazi dute.

Bozaldi horrek garbiki agerrarazi du abertzaleetan, besteetan bezala, eskuindarrak eta ezkertiarrek badirela.

## Abertzale sozialistak eta geroa

Abertzale sozialistek hasteko badute zer egin. Geroari buruz behar da lanari lotu. Ez da esperantza faltsurik izan behar, bidea heretsia eta luzea izango da. Zenbaitek pentsatzen dute indarkeriak gauzak akuilatuko dituela. Behar bada. Baina ikusten delarik zer diren Ipar Euskal Herriko egiturak eta pentsamoldeak, laster ohar daiteke iraultza baten pizteko gai guti dela. Haatik Hegoaldean gauzak aldatuko direlarik, harremanak goitituko direlarik, Iparraldean ere gauzak aldatuko dira. Zer nahi gisaz, Hegoaldekoen herri kontzientzia sozialaren mailara Iparraldea heldu orduko, urteak joanen dira.

*Frederic-Baptiste Larçabal*

# Militargintza euskal iraultzan<sup>1</sup>

## 1. Militargintza onartzen ari...

E.T.A. sortuz gero, (bera izan baita Euskal Herriko politiko belaunaldi berrian militargintza bilakarazten entseatu dena) militargintzak gorabehera handiak izan ditu. Militargintza masa ekin-tzarako traba ala ez, luzez eta gordinki eztabaidatu izan da. Eta eztabaidatu bakarrik ez; hori dela eta, 1967an eta 1970ean E.T.A. zatituta aurkitu baita. Delako zatiketa horietan, militargintza eta masa ekintza elkar zitezkeela ziotenek, aldi berean euskal politiko mugimenduaren independentzia eta autonomia bere egituretan eta estrategian defenditu izan dute. Aitzitik, militargintza inola ere masa ekintzarekin ezin elkar zitezkeela ziotenek, euskal politiko mugimendua Estatuaren neurriko egituretan eta estrategian txertatu behar zela zioten. Honela, euskal politiko mugimendua erdikoikerian oinarritutako federazioan bilakatu nahi izango dute.

Gaur egun, egitura eta estrategia independentzian bilakatu behar dela onartzen dutenak Estatuako gainerako oposizio mugimendua-rekin une taktiko batean elkartu beharko dela pixkanaka onartzen ari dira. Aldi berean, militargintza eta masa ekintza elkartu ezineko ematen zutenak lehen urrats bateratzaileak ematen hasiak direla dirudi (guztiak ez badira ere, batzuk bai behintzat).

## 2. Militargintzaren neurria eta lekua eztabaidatzen hastera goaz

Militargintza onarturik, ekintza multzo baten barrenean osagarri bat bezala ala eta einkizun bakar eta soil bezala bilakatzer

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 9, 1974ko Iraila-Urria, 2-5 orr.

igaro liteke. Azkeneko hau, gizarte batean existentzia duten gaineratiko jokabideek militarizazioaren giroztaile eta zerbitzuko kontsideratzean datza. Langiletiar, kultural eta sozial mugimenduak militarizaziorako urrats bat bezala hartzen dira. Militarizazio sozial ekintza guztien habea eta gailurra litzateke. Sozial ekintzek sentidu bakar bat lukete, oraino behar hainbat heldu edo umotu ez diren mugimenduak militarizaziora bultzatu. Eta horra ailegatzean iraultzaren goi-estadioan edo benetako estadioan sartuko lirateke. Ikuspegi honen ondorio, militarizaziora igaro den aktorea bakarrik kontsideratzen da iraultzaile eta militante. Militarizatiotik harat ematen diren sozial ekintzek ez dute inolako autonomiarik erakunde politikoa osatzekoan. Molde honetan militarizazio eztabaida berri baten barruan aurkitzen da.

### 3. Euskal mugimenduaren militarizazio urrats txar bat litzateke

Delako erakunde politikoa horren irteera unean, bera osatzen zuten adarrei, emandako *autonomia* kontsiderazioa hitzetan ez da ukatuko. Praktikan, ordea, une bakoitzean hankaperatuta aurkituko da. Erakunde politikoa zuzendaritzan adar bakoitzari hitzez emango zaion errepresentazioa, behin ere ez da indar berdineko izango. Militar adarrak aburua agertzeko ahotsa eta erabakia hartzeko aukera dituen berean, gaineratiko adarrek aburua agertzeko ahotsa (nahiz eta zenbait bider aburua agertze bakarrak ondorioak ekarri) bakarrik dute. Honela, militar adarraren aurkako aburua agertze bakarragatik, *purga jokabide faxistarenen* lotsarik ez duen jokabidea erabiliaz (gezurrezko testigutzak eta abar), norbait baztertuta gerta liteke. Guzti horrekin zer desiratzen den? Bistan da, erakunde politikoa *militarizazio* erdietsi nahi dela. Kontzeptu honek bi sentidu ditu: bata, erakunde politikoa militar hutsean bihurtu da; eta bestea, militarizazioaren zerbitzuko zuzenean ez diren sozial ekintza guztiak, bortxatu eta arbuiatu da.

Ikuspegi honek tesi zenbait suposatzen ditu.

a) Hego Euskal Herriarentzat Irlanda eredu da. Hau egia ote? Inola ere ez! Irlandak eta Hego Euskal Herriak *geografiazko* egoera ez dute berdina Estatu menperatzaileen aitzinean. Irlanda uharte

denez Ingalaterratik aparte dago. Orain Hego Euskal Herria, okupatuta dagoenez, Espainiaren jarraipen da. Eta Ipar Euskal Herriari beste hainbat gertatzen zaio Frantziarekiko. Egoera diferentzia honen borroka armatu oso bat eramatekoa garrantziz handiena du. Are oraino Irlandan *lan gabezia* handia da. Honela, ingelesen ordenaren aurka *liberatu* gisa borroka armatuz oposatzen direnak *sozialki* langabetuak dira. IRA bera bitan zatitu zenean, arazoaren kinka, lanpostua edukitzean ala ezean zegoen. IRA ofizialeko militanteak lanpostuak zituztenak ziren. Aitzitik, IRA probisionalekoak lanpostu gabe bizi zirenak ziren. Azkeneko hauentzat *liberatu gisa* borroka armatua eskaintzea (Ipar Amerikan dirudun diren irlandarrek soldataz ordaintzen dutena) lanpostu bat edukitzea zen beste arrazoi gehiagoren artean. Hego Euskal Herrian langabeziarik ez da. Liberatuak nahi den gogoan sortzea borroka armaturata eramateko aski gaitza izango da. Hori janari dezakeen bakarra zera da: Hego Euskal Herrian edozein huskeriagatik gazteria iheska jarrarazi eta Ipar Euskal Herrira igaroarazi. Hemen, lanpostuen eza arazo gerta liteke. Eta larri horretan dauden militanteak bizibide bezala borroka armatura eskaini beharrean aurkitzen ahal dira. Baina molde honetan sortutako egoerak zenbatetan janari dezake luze eta gogor izango litzatekeen borroka armatu bat? Aski artifiziala litzateke egoera hori. Gainera beste zerbait suposatzen du. Aipa dezagun.

b) Hego Euskal Herria militarki aski liteke. Zer deritzogu? Hego Euskal Herriko jendetza Espainiako Estatuarenarekin konparaturik eta batak eta besteak dituzten bitartekoak kontsideraturik, *militarki* aterabide bat imajinatzeari astakeria deritzogu. Espainiako Estatuak E.T.A. eta Euskal Herria *polizialki* kontrola ditzakeela pentsatzea bezain astakeria handia edo handiagoa. Militargintza Hego Euskal Herriko iraultzaren bilakaeran funtsezko izan da eta izango da ere. Baina, militargintza hori gaineratiko ekintza sozialekin koordinatu eta programatu behar da. Bestela izaten jarraitzen badu, egun batez, eta beharbada, hain urrun ez dagoen egun batez, gaineratiko sozial egintzetatik, behin betikoz, eten egingo da. Eta hori gertatuko balitz, militargintza herritar mugimenduaren minoria baten eginkizun bilakatuko litzateke.

## 4. Herritar mugimenduaren autokontrolera joan behar gara

Minoria baten ekintza nahiz erradikalizatua izan, herritar mugimenduaren *kontrolik gabe* izango da. Tamalgarria dena, herritar mugimenduak bere kontrola izan ordez, ordenatzaile jokoaren egiten duten erakunde politikoek izango dute. Ordenatzaile jokoetan sartzen dira abangoardietan eta liderazgoetan finkatzen diren erakunde guztiak. Baina, egunetik egunera ekonomian, kulturaren eta sozial egoeran bilakatzen ari den Hego Euskal Herrian liderretan eta seriean jerarkizatutako erakunde erdikoi “demokratikoek” ez dute gehiegi iraungo. Izan ere, praktika hori beste gizarte estadio atzeratua go batzuetarako bakarrik da iraunkor. Hots, gregarismo politikoa ahalazko bihurtzen duten kultura gabezia hazi eta hezi diren herri batzuetan. Hala ere, iraultzaile prozesuan sartua den militargintza herritar mugimendutik etetea, ordenatzaile jokoan luze itozteko arriskuan ezarriko da. Nortzuk dira horren errudun? Bistan da ordenatzaile jokoaren gidariak bezain errudun direla militargintza militartzera igaro nahitik herritar mugimendutik eten egiten dutenak. Militartzearen aurkako erremedio bat aipa bageneza, zera da: sozial ekintzako adar bakoitza ekonomiazko medioetan, logistikan eta zuzendaritzan autonomikoki bilakaraztea. Hori gertatuz gero, herritar mugimenduaren lanabes diren adar guztien benetako koordinatze eta programatze bat eman ahal izango dira. Horrekin, gainera, gaur egun militar adarrean eman den hierarkiazioa eta burokratiazioa poxi bat *demokratizatzen* ahal dira. Eta molde honetan, hierarkia- ren goi-mailan diren kapritxoak (batzuetan gogo onenarekin egindako astakeriak) gaitutuko dira. Izan ere, gizarte berdina go bat sortzeko bermea eskaini behar baitu erakunde iraultzaile batek bere egungo egituretan eta jokabideetan. Askatasun egunear jasoko diren fruituak, iraultzaile prozesuaren luzean landatutakoak eta horiek bakarrik izango baitira.

## 5. Aurerabiderako baldintzak

Euskal Herriko langileriak eta herriak autokontroleraz eta barne demokraziaz osatutako erakundeak behar dituzte. Ez hierarkiaz eta



erdikoikeriaz eratuak. Horretarako, langileak lantegian, irakasleak eta ikasleak ikastetxeetan, laborariak laborantzako eskualdeetan eta sozial bizitzako urduritasunean menperatu egoera duten guztiek autokontroluz eta barne demokraziaz eraturako erakundeak (autonomoak ekonomiaz eta logistikaz) jasotzez eta egitez hasi behar dira. Eta aldi berean, molde horretan sortzen eta osatzen doazen erakundeak koordinatzen eta programatzen entseatu behar dira. Ke-menaren koordinatzea izan behar da, sekula ez, ordea, boterearen delegatzea, hierarkizatzea eta erdikoitzea.

Hau horrela, hamabi bat urtez gorabehera handiak izan ondoren, 1971az gero, euskal iraultzan aparatu batean bilakatu den militar adarra, gaur egun hartzen ari den militartze joera, tamalgarrria da. Izan ere, delako aparatu horrek kontsiderazioa merezi duten hainbateko ekonomiazko medioak, logistika eta zuzendaritza autonomo bat eratu dituen bien-bitartean, erakunde politiko bereko beste aparatuak, hots, langiletiar, kultural eta sozial mugimenduko gaineratikoak ez dira paraleloki bilakatu nola ekonomian, hala logistikan eta zuzendaritza autonomoetan. Are gehiago, militar adarraren aparatu hori eratzerakoan, gaineratiko adar guztiek beren sostengua eta laguntza eskaini badituzte ere, gaur egun militar adarrak gaineratikoak ez ditu bilakatzen utzi nahi. Ito egin nahi dira militargintzaren menpean, hots, militartze bat inposatu nahi da. Hori horrela, militar adarraren eta gaineratikoaren artean, menperatzailemenperatuen edo nagusi-morroien arteko harremanak sortu dira erakunde politiko berean. Eta hortik, ondoren zenbakitzera goazen arazo batzuekin aurkitzea etorri da.

a) Erakunde politiko horretako zuzendaritza praktikoa militar zuzendaritza bakarra dela. Eta militar zuzendaritza denez, erakundeko aparatu guztiak militar adarraren legez legeztatuak bilakatzeko ikusi nahi lituzkeela.

b) Baina langiletiar, kultural eta sozial mugimenduko gaineratiko adarrek erakunde politiko bilakatzekoan zer egin bat dute. Izan ere, langiletiar, kultural eta sozial mugimenduko gaineratikoaren oinarri gabe militargintza ez litzateke politikoa izango. Eta politikoa ez den militargintza kinki multzo baten egintza besterik ez litzateke.

c) Hala ere, langiletiar, kultural eta sozial mugimenduko gaineratiko adarren egitekoa ez da militargintza girotzea eta oinarritzea bakarrik, aitzitik beste egiteko bat ere badute: aparatu autonomoak eta beren kidekoak sortu eta bilakatu.

Gaur egun, delako erakunde politiko horren zuzendaritzan desoreka bat dago. Militar adarraren eta erakunde politikoaren zuzendaritzak praktikan bakarra eta berdina izateak dakar. Desoreka hori gainditu nahi bada, langiletiar, kultural eta sozial mugimenduko beste adarrek beren aparatuak eta zuzendaritza autonomoak sortu beharko dituzte. Eta hori erdiestean bakarrik erakunde politikoaren zuzendaritza praktikan adar guztiena bihurtu ahalko da. Baldintza hau berriz, nahi eta nahitaezkoa da militartze joera gainditurik erakunde politikoa herritar iraunarazteko. Euskal Herriaren eta bere langilearen nahiak eta interesak egokien sinbolizatzen dituen erakunde politikoa aurrerabidean gordetzea berriz, guztion eginbidea da.

*Jokin Apalategi (“Begiko”)*



## Joxe Manuel Odriozola Lizarribar

### Ibilbide profesionala

Altzon jaio zen 1948ko otsailaren 9an. Euskal idazlea da, autodidakta eta bizibidez euskara irakaslea jubilatuta arte. Gau Eskolen koordinatzaile eta Euskaltegiko irakasle izan zen urte askotan. Frankismo ondoan foru diputatu izan zen Herri Batasuna erakundetik.

Euskal komunikabideetan ohiko lankidea da, batez ere *Bat* aldizkarian eta *Berria* egunkarian, eta soziolinguistikaren sailean saiakera ugari argitaratu ditu eta hainbat sari irabazi, besteak beste, hauek: *Euskal intelligentsiaren ideologia zantzuak* (2001, Pamiela), *Euskalgintzaren lekukoak* (2004, Elkar), *Abertzaleak eta euskara, edo nazio euskaldunaren gainbehera* (2008, Elkar) eta *Estatu etnozidaren kontra* (2011, Elkar).

Saritu horiez gain, baditu beste hainbat liburu ere:

### Obrak

1992: *Gerrurreko gizarte-hizkuntzalaritza* (UEU).

1977: *Hizkuntza, Kultura eta Gizartea* (BBK-Euskaltzaindia).

2000: *Nazio identitatea eta eskola* (BBK-Euskaltzaindia).

1993: *Soziolinguistikaren atarian* (Euskaltzaindia).

1977: *Landu dezagun*

2013: *Hizkuntzaren atzokoak gara*.

2014: *Bortxaren kontakizunetik, kontakizunaren bortxara* (Txalaparta).



## ETA-ko batzuk autokritikatuz datozkigu<sup>1</sup>

1974ko azaroan, ETAk atera zuen Agiria pitin bat komentatu nahirik idatzia dago artikulua hau.

ETA bere burua autokritikatuz datorkigu eta berau biziki pozgarria da guretzat. Zorionak, beraz. Ez genuen uste, izan ere, hainbat eta hainbat itxaro izanik, hain isilune luzakorra ezagutu izanik, bat-batean hain kartsuki gauzak aztertuz etorriko zenik. Are gutxiago, autokritikaren zorrotasuna ikusi ondoren.

### Autokritika eta gure eranskinak

“(…) adarren lanak nahastu egin dira, batetik bestera iraganik, koadroak adarrez aldatu dira; hitz batez, organizazioari buruzko nahasmenduaren etsenplu garbiena izan da ETA”.

Guk ere halaxe uste dugu. Eta xehetasunetan sartuz gero, adarrak nahaste horren atzean dagoen jokabide iraultzailea ederki nabarmentzen da. Nabarmentze horren funtsa, berriz, hauxe baizik ez da: adar bat nagusitzen zela beti, adar hori ahuspez gurtzen zela eta ondorio logiko bezala, beste adar oro dependentzia ulergaitz batean zeudela. Adar nagusi hori, ez dago esan beharrik, alderdi militarra zen. Hots, ideologia politikoaren barnean sartzen bagara, ideologia militarra nagusitzen zen organizazioan beste ororen gainetik.

“Hala eta guztiz ere, alde onik izan da. Zeren, ETAREN lanari esker, galtzera zihoan euskal nazio kontzientzia salbatu, berpiztu eta hazi egin baita. Bestalde, (...) ETAK, herriarengandik lortu duen entzute handiagatik, euskal populua, EAJren (Eusko Alderdi Jeltzalea) eta beste erakunde espainolen saretan erortzetik gordea izan da”.

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 11, 1975eko Urtarrila-Otsaila, 24-28 orr.

Lehen-lehenik esan behar da “euskal nazio kontzientzia salbatu” gabe dagoela oraino. Ados gaude “berpiztu” eta “hazi” hitzen esana-hiarekin, baina “triumfalismo” usaina dario “salbatu” hitzari. Hala ere, “kontzientziatze” horretaz zer ulertzen den jakitea ez letorke batere gaizki, kontzientziatzea masa-ekintzatik at loratzen denean. Esate baterako, eta ETA honetan ados dator gure irizpidearekin, langile eta kultur alorrak biluzik ikusten ditugunean. Zalantzarri, benetan.

Beste alde batetik, bigarren puntu horretan dioena: “(...) EAJren eta erakunde espainolen sareetan erortzetik gordea izan da”. Baina zer neurritan gorde da? Puntu hau ez dago batere garbi eta ETAk berak Agiri honen 4. orrialdean dioen legez, hara hemen froga garbi bat: “Zeren, ORTk, CCOO delakoetan egin duen lan handiak on-dorio ederrak ukan baititu joan den urtekoa izan dela eta”. Hemen Nafarroaz ari da. Eta 23. orrialdean eranstean du: “ORT (goi Nafarroan erro sendoz finkatua); MCE (Gipuzkoan gehienbat, nahiz Hego Euskadi osoan kausitzen den); LCR-VI Asanblea (ia bakarrik estudianteen artean)”.

Langile mailan, beraz, politika abertzalea hain eskasa izanik, eta kultur arloan EAJren eragina egunez egun nabarmenagoa delarik, ETAREN sare hori zuloz bete dago edo ETAK ez du bestela delako sarerik? Zertan gara, beraz?

“(…) une honetan guztioi baitzaigu begitaratzen hautsi-mautsi baten beharra. Auzia zera da: horri buruz ETAK zer jarrera hartu behar duen. (...) beharrezkoa izanen dela haren (demokraziaren) jokia eginez demokraziaz baliatzea: politika-alderdiak, sindikatuak, etab...”.

Puntu honetan zeharo bat gatoz ETAREN ustearekin. ETA ohar-tu bide da, nonbait, aldian aldiko egoera politiko bereziei bereziki erantzun behar zaiela. Ea bada praktika mailan ere jokabide hori nabarmentzen den.

“Baina ez gaitezke demokrazian osoki fida, jakin baitakigu demokraziak ez lituzkeela euskal langileen helburuak beteko. Aitzitik, burgesiarentzat demokrazia da biderik egokiena, ezin barneratuz daukan gauza bakarra bereganatzeko: hots, gure azken xedeak bete-tzeko daukagun nahi bakarra: borroka armatua”.

Jakina da euskal langileriaren helburuak ezin direla bete bide horretatik. Bide hori ez baita edozein demokraziaren bidea, burges demokraziarena baizik.

Baina, Agiriak geroxeago dioenarekin ezin gaitezke ados egon. Zeren eta burgesiak bere klase interesak zaintzeko, aurrez aurre daukan etsaia ez baita azken finean borroka armatua, politika sozialista baizik, populuaren interesak oro har eta proletarioen interesak bereziki zainduko dituen politika sozialista hain zuzen. Izan ere, ezin daiteke esan besterik gabe burgesiak borroka armatua hein batean irents ez dezakeenik bere jardun politikorako. Irents ez dezakeena hau da, batere ezbairik gabe: politika proletarioa, hau delako berez politika burgesaren etsairik nagusia.

Etz da zilegi, alegia, Euskal Estatu Sozialista lortzeko azken bermea borroka armatua dela esatea. Azken bermea, borroka armatua ez baino borroka armatua bere barne duen politika sozialista delako. Azken finean, politika arlo militarri nagusitu egiten zaio, eta hori ezin dugu ahantzi. Arlo militarra helburu politiko batzuk lortzeko ezinbestekoa izan daiteke, baina horrek ez dio arlo militarri iraultzaren bilakabidean azken funts eta mugatzaile izateko nagusitasunik ematen. Gerla mota bat politika mota baten ondorio eta fruitu da, ez alderantziz.

## ETAko politiko-militarrak

Ikus ditzagun orain ETA politiko-militarrekoek Erakundearen egituraz dituzten irizpideak.

“a) Herrialdeen heinean, adar guztientzat, zuzendaritza bat baizik ez dela behar. Zuzendaritzan arduradun bat izanik, edo gehiago nahi bada, baina orduan elkarrekin aski lotuak, egoera aztertzeko eta itxuratzeko orduan, ikusmolde bat eduki dezaten.

“b) Langile adarreko militanteak, adar guztien burua den arduradunaren zuzendaritzapean egonez, Erakundearen eginbide guztiez (militarrak barne) jabetuko dira eta berdin, noski, militarrak beste adarrez”.

Irizpide horren argudioei aurre eginez, ETA militarrekoek beste hau da diote:

“Orain arte arduradunek adar bat bakarra ere bazuten ondo organizatzen ahal, nola bada dituzte organizatuko adar guztiak denak batera? Orain arte zapalkuntzak hain gogor jo izana adarren autonomia eskasagatik izan denez gero, zer gertatuko litzateke arduradun bat edo zuzendaritza bat baizik ez balego?”

ETA militarrekoek politiko-militarrei zuzentzen dizkieten argudioak guztiz zuzenak direla deritzogu. Baina gu benetan harritzen gaituena zera da auzi honetan: arduradun bakar batek hiru arlo landu ditzakeela ustea izatea. Ez ote du bada alor bakoitzak bere berea duen izaera berezia? Eta nork bere izaera berezia baldin badu, nola arraio ihardetsi dezake bati ezin ihardetsirik dabilen militante gizagaixoak?

Aurrera jarraituz, ia inoiz garbi utzi ez den auzi bat ukitzen du Agiriak.

“Zerk hala edo holakatzen du militantearen ikusmoldea: dagien lanak ala arduradunak? Guretzat, dudarik gabe, lanak, eta hartatik dugu ez onartzen bigarren argudioa”.

ETA politiko-militarrekoek baldin eta militanteen ikusmoldea arduradunaren bidez taxutzen eta osatzen dela uste badute, berak, militanteak alegia, bere aldetik daraman jardunaren bidez baino gehiago alegia, oso oker daudela pentsatzen dugu. Auzi horren gainean ETako militarrek dioena, aldiz, arras zuzena dela uste dugu.

Arazo hau pittin bat areago sakontzea agian ez zaigu batere gaizki etorriko. Eta, ETaren azken urte hauetako jokabidea kritikatu beharra edonori burura dakiok. ETak militante bat bere baitan hartu eta ohi duenean, militante horren formazio eta gaitasunik eza ia beti arrunt gauza nabaria izan arren, ez da deus ere ahalegindu militante bati berez eta halaber iraultzari ere zor zaion formakuntza ematen. Militantearen prestakuntza praktikan lortzen bada ere, hots, militantearen hezkuntza politikoa praktikari funtsezko bazaio ere, teoriaren mailako formazioa oinarritzeko kontua da.

Nolanahi ere, ETA militarrek eman izan du horretaz bere iritzia autokritika saihestu gabe. Puntu hori azaldu nahi genuke orain: hau da, ETaren ustez militanteen heziketa politikoa liberatu baten bidez lor daitekeen gauza da. Militanteak liberatu batekin harreman soiletan jartze hutsa zerbait hunkigarria delako edo, mirariz edo militante beldurriak gauetik goizera borrokarako gaitu egiten dira. Badirudi ETA erakundeak bi gauza nahasi dituela auzi honetan: batetik, liberatuaren eskuz militanteei ezartzen zaien presio psikologikoa, eta, bestetik, teoria mailako formakuntza iraunkor bat.



## ETA militarren erabakiak

– “ETAk, langile eta anti-oligarkikoak diren talde eta herri gizon abertzale guztiei dei bat egiten die alternatiba demokratikoaren aitzinean batasun batean bildurik jokabide bat ukan dezaten.

– “ETAk, bere azken xedeei kontra jartzen ez zaizkien bezainbatean, batasun horren ekinaldi guztiak –langile erakundeak, bereziki–, sostengatuko ditu bere indar guztiaz (ekintza armatuaz ere bai).

– “ETAk, estrategiari dagokionez, praktikan jokabide aktibista utziko du. Jakina, ez beste terrorista-mota batean hasteko, baizik eta borroka armatua euskal langileen defentsa bideetan barne legokeen estrategia batean sarrarazteko.

– “ETA, Euskadiko errealitate sozio-politikotik ez da hastanduko, ez eta erakunde militar huts eta apolitiko bilakatuko. Aitzitik, bere lana errealitate horren azterketarik sakonenean finkatuko du.

– “ETAk, une bakoitzean, salatu egiten ditu (baita ekintza armatuen bidez ere) etortzeko omen den demokrazia burgesaren makur, desbideratze eta ezinak oro. Baita salatuko ere aipatu dugu Euskal Batasun herrikoi eta abertzalearen erabaki taktikoak ETAre azken xedeen kontra joanen diren aldi oroz.

– “ETAk luze gabe jakinaraziko ditu zein diren, bere ustez, egingai demokratiko baten puntu beharrezkoenak: hots, euskal iraultza sozialistarako bidean trabarik ipiniko ez luketenak.

– “ETAk argi eta garbi dio atzera biltze hori taktikoa dela soilki, ikusia izan ez den egoera berri bati erantzuteko egina, hain zuzen. Hots, beste jokabide baterako atea ez ditu inola ere hertsitzen, eta borrokaren beharrei erantzuten saiatuko da beti”.

Erabaki hauetan ageri diren ideia politikoak oro har onargarriak iruditzen zaizkigu. Esate baterako, oraino ETAre praktika praktikaz justifikatzeko joera makur hori. Teoria mailako politikari eta teoriari zor zaion hutsune latzaz jabetu bide dira. Etortzeko omen den burges demokrazia horretan inozoarena egin gabe begi zorrotzez ibiltzeko enpeinu hori ezin hobea da.

## Geure azken ondorioak

Jadanik bistako gauza da ETA militarrekoek politiko-militarrekoek ikusi ez dituzten zenbait arazo begiz jota dituztela. Adibidez, egun-

daino heldu zaigun lelo aldagaitza hau izan da: masa-ekintzetarako erakunde iraunkorrik ezin daitekeela Euskal Herrian sortu nahiz langile eta nahiz kultur arloan. Baina hori justifikazio merke bat da. Alde batetik, erakunde iraunkor horiek bizirik ditugu beste zenbait alderdi politikoetan. Bestetik, berriz, inoiz ez dugu entzun ETaren ahoz erakunde iraunkor horien arazoa ideologia politikoarena denik. Hau izan da orain arteko justifikazioa: hori egitura arazoa dela, eta sistema faxistaren barne berez sortzen dena. Beraz, Erakundearen alderdi estrukturalan datza arazoa orain arteko ETaren ustez, eta dirudenez ez luke zerikusirik izango Erakundearen ideologia eta jardun politikoarekin.

Guk besterik pentsatzen dugu, ordea.

- Erakunde batek bere alderdi estruktural berezia duela.
- Erakunde batek bere alderdi ideologiko eta politiko berezia dituela.
- Ez dugu uste alderdi estrukturalari sor dakizkiokeen arazoak halaber ideologikoak eta politikoak ez direnik.
- Beraz, eta azken batean arazoaren funtsa politikoa dela uste izanik, ETaren kultura eta langile arloekiko zabarkearian hara zer nabarmendu izan den: masa-ekintzetan ez dutela sobera sinesten eta, horrenbestez, egiazko ideologia sozialista baten aurka doan beste batean murgildurik zebiltzala.

Hori eta horrenbestez, pentsatzekoa da praktika mailan ere ETA militarrekoek urrats handi bat emango dutela. Noiz ohartuko dira, ordea, beste horiek? Izenez politiko-militar gisa ageri zaizkigun horiek?

ETA militarrekoekin guztiz bat gatoz langile eta kultura arloak autonomia osoz eta beren kabuz ibili behar dutela diotenean. Horregatik, ezin dugu onartu politiko-militarrek Erakundeari eman nahi dioten egitura-motarekin. Izan ere, euskal iraultzari egin zaion eta egin dakioken kaltea izugarria baita.

*Jose Manuel Odriozola (“Izarreko”)*

## Irlanda kolonizatua<sup>1</sup>

Irlandako kasua ikertzen hasi nintzelarik, nahiko harriturik gelditu nintzen ikusirik gai bizi-bizia zela, ez eguneroko telebista eta prentsa-orrietan bakarrik, baita liburutegietako ikerketa lanetan ere. Azken lau urte hauetan bertan sei liburu bederen argitaratu da Ipar Irlandaz. Zerbait da.

Bibliografiari buruz ohar bat egin nahi nioke irakurleari. Hemengo datuak bizibide bezala politika gauzez okupatzen direnen iturrietatik jasoak ditut. Lan honen mugak zuzeneko borrokan dabilzanean lekukotasunik gabe gelditzen dira. Hotz, beraz.

Nahasketak ertzertzeko beste bigarren ohar bat. Ez berez, gauza bera direlako, baina bai historikoki hala izatea gertatu delako, “protestante” hitza erabiltzean atzerri jatorriko kolonoa adierazi nahi dut, eta “katoliko” hitzarekin, berriz, lekuko biztanlea.

## Irlandaren kolonizatzea

Irlandako herria, beste zenbait lekutan gertatu izan denez, behin baino gehiagotan zapaldua eta konkistatua izan da sistemaz kolonizatua izan aitzin ere. Erdi Aroan zehar, hor X-XVI mende bitartean, Eskandinaviarrak, Normandiarrak eta Eskoziarrak Irlandako lurraldeaz jabetu nahirik ikusten ditugu. Ez gara hemen horien historia egiten hasiko; alabaina, kolonizatzearen inguruko urrats zenbait gogoratzeak gaurko egoera argitzen lagun diezagukeela uste dut.

Elisabet erreginaren denboran (1558-1603) Irlanda ingelosen koloni lur bilakatzen hasten da. 1570. urteaz gero, Irlandako zati handi bat –hor sartuz Munster eta Connacht eskualdeak–, in-

---


<sup>1</sup> *Zabal*, 13, 1975, 20-32 orr.

perioaren administraziopean aurkitzen da. Lurren desjabetze edo konfiskazioak orain hasten dira. Protestantismoa ere, kolonizatzailearen erlijio ofiziala, noski, indarrez ezartzen da.

Stuarts izenekoen garaian (1603-41), politika kolonizatzailea areago hedatu baizik ez da eginen. Honela, Ulster eskualdea ingelosen menpe jautsi zen.

Baina, Irlandak ez zuen debaldetan saldu nahi izan bere askatasuna. Garaiko herri-tradizioaren kutxa eta sostengatzaile O'Neill eta Hugo Roe O'Donnell jaunak ziren eta hauek ongi zekiten Ingalaterrako koroaren kontra borrokatzean beren herria zaintzen zutela. 9 urtez gudukatu ondoren, indar kolonizatzaileen aurrean burua makurtu beharrean aurkitu ziren 1607an.

XVII. mendeko kolonizazioa zein basatia izan zen ikusteko Ulster-en egin zen lur-partiketa ikusiko dugu. Ulster probintzia garai hartan artzaintzatik bizi zen eskualde bat zen, lehengoari arras atxikia eta Gaelic jatorriko usantzak osoki gordetzen ziren eskualdea. Ez zen artean hiririk.



*Mapa: Irlandako lau probintzia edo eskualdeak*

Jaime I.a une berean Ingalaterrako eta Eskoziako errege baitzen, aipaturiko bi herrietako jendez, bereziki Eskoziatik etorritakoez, betetzen da Ulster izenekoa eskualdea.

Kolonialismoak, beste ezaugarri batzuen artean, lekuko ontasunez jabetzea esan nahi du. Hara, bada, gertatua: Arthur Chichester ingeles-agintearen ordezkoa konplizten zituen jaun politikoa bat zen, irlandarra izan ere. Honek lurrik onenak lekukoentzat nahi zituen. Gobernuak, ordea, besterik erabaki zuen. Lurrak hiru klase ezberdinetan berezita partekatu ziren. Hara nola.

Lehenengo mailan atzerriko kolonizatzaileak zeuden, hots, enpresariak. Hauek hartu zuten bertako zatirik handiena. Lekukoek ez zezaketen beren lurrak errentan ere har.

Bigarren mailan zerbitzariak zeuden, hots, lekuan atzerriko agintearen esanera morroi bezala zeudenak. Hauek utz zezaketen errentan beren lurra, baina hori eginez gero, legez zerga bat behar zioten ordaindu koroari.

Hirugarren mailan, azkenik, bertakoak zeuden. Hauentzat ez zen fitsik gelditu, ez lurrik, ez errentan hartzeko ahalik. Honelako lapurreta egin eta gero, normala zitekeen, noski, lekuko jendea asaldaturik sentitzea. Zerbaitegatik deitzen bide zituzten atzeritar hauek “simaur” izengoitiz.

Hain zuzen ere, 1609. urteaz gerotik, lekuko jendea norabait urrundu beharrean aurkitu zen, eta lekuko tokia okupatuz kolonizatzaileak ugaritzen etorri ziren. Honela, adibidez, 1622an 8.000 kolonia familia bazen Ulster-eko eskualdean. Bertan gelditu zen jendea, berriz, miseria gorrian lotu zitzaion lurrari, orain morroi bezala lan eginez.

Bestalde, herri bizitza guztian sekulako zuloa ari zen zabaltzen kolonizatzaile eta lekuko herritar desjabetuen artean. Herri bat beste batetik bereizten duten elementuak zeuden jokoan eta txokoa: hizkuntza, ohiturak, legeak, pentsaera, artea, erlijioa, eta abar. Zituzten harremanak zapaltzaileen eta zapalduen artekoak izaki, kasu honetan atzeritar esplotatzailea “protestantea” dela jasotzen da eta esplotatua, berriz, “katolikoa”. Izenez elementu bereizgarri bezala *erlijioa* badator ere, funtsean, koloni arazo bat da.

Zapalduen lehen jazarpena 1641ean ematen da, Irlandako parlamentuaren kontra altxatuz. Phelin O’Neill-ek zuzendu zuen borroka hau. Arrazoiak? Lehengo zapalketa ez zelarik aski, 1633an agintera igo zen Thomas Wentworth jaunak oraindik areago igo

zituen zergak, ingeles eliza ere inposatu zuen. Matxinada honetan 4.000tik 7.000ra lagun hil ziren.

1649an Oliver Cronwell jartzen da Irlandako buru. Honek ere aurrekoen sistema bera jarraitzen du, lekukoak haizatzuz eta lurrak espekulatzailen esku utziz. Katolikoak gero eta baztertuago kausitzen dira.

1685ean Tyrconnell (Richard Talbot dukea) agintera igotzen delarik, berriz ere iraultza berri bat piztuko da kolonialismoaren kontra. Baina oraingoan ere kolpeak huts egiten du, zeren 1691n William jabetuko baita botereaz, James II.aren armada menderatu ondoren. Bidenabar esan dezadan Tyrconnell katolikoa zela eta lekukoek interesak defendatzen zituela. William, aldiz protestanteen interesak gehiago sendotzen ahaleginduko da ondorengo urteetan, eta lur lapurreta berri batzuk egingo dira Limerick eskualdean.

Jadanik sasoi honetarako kolonizatzaileak beldurtzen hasiak ziren, lapurtutako lur eta etxeen jabetasuna galduko ote zuten-edo. Horregatik, zenbait hiri harresiz inguraturik zeuzkaten Iparraldean, adibidez, Londonderry eta Enniskille-n, zeren hemengo partean hegoaldean baino askoz ugariago baitzen koloni jendea.

Ulster-eko protestanteek Talbot-en kontra egindako borrokaren xedea hauxe izan zen: “askatasuna, erlijioa eta legea”, erran nahi baita, borroka errege absolutismoaren kontra, borroka aita-santuaren kontra eta borroka lekuko barbaro edo basatien kontra. Kolonialismoa horrelako ideologiaz jantzi zen XVII. mendean. Mende honen buruan Ulster bilakatu zen Irlanda guztiko alderdirik aberatsena, kolonizatzaileen obraz eta abileziaz, hain zuzen ere. Eta zapalkuntzaz, noski. Konkistatutako beste lurraldeek, ordea, ekonomi oinarriarik gabe pobre izanez jarraitzen zuten.

Kultura mailan ere nabarmenki sentituko da kolonialismoaren ostikoa. Gaelic kultura, aristokraziarik gabe, bizitzeko gizarte girorik eta egitura sostengurik gabe, indar-galtzen hasten da, poeten artean bizirik jarraituko badu ere.

XVIII. mendean zehar fenomeno berri bat sortzen da Ulster kolonia baitan. Protestante jatorrikoen belaunaldi berriak klase biziari berri bat hartzen du. Klase hau aristokrata eta aberatsa da. Klase honek ordezkatzen du Irlandako oligarkia eta merkatari jabetasuna.

Lehen esan dugun bezala, Gaelic kultura amiltzen hasi zen, baina oraindik XVIII. mendean lekuko gehienak herri hizkuntzan mintzaten ziren. Alabaina, ingeles hizkuntza ere han zegoen erro-

tua aspaldiko denboretatik eta haren eragina jadanik aski finkaturik zegoen Ulster-eko gizartean. Eta honek jite berri eta berezi bat emango dio eskualdeari. Ulster-eko biztanlea *hiritar berezi bat* bilakatzen da, hots, *ingeles eta eskoziar irlandarra*.

Gizarte hau bera klase ikuspegitik begiratuta ere, banandurik aurkitzen da. Hara nola:

Lehen banaketa atzerritik etorritako kolonizatzaileen artean ematen da, batetik, protestante lur-jabeak daudelarik eta bestetik, berriz, maizter diren protestanteak. Bigarren banaketa maizter diren protestante eta katolikoen artekoa da. Beraz, jadanik XVIII. mendean klase interesak ongi markaturik daude. Horregatik, protestanteen artean ere laster agertuko dira jauntxo lurdunen kontrako talde asaldatzaileak. Honen guztiaren bilakaera argiago agertuko da XIX. mendean.

## Nazionalismoaren sorrera

Nazionalismoaren sorrerak XIX. mendeko testuinguru sozio-politiko eta kulturalaren girotze bat eskatzen du. Ohar batzuk eginenez hasiko gara, beraz.

Irlanda guztia mende honen hasieratik biztanlez ugaritzen etorri zen. 1800an 5.000.000 biztanle ditu eta 1841ean, berriz, 8.000.000. Jauzi azkarra demografian. Belfast hiria, adibidez, denbora laburrean izugarri hazten da: 1800. urte inguruan 20.000 zituen eta 1841ean 119.000 izanen ditu.

Egia da industriak lanbide berri batzuk sortu zituela. Baina fenomeno honek bakarrik ez dezake esplika jendetzaren haztea, baldin honen ondoan koloni sistema berriak sortutako ondorioak agertzen ez badira behintzat. Hain zuzen ere, Dublin-eko parlamentua 1801ean desegiten da, eta Irlandako politika koloniala zuzenean Westminster-etik gidatzen. Irlandako ordezkariak London-en hautatzen dira. Politika berri honek esplotatze sistema oraindik basatiagoa egin zuen, zeren kolonoen zergak Ingalaterran bizi ziren jauntxoengana joaten baitziren orain. Sistema honen baitan jauntxoek interesak babesten dira eta haiek daramate gidaritza administrazio kontuetan. Hori batetik; bestetik, berriz, “protestante jatorriko” jendea ere babesten da, aliantza edo elkarte bat sortzen

delarik erdi-feudal tankerako jauntxo lurdunen eta erdi-mailako klaseen artean, hots, merkatari, eskulangintzako jabe, jende eskola-tu eta gobernarien artean.

Protestante langileriak, aldiz, begi txarrez ikusi zuen batasun hori, ongi baitzekien urrutiko jauntxoei zergak ordaintzen zizkietela eta industria berriak haien bizkar hazten zirela. Gainera, atzeritar jatorriko jende hau –*gisa aparteko pentsamoldez, noski*–, Ulters-eko gizon-emakume bezala kokatua zegoen bertan. Zergatik diodan *gisa aparteko batez?* Lekuko herritar bezala sekula *integratu edo bertakotu ez delako*. Eta puntu hau biziki inportantea da Ipar Irlandako politika arazoa, bereziki naziotasunaren aldetik, ulertzeko.

Lehen guraso kolonizatzaileengandik belaunez belaun pribilegio zenbaiten sentimendua jasorik, protestante masak pentsatzen zuen bertakoa baino bizibide hobeagokoa zela, lur-jabetzan lehen-tasuna zuela, eta horrelakoak. Masa honetan baitan, beraz, bizirik zegoen lekuko kontrako errezeloa, bizimodu erosoagoa hartuko ote zuten beldurra, alegia.

Koloni sistema berriak langileria baitan sortu zuen miseria egiazki handia bazen ere, penatuena bertako langileria zen, halere. Jendea patata eta esnearekin bizi zen. Maizterrak ugaritzen eta ugaritzen joan ziren, zergak goraka, eta sosik ez. Eta horrela iristen gara 1840ko gosetera. Hau ere kolonialismoaren obra tristea. Gosez eta eritasunez, 1845-1851 urte bitartean, Irlandak 2.000.000 biztanle inguru galtzen du.

Herri hizkuntza eta kultura gainbehera doaz. Zapalkuntzaren ondorioz, bertako jendea bere hizkuntza utzi beharrean aurkitzen da atzerriko ingelesa hartzeko. Nazionalismoa bera ere ingeles literaturan erretzen da.

Atariko hau eginik errazago barnera gaitezke, noski, nazionalismoaren eremuan.

Mugimendu nazionalista zentzu zabalean hartzen badugu, joera bat baino gehiagorekin aurkituko gara. Izenda ditzagun horietako batzuk.

– *Parlamentarismo joerakoa*. Ikuspegi politiko honekin eman-dako lehen urratsak katolikoen askatasuna xede zuen Daniel O'Connell-i zor zaizkio. Erdi-mailako klasearen ordezkatzaile zen eta nekazarien sostengua bereganatzen zuen, baita kleroarena ere. 1829an Wesminster-eko parlamentuan eseri zen.



Steward Parnell-ek ere (hau protestante lurduna zen), O'Connell-en arabera, konstituzionalismoaren bidetik eramaten du mugimendu nazionalista. Eta 1891n hiltzen delarik, haren alderdia, jadanik bitan zatitua, John Redmond-ek emango dio jarraipena.

– *Unionismo joerakoa*. Edward Carson zen (1911. urte inguruan) Ulster eskualdeko unionisten mugimendua gidatzen zuen buruzagia. Irlandako parlamentu bat sortzea proposatzen zuen, Westminster-eko parlamentuarekin harreman federalak izanen zituen horietako baten gisakoa. Agintea, ordea, London-en gelditzen zen, hara nola: militarra, politikoa, ekonomikoa, hezkuntzarena, legeriarena. Bistan da askatasun-mota hau egiazki kaskarra zela; halere, nahikoa Remond bezalako nazionalista unionista batentzat, honen eskakizunak ez baitoaz urrutiago.

– *Nazionalismo joerakoa*. Feniam izeneko mugimendua dugu hemen aipatzekoa. 1860. urte aldera sortzen da isilpeko erakunde bezala, laborari gazteek sostengaturik. Mugimendu honek alde batera utziko du O'Connell-en konstituzionalismoa, baita ezarritako sistemaren barruan eratu zen erdi-mailako katolikoen batasun hura ere. Mugimendu honen tradizioa IRB edo Irlandako Errepublikan Anai Artekoa (Irish Republican Brotherhood) izeneko talde beso armatuak segituko du XX. mendean.

Sinn Fein erakunde politikoa 1905ean sortzen du Arthur Griffih jaunak. Hara zer proposatzen zuen honek: Irlandak Ingaltarrarekin duen batasuna legez kontrakoa baita, ingeles parlamentuan Irlanda herriaren ordezkari bezala daudenak erretiratu egin beharko lirateke eta, ingeles sistema hori utzirik, Irlandako gobernu bat egin, koroaren mende egonen litzatekeena, 1782an egin zen parlamentuaren gisara<sup>1</sup>. 1918ko hauteskundeetan alderdi honek 105 eserlekuetatik 73 irabaziko ditu, Valera buru dela.

Oro har, mugimendu nazionalista sakabanatu honen xedeak aski mugatuak badira ere gaurko mandiotik begiratuta, ezin uka daiteke 1880-1918 urte arteko giro nazionalistak kolpe saminiak erantsi ez dionik Britainiako kolonia sistemari. Giro honen babesean azkartzen hasi zen kultur mugimendua ere. Honela, 1893an, hiz-

---

<sup>1</sup> 1782ko Konstituzioak zekarrenez, Dublin-go Parlamentua Westminster-eko kontrolpetik at zegoen; agintearen azken eskubideak (betearazlea, tarteko), ordea, London-eko gobernuak zeuzkan.

kuntzaren aldeko batasun bat eraikitzen da. Batasun hau 1913. urte aldera Patric Pearse-ren bidez politizatuko da.

Munduko gerra aitzin (1913. urte bukaeran), hiru talde armatu zeuden Irlandan.

Bata Carson-ek zuzentzen zuena fusionista zen. Talde honen beso armatua UVF zen, hots, Ulsters-eko Indar Boluntarioak izenekoa. Ingalaterrako armadarekin bat eginik Frantziara joan zen.

Bigarrena sozialistena zen. ICA (Irish Citizen Army) edo Irlandako Herri Armada delakoaren buru Conolly zen. Honen xedea nonahiko kapitalismo eta kolonialismoarekin bukatzea izaki, ez zion garrantzirik ematen Irlandako banderaren koloreari.

Hirugarren armada nazionalistek muntatua zen, “Irlandako Boluntarioak” (Irish Volunteers) deitua. Baina hemen zatiketa bat ematen da. Redmond-ek zuzendutako talde batek, UVF edo Ulsters-eko Indar Boluntarioekin bat eginik, Britainiako armadarekin batera jokatu du. Mac-Neill, Pearse-k-eta zuzendutako beste talde batek, I. V. Izena gorderik, Irlandako talde nazionalista berezi bezala jokatu du, pentsatuz mundu gerra hura irtenbide bat izan zitekeela koloni kateak hausteko. Zatiketa honek aditzera ematen duenez, garbi ageri da Redmond-en parlamentarismoak nazionalismotik gutxi zeukala.

## **Irlanda bitan zatitua**

1917. urteaz gero, Sinn Fein-ek gidatzen du Irlandako politika nazionalista. Jenderik gehienak Irlanda Errepublikak Askea izatea nahi zuen eta, 1918ko hauteskunde orokorretan, Sin Feinn Alderdi Nazionalistak irabazi zituen bozak. Ez, ordea, Iparraldeko partean. Honela, 1919an, Republican Dail Eiream (Irlandako gobernu behin-behinekoa) sortzen da Dublin-en, buruzagi Valera eta idazkari Griffith jaunak direlarik. Gobernu honen egitarauan nazioaren beregaintasuna, ondasunen jabetza, demokrazi eskabideak eta beste sartzen dira. Xede bezala Errepublikaren eraikitzea asmotan harturik, ondorengo urteetan ingeles gobernuaren kontrako borroka bortitz bat hasten da, lehenik pasiboki gogor eginez eta, segidan, gerrilletan sartuz. Ingelesen zapalkuntza biziki bortitza izan zen eta kolonialismoak heriotzez eta espethez ordaindu zuen nazionalisten askatasun desira.

Bitartean, 1920an, Iparraldeko gobernua sortzen da, sei eskualde bereganatzen dituela, hots: Antrim, Down, Armagh, Fermanagh, Londonderry eta Tyrone (Belfast). Donegal, Cavan eta Monaghan eskualdeak berez Ulster probintziari atxikitakok izanik ere, hiru eskualde horiek Ipar Irlanda deituko den gobernupetik at geldituko dira.

Lehen esan dugun bezala, Iparraldean unionistak nagusitu ziren bi baten kontrako bozen bidez. Craig-ek gidatzen duen Iparraldeko Stormont edo gobernu berriak gisako loturak izanen ditu Britainiako gobernuarekin, baina agintea errealki London-en gelditzen da. Iparraldeko gobernua martxan jarriz gero, katoliko jendea arras gaizki tratatua izan zen. Adibidez, Belfast hirian, katolikoak beren etxeetatik kanporatuak izan ziren, beste zenbait lanik gabe utziak, etxeak erreta hilak ere bai, ondasunak kenduta, eta horrela.

Sei eskualde horietan ingeles batasunaren kontra zeudenek ez zuten onartu Stormont delako hori. IRA gogorki borrokatu zen erabaki horren kontra, Irlandaren herri batasuna hautsia ikusten zuelako, hain zuzen ere. Bestalde, Sinn Fein-ek aditzera eman zuen Irlanda herrian bere Alderdia zela gehiengoa erdietsi zuena eta Iparraldekoa gutxiengoa zela, beraz.

Sinn Fein baitan ez ziren denak neurri berdineko nazionalistak eta berriz ere beste banaketa bat etorriko da. Griffith jaunari jarraitu zion taldea London-ekin hizketatuko da elkarren arteko akordio batera iristeko asmoz. Valera-k zuzendutako beste taldeak Errepublikako gobernu behin-behinekoa utziko du. Honela, Sinn Fein zatiturik gelditzen da anaien arteko gerra sortuko delarik.

Dena dela, 1961eko abenduaren 6an Irlandako Estatu Askea sinatzen da, hogeita sei eskualde haren gobernupean gelditzen direlarik. Gobernu honetan ere mugatuak dira eskuduntzak. Esaterako, base militarrik eta itsasokoak ingelesen eskuetan egonen dira 1937. urtera arte. Gerora, 1948an, Irlandako Errepublika lortuko delarik, Estatuak burujabetasun osoa izanen du eta Britainiako Erresuma Batuarekin ez du zerikusirik izanen.

Hau guztia askatasun bidetan urrats sendo bat bazen ere, odollez irabazia, ezin uka dezakegu kolonialismoak ere atera zuela bere bazka bikaina, *bat zen herria bitan* zatiturik utzita. Ipar Irlanda eta Hego Irlanda delakoaren arteko zatiketa politikoa *kolonialismoaren obra* da.

## Dublin-eko politika zertan den

Gobernuko hauteskondeetara bi indar aurkezten dira, hots: batetik, Fianna Fail Alderdi Nazionalista eta, bestetik, Fime Gael-eko Kontserbadoreek eta Laboristek egiten duten batasuna.

Alderdi bakoitza zain gizarte-geruzatan sostengaturik dagoen agertuko dugu laburki.

Kontserbadore edo Tory alderdiak dirudunen artean du sostengu; haren indarra ahula du kostalde eta nekazarien artean, eta indartsuagoa hiriburuetan. Laborari indartsuen interesak zaintzen ditu. Klase ikuspegi burgesa da eta politika jokabidez protestante unionista.

Laborarien Alderdiak laborari langilerian finkatu izan du bere eragina; baina nekazaria hiritartzen hasi zenez gero, hiri-gizarteko langilerian du sarrera.

Fianna Fail Alderdi Nazionalista Mendebaleko kostaldeko laborarien artean bizkortu zen haste-hastetik, han 1922. urte aldera. Berehala irabazi zuen Dublin hiriburua sinpatia ere. Hiriburuko langileen artetik Laboristen Alderdian zeuden anitz eta anitz pasa zen Alderdi Nazionalistara. Arrazoia? Jendeak Fianna Fail nazionalistatzat jotzen zuelako, noski (Garvon, 1974, 307-327). Alderdi Nazionalistaren bozak gora eta gora joan ziren 1923-1932 urte bitartean, mendebaleko gazteriak sostengaturik, bereziki. Laborari, burges txiki eta langilariaren laguntza ukanik, 1932an gobernura igotzen da eta agintean irauten du 1949-1951 eta 1954-1957 epealdietan salbu. Urte horietan, Kontserbadoreak eta Laboristak bat eginik, Costello-k gobernatzen du.

Alabaina, Alderdi Nazionalista ez da kritikarik salbatzen. Soilki nazionalista izatea ez dela aski iritzirik nonbait, Alderdi horri kapitalismoaren bidetik doala eta koloni sistema ez duela hautsi salatzen da. Gehiago ere bai, hots: Irlandaren batasuna ahantzi egin duela, edota horretarako ez duela biderik egiten, ideologian arras kontserbadorea dela, Eliza katolikoari arras atxikirik dagoela. Britainiako Erresuma Batuari burua makurtzen diola politikoki, eta abar (Paor<sup>1</sup>, 1971). Horra hor irakurtzen ditugun salaketak.

Kultur alorrean ere hizkuntzaren aldeko gobernu-promesak ahoberozkoak izan ziren, baina praktikan ez da gauza handirik egin.

---

<sup>1</sup> Idazle hau Irlandako Alderdi Laboristakoa da.

Egin dena, berriz, Gaelic League batasunari zor zaio. Gaelic mintzatzen duen bertako jendea 4tik 1 bakarrik da. Arras gutxi. Hizkuntza eskolan irakatsi arren, gero hura ofizialki baliatzen ez bada, eguneroko kale bizitzan fite asko hilko da. Eta eskolan ere ingelesa bakarrik irakasten bada, Ipar Irlandan hala den bezala, orduan okerago oraindik.

Hegoaldeko politika ekonomikoari gagozkiola, bi epe bereizi behar dira: bata 1956. urte aurrekoa eta beste horren ondorengoa.

*1956. urte aurrekoa.* Valera-ren ekonomia etxe barruko plangintzari zegokiona izan zen, eta protekzionista. Jokabide autarkiko honek industriaren aterabideak estutu egin zituen eta, ondorioz, 1954rako hazten zihozaren jendetzaren kanpora beharra (urtero 60.000) eta langileria (90.000).

*1956. urte ostekoa.* Lemass-en gobernupean, ordea, jadanik Castello-k 1956an hasi zuen muga irekitzearen plangintza segida da, kanpoko industriari eta diruari sarrera emanez. Lemass-en gobernuak, lekuko ekonomia azkartu nahirik, 1964-1970 epealdirako plangintza ekonomiko berri bat egiten du, zenbait gauzatarako Iparraldeko gobernuarekin baturik. Momentu honetatik bertatik Ipar eta Hegoaldeko gobernuen arteko harreman politikoak goxatzen hasten dira. 1965ean buruzagiek bisita bana gurutzatzen dute. Lehena, noski, zatikatuz gero.

Ingalaterrarekin ere solasean hasten da Europako merkatuari begira, eta maila ekonomikoan batasun batera iristen da harekin.

Zabaltze honek ekonomi mailan zenbait aldaketa suposatzen du, noski. Adibidez, emigrazioa gelditzea, industria azkartzea; alabaina, politika nazionalistaren mailan birbatasunerako bideak oztopatu egiten dituela ere egia dateke, agian. Gaurko borroka hala frogatzen du neurri batean bederen.

## “Ulster” arazoa mende honetan

Hasteko, hemengo gizartea sozialki nola dagoen esanen dugu. Lehen esan genuen koloni eskualde aberatsena zela. Halere, izan ditu bere gorabeherak, eta 1923-1930 urte bitarte horretan Hegoaldean gertatu zen fenomeno bera gertatu zen Iparraldean ere, hots: langabezia ehuneko 18tik 25eraino igo zela. Gizonentzat lanik ez baitzen, gizonezkoak etxean gelditurik, emazteak joaten ziren lane-

ra. Langabezia honetan gehien erasaten zituenak (adibidez, Derry eskualdean) katolikoak izan ziren, eta hauetatik hainbat emigratzera behartuak izan ziren.

1945eko gerra aitzin, lanpostuak ugaritzen etorri ziren, hara nola: etxegintzan, itsasontzigintzan, injinerutzan, oihal industrian, eta abar. Gerraren beharrak agindurik, lurgintza eta hazkuntza sorkarien eskea handia izan zen. Horregatik guztiagatik langabezia asko gutxitu zen, hau da, ehuneko 5eraino; 1966ko zifrek eguneko 6,1 ematen dute; Britainian, aldiz, ehuneko 1.5.

Demografia ia beti berdintsu mantentzen da bai protestante eta bai kaolikoen artean, baina diferentzia honekin: katolikoek familiak askoz ere ugariagoak direla. 1969ko zifrek erakusten digutenez, katolikoek eskola-haurrak ehuneko 51 dira; katolikoek kopurua orotara hartzen bada, berriz, ehuneko 34an mantentzen da 1911-1961 urte bitartean. Dударik ez dago haurren ugaritasuna kezka-bide gertatzen dela gobernarietzat, biharko egunean gerta baitaiteke ehuneko hori goratuz joatea. Beldur horiek uxatzearen eta nagusigoa beti gehiengo den protestante unionisten eskuetan egon dadin, politikoki neurri berezi batzuk hartzen ditu gobernuak.

Hona hemen, besteak beste, *hauteskunde sistemari* buruzko zenbait datu. 1920ko Irlandako gobernu-legeak, nola Belfast-en hala Dublin-en, bozemaile bezala honako hau agintzen zuen: zenbat bozemaile horrenbeste boz. 1929an Craig buruzagiak, sistema hori kenduz, beste berri bat jartzen du, *jabetzaren* araberrako sailkapena sartuz. Esan nahi baita, jabetza duenak boza gehiago izateko eskubidea duela. Beraz, zenbat eta diru gehiago orduan eta hautagai gehiago. Jende diruduna gehienbat protestante jatorrikoa izanik, katolikoak bazter uzteko kontrol asmazio zuhurra bilakatu zen gobernuaren metodo berria.

Areago oraindik. Hiriburuetan agintarietako sistemaz hala eraturik, katolikoek ertzeratzea ia-ia guztizkoa zen. Adibidez, Co. Fermanagh hirian, non katolikoak nagusitzen baitziren, 1969an 1.589 etxebizitza egin ziren. Hauetatik 1.021 protestanteek hartu zituzten errentan, katolikoentzat 568 bakarrik gelditu zirelarik. Gainera, dirua eduki arren, katoliko batek nekez eros zezakeen etxe bat.

Derry da katolikoak nagusitzen diren beste hiri bat. Hona hemen nola maneiatzen dituen gobernuak bertako hauteskundeak. Hiria hiru partetan banatzen da, intentzio guztiz katolikoak ugaririk diren lekuan multzorik handiena pilaturik. Honela zatikatuz gero, parte bakoitzari 8 ordezkari ateratzeko eskubidea ematen zaio.

*Derry: 1966ko hauteskundeak*

Hegoaldea	14.125 1.474	Unionisten kontrakoa Unionisten aldekoa
Iparraldea	3.173 4.380	Unionisten kontrakoa Unionisten aldekoa
Erribera aldea	2.804 4.420	Unionisten kontrakoa Unionisten aldekoa

*(Paor, 1971, 150)*

Oro har, unionisten kontrako bozak 20.102 dira eta aldekoak 10.264, erdiak inguru. Alabaina, eta hor dago kontrolaren abilezia, 16 ordezkari ateratzen dituzte. Katolikoek doblea erdiak izanik. Kontrolatzeko beste bide bat enplegurik ez ematea da nola lantegi handietan hala txikietan; eta ematen den kasuetan, lanik apalenak egiteko izanen da. Fermanagh hiriaren kasuak argirik ematen digu zuzendaritzako karguak zeinen eskuetan dauden ikusteko.

*Fermanagh 1969: zuzendaritza karguak*

Karguak	Katolikoak	Protestanteak
1.Hiriko Batzar		
Administratiboan	0	10
Idazkaritza bulegoa	1	17
Diruzaina	0	4
Zergak	0	10
2.Etxegintza	1	14
3.Liburutegia	0	5
4.Turismoa	1	8
5.Arkitektura	4	60
6.Hirigintza	4	120
7.Hezkuntza	17	63
8.Osasuna	4	25
9.Laguntza		
	32	338

*(Paor, 1971, 147)*

Honek zer frogatzen duen? Demokraziaren lotsarik ez duen sistema muntatu duela gobernuak. Jokabide maltzur honen kontra Iparraldeko indarrak oro (sindikatuak, Alderdi Laborisra, Alderdi Komunista) elkartuko dira 1960-1966 epealdian zehar. Indar elkar-tu hauek giza berdintasuna eskatzen dute, baita langileria baitan etsaigorik espresuki ez piztea ere.

1967an “Ireland Civil Rights Association” batasuna sortzen da. Batasun honek Erresuma Batuan indarrean zeuden giza eskubideak Iparraldean aplikatuak izan zitezela eskatzen zuen.

Askatasun demokratikoen aldeko borroka honetan ikasleek ere ausardia handiko parte-hartzea izan zuten. “People’s Democracy” delakoan bildu ziren. Talde honetakoa zen Bernadette Devlin, 1969an parlamentuan eserlekua irabazia zuena.

Demokraziaren aldeko borroka herritar bilakatu zen. Jendeak, plazara irten-eta, armaz defendatu zituen bere eskubideak. 1969ko abuztuaren 14an sortzen dira ingeles armadakoak Derry hirian. Egoera larritzen baitzihoan, 1972an Britainiako Erresuma Batuak bi urteko epez zintzilikaturik uzten ditu Iparraldeko gobernu eta parlamentua. Eta 1973an Ulster zuzenki gidatuko du London-etik bertatik.

Eta IRA, zer? Liam de Paor egilearen *Divided Ulster* liburuan irakurtzen dudanez, IRAk ez bide zuen zuzendu 1968-1969ko mugimendu demokratikoa, baina han egon bide zen armen bidez herria defendatzen. Bestalde, eta hau ere esan behar da, mugimendu honek ez zuen birbatasunaz aipamenik ere egiten; eta, Devlin bezala, sistema parlamentarioan sartuz bukatu zuten mugimendu honetakoen.

## Katolikoak eta protestanteak

Ipar Irlandako arazoa erlijio-arazo bezala agertu izan da, eta egun ere agertzen da zenbait lekutan.

Zer funtsa duen baieztapen horrek? Zifra batzuk aurreratuz joanen gara horri erantzuten.



*Iparraldea 1961: Erljio-taldeak*

Eliza katolikoa	497,547	34,9
Presbiterianoak	413,113	29
Irlandako Eliza	344,800	24,2
Metodistak	71,865	5
Anaiak (Brothem)	16,847	1,2
Bautistak	13,765	1
Kongregazionala	9,838	0,7
Bateratua	5,613	0,4
Besteak	23,236	1,6
Inkestatik at	28,418	2
Orotara	1.425,042	Eunekotan

*(Paor, 1971, 143)*

Goiko taulan ageri denez, protestanteak erraz nagusitzen dira; adar askotan sakabanaturik egonda ere, katolikoek kontrako politikan batuta aurkitzen dira. Hau da, historikoki atzeriko protestanteak kolonialista bezala jokatu du eta bertako katolikoak, aldiz, nazionalista bezala.

Bestalde, ondoko zifrek erakutsiko digutenez, praktika erlijioso biziki igoa da, ez ohikoa Europako beste erresumetan. Honela, igandetako elizkizunetara joaten zirenak 1961ean, Hegoaldean ehuneko 95 ziren eta Iparraldean, berriz, protestanteak 50 eta katolikoak 90.

Zifra horiek ikusiz gero, gogoan hartzekoa da bizitza erlijiosoak adierazpen sozial markatu bat hartzen duela Irlandako kasuan. Eta ez da batere harrizkoa Elizaren jokabideak pisu astuna izatea erakunde politiko ofizialetan (egiazki halaxe duen bezala), zeren Eliza katolikoak Dublin-en sarrera nahikoa erabakigarria duen bezala, beste hainbestekoa baitu Eliza protestanteak Belfast-en. Eliza eta politika elkaturik etortzeak, ordea, ez du baieztatzen Irlandaren egoera soziopolitiko *bereziki erlijio-arazotzat* epaitzea. Eta oraindik gutxiago arazoaren alderdi koloniala eta klasearena baztertu nahi

direnean. Zenbait idazle politikariren artean (adibidez, Rose, O Briem baitan) erlijio-ikuspegia gehiegi nabarmentzeko joera dator (Lijphart, 1975). Eta honi ez deritzogu zuzen, erlijio-arazo horretan ez baita ezertarako sartzten teologi mailako eztabaidarik eta bai politikazko motibazioa.

## IRA edo birbatasuna

I.R.A. beso armatuaren historia politikoa Sinn Fein alderdiarekin berdindurik etorri da denboraldi luze batez. Pentsaeraz nazionalista eta sozialista, bera izan da, eta da, birbatasuna lortu arte London-ekin bake hitzik onartzen ez duen indarririk iraunkorra, bakarra, agian.

Fianna Fail-en gobernuak –Valera 1925ean igaro zen Sinn Fein-etik Fail-era–, legez kanpokoa aldarrikatu zuen 1936an; oraindik berriki, 1974an, ingeles gobernuak gauza bera egin zuen. Zergatik? Funtsean arrazoirik bortitzena hauxe daiteke, hots: *ezarritako gobernuak Irlanda herriaren birbatazunaz ez dutela deus jakin nahi*. Egun IRAren inguruan gertatzen datozen zapalkuntza neurriak aski froga dira: presondegiak, gose grebak, atxiloketak, eta beste.

IRAK garbiki adierazi zion ingeles gobernuari zer nahi zuen. Aipu hau 1939koa da:

“Ingalaterrak erretira ditzala Irlanda osotik bere indar armatuak, bere gizon-emakume ofizialak eta erakundeak, bere erresumako ordezkariak oro. Beharrezko da baldintza horiek konplitzea bi nazioen bakebiderako eta anaitasunerako”<sup>1</sup>.

Harrez gero, eta batez ere 1950. urteaz gero, ekintzen bidetik jo du IRAk, eta egun ere gogorki ari da jotzen, zenbaitetan drastikoki ere bai, ingeles etsaia Iparraldetik uxatu nahirik. Ez da ahantzi behar azken urte hauetan hamasei milako ingeles armada sartua dela hango lurraldean.

Irakurleak badakikeenez, IRA gaur bitan zatiturik dago: batean “ofiziala” eta bestean “probisionala”. Diotenez, taktikari buruzko arrazoiengatik, batez ere. Ez dagokit zein den indartsuen epaitzea. *Divided Ulster* liburuan irakurtzen dut “probisionalak” indartsuago

---

<sup>1</sup> *Dail Debates*, vol. 74, 1285-6.

direla Iparraldeko partean; “ofizialek” ere ba omen dute beren indarra, bereziki Belfast-en.

Baina Iparraldeko gizarteak zer pentsatzen du birbatasunaz? Hauxe bai dela galdera zaila. Inportantea, halere. Saiatu naiz zenbat iritzi eta inkesta-datuak handik eta hemendik jasotzen.

Scarrow-ek (1973, 126-138) 1968an *World Politics* kazetan egindako inkestan hauxe dakar: Iparraldeko krisia gobernuaren jokatubidea onartzen ez delako sortu dela. Konstituzioa nortzuek onartzen ez duten esan ordez, onartzen dutenen zifrak ematen dira hor: katolikoen multzotik ehuneko 33 alde eta protestanteen multzotik, aldiz, 68. Azken hauetatik ehuneko 52 gaurko egoera armaz defendatzeko prest omen dago.

**Oharra:** Artikulu horretan bertan baieztatzen da Ulster-eko biztanlea “gizakume berezia”, “arras diferentea” sentitzen dela bai ingelesengandik eta bai irlandarregandik. Hori omen da gehien iritzia. Laburki esanda: atzerritar jatorriko jendea ez da *integratu herriko kulturaren*.

Peter Bromhead eta Donald Shell-ek (1974, 103-119) *Parliamentary Affairs* kazetan, berriz, 1973ko martxoan gobernuak proposamen gisa herritarrei egindako galdera-erantzunen berri ematen digute. Galdera hau zen: zeinekin joan nahi duzu, Britainiako Erresuma Batuearekin, ala Hego Irlandako Errepublikarekin? Ehunetik 61k erantzun zuten, eta hauetatik ehuneko 88k erantzun zuten Erresuma Batuearekin nahi zuela.

Zifra horiek herri-sentipena zertan dagoen ikusteko baliagarri izan dakizkiguke, baldin lehenik ohar kritiko bati begiak irekitzen badizkiogu. Borrokan diharduen herri batean inkestak ez dira izan ohi hain konbentzigarriak, batez ere inizatibak, ez herri zapalduetik, baizik eta iturri ofizialetik datozenean.

Dena dela, gauza bat dago nahikoa argitan, hots: Iparraldeko atzerritar jatorriko jendea, kopuruz handiena, ez dela irlandar nazionalista. Birbatasunerako demokraziaren legea aplikatu nahi bada Ipar Irlandan, lanak izanen dira hori lortzen bortxa barik.

## Irtenbiderik?

Teorilariak, deskolonizatzeaz, demokratizatzeaz, integrazioaz eta, gogoeta mordo bat egin ondoren, Ulster-eko arazoa arras na-

hasia dela esanez bukatzen dute beren lana. Hori bai, ohartu dira Britainiako politikak ez duela irabaziko bortxakeria erabiliz. Baita ere badakite Ulster-eko arazoa Irlandari dagokiona dela. Alabaina, integrazioaz hitz egiterakoan, de facto kolonialismoak ezarritako asimilazionismoa onartzen da eta irlandar nortasuna ez da aipatzen, eta aipatzen denean erlijioaren kontzeptuarekin nahasirik egiten da. Herri kultura eta irlandarra VII. mendean heldu zen kristautasuna ez dira gauza bera, noski!

IRA iraultzan aurrera doa. Zer gertatuko den? Ez dakigu. Dakiguna da 1911-1926 urte bitarte hartan, Irlandako estatua sortu zelaririk, 327.179tik 230.723ra jautsi zela Hegoaldean bizi zen protestante jendea. Datu hau integratu ez den eta integratu nahi ez duen Iparraldeko jende horrentzat ere baliagarri izan daitekeela uste dut.

*Paulo Iztueta Armendariz*

## AIPUAK

### Liburuak

- ROSE, Richard (1971): *Governing without Consensus: An Irish Perspective*, London Faber and Faber.
- BARRITT, Denis P. and CARTER, Charles F. (1972): *The Northern Ireland Problem: A Study in Group Relations*, 2 arg., Oxford University Press, London.
- CRUISE O BRIEN, Conor (1972): *States of Ireland*, Hutchinson.
- HARRIS, Rosemary (1972): *Prejudice and Tolerance in Ulster: A Study of Neighbours and Strangers in a Border Community*, Manchester.
- BUDGE, Ian and O'LEARY, Cornelius (1973): *Belfast: Approach to Crisis – A Study of Belfast Politics, 1613-1970*, Macmillan, London.
- SCARROW, Howard (1973): “The perspective on british local government”, XXVI bol., 126-138 orr.
- BROMHEAD, Peter and SHELL, Donald (1974): “The British Constitution in 1973”, XXVII bol., 2 zk., 103-119 orr.
- GARVON, Tom (1974): “Political cleavages, Party Politics and urbanisation in Ireland: the case of the periphery-dominated centre”, *Journal of Political Research*, 2 bol., 4 zk., 307-327 orr.
- PAOR, Liam de (1974): *Divided Ulster*, Penguin books, 2 arg., London.
- LIJPHART, Arend (1975): “Review Article: The Northern Ireland Problem: cases, theories, and solutions”, *British Journal of Political Science*, 5 bol., Cambridge.

### Beste iturri batzuk

*The Tablet*, 27 June 1974

*The political quarterly*, 45 bol., 2 zk., London, 1974.

*The economics and politics of the regions*, David Donnison.





## Joxemartin Apalategi Begiristain

### Ibilbide profesionala

Ataunen 1949an sortua, eta Bilbon 2006an zendua. Donostiako Elizbarrutiko Seminarioan Oinarrizko formazioa, Humanitateak eta Filosofia ikasketak burutu zituen 1961-1969 urteetan.

Soziologian lizentziatu zen Paris VIII. Unibertsitatean, 1972an. 1978an Parisko Institut Catholique-n Filosofiako Lizentziatura lortu zuen. 1980an, Filosofiako lizentziatura Valentziako Unibertsitatean. Parisko Ecole Pratique des Hautes Etudes-en Sciences Sociales-en Soziologiako Ikasle titularra izan zen 1981-82 ikasturtean. 1984an Paris VIII unibertsitatean, Soziologiako Metrisa burutu zuen. 1984an Kultura Antropologian doktoregoa eskuratu zuen EHU-n, Tesia Julio Caro Barojaren zuzendaritzapean egin zuen, Jose Migel Barandiaran ebaluatzaileen mahaiburu zelarik. 1989an Montrealgo University of Mc-Gill-en, English Certificate atera zuen. 1998an Oñatiko International Institute for The Sociology of Law-n, Master Soziology of Law burutu zuen.

Ondarroako Zubi Zahar Berri Ikastolan, Eskolaurreko eta EGBko Zuzendari Pedagogikoa (1975-1977) izan zen. 1981. urteaz gero, hil arte, «Euskal eta atzeritar kulturen antropologia» irakatsi zuen EHU-n. 1984-1985 ikasturtean Paueko Unibertsitatean irakasle ere izan zen; Donostian, Kriminologiako Euskal Institutuan (1985-1988). UE-Un 1983. urteaz gero Kultura Antropologia irakatsi zuen. EHU-n udako ikastaroetan irakasle.

1984an, zuzendarikide gisa, Teresa del Valle eta Joane Crawfordekin batera «Mujer vasca, imagen y realidad» ikerketa-proiektuan jardun zen. 1994an, Eusko Ikaskuntzaren Jose Migel Barandiaran beken lehen deialdia profitatuz, lehen saria lortu zuen Lekeitioko Euskal Herriko Bideo lehiaketan «*Manuel Lekuona: 1894/1987*» bideoarekin. *Barandiaran Joxemiel* liburu-bildumaren sortzaile eta zuzendaria izan zen Haranburu Altuna argitaletxean. 1989an Barandiaran Fundazioaren zientzia-batzordeko kide izendatu zuten. Eta 1990ean *Pertsona eta Sozietatea* bilduma sortu zuen Elkar argitaletxean. 1991tik 1993ra Eusko Ikaskuntzaren Gipuzkoako lehendakariordea izan zen, eta, Jose Migel Barandiaran hil ondoren, zuzendaritza-taldeko kide.

1985ean, “Antropologia eta Joxemiel Barandiaran (AEB-Bjm)” sortu zuen. 32 liburu argitaratu zituen Donostiako Kriselu editorialean. 22 autorek parte hartu zuten. “Pertsona eta Sozietatea” bilduma sortu zuen 1991n. 2 liburu atera ziren Elkar, S.A. editorialean. “Gerriko Ikerlan-Sariketako” zuzendari izan zen 1991tik 2006an hil arte. Ikerketa-Sari horiekin Lazkaoko Goierriko Euskal Kultur Elkarteak 18 liburu argitaratu zituen. *Zientziartekoa* aldizkarian idatz-kontseilukide izan zen.

## Liburuak eta artikuluak

- 1975: «Etnologia eta soziologia kondairaren ataritik, edo Ataungo San Gregorio auzoa», in Elkar Lanean, *Gizartean*, Jakin, Arantzazu, 69-91 orr.
- 1978: «Arriotea Etxebarrian,77», *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*(CEEN), 28, Iruñea, 21-44 orr.
- 1980: «Cuestionario al doctor lingüista López Garcia, Angel», *Fontes Linguae Vasconum, Studia eta Documenta* (FLV), 3-36: Iruñea, 461-466 orr.
- 1981: «Acercamiento al pensamiento paletnológico de Joxemiel Barandiaran», *Anuario de Eusko Folklore* (AEF), 30, Donostia, 71-80 orr.



- 1981: «Introducción a la historia crítica de la producción oral popular vasca». 1. zatia, *Ethnica*, 17, Bartzelona, 5-47 orr.
- 1982: «Introducción a la historia crítica de la producción oral popular vasca». 2. zatia, *Ethnica*, 18, Bartzelona, 7-25 orr.
- 1982: «Deux anciens contes de Ataun, rapportés pour Barandiaran et Arratibel, ou histoire sans histoire (Essai ethnologique-historique)», *Bulletin Trimestriel de la Société d'Anthropologie du Sud-Ouest*, XVII, 14-16 orr.
- 1982-83: «Euskal Herriko itsaserrien etnografia eta antropologia soziokulturala. Donostia», *AEF*, 31, 107-142 orr.
- 1982-83: «Bittorikin elkarrizketa», *Anuario Eusko Folklore* (AEF), 31
- 1983: «Galdaketa etnografiko batetarako gidaliburua» (itzulpena), Joxemiel Barandiaran: *Obras Completas*, XXI t., 206-308 orr.
- 1983: «Natura bisexual y cultura unisexual: la esterilidad en el pensamiento popular vasco (bilduma), *IPES*, 3, 27-30 orr.
- 1984: «Arrantzale herrien etnografia eta antropologia. Adibidez: Euskal Herria/ Etnografía y antropología de los pueblos pesqueros. Un ejemplo: Euskal Herria», *Actas del Coloquio de Etnografía marinera*, Santiago de Compostela.
- 1984: «Estudio comparativo sobre el comportamiento y valores de la mujer vasca en el medio rural, pesquero y urbano», in Elkar Lanean, *Antropologiaren III Batzarrea* (AB), EHU, 91-96 orr.
- 1984: «Euskal antropologiaren historia kritikoa eta konparatua», *AB*, 126 orr.
- 1984: «Herri arrantzaleen etnografia eta antropologia soziokulturala», *Bermeo. Udalerrri eta Itsasoko Gaiei Buruzko Aldizkaria* (BUIA), 4, 273-307 orr.

- 1984: "Mintzamina eta erreala", in Elkar Lanean, UEU, Pedagogia Saila, Iruñea
- 1984: «Pour une histoire critique et comparée de l'Anthropologie Basque: où en sommes-nous aujourd'hui?», *Cuadernos de Sección Antropología-Etnografía Eusko Ikaskuntza (CSAE)*, 2, 319-325 orr.
- 1985: Etnografiako galdeketa batetarako gidaliburua (itzulpena), Donostia, Kriselu, Antropologiaren Euskal Bilduma, Barandiaran Joxemiel (AEB-Bjm), 6.
- 1985: «Euskal Herriko lurrerien etnografia eta antropologia soziokulturala. Ataun-Aia», *Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura*, Eusko Ikaskuntza (CSHL), 4, 565-605 orr.
- 1985: «Euskal Herriko lurrerien etnografia eta antropologia soziokulturala. Lekeitio-Oleta», CSAE, 3, 47-99 orr.
- 1985: «Historia contada (parte de la historia). El libro 'Kontu zaharrak' del monje Arratibel del monasterio de Estibaliz (Araba-Alava)», *Actas del II Congreso de Antropología*, Madril, 360-362 orr.
- 1985: «Izpirituzko kulturen antropologia», *Euskal Herria. Historia eta Gizartea/ Historia y Sociedad*, I, 154-158 orr.
- 1985: "Mujer vasca. Imagen y realidad", in Elkar Lanean, Anthropos, Bartzelona
- 1986: «Euskal Herriko biharko pertsona, pertsonataldeak eta pertsonartea. (Munduko herrien teoria, bihar)», *Revista Internacional de Estudios Vascos (RIEV)*, XXXI, 345-354 orr.
- 1986: «Modelo para la codificación de la producción oral: un mito ataundarra». in *Oteiza euskal esteta eta mitologitzaile*, RSBAP, Donostia, 122-167 orr.
- 1986: «Reseña: Barandiaran Feliperen Antropologia soziokulturala edo bere liburua: La comunidad de pesqueros de bajura de Pasajes de San Juan (Ayer y hoy)», RIEV, XXXI, 129-133 orr.

- 1986-87: «Euskal Herriko itsaserrien etnografia eta antropologia soziokulturala, Ondarru 2», BUIA, 6
- 1987: “Antropologoa hirian, Bilbon”, *Kriselu*, AEB-Bjm, 13. Donostia
- 1987: “Las drogas: reflexión multidisciplinar”, in Elkar Lanean, Cuadernos de Extensión Universitaria. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.
- 1987: Introducción a la historia oral. *Kontuzaharrak* (Cuentos viejos), Anthropos, Bartzelona.
- 1987: «Magiari buruzko historiazko zirri-marra» Julio Caro Barojaren «Magia»ren itzulpena, 67-81 orr. *Euskal Herriaren historiaz. III. Kultura eta portaera erlijio-soak Euskal Herrian historian zehar*, Bilbo
- 1987: «Reseña. *Mitología vasca*. *Barandiaran Joxemiel, Diccionario de Mitología Vasca*”, Txertoa, 1984». RIEV, Donostia, 137-144 orr.
- 1987: «Estado histórico actual de la antropología y de la etnografía en Euskal Herria», *Ohitura*, 5 135-184 orr.
- 1988: *Antropologia berria. Ahozko herri produkzioa. Ataungo herria, auzoak, pertsonataldeak eta pertsonak*, 4 tomo. Donostiako Aurrezki Kutxa Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoako Erakundea, Donostia.
- 1988: (Ed) “5 etnografiazko galdeketa elikapenaz”, *Kriselu*, AEB-Bjm, 20, Donostia.
- 1988: (Ed.) “5 etnografiazko galdeketa elikapenaz”, *Kriselu*, AEB-Bjm, 21, Donostia
- 1988: (Ed.) “5 etnografiazko galdeketa elikapenaz”, *Kriselu*, AEB-Bjm, 22, Donostia
- 1989: (Koord.) *Julio Caro Baroja, Premio Nacional de las Letras Españolas 1985*, Anthropos, Bartzelona.
- 1989: «Cultura vasca (en la vida y obra del antropólogo Julio Caro Baroja)», in Elkar Lanean, *Julio Caro Baroja, Premio Nacional de las letras Españolas 1985*, op.cit., 34-67 orr.

- 1989, « Cronología de Julio Caro Baroja», in Elkar Lanean, *Julio Caro Baroja, Premio Nacional de las letras Españolas 1985*, op.cit., 141-142 orr.
- 1990: «Itsaslurrerriak eta hirierrriak. XIX.mendetik XX.», *Munibe*, 42, 399-404 orr.
- 1991: «Euskal mitologia: lehengoa eta berririk», *Zainak*, 8, 17-22 orr.
- 1991: «Aurkezpena. Euskal kulturgintzaren arduradunoi». 13/17), in Sarriegi Etxezarreta, M.; Aizpuru Murua, A; Galparsoro Sarriegi, A.I., «Gerriko» Idazlan-Sariketa. Goiherriko Euskal Eskola (G.E.E.). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen zerbitzu nagusia, Gasteiz.
- 1992: Reseña, «Atlas etnográfico de Vasconia/ Euskalerriko atlas etnografikoa», Joxemiel Barandiaran, Ander Manterola, RIEV.
- 1992: «Kulturak elkarren arteko gatazkan. Cultures in conflicts», *Eusko Ikaskuntza Kongresuak*, 11, 147-152 orr.
- 1994: «Hitzaurrea», in Juan Antonio Rubio-Ardanaz, *La Antropología marítima subdisciplina de la Antropología sociocultural*, Universidad de Deusto, Bilbo, 11-15 orr.
- 1996: «Edozein kulturatan ematen den heziketa, komunitatezkoa zein formala», *Hik Hasi*, 13
- 1998: «Conflicts between customs and law. Two case studies: Oinati. Brecon (Basque and Welsh communities)”, International Institute for the Sociology of Law, Oñati
- 2001: «Txomin Agirre Badiola (Ondarroa, 1984-Zumaia, 1920). Antropologiazko eta asmakizunezko literaturgilea bere *Kresala* eleberrian», 1004/114, in *Ondarroa 2001 urtekaria*, Ondarroako Udala eta Ondarroako Historia Zaleak. Ondarroa
- 2004: «Folk/lore eta antropo/etnologia edo pertsona/talde jakintza», in *E.L., Euskal Curriculum, Kultur ibilbi-*

*dea*, Ikastolen Konfederazioa: Donostia, 415-443 orr.

2005-2006: «Jesus Altuna Etxabe (1932-VII-27an jaioa): Paleoantropologoaren biografiarako nire lehen urratsak», *Munibe*, 57, III bol., Sociedad de Ciencias Aranzadi/Zientzi Elkarte, Donostia, 419-437 orr.

2006: «Makilakixki ipuinaren azterketa antropologikoa», in Elkar Lanean, *Aitona gurearen Makilakixki, Joxe-martin gogoratuz*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 13-88 orr.

## Filmatutako elkarrizketak( argitaratugabeak)

### I. Gaia: Mitoa (Ataunen):

1. Pilar Barandiaran Sara. 1993-11-12. 5 pm
2. Inixio Apalategi/ Natalia Begiristain. Ezkalune. 1993-11-12. 5 pm
3. Inixio-Natalia. Ezkalune. 1993-11-12. 5pm
4. Artzate haitzak + Sabiako Patxi eta Semea + Erramun Aldasoro. 1993-12- 6. 1 am
5. Erramun Aldasoro. Malixine. 1993-11-13. 6 am
6. Mordazulo berri. San Gregorio. 1993-11-27. 7am
7. Aita Joxe Arratibel + Joan Agerre. Hergone. 1993-11-27. 6 am (1/5)
8. Aita Joxe + Miel Saarte. Hergone.1993-11-27.6 am (2/5)
9. Aita Joxe. Saarte. 1993-11-27. 6 am (3/5)
10. Aita Joxe. Saarte. 1993-11-27. 6 am (4/5)
11. Aita Joxe. Saarte.+ Diego. 199311-27. 6 am (5/5)
12. Iñaki Arratibel eta Joxemiel semea. Saarte. 1993-11-13. 6 am (1/2)
13. Iñaki Arratibel. Saarte. + Aiako eliza + Leizadi. 1993-11-8. (2/2)
14. Aita Joxe + San Martingo eliza ingurua + Aitzio inguruak, 1993-11-27. 6am/pm

15. Aita Joxe + Diego + Miel Saarte. 1993-11-27. 6 am
16. Aitzio goikoa eta behekoa. San Martin. 1993-11-27. 6pm
17. Bixente eta Ixabel. Tabernaberri. Hergone. 1993-11-13. 6pm
18. Malixine + Tabernaberri + IñakiSaarte. 1993-11-21.7 am
19. Malixineko Erramun + Bixente eta Ixabel Tabernaberrikoak. 1993-11-13. 6 am/pm
20. Kristina, Felix eta Jose Luis. Larbukoak. Aia. 1993-11-3. 6pm (1/2)
21. Kristina, Felix eta Jose Luis. Larbukoak. Aia. 1993-11-13. 6am (2/2)
22. Ataun.San Gregorio. Mitoari buruzko erakusketak.1993-11-21. 7am

## **II. Mitoa (Bilbon):**

1. Zabalburu. 1993-12-6. 1am (1/2)
2. Zabalburu. 1993-11-6. 1am (2/2)

## **III. Mitoa (Etxebarri-Markinan):**

1. Etxebarri-Markina. 1993-12-07. 2 am (1/2)
2. Etxebarri-Markina. 1993-12-09. 4.18 (2/2)

## **IV. Bizkaiko Herrietako pertsonaia zenbait**

1. Agustin Zubikarai. Ondarru. (1/2) 1992
2. Agustin Zubikarai. Ondarru. (2/2) 1992
3. Imanol. Ondarru. (1/2) 1992-11-14
4. Imanol. Ondarru (2/2° 1992-11-14
5. Ziarrutzako Kolegiata (1/2)
6. Ziarrutzako Kolegiata (2/2)
7. Ziarrutza- Zubero, 1992

8. Ondarru (1992-11-14) (1.2)
6. Ondarru. Inma Laka. 1992-11-14. (2/2)
9. Suero. 1992-11-14) (1/2)
10. Suero-Aulesti. 1992-1#1-14 (2/2)
11. Malats. 1992. (1/5)
12. Malats. 1992. (2/5)
13. Malats. 1992. (3/5)
14. Malats. 1992. (4/5)
15. Malats. 1992. 5/5)
16. Javier-Marie Jose. 1992
17. Lekoiztik. Malats eta Zuberoarantz 1993-4-1.4

## **V. Txerri hiltzea**

1. 1993-11-05. (1/2)
2. 1993-11-05 (2/2)

## **VI. Azalean izengabeak**

$1/3 + 2/3 + 3/3.$





# Marxismoa eta alderdia<sup>1</sup>

## Sarrera

Lantxo hau, joan den urtean zehar, Vincennesko unibertsitatean egin zen kurtso baten ondorioa da. Irakasleak Lowy eta Poulantzas ziren. Gaiaren izenburua “Sociologie des partis politiques”. Programa bi zatitan osatua zen: lehenik soziologo ez marxisten (Weber, Duverger, Aron et Apter) iritziak ikusi ziren, gero autore marxistekin jarraitzeko: Marx, Engels, Lenin, Rosa Luxenburgo, Gramsci, Stalin eta Mao.

Hemen, garrantzitsuagoa dela pentsatuz, bigarrenko zatiari helduko natzaio, bestea beste aldi baterako utziaz.

Aportazio pertsonal hutsa izan arren, lantxo honen bidez, egun Euskadin ematen diren bi fenomeno teoriko-politikoei erantzuten lagundu nahi nieke:

**1. Organizazio politikoaren koiuntura.** Egundak, nonahi entzun eta irakurtzen da langileriaren Alderdia eraikitzekeo premia larria dagoela; hura ezin dela gerorako utzi eta gisa horretako beste erran asko. Mugimendu politikoek eta organizazioek gehiago aldarrikatzen dute Alderdiaren eraiketaren beharra, honen nola eta zertarakoa baino. Hemen eraiketa honen eragozpenak eta posibilitateak saihetsera utziaz, guztiz laguntzaile deritzat langileriaren abangoardia eraikitzen jardun duten marxista inportanteen ikuspegiak eza-gutzea eta lantzea. Haiek zuzen ala oker jokatu arren, makina bat ikasgai atera ditzakegula uste dut. Honetan lagundu nahi luke lan honek.

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 16, 1976, 17-21 orr.; *Zabal*, 17, 1976, 31-36 orr.

**2. Teorizatzeko posibilitateak.** Denok ezagunak ditugu, egun Euskadin dauzkagun teorizatzeko posibilitateak. Batez ere gaia, ikasteko era eta irakasleen aldetik. Beraz, hemen estudiatzen dugunak, egoera ezin hobekoan jartzen gaituela nork uka? Halatan lan hau, posibilitate horiek nolabait “sozializatzeko” modu bat iruditzen zait. Modu kaxkarra, baina modu bat.

Bi puntu hauek funtsezkoak deritzat, gauden bezala gaudenaren praktika definitzeko.

Lanaren eskematikotasuna gaiaren zabaltasunari dario. Beraz, denoi dagokigu haren sakontzea eta ondoren baiestea ala zuzentzea. Oraingoz bego dagonean.

## I. Marx-Engels

Marxismoaren baitan, alderdiaren teoria sistematikorik ez dago. Eremu gehienetan bezala. Marxek eta Engelsek esplizitoki deus guti idatzi zuten alderdiari buruz. Baina, haien eguneroko bizitza ez zen bakarrik kadiran eseri eta liburuaren irakurtzea. Praktika politiko bat zeramaten eta horren zehar ikusi beharko da, haiek alderdiari buruz zituzten iritziak.

### 1. Langile mugimenduaren egoera

– Industria bere hasieran dago eta langile klasea ahula da. Ingalaterratik kanpo industria langiledunik deus guti dago. Hemen kartismoa ageri da langileen arteko mugimendu politiko nagusi bezala.

– Langile klasea osatzen dutenen artean gehiago dira artisau “proletarizatuak” industria langile baino. Honen ondorioa zera da: gremio garaietako ideologiek oraindik bizirik jarraitzen dutela.

– Kapitalismoa feudalismoaren gain estaltzeko garaia da. Aliantza edo elkargoen garaia alegia. Burgesiak, langileriaren laguntza behar beharrezkoa du, baldin lur-jabegoak eta feudal klaseak bentzutu nahi baditu.

– Erdi Arako zenbait ideia politiko oraindik zutik dago. Ez da asko sinesten langile klaseak, berak bakarrik gauza handirik egin

dezakeenik. Langileek beren indarretan konfiantza guti dutenez, kanpotik itxaron dute zoriona. “Mesias Salbatzaile” bat baino gehiagotan sinesten da.

– Ingalaterran kartismoa baitan, sozialismo utopikoaren ideiak ziren nagusi. Fourier eta Owenen ideiek indarra bazuten. Haiek bakezaleak ziren eta propagandaren bidez gizartearen aldatzea espero zuten.

Klaseak elkarren artean baketsuki konponduko zirelakoan. Guztiz bitxia da, nola hauen egitaraua komunista izanik hain konfiantza guti zuten langileriarengan. Fourierek Napoleoni laguntza ukatu zion eta Owenek Aliantza Sainduari. Nola izana hala izena: sozialismo utopikoa.

– Frantzian ere baziren “propagandistak”. Korronte hau “cabetisme” izenarekin ezagutzen da. Cabetek propagandaren erabateko ahaltsunean sinesten zuen. Baina, hauenak baino helduagoak zeuden “neo-babouvisme” izeneko ideiak. Elkarrekin sekretuetan antolatzen ziren. Gizonak aldatzeko lehenik kondizioak aldatu behar zirelakoan zeuden. Honetan XVIII. mendeko materialista mekanikoen jarraitzaileak dira. Baina, hauek ere soluzioa “goitik” zekarten. Ongi landutako talde txiki baten bidez agintearen hartzea espero zuten, honela kondizioak aldatu ahal izateko. Langileen zeregina “laguntzaile” soilarena izango zen. Hemen jakobinoen tradizioa ageri da.

Dezamy ahalegindu zen cabetismoa eta neo-babouvismoaren sintesia lortzen. Baina, bai zera, azkenik propaganda liluragarriekin gelditu zen.

– Alemania berriz, “filosofo” eta “artisaunen” garaian zegoen. Aleman Komunak, elkarrenganako ikusiezinari eta zikoizkeriari, amodioa eta komunismoa kontrajartzen zion.

Hauxe zen ba, Marxek, inguruan zeukan egoera.

Guzti honetan kontuan hartu behar da, 1846rako Marxek eta Engelsek *Feuerbarchi buruzko tesiak* eta *Aleman Ideologia* idatziak zituztela. Lan haietan emantzipazioaren elementu ekintzaile bezala proletalgoa ageri da. Marxek popatik botatzen ditu cabetismo/bneo-babouvismo dikotomia eta hauek itxaron dituzten “goiko” Mesias guztiak. Praxi kontzeptua da garai honetako aurkikuntza berria. Praxiaren bidez proletalgoak, kondizioak eta berehala proletalgoa bera aldatzen joango dira. Proletalgoaren auto-hazkundera

alegia. Praxi hau objektiboa eta iraultzailea da. Komunismoaren etorkizuna errealitate berean txertaturik ikusten du Marxek.

Komunismoa ez da ona edo beharrezkoa delako eraiki behar litekeen gizarte bat. Are gutxiago ideal bat. Aitzitik, komunismoa, mugimendu erreal bat dela dio Marxek.

Praxi kontzeptua aurrerapen inportantea da. Eta, noski, langile alderdiaren ikuskera berria eskatzen du. Dagoeneko, talde txiki ausart haien ezinbesteko beharrik ez dago. Proletalgoak, klaseen arteko borrokaren bidez Totalitatera (azken helburua) joan behar du. Alderdiaren lana, memento partzial bakoitza zuzentzea izango da. Nora-bideratze lana, alegia.

Laster ekin zioten Marxek eta Engelsek praktikari.

## 2. Korrespondentzia komunistaren komitea

Marxek eta Engelsek lehen elkarte politikoa Bruselan 1846an sortu zuten. Izenak dioen bezala ez zen alderdi bat eta haiek ere ez zuten inoiz alderdi bezala kontsideratu. Komite honetan gehienak errefuxiatu alemanak ziren, ogibidez, intelektual, idazle eta periodista.

Helburuak hauek ziren: 1) Europako komunisten arteko harremanak. 2) Sakabanaturik zeuden aleman komunisten biltzea, Alemaniako komunisten alderdia eraikitzeko asmotan. 3) Brusela toki paregabea zen Frantzia, Ingalaterra eta Alemaniarekin harremanetan hasteko.

Komitea langile alderdia eratzen baino, garaiko ideia politikoen korrante ezberdinak borrokatzen jardun zen. Honetan, Marxek ez zuen amore ematen. Burugorra zen. Bere iraultzaren teoria inposatzeko izugarritzko iskanbilak armatzen zituen. Komitean bertan ere Weitlingekin zatiketa sortu zen. Garaiko sozialismo mota guztiak (utopiko, "benetako", sentimental, artisanal, eta abar) gogor kritikatu zituen Marxek.

Ingalaterran begi onez ikusten zuen Marxek kartismoaren ezker hegala. Hau erradikalena zen. Zuzendaritzan G.J. Harney zegoen eta honen ideiak Marxengandik hurbil zeuden. Harneyren frakzioa kartismoaren aldean aurrerakoia izan arren, ez zuen Marxek inoiz pentsatu kartismotik kanpo edo aldamenean beste alderdirik erai-

kitzea. Frakzio gisa jarraitzearen alde zegoen hauen ideiak geroxeago kartismoa guztira zabalduko zirelakoan.

Frantziarekin, komitearen harremanak, ez ziren Ingalaterrarekin bezain goxo joan. Han, errefuxiatu alemanak Justuen Liga izenpean zeuden eratuak. Liga hau geroxeago isilpeko sozietate bihurtuko zen. Eskutitzez gauza handirik lortzen ez zelarik, komiteak Engels bera Parisera bidaltzea erabaki zuen. Komunismoa alemanen eta Proudhonen pentsaeran errotuak zeuden Lagi baitan. Itxura denez hauek bortxazko iraultzarik ez zuten onartzen, eta honetan zegoen arazoa. Azkenean Engelsek lortu omen zuen bera egitea; geroxeago Marx ahaleginduko zen Pariseko komitearen idazle zen Proudhon bereganatzen, baina garaian elkarrengandik urrun zeuden.

Biziki inportantea da komiteak nola erantzun zion G.A. Köttgeni, Alemanian komunisten alderdia eratzeko asmoarekin bilkura bat egitera zihoazelarik. Testuak honela zioen: “Uste dugu, komunisten bilkura bat egiteko goizegi dela. Alemania guztian zehar, komunisten batzarrak eraikitzen eta ekintzarako bitartekoak biltzen direnean, orduantxe bakarrik biltzen ahalko dira batzar bakoitzeko izendatuak. Orduan bakarrik zerbait lor dezakete. Baina hau ezingo da egin gutxienik datorren urtera arte”.

Hemen Marxek, alderdiaren basearen garrantzia azpimarratzen du.

### 3. Komunisten Liga

Justuen Ligaren zati bat. Parisetik Londresera aldatu zen, hemen guti barru komunisten Liga sortzeko. Liga honek bestearekiko aurrerapen handiak egin zituen. Lehengo “gizon guztiak anaiak dira” esaldiaren ordean orain “mundu guztiko proletalgoak elkartu zaitezte” ageri da. Pentsaeran ere aurrerapenik eman zuten. Baina hala eta guztiz ere, ikustekoa da Marxek eta Engelsek Ligan militatzeko, ligatarrei eman zizkieten buruhausteak. 1847an sartu ziren baina ez hain erraz alajaina.

Orain problema ez zen teorikoa, organizazio arlokoa baizik. Superstizio, sekretu eta nagusitasun arrasto guztiak kendu arte ez zuten presiorik jaitsi. Helburuak ere garbi utzi zituzten: burgesiaren iraultketa, proletalgoaren nagusitasun edo dominazioa, klaserik eta bakar-jabetzarik gabeko gizartearen eraiketa.

Ligaren barne estatutu batzuk ere aldatu egin zituzten. Hara nola sekretuaren gehiegizko garrantzia, erritualak eta abar. Hots, isileko sozietateen kutsu guztia kenarazi zieten, baseari garrantzi gehiago emanaz, eta erabakiak demostratiboki diskutituz.

Langileek eta intelektualek batera zeuden, eta nazionalitate guztietakoak gainera. Liga hau garaiko ezbaia gaintzen saiatuko da. Konspirazio eta propagandarena, alegia. Gauza handirik lortu ez arren Ligako garai hura garrantzizkoa izango da Marx baitan, Internazionala eraikitzeke orduan.

Ligarentzako idatzi zuten, Marxek eta Engelsek, Komunisten Alderdiaren Agiria. Hemen, utopikoak eta beste sozialismoak kritikatzear gain komunisten eta langileen arteko harremanez idatzi zuten. Honela zioten: “Praktikoki, komunistak dira, beti aurrera bultzatzen dutenak, mundu guztiko langile alderdien zati heldue-na”. Marx eta Engels, komunisten alderdia langile mugimenduaren barne eraikitzearen alde zeuden. Beste pasarte batean honela zioten: “Orain arteko mugimendu guztiak, minorien interesetan eginak izan dira. Mugimendu proletarioa gehiengo guztiarena edo gehien-go guztiaren interesen mugimendu autonomoa da”.

Bestalde, ez du garrantzi gutxiagorik 1950an Marxek komite zentralaren izenean Ligari idatzirikoak. Hemen klarki azpimarratzen du langileen elkartearen autonomia izan behar dela. Burges demokratetatik ongi desmarkatua. Idatzi honetan du, baita ere, burges agintearen aurka jarduten, proletalgoak bere aginte propioa eraikitzearen alde eta armada autonomoaren alde.

## 4. Lehen Internazionala

Gutxi ezagutuak dira Lehen Internazionalan egon ziren iskanbilak eta saltsak. Honek lan sakona eskatuko luke. Hemen, Marxek hari ematen zion zentzua bakarrik tratatuko da.

Marxentzat Internazionala hauxe zen: “Langileen emantzipazioa beraien lana izan behar du”. Esaldi laburra baina garrantzizkoa. Internazionala langile joera ezberdinen frentea zen. Baziren, proudhonistak, bakuninistak, marxistak, eta abar. Marxistak ziren partzialki nagusi eta Marxek gogor borrokatu zuen sektarismoa eta Internazionalaren denbora guztia horretan joan zitzairen. Marxek eta

Engelsek ez zuten benetan inoiz pentsatu, Internazionala alderdi bat zenik.

Laburpen gisa Marxen aurrerapenak aipatuko ditut.

- 1) Proletalgoaren elkarteak autonomoa izan behar du.
- 2) Proletalgoa iraultzaren barne, borrokaren bidez bera hazten joango da.
- 3) Alderdiaren barne demokraziaren ikuskera egon behar da.
- 4) Kritika elementu ezinbestekoa da, aurrerapenik nahi bada.
- 5) Proletalgoa da alderdiaren helburua: “Langileen emantzipazioa langile beraien lana izan behar da”.

## II. Lenin

Egun, Leninen alderdiari buruzko burutapenak ezbaian daude. Batzuek haien garrantziagatik leninismoa hitza marxismoarenaren alboan ezartzen dute. Badira ere guztiz arbuizatzen dutenak, Lenin diktadore eta burokrata zela emanaz. Azken hauek gehienetan libertario izendatzen dira; anarkistak alegia. Anitz jende, berriz, Leninek 1904an *Zer egin?* liburuxkan idatzi zituenekin gelditzen dira. Inoiz beste ezer esan eta egin ez balu bezala.

Hemen, edonoren ideiak betirako ez direla finkatzen eta praktikarekin zerikusirik dutela sinestunik, Leninen alderdiari buruzko ikuskera bi epetan bereizten da. Bata 1905 aurrekoa eta bestea ondorengoa. Gero ikusiko dugu zergatik.

Lehen epea:

Urte haietan, Leninek *Zer egin?* eta *Pausu bat aurrera, bi atzera* izeneko liburuak idatzi zituen. Ez da gehiegizkoa izango liburu hauen testuingurua pixka bat ezagutzera ematea:

– 1903an Errusiako Langile Sozial Demokraten Alderdia (POSDR) eraiketaren bidean zebilen.

– Langile mugimenduak komiteetan eratuak zeuden. Hauek ez ziren asko eta elkarrengandik isolatuak zeuden.

– Gauzak ez zeuden txantxetarako. Errepresioa izugarria zen, eta klandestinitateak beharturik, komiteetako militante gehienak iraultzaile profesionalak ziren. Gaur, liberatua deitzen dena, alegia.

– Komiteen aldamenen sindikatuak zeuden garaiko intelligenzsiaren eskupean.

– Anitz iraultzailek masarekiko harremanak ekonomismotzat jotzen zituen. Sindikalismoa hutsa bezala alegia. Ez zegoen konfiantza handirik orduko herri-jendaldeetan, hemen ideologia ekonomikoa dezente estalita zegoen.

## 1. Klase kontzientziaren maila

*Zer egin?* liburuan, Leninek, klase kontzientziaren maila bi bereizten ditu: 1) kontzientzia espontaneoak: Langileak bere eguneroko bizitzan har dezakeen kontzientzia. Hark horri kontzientzia sindikalista deitzen zion, adierazi nahian, langileen eta nagusien arteko eguneroko borroka espontaneoan, langileak inoiz ez dituela bere egoeraren kausak kolokan jartzen. 2) Kontzientzia sozial demokratikoa (edo sozialista). Hau proletalgoaren interes historikoaren kontzientzia da. Kontzientzia honen jabeago alderdiak bakarrik ukan dezake. Orduko Errusian Kautsky zen teoriko nagusia. Honen aburuz, langile klaseak bere kabuz ez du posibilitaterik kontzientzia sozialistaz jabetzeko. Hau, kanpotik, burges intelektualek bakarrik eman liezaiekete. Lenin, Kautskyren kontzientzia sozialistaren kontzeptuaz jabetu zen eta kontzientzia sindikalistari kontrajarri zion. Kontzientzia sozialista alderdiarena da eta kontzientzia sindikalista masarena.

Klase kontzientziarekin maila bien artean izugarritzko hutsunea ezarri zuen Leninek. Halatan, langileek eurek bakarrik uztartzea ez zuten egingo. Iraultzarako alderdia masa baino inportanteagoa da. Honek, noski alderdiaren egituraren nolakotasunarekin badu zer ikusirik.

## 2. Alderdiaren barne egituraketa

– Alderdiaren egituraketa demokratikoa ez da posible. Klandestinitatearen egoerak ez duelako uzten. Hura zentralista izan beharko baita, goitik beherakoa, barrendik kanporakoa. Zentralista eta burokratikoa, alegia.

– Alderdiaren militante gehienek iraultzaile profesionalak izan behar dute eta zuzendaritza haien eskuetan.



– Diziplina gogorra behar da. Horretara langileak lantokietan ohituak daude, beraz ez dute eragozpen handirik jarriko.

Ez da pentsatu behar leninismoaren barne muina hau denik. Leninek berak 1907an beste orri bat erantsi zion, *Zer egin?* liburuxkari, hau historikoki situatu behar zela erranez. Batez ere errepresio egoera aipatuz. Geroxeago ere, 1921ean ez zuen begi onez ikusten lan honen itzulpena, ulertze desberdinak posible zirelakoan.

Bigarren epea.

San Petersburgen 1905eko gertaerak Lenini zer pentsatua emango dio. Hango proletalgoak manifestazio bat eratu zuen. Asmoetan, gogortasunik gabekoa zen. Baina orduko polizia ez zegoen fintasunetarako. Izugarritzko sarraskia gertatu zen eta langileak gogotik berotuak jardun ziren. Anitzek heriotza kalean aurkitzeraino. Arrakasta honen ulertzeko Leninek egun hura hautatuko du Errusiako iraultzaren hasiera bezala.

Une batean kontzientzia sindikal edo ekonomikoa besterik ez zena, errepresioaren bidez, hura berehala kontzientzia politikoan bilakatzen da. Leninek hori honela adierazten du: egun batean iraultzarako irabaziak zenbait urtetan baino gehiago izan dira.

Ordutik aurrera, proletalgoaren praktikari gehiago begiratzen dio. Langile klasea ez da gauza hil bat; mugitzeko alderdiaren ezinbesteko eragina beharko lukeen klase hau, pasibotasuna baino zerbait gehiago da.

Honela, lehen kontzientzia sindikal eta sozialistaren arteko tartea gutxituko da. Orain beste kontzeptu bat tartekatzen du: langileen sen iraultzailea. Hau erdi sozialista da eta ez da kanpotik datorrena, proletalgo klaseak bere praktikaren bidez lortua du baizik.

Sen honek alderdiaren ikuskeran aldaketa dakar. POSDR-ren lana, sen iraultzailea kontzientzia sozialistara eramatea izango da.

Orain Leninek onartu beharra izango du, aldi zenbaitetan langile klasea alderdiari aurreratzen zaiola. Grebaren bidez insurrekzio-  
ra pasa zitekeela, proletalgoak sozial demokraziak baino lehenago ikusi zuen.

Halatan alderdiaren nolakotasuna koiunturarekin lotzen du. Demokrazia garaian alderdia ireki egiten da, baina beti zelula bat gutxienez klandestinitatean jarraituz. Beraz, Leninek dio alderdiak bi planotan jokatu behar duela: legalan eta klandestinoan. Orain iraultzaile profesionalen ezinbesteko beharra ez da ikusten. Ez da ere

klandestinitatearen erabateko beharrik. Alderdi komunistaren eraketak demokratikoki egin behar du, basetik eraginaz, alegia.

Ezkerkeria eta sektarismoaren aurka, Leninek klarki dio, alderdi komunistak jendaldeen dauden tokian egon behar duela, ezen eta iraultza sozialista jendaldeen zeregina baita.

Bigarrengo etapa honetan, Lenin baitan proletalgoaren praktikak sen iraultzailea duela eta lehen baino inportantzia gehiago ukan arren, oraindik alderdia izango da langile kontzientziaren edo ideologia proletarioaren jabe. Langileek zientzia honekin ez dute zerikusirik. Ez diote deus ematen, alegia. Beste aldi batean ikusiko dugu, nola Maok hain beste modu batera ikusten duen.

### III. Rosa Luxenburgo

Jaiotzez poloniar, gero, Alemaniara erbesteratu beharra ukan zuen. Teorilari marxista eta hala berean borrokalaria bikaina, emakume honek, ez zuen etsitu Alemaniako presondegia batean eraili zuten arteraino. Teoria eta praktika ongi uztartuak zeuden Rosa baitan; bere praxiak heriotzaraino bultzatu baitzion. Horregatik marxismoaren historiaren barne leku ohoretsua merezi du.

Rosa, esperientzia handiko emakumea dugu, batez ere langile mugimendu borrokan zehar. Handik ikasgaiak jasoaz joango da haren alderdiaren teoria urratzen.

Alderdiari buruzko ikuspuntu eta ideiak ez ziren Rosa baitan behin eta betirako finkaturik eta erroturik gelditu. Bizi izan zituen zenbait gertakarik bere posizio teorikoak berrikustera behartu zuen.

Alemaniako alderdi sozial-demokratan militatzen zuelarik, 1903 eta 1904an, haren aldizkarian idatzi zituen zenbait artikulutan haxe esatera zetorren: langile klasea, iraultzaile praxi berberaren bitartez kontzientzia sozialistara heltzen da. Beraz, klase borrokaren barnean jasotzen du langile klaseak kontzientzia sozialista eta hone-lan izanik, dagoeneko ez dago alderdiaren ezinbesteko beharrik; hura organo kontserbakor eta burokratiko bat besterik ez da eta.

Bazuen Rosak arrazoirik modu hartara pentsatzeko. Izan ere, garaian, Alemaniako alderdi sozial-demokrata, legala zena gainera, ongi organizatua zegoen. Alemaniar proletalgoan ondo txertatua egon arren, direkzioan joera errebisionistatik ez zen falta, eta hau ez

zitzaion gogoko Rosari. Halatan, Rosa, alderdiaren direkzioa kontserbakortzat joaz, haren frakzio erradikalean situatuko da, iraultzairen iniziatiba masei eta ez direkzioari dagokiola erranez.

Gero, Errusian 1905ean gertatuek, Rosaren ideiak konfirmatu besterik ez dute egingo; haren ustez, noski, 1906an *Greba orokorra, alderdi eta sindikatuak* izeneko liburua idatzi zuen. Horretan azaldutako tesiak, Errusiako gertaeren analisisaz ari delarik, zuzenki Leninen tesien aurka doaz.

Kontuan ukan behar da, garai honetan, Leninek *Zer egin?* liburuan azaldutako tesiak ezagutzen direla bakarrik. Tesi hauek, Rosak gogor konbatituko ditu, ia beste muturrean situaturik.

Rosak, alderdiaren garrantzia gutxien du, ia deuseztera iritsiaz. Haren ustez, alderdia ez da langileriari lotua dagoen zer bait, langile masa berbera baizik. Krisi garaietan alderdiaren arrastorik ez da ikusten, masek desbordatzten dute.

Bestalde, klase kontzientziaz mintzo denean, Rosak, bi maila bereizten ditu (teorikoa eta praktikoa), baina batetik besterako aldaketa ez da alderdiaren laguntzaren bidez egiten (Lenin baitan bezala), aitzitik, aldaketa hau, gertaera edo iraultzaile krisi beraren bitartez ematen da. Halatan, borroka ekonomikoa/ borroka politikoa, sindikato/alderdia, programa maximoa/ programa minimoa, eta antzeko berezitasunak eskematikotzat joko ditu. Rosaren ustez, termino bikoitz horien artean ez dago hainbesteko berezitasun eta etapismorik. Haren ustez, biak nahasiak eta batera aurkitzen dira klase borrokaren barne, eta edozein unetan, bata bestea bihurtzen da.

Halaber, Leninek ontzat eta aprobetxagarritzat zeukan langileek lantegietan ikasitako diziplina, Rosaren aburuz, hura serbilismo edo morroitasun hutsa besterik ez da. Diziplinak iraultzailea behar badu izan, morroitasun guztitik at egon behar du, eta bakoitzaren autodiziplinan ezarria.

Ikusmolde espontaneista honen azpian iraultzaren kontzepzio berezi bat dago, garai hartan Rosarena bakarrik ez baino joera sozialdemokrata guztiarena zena.

Joera honen ustez, kapitalismoa zuzen-zuzen eta erremediorik gabeko krisi gogor batera zihoan, eta krisi hau bitarte zela, langile masak borrokan sartuko ziren, bertan kontzientzia sozialista hartuaz eta modu honetan sozialismora iritsiko dira.

Ikusmolde mekaniko honekin bazuen Kautskyrekin zerikusirik. Izan ere gizartearen legeak, naturaren legetzat hartzen ziren.

Ekonomiak, bere barne legeak zirela eta, automatikoki izugarritzko krisira zeraman gizartea. Iraultzaren ikusmolde fatalista hau “ekonomismo” izenarekin pasatu da historiara. Konprenigarria da, modu honetara pentsatu ezkerro, iraultza egiteko ez dagoela alderdiaren behar handirik.

Baina pixkanaka-pixkanaka, ikuspuntu hauek aldatzen joango dira, Rosa baitan. Halatan, geroxeago, Errusiako boltxebismoaren alde eta mentxebismoaren aurka azalduko da. Baina batez ere 1914an ukan zuen zer pentsaturik. Ekonomismoaren optimismo inozenteak orduan joko du, zeren 1914an, krisiak, sozialismoaren ordeztatik munduko lehen gudua dakar eta ondoren ezinbesteko sozialismoaren ideiak porrot egingo du, eta Internazionalaren frakasoaren aurrean, Rosak zera esango du, berria eraiki behar dela, baina zentralista eta diziplinaduna, alegia.

Gero, 1919an, Alemaniako langile mugimenduak frakasatzen duenean eta iraultzaren esperantza urruntzen delarik, Rosak garbi ikusiko du espontaneismoarekin noraino iritsi daitekeen eta hemendik aurrera masen direkzioaren beharra aldarrikatuko du.

Gutziz bitxia da, Rosa Luxemburgo eta Leninen bilakaera alderdiaren kontzeptioari dagokionez. Bata bestearen kontrako muturretik hasiaz, azkenean, gertaerak medio, ia elkar aurkitzen bukatzen dute. Egun, bada zerbait espontaneista Rosaren tesietatik erreklamatzeko dena, haren espontaneismoa absolututzat hartuaz. Badago zerikasirik Rosaren bilakaera hurbiletik jarraitzen bada.

## IV. Gramsci

Gramsci teorilari marxista eta zuzendari politikoa ardurazkoa dugu. Haren garaian, mugimendu komunista internazionalaren gertaera garrantzizkoak eman ziren, hara nola Errusiako iraultza, faxismoaren sorrera, stalinismoaren ezartzea, eta abar.

Errusiako iraultzak sakon hunkitutako zuen Gramsciren pentsaera. Honen ustez, iraultza hura teoria marxistaren lehen konfirmazio praktikoa izan zen, teoria marxistaren balio zientifikoarena, alegia. Lenin zuzendari politikoa ospetsutzat ukan zuen Gramscik, eta haren tesiak jarraituaz gainera aurrerapen batzuk ematen saiatuko da. Erran beharra dago, degenerazio stalinista finkatu zenean eta Europako mugimendu komunista haren morrontzapean gel-

ditu, Gramscik Lenini eutsiaz jarraitu zuela, dogmakeria stalinista gudukatuaz; jokaera honek ekar zezakeen arrisku pertsonal guztien gainera.

Teoria marxistari bizitasun berria emango dio Gramscik. Tradizio marxistak ideologia gainegiturari ez zion indar handirik eman; beti aipatzen zen eta teoria barruan funtzio bat betetzen zuen, baina errealtatea aztertzeko eta praktikan ezartzeko orduan ez zen kontutan hartzen. Aitzitik, Gramsciren gogoeta guztian zehar ideologiaren garrantzia eta hedadura bere bizitasun osoan azalduko zaigu.

Alderdiaren kontzeptioan ere tradizio marxista baino areago doa Gramsci. Hark alderdiaz langileriaren alderdia ulertuko du beti, hots, langileriari norabidea markatuko dion abangoardia. Gramscik, berriz, alderdi kontzeptuari zabalera handiagoa ematen dio. Honen ustez, burgesiak ere badu bere alderdia nahi izendatu gabekoa izan, hara nola, Estatuak bloke bezala burgesiaren alderditzat funtzionatzen du, honen interesak gordetzen eta berreproduzitzen ahalegin-duaz.

Gramsci alderdi politikoaz gainera beste alderdi mota batez mintzo da, eta zera da: alderdiaren ideologiaz. Alderdi ideologia, alderdi politikoaren menpean zuzenki egon ez arren, nolabait honi lotuak dauden “erakunde” intelektualak dira. Erakunde hauek (eskola, eliza, telebista, aldizkari eta abar) ideologia eta mundu ikuskerara konkretu bat zabaltzen dute, haien inguruan gizatalde homogeneo batzuk bilduaz.

Horregatik zuzenki alderdi politiko bati loturik egon ez arren, ezin erran dezakegu neutro direnik zeren haren mundu ikuskerara zabaltzen dute ideologiak alderdi bezala funtzionatuz. Gramsciren aburuz benetako alderdiak bi alderdi mota hauek (politikoa eta ideologikoa) ongi lotuak ukan behar ditu eta hau langileriaren alderdiak bakarrik lor dezake.

Gramscirentzat, alderdiak intelektual organiko bezala funtzionatu behar du. Izan ere, haren aburuz, militante guztiak gutxi edo aski intelektualak dira; ez dago lan mekaniko huts-hutsik. Honela, alderdiak, ideologi homogeneitatea lortuaz, bloke bezala funtzionatu behar du, hasiera batean potentzia besterik ez dena errealtate bihurtzera gidatuaz. Funtzio hegemoniko honek Lenin baitan direkzio-politikoa adierazten zuen, hots, alderdiaren eraginaren bitartez borondate kolektibo bat lortzea, gero, agintea hartzera helduko dena. Gramscirentzat berriz, funtzio hegemonikoak direkzio

politikoaz gainera direktzio ideologikoa adierazten du. Honen ustez borondate kolektiboa lortzea ez da nahikoa, areago, alderdiak “erreforma intelektuala eta morala” lortu behar du. Izan ere Gramscirentzat gaurko gizartean hasi behar da biharko gizartearen haziak botatzen, horregatik “erreforma intelektuala eta morala” ez dago iraultza osterako uzterik. Borondatea ez da nahikoa, honela kontzientea izan behar du.

Beraz, alderdiaren funtzio ekonomikoa Leninentzat bitartekoa besterik ez dena, Gramscirentzat, aldiz, bitarteko eta berehala helburu ere bada.

Honela, kontzepzio espontaneista eta anarkistekin azaltzen da Gramsci, iraultza prozesu bat dela eta alderdiaren ekintza iraunkorra edo permanentea behar-beharrezkoa dela erranez.

Alderdiaren egituraketan hiru maila bereizten dira: baseko militantea, erdiko koadroa eta zuzendaritza. Gaitz izan arren, ahalik eta langile gehienak beharko dira hiru mailetan. Zuzendaritzako teoriko eta antolatzaileei ardura handia ematen die Gramscik. Hauen zeregina mundu ikuskera eta ideologia koherentea produkzitzea da, gero beste mailetara zabaltzeko, alderdiak bloke hegemoniko bezala funtziona dezan.

Gramsci zentralismo demokratikoaren alde dago. Alderdiaren hiru mailek haren babesean jokatzeko dute. Militantearen diziplinak kontzientea izan behar du eta ez aginduak mekanikoki betetzera mugatua. Eta beraz, honela, hiru mailen arteko harremanak moralak eta intelektualak dira eta ez funtzional hutsak. Modu berean, baseak eztabaida guztietan parte hartuko du. Eztabaidetan parte hartze honetan ere badago Gramsci baitan berezitasunik. Zentralismoak demokratikoa nahi badu izan, kantitatezko orekaz (langileen azalpena hiru mailetan) gainera, kalitatezko oreka behar du lortu. Hau da, eztabaidetan baseko militanteen presentzia hutsa ez da nahikoa, hauek eztabaidak eskatzen duen maila kulturala eta intelektuala ukan behar dute, eta ukaiteko hau ala ez alderdiaren lana da.

Gramsciren beste berezitasuna aliantza edo elkargoen arazoena da. Tradizio marxistan elkargoak alderditik alderdira egin dira, hots, langile alderdia laborariarekin aliatzen da. Gramscirentzat berriz, elkargoak alderdi bakarraren barne egiten dira, hots, langile klasea eta laborari klasea alderdi bat eta berean lotuak daude. Noski, alderdi baitan, hegemonia langile klasearena izango da. Hegemonia hau lehen esandako zentzuan, direktzio politiko eta ideologiko bezala.

## V. Mao Tse-Tung

Teoria marxistaren barne etapa edo ekitaldia onartzen bada, Mao hirugarren ekitaldikoa dela esan behar da, gaur maoismo izena daramana, alegia.

Mao leninismoaren jarraitzailetzat hartzen da, teoria marxisten muinari helduaz jarraitzen duelako. Txinako iraultzen unean, kondizioak ziren bezalakoak zirelako, Stalinen laguntza ekonomiko, politiko eta azken finean teoria marxistaren ulerpen berbera onartu eta jarraitu zuen Maok. Baina garai onez ekin zion honek, stalinismoaren kritikari. Mao, Stalinen iraultza ulerpena kritikatu eta baztertuaz Leninengana heldu da, honen tesiak aberastuaz eta haziaz.

Egun, teoria marxista aberastu eta aurreratu dutenen artean Leninen ondoren Mao aipatzen bada ere, uste dugu, bien tartean Gramscik bere lekua ongi irabazia duela. Kondizio eskasetan (presondegi faxistetan) teorizatzeak ez dio Gramsciri sistematizatzeko posibilitate handirik eman. Baina haren zenbait ideia eta intuizio aberatsak oraindik bere gaurkotasuna du. Intuizio argitsu hauek direla eta, Mao Leninengandik baino Gramscirengandik hurbilago dagoela pentsarazten digu. Bestalde, Gramsciren lanak oraindik ez dira izan behar duten heinean aztertuak eta sakonduak. Beharbada egun batez ukanen du Gramscik tradizio marxista baitan, gaur gerotua duen omenaldi eta merezimendua.

Errusiako Iraultza eta III. Internazionala garrantzi handikoak izan dira Txinako iraultzarentzat eta honen teorilari den Mao Tse-Tungentzat. Gertaera horien alde zuzenak eta okerrak ikasiaz atera du Maok zerikasirik. Mao, alderdiak burokratizatzeko ukan dezakeen arriskuaz eta haren demokrazi arazoaz kontziente da. Arazo hauen soluziobidea Leninentzat depurazioa zen, Stalinentzat berriz “purga”, Maoren soluziobidea areago doa: honen ustez, pertsoez gainera alderdiaren barne-egitura berbera aldatu behar da. Burokratizaziotik ihesi nahi bada, alderdiaren berrantolaketa konstantea izan behar da. Pertsonen erruekin atzera egitura beraiek usteltzen joaten dira.

Langile klaseak agintea hartzean Estatuaren aparatua hautsi behar du. Leninentzat aparatua hau errepresiozkoa da batez ere, ideologia aparatuz susmo bat besterik ez zuen. Maok berriz, errepresio aparatua ez ezik ideologia aparatua hautsi behar dela dio. Lenin bai-

tan intuizio dena, Maok teorizatu egingo du eta teorizazio honen azalpen praktikoa Txinako kultur iraultza dugu.

Bestalde, elkargoen problematikan, Maok Gramsciren ideia jarraitzen du. Langile klasearen alderdia ez da beste klaseen alderdiekin aliatzen. Alderdiak populuaren alderdia izan behar du eta aliantzak populuaren alderdiaren barne lortzen dira, honen zuzendaritzan hegemonia langile klaseak duelarik.

Maoren beste emaitza ardurazkoa, zuzendaritza metodoaz eta organizatze arazoaz da.

Alderdi barruko eztabaidak Maoren aburuz bi motatakoak izan daitezke; bata burges politika ala proletari politika jarraitzearen aldekoa eta bestea zuzen ala oker edo egia ala faltsuaren artekoa. Bigarrenengo eztabaida hauek kontradikzio edo ezbaiak dira. Stalinentzat berriz eztabaida guztia burges politika zen eta soluziobidea ezaguna dugu: “purga”.

Populu barruko ezbaiak, Maoren ustez ez dira muturreko batzuk, labana edo fusilarekin erabakitzen, zentralismo demokratikoaren bidez baizik, hots, eztabaida, arrazoinamendu, kritika eta autokritikaren bidez. Eztabaida mota hauetan, batasun desiratik hasi behar da beti, zuzena ala okerraren arteko kritika eta borrokaren ondoren batasun berri batetara iristeko.

Azken finean Maorentzat zentralismo demokratikoa jendeari hitz egiten uztea besterik ez da. Hau oso inportantea da, zeren demokraziarik gabe ez dago zentralizaziorik. Alderdiak, linea politiko eta teoriko zuzen baten osatzeko, populuaren baitan azaltzen diren ideia eta asmo guztiak jaso behar ditu. Populu baitako ideiak eta usteak jasotzea, alde-bakarkeriaz eta partzialki egiten duen alderdiak zer linea teoriko eta politiko lor dezake? Ez populu masari dagokiona, noski.

Halatan, jendeari hitz egiten utzi behar zaio. Horregatik demokrazia beharrezkoa da populu baitan. Demokrazia populuarekiko eta diktadura haren etsaiarekiko. Bi alde hauek, demokrazia eta diktadura, elkarri loturik joan behar dute beti. Probokatu eta lagundu egin behar zaio jendeari beren asmo eta usteak azaltzera. Alderdiak, populu baitako ikuspuntuak sintetizatuko ditu, linea politiko konkretu batean transformatuaz gero berriro praktikara itzultzeko. Prozesu hau birberrituaz aberastu eta haziko dira bai praktika eta bai teoria.

Zergatik hainbeste garrantzi populu masen erranei? Oinarrizko zerbait erraterik ba ote du populuak? Bai, Maoren aburuz populu-



ren irizpideak ez dira guztiak okerrak, ideia zuzenak ere badaude. Alderdiak ideia zuzen hauek biltzen eta jasotzen jakin behar du. Zentralismo demokratikoa ideia justuen zentralizazioa da.

Leninentzat, masen ideologia espontaneoak edo irizpide eta asmoak ez zuten balio handirik, azken finean ideologia burgesa besterik ez ziren. Alderdia zen ideologia proletario edo marxista zientzia marxistaren jauna eta jabea. Horregatik masak alderdiak baino garrantzi gutxiago zeukaten Leninentzat.

Ez da berdina gertatzen Mao baitan. Honentzat populu masen usteak eta ideiak ez dira burges ideologia huts-hutsak, ideia zuzenak ere hor daude nahasiak. Maorentzat ideia zuzenak ideologia proletarioa adierazten dute. Halatan alderdiaren zeregina zuzen horiek sistematizatzea izango da. Maorentzat ideia zuzen hauen sistematizaziorik gabe alderdia ez da deusik. Haiek gabe ez dago teoria marxistarik ez eta zientziarik ere. Horregatik Maok populu masei alderdiari baino garrantzi handiagoa emango die.

Guzti honek badu zerikusirik zientzia eta ideologiaren arteko harremanekin. Leninentzat zientziak (alderdiak) eta ideologiak (masak) ez dute zerikusirik elkarrekin, bata bestearen ukazio bezala agertzen dira. Maorentzat zientzia eta ideologia elkarrekin loturik azaltzen dira. Alderdiak teoria marxista edo zientzia osatzen joateko populu baitako ideia zuzenak bildu eta aldatu behar ditu, modu honetan praktika bera ere berrituaz.

*Joxemartin Apalategi ("D2T5")*

## Lan honen sakontzeko bibliografia

Gramsci, *Notas sobre Maquiavelo, sobre política y sobre Estado moderno* (Ed. Nueva Visión).

Lenine, *La maladie infantile du communisme* (Ed. Sociales).

Lenine, *Que faire* (Ed. Sociales).

Luxemburg, R., *Marxisme contre dictature* (Col. Spartacus).

Luxemburg, R., *Parti, syndicats et grève de masses*.

Mao, *Cinq essais philosophiques* (Edition en langues étrangères, Pekin).

Mao, *De la démocratie nouvelle* (Oeuvres choisies, T.11).

Mao, *Le P.C. et la Révolution Chinoise* (Oeuvres choisies T.11).

Marx-Engels, *Le 18 Brumaire de Louis Bonaparte* (Ed. Sociales).

Marx-Engels, *Manifeste du parti Communiste* (Ed. Sociales).

# ERLIJIOA SAILA



## Eleiz gizonak<sup>1</sup>

Bizi garen Herriari zor gatzazkiola onarturik, gure Herri honen egoera nolakoa den ikusten ahaleginduko gara lehendabizi; ondoren, egoera soziologiko honen aurrean Euskal Herriko eliztarrak eta erlijiosoak nola portatzen diren begiratuko dugu. Honela, azterketa hau egin ondoren, askoz errazago ikus dezakegu zer ondorio atera eta gure jokabideak nondik nora bideratu.

Bide batez, oharturik gure Herriaren abiadak zerikusirik badauela beharbada nazioarteko beste herriekin, Vatikanoko II.aren ondorengo eliz mugimenduari begiradaxo bat ere emango diogu.

### 1. Vatikanoko II. kontzilioak sortu duen giroa

Batzar Nagusi honek eman zituen norabide zabalak oinarritzat harturik, han eta hemen esperientzia berriak sortzen hasi ziren, Kristoren Hitzak eta Haren aldeko testigutzak kristau molde batzuk hartzen dituzte. Hona hemen giro berri honen zenbait berezitasun:

#### *1.1. Elizaren erakundea auzitan jartzen da*

Batez ere, elizaren egitura soziologikoa salatzen da. Hara nola eta zergatik:

a) *Elizaren diru-indarra*. “Elizkizunak” izeneko kultutik sartzen den diru hori ez da bedeinkatzen, hain iturri garbikoa ez dirudielako. Halakoak dira meza-diruak, erromes-lekuak, ehorzketak, eta abar.

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 7, 1974, 3-12 orr.

Elizak, bestalde, beste ondasun batzuk ere baditu: etxeak, komentu handiak, askotan erdi-hutsik daudenak, lurraldeak, eta abar.

Irakaskuntzan ere Elizaren eskuetan daude “eskola libreak” izeneko ikastetxe gehienak, eta hauek, sarritan, pobreentzat baino gehiago aberatsen seme-alabentzat dira.

Azkenik, eliz erakundeak kapitalismoaren egitura bertan zuzeneko parte hartzen duela ere gaineratzen da, esanez Elizak bere dirutza ezarririk duela banketxeetan, lantegietako korrituetan, eta abar.

b) *Elizaren boterea, edo aginte politikoa.* Aginte mota hau batez ere kontzientzia mailan ematen da. Elizako agintariek (gotzainek, nagusiek...) kristau elkarten eta erlijiosoen nortasuna hiltzen dute.

Hara nola: apaizari, orobat erlijiosoari, politikan sartzea debekatzen zaio, ezkontzea ere bai. Agintaritzak, gobernariaren esanera egonik, ebanjelioaren izenean bidegabekeriak salatu dituzten apaizak polizia politikoaren eskuetan utzi ditu. Bestalde, agintaritzak horrek berak zapaltzailearen politikan publikoki, denen agerian, parte hartzen du. Vatikanoko estatu politiko bat balitz bezala jokatzeko du bere harremanetan; bere bitarteko diplomatikoak ditu, bere hitza du nazioarteko gobernuetan.

d) *Elizaren jakitatea, edo ideologia.* Aginte hau pentsamendu mailan ematen da.

Pastoralgintzan pasibotasuna ezartzen du: kontzientziarik gabeko haurren bataioa, esaterako. Elizaren menpeko eskoletan erlijioa ezartzen da, nahi bada eta ez bada. Elizak irakaskuntzan erakusten duena, eskoletan esaterako, ez da batere neutroa: nazio zapaltzailearen ideologia hedatzen du.

Teologoak kondenatzen dira.

Ezarrirako ordena zapaltzailearen bortxakeria onartzen du Vatikanoko herri menperatuen gogortasun askatzailea kondenatzen duenean.

**Oharra:** Europako eta Hego Amerikako apaiz salatzaileen mugimendua osatzen duen korrante honek diruak sortutako eliz erakundeak salatzen du sakon-sakonean. Hemen, beraz, eliz gizonak ez baina eliz erakundeak jartzen dira dilindan.

Pentsaera hau aski hedatua da euskaldun, katalan, espainol, frantses, portugaldar eta Hego Amerikako apaizen artean. Hauen

joerak erabateko aldaketa eskatzen du Elizaren barruan eta ez bide-erdiko konponketa bat. Nolabait esateko, iraultzailea da.

### *1.2. Elizan demokrazia gehiago eskatzen da*

Hemen, batez ere, eliztarren arteko harremanak begiratzen dira. Ez dira onartzen Erromako zentralismotik agindutako planteamenduak. Goitik beherako Elizaren barne egitura hori ukatzen da funtsean.

Zer eskatzen den?

a) Tokian tokiko elizak behar dira indartu: gotzainak tokiko kristauak hautatuko dituzte; gotzainak ez dira betirako hautatuak izanen, aldi baterako bakarrik baizik.

b) Apaizkeriaren kastarekin eta sakratukeriarekin hautsi behar da, zeren, esango denez, ebanjelioan ez baitago sakratuaren eta profanoaren arteko mugarik. Apaiza herritar bat gehiago da, gizartearen bihotzean bertan dagoena bere egitekoak egiteko. Apaiz funtzionario edo kulturalaren irudia botatzen da lurrera.

d) Soziologikoki baldintzatutako gizarte batean Elizaren ministerioak zein eredu eskatzen duen jakitea ez da garbi ikusten. Garbiago ikusten dena da apaiz mota bat baino gehiago onar eta irudika daitekeela. Hara nola: apaiz ezkondua bere pastoral-lana egiten apaizgintza utzi gabe, lan profesionala egiten duen apaiza, politika arazoetan sarturik dagoen apaiza, eta abar.

**Oharra:** Korronte honek Elizaren etengabeko berrikuntzan ikusten du arazo hauen irtenbidea. Hemen, batik bat, Erromako burokrazia jartzen da auzitan eta ez, funtsean behintzat, Elizak gizarte egituretan duen zerikusia. Pentsaera hau dabil nagusi Alemania, Holanda, Belgikako apaiz salatzaileen artean.

### *1.3. Sozialismoaren aldeko aukera*

Sozialismoak gizon-emakumeen askatasunerako duen betekizuna aintzakotzat hartzen hasia da Elizaren baitan. Askatasungintza elkarteko lana bezala ulertzen da. Giza arazoak maila kolektiboan planteatzen dira.

Sozialismoaren egiteko historikoa onartzen da, bereizketak bereizketa eta oharrak ohar, batez ere, filosofi mailako planteamenduetan.

Horra adibide batzuk: Frantziako gotzainek beren hautapena eginik dute Lourdesko bilkuran, baita Hego Amerikakoek ere. Hauek kapitalaren jainkoa salatzen dute.

## 2. Euskal Herriaren egoera

### 2.1. Aldatzen doan herri bat gara

Nekazari gizarte zen herria hiri gizarte bilakatu zaigu. Mende luzeetan zehar artzaintzan eta laborantzian ari izan den euskal gizartearen egoera soziologikoa erabat eraldaturik aurkitzen da, indartzen etorri den industrigintza dela medio, hain zuzen ere.

Industrializazioak berekin ekartzen ditu bere ondorio berezi batzuk: jendearen hara eta honakoa, lanaren bila, jendetzaren ugaltzea, langileri taldearen pilatzea hiriburuetan, batez ere, eta abar.

Euskal Herrian horixe bera gertatu da. Gasteiz eta Iruñea ere gizarte industrializatuaren aroan buru-belarri barneraturik aurkitzen ditugu. Ezaguna da, bestalde, López Rodo-rekin hasitako teknokraziaren gorakada, hor 1964. urte inguruan. Gobernuak industriari lehentasuna ematen dio, laborantza bazterrean uzten duelarik. Kanpoko kapitala barrura sartzen da. Honela, ordura arteko ekonomia politikaren autarkiazko egoera bukatzen da, hor 1959 urte inguruan.

Ondorioak? Nekazaritzan ari ziren lur gabekoak kanpora ateratzen dira eta, batez ere, Penintsulako hego aldetik, emigrazioa dator. Emigrazio hau Alemaniara zuzentzen da, Frantziara, Suitzara eta baita Euskal Herrira ere, eta ez gutxi.

Gizarte industrializatu honek Euskal Herriari ondorio ezagun batzuk ekarriko dizkio. Guk inportanteenak baizik ez ditugu aipatu:

a) Bada Euskal Herrian *langile klase* bat. Klase onek, langile klasea den aldetik, bere interes eta eskabideak ditu. Diogunaren frogan han eta hemen ematen datozen grebak ditugu. Berrikitan: Michelin, CAP, Iruñeko errebolta, eta... bihar etorriko direnak.

b) Euskal Herriko langileria *bertakoez eta kanpotik etorritakoez* osatua da. Adibiderik garbienak Bizkaia eta Gipuzkoa dira.



Fenomeno honek, politika alorrean batez ere, problema zorrotzak harrotzen ditu eta ondo da jakitea nondik doazen euskal langileari buruzko tesiak.

*Tesi bat:* Euskal kapitalismoak proletalgo berri bat sortu du. Alde batetik, bertako langilez osatutako proletalgoa dago; eta, bestetik –kopuruz handiena–, kanpotik etorri diren langileak daude. Bertako langileen artean bi jokabide bereizten dira. Hauetan langile multzo bat hiritarra da, tradizioz jasotako liberal kutsua eta demokrazia espainolaren eragin ukitua dituena. Multzo honek ondo konprenitzen ditu langile immigratuen arazo bereziak. Beste langile multzoa, aldiz, baserrietatik datorrena da. Hau antzinako euskal kulturari atxikirik baitago, arbuiatzen ditu multzo honek kanpotik etorritakoak.

Tesi honen baitan, nekazari jatorriko langileria da, azken finean, euskal langileriaren interes berezi eta elkartasunezko xede orokorrak bateratzen dituena.

*Tesi bi:* Kanpotik etorritako langileak dira gure Herrian oztoporik handiena dakartenak, batez ere kultura aldetik. Zergatik? Euskal proletalgoan bi langile mota bereiz daitezkeelako, hots: euskaldunena bata eta erdaldunena bestea. Zer egin? Kanpotarrak euskal kulturgingtzan *integratu* behar dira.

*Tesi hiru:* Bertako eta kanpotik etorritako langileen artean harreman zailak gertatzen badira –eta egiazki, halaxe dira–, ez da ez batzuen eta ez besteen kulpagatik. Errudun bakarra, azken funtsean, fenomeno hauek kausitu dituen kapitalismo monopolista da, Espainiako estatu zentralista eta asimilazionistak ezarri duena.

d) Jendea hiritartzen eta, teknologia eta komunikabideak (autoak, telebistak, irratia, aldizkariak, zinemak, eta abar) indartzen doazen heinean, Elizaren indarra beheraka dator. Kultura eta pentsamolde teokratikoek ez dute egun lehen zuten agintaritzza, ez kultura mailan eta ez kontzientzia mailan. Euskal Herria pentsamoldez desakralizatzen dator, arian-arian, batez ere, 1965. urteaz gero. Ordutik hona, euskaltzaleen Jainko menditarraren heriotza aldarrikatu da, seminarioak husten etorri dira, gazteria multzo bat Europan zehar dabil... Honek esan nahi du euskal pentsaera sekularizatzen ari dela gero eta gehiago. Argialetxeak, aldizkariak, talde kulturalak, eta abar, asko edo gutxi denak daude politizatuak. Ikas-tolekin ere gauza bera gertatzen da.

Elizari bidea herritarrekin batera egitea eskatzen zaio, ez goitik agintzea. Horregatik dira zailak eliztarren eta herritarren arteko elkarriketak.

## 2.2. *Menperaturik dagoen Herri bat gara*

a) Herri honek jadanik *hiru gerra* eginik ditu bere jabetasuna lortu nahirik Espainiako estatu zentralistaren kontra. Beraz, bada gure Herrian borrokaren tradizio historikoa.

b) Euskal Herria muga batez erdibiturik dago. Bidasoak batera egin dugun historia eta elkarrekin dugun herrikidetasuna ukatzen dizkigu. Etnia bereko ahaidetasuna porrokatzen da. Muga hori erabat normala balitz bezala onartua dute erakunde ofizial guztiek, baita *ezkertiar* deitzen diren zenbait mugimenduk ere.

d) Gure Herriari bere nortasuna osoa ukatzen zaio. Hara nola:

– Herri langilearen ondasunak monopolioen eta hauen zerbitzarien eskuetan daude. Langileek ez dute beren defentsarako sindikatirik. Espainiako estatuak ez du onartzen bere sindikatu bertikala besterik.

Hortik aparte, badu euskal ekonomiak beste berezitasun bat, eta da euskal langileriak sortzen duen kapitalaren zati bat, ez txikia, beste nonbait enplegatzen dela, ez bertan.

– Askatasun demokratikoak ukatzen zaizkio. Mugimendu eta alderdi politikoak oro debekatuak dira. Mugimendu abertzale eta iraultzaileak modu eta tratu berezi batez zigortuak dira. Euskal politikagintzan jarduteak *euskal estatu* baten erdiestea eskatzen du.

3) Euskal kultura, euskarak euskal gizartean inolako ofizialtasunik ez duelarik, errotik deuseztatua da. Euskara hiltzen ari da herri xehearen ezpainetan, eta hiltzen jarraituko du, nahiz eta kulturaren beste batzuetan irabazten ari badere. Zergatik? *Ofizialtasunik eza* delako, gure iduriko, euskara galtzearen kausarik inportanteena. Honek esan nahi du kulturaren arazoa, sakon-sakonean, politikoa ere badela, zeren askatasun politikorik gabe ez baita posible izanen euskal kulturaren garaipena.

Gainera, goi irakaskintzan gauzak dauden bezala egonda, zentralismorik itsusiena inposatzen du estatuak. Datu bat: ikaslerik gehienak Madrilen bildurik daude, hots, ehuneko 35, 6.

Irakaskuntza mailan politika zuhur eta bitxiz jokatzen du estatuak. Joko hau bi modutara bideratzen da.

Lehenik, Hego Euskal Herriari osotasun geografikoa kentzen zaio, lau eskualderen arteko banaketa ezarriz. Nafarroa euskal mapatik sistemaz ezabatua aurkitzen da.

Bigarrenik, Hego Euskal Herria, hezkuntza sistemaren aldetik begiratuta, bere lurraldean ez baizik penintsulako mapan kokatzen da. Unibertsitate distrituen lurralde antolaketa aztertzen badugu, garbi ikusiko dugu nola Euskal Herriko irakaskintzaren zuzeneko plangintza osoa —administrazioko legeria mailan, alegia—, Valladolid-en (hemen sartzen dira Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba) eta Zaragozan (hemen Nafarroa) zentralizatua dagoela, bi distritutan zatituta. Beraz, Euskal Herriko lurraldean kokatuak dauden unibertsitate zentro bakarrak, Bilbon eta Iruñean, Elizarenak dira, ez estatalak. Bestalde, eliz unibertsitate aparta aurkitzen diren sukurtsalak, gehienak behintzat, arrazoi ekonomikoen eragin eta zerbitzura antolatuak daude. Industria dagoen eskualdeetan kokatzen dira eskola teknikoak, eta hauek herri-kulturari baino gehiago goi burgesiaren produkzioari zerbitzatzen diote. Helburu horrekin sortu zituen gobernuak, 1953 eta 1960 urte bitarte horretan, gaur egun gure Herrian martxan dauden Lanbide Eskolak.

**Oharra:** Gauzak horrela direlarik, oso zail ikusten da gizarte-arazoen zolaraino sartu gabe irtenbiderik atzematea. Azaleko ukitu edo konponketak ez lirateke aski, ezta borondate ona ere.

### *2.3. Gure Herriak bere askatasunaren aldeko hautapena eginik du*

a) Hautapen honen egia iraultzaren dinamikak berak frogatzen du. Mugimendu politikoen eta kulturalen bizkortzea begien bistakoa da. Euskaraz inoiz baino gehiago izkiriartzen da. Politikarien isileko militantzia azkartzen ari da, gero eta gehiago.

Hautapen honen ondorioak dira, bestalde, herri sufritu baten sufrikarioak, ez debaldetan jasanak, noski, zapalkuntzak askagintzaren ordainetan ezarriak baizik. Errefuxiatuak, espetxeratuak, hilak, kultur ekintza debekatuak, langile greba zigortuak eta odolez bus-tiak, eta abar, askagintza honen historian sartzen dira.

b) Askagintza honen xedeak sozialismoaren eta abertzaletasunaren aldeko borrokan finkatzen dira. Hemen ohar batzuk egin behar ditugu.

Lehenik, sozialismoa eta abertzaletasunaren kontzeptuok ez dituzte guztiek modu eta neurri berdinean aditzen. Bada, ordea, xede bi horien aldeko herri gogo bat (eta guk hori azpimarratzen dugu hemen), nahiz eta filosofia mailako esplikazioak eta jokabide politikoak ez izan berberak.

Bigarrenik, bada gure Herrian mugimendu politikorik sozialismoari lehentasuna ematen dionik, eman beste guztien gainetik; kontrakarrean, baita lehenik aberria eta gero sozialismoa sostengatzen duenik ere.

Hirugarrenik, nola sozialismoa hala abertzaletasuna, bi xedeok batera eraman behar direla dioen giroa ere oso sarturik dago gure Herrian. Gure iduriko, askagintzaren esperientzia bizi duten herrialdeetan momentu historiko bat betetzen dute nola batak hala besteak.

d) Askagintzaren praktikak berekin dakar talde eta taldetxo berezien arteko banaketa. Guk honi *blokismoa* deituko diogu. Berrikitan beste batek *amorrazioaren* fenomenoak deitu dio. Sakonean gauza bera adierazten dute, hots: elkarrizketarako, elkar lanerako, horma batzuk daudela tartean. Blokismo hau herri bizitzako edozein mailatan egiazta daiteke: kulturaren, politikan, elizan... Bada, halere, honetan guztietan indarrean dirauen lege soziologiko bat, eta da normalean politikan familia berekoak direnak kulturaren ere hala izanen direla, eliz jokabidean ere bai. Bakoitzaren baitan pentsaerak eta honi dagokion jokabideak ardatz bera dutelako gertatzen da hori.

Hona hemen adibide bat kulturgintzaren alorrean: *Agur* batek, *Zeruko Argia* batek, *Anaitasuna* batek, eta abar, ez dute berdin ikusten Euskal Herria.

**Oharra:** Helburu bezala on dateke eta desiragarri indar bizien batasuna lortzen ahalegintzea, elkarrekin ditugun xedearen erdies-teko, bederen.

Bestalde, ez digute kanpotik erregalatuko Herriaren jabetasuna. Euskal Herriaren arazoa gure arazoa da; ez gaituzte ez Madrilek, ez Parisek eta ez Erromak salbatuko.

Eliz eta erlijioso arazora etorriaz: Euskal Herriko herritar garen ezkerero, guk behar ditugu antolatu geure erakundeak, guk ikusi be-

har dugu nola zerbitza genezakeen hobekien eta zintzoen gure Herriko kristau elkarte.

### 3. Eliza zertan den gure Herrian

Hemen, bereziki, Elizaren egoeraz ikuspegi soziologikoa ematen dugu. Azterpuntuko galdera hau da: nolakoa da eliztarren portaera gure Herri zapaldu honen aitzinean?

a) Eliz agintarien jokia indartsuenekin batera jokatzea eta haien esanera egotea izan da. Indartsuenekin indartsu sentitzea. Euskal Herriko apaiz eta fraide espetxeratu eta desterratuak ez dute izan esku laguntzailerik. Honek gutxien gutxienik ondorengo hau esan nahi du behintzat: goi agintari horiek ez dutela haserrebidetik nahi agintari politiko diren zapaltzaileekin.

Euskal kultura, eta hor euskara, ez da aintzakotzat hartuak izan. Hara zergatik:

Eliz barrutietako harreman ofizialak erdaraz egiten dira; elizkizunetan ere erdara usuago dabil euskara baino.

Seminario eta komentuetan ere honelako zerbait gertatzen zen. Euskal kulturak ez zuen lekurik, zigortuak ziren Herriaren aldeko desirak eta kultur ekintzak: liburuak, aldizkariak... Halabeharrez, ez goikoen borondatez, zabaldu ziren komentu eta seminarioetako ateak gure Herriko arazoetara.

Oraino berriki datu triste batzuk jaso ditugu Nafarroako zenbait elizatan gertatzen denaz:

“Nafarroan euskarari elizan prestigioa falta zaio, benetako ofizialtasunik izan ez duelako. Gotzainen aukeramenetan ez da kontuan hartzen euskal faktorea; pastoralak erdara hutsean argitaratzen dira; fede-programaketa erdaradunentzat ideiatuak dago ia osoro. Okerrago oraindik, izan dira apaizak molestatuak euskara elizan sartu nahi izan dutelako. Gero ikusiko dugunez, *25en bat* herri eta herrixkak gaur egun *erdara hutsean* dute liturgia, nahiz eta herri horietan gehienak, bai herriko gizon larrienak euskaradunak izan. Honelakoxea da euskararen egoera Sánchez Carrionen inkestan” (*Zeruko Argia*, 1973, 537 zk.).

Euskara liturgiatic baztertu duten apaiz horien portaera honela juzgatzen du berriemaileak:

“Apaiza herri batzuetan ez da *jauntxo* eta goi-burgesiaren elementu erdarazale bat baino”.

Ipar Euskal Herrian gauza berbera gertatzen dela ezin uka deza-kegu. Apaizen erruz herri askotan ari da euskara galtzen, batez ere gazterian, aitzakiatzat hartuz erdaraz mundu guztiak konprenitzen duela. Apaizak bere pastoral lanetan zer hizkuntza erabili, herriak hura jasotzen du: erdaraz egiten bazaio erdaraz, euskaraz egiten bazaio, euskaraz. Erraztasunera jotzen bada, bistan da, ofizialtasunik ezari esku leuna ematen zaio.

b) Komentuetan ere ez dira askoz hobeto gertatzen gauzak, euskarari gagozkiola bederen. Elebitasuna ez da oraindik sartua. Euskal arazoaz eta euskal kulturaz zaletuak banaka batzuk baizik ez dira. Honek esan nahi du moja eta fraideen komunitateak oraindik euskalduntzeko daudela, herri zapaldutik urruti samar bizi direla.

Halere, Loiolan egindako Euskal Erlijiosoen Batzarrean agertzen denez, nabari da hautapen interesgarri batzuk zuztartzeko hasiak direla erlijiosoen artean. Hona hemen adibide batzuk:

- Lokalak prestatzen dira herri zerbitzurako: ikastolak finkatze-ko, bilkurak egiteko, folklorea lantzeko, eta beste.
- Fraide batzuk pertsegituak izan dira.
- Batzuek grebetan-eta parte hartu dute.
- Beste batzuek lantegietan lan egiten dute.

Erljiosoen euskal kulturaren alde egiten duten lanik handiena, agian, euskaraz egindako argitalpenak izanen dira: liturgia testuak, saiakera liburuak (Yakin), eta beste aldizkariak.

Baina hor banaka batzuen ordez 25.000 erlijioso inguru herriaren aldeko zerbitzuan jarritz gero, ez dugu dudarik egiten Elizaren aurpegia beste bat izanen litzatekeela Herri zapaldu honen aurrean.

**Oharra:** Herri arazoetan barneratzeko oraindik askoz gehiago egin beharra dago. Erakundeak euskaldundu behar dira. Euskarari ofizialtasuna eman behar zaio. Euskal arazoak ez du izan behar erlijioso eta apaiz batzuen arazoa, komentu osoarena baizik, eliz barruti osoarena baino. Erljiosoen eskuetan dauden eskolak eta ikastetxeak euskaldundu behar dira, parrokiak ere berdin. Eta horretarako gitorrik ez den lekuan, giro egoki bat sortzen ahalegindu.

d) Kleroa sekularizatzen ari da. Fenomeno hau gaur egun ageriago azaltzen bada ere, horren zuztarrak lehenagotik datoz.

Ezin uka dezakegu beti izan dela gure Herriaren alde jokatu duen apaiz multzo baten jarrera salatzailea. 1936ko euskal kleroaren portaera gogoratu besterik ez dugu; 1960ko 339 apaizen agiria ere hor dago, 1968an Derioko 60 apaizen protesta ekintza, ondoren etorri diren apaizen grebak, espetxeratzeak, desterruak... Jazoera hauetan, batez ere azkenaldi honetan, salaketa profetikoa egitea ez zela aski indartsua iritzirik, ekintzari leku handia eman izan zaio.

Baina hemen dago galdera: nondik nora dabilta salaketari ekin dioten apaiz eta erlijioso horiek? Batasunik ba al dago elkarren artean? Galde hauek erantzun zehatzak eskatzen dituzte. Guk, ordea, aurrez badakigularik zaila dela jokabide hauen guztien zerrenda zuzen bat egitea, jokabide nagusien urratsak emanen ditugu.

*Giza eskubideen eliza.* Helburu honen argitan mugitu da apaiz talde handi bat, ia denak, 1936eko gerraz gero. Giza eskubide eta herri eskubideetan oinarritutako printzipioak erabiltzen dira salaketaren justifikagarri bezala. Eliza erakusle da, eta erakusle den aldetik salatzen ditu Herriaren kontrako bidegabekeriak. Apaiza ez da beste edozein herritar bezalakoa, apaizak herriari goitik erakusten dio, pulpitutik esango genuke, edota pulpituan dago herriaren egia. Hots: apaizek epaitu egiten dute zer dagoen zuzen eta zer oker. Korrante honen adibide bat 1960ko agiria litzateke.

Apaiz talde honek Elizaren barrutik egiten du salaketa. Elizaren beraren barne egiturak ez ditu zalantzan jartzen. Elizaren okerrak pastoral-lan egoki batek zuzen ditzake. Horregatik, beren jokabideen azken jomuga bezala, pasterala berritzen eta behar berrietara moldatzen ahaleginduko da, katekesia, kultua eta abar landuz.

– *Euskal Herri Langileriaren eliza.* Helburu honen atzetik abiatuko den apaiz taldea belaunaldi berrikoa da, hor 1965. urte aldera Herri Gazteria mugimenduarekin batera lanean diharduen taldeari dagokiona, nekazari gizartean finkatzen dena. Ordurako jadanik eginik zuen, hain zuzen ere, bere aukera Herri Gazteriak sozialismoaren alde. Kristautasuna herri arazo guzietan bustirik bizi nahi du. Fedearen erantzun jator bezala hartzen da maila sozialeko konpromisoa. Printzipio teologikoetatik baino areago soziologikoetatik egiten dira kristau azterketak. Aintzakotzat hartzen da apaizen konpromiso politikoa, fede nortasunaren alderdi osagarri bezala, alegia.

Talde honek Elizaren egitura soziologikoak gupidarik gabe salatzen ditu. Zehatzago esanda: eliz kapitalista eta zentralistaren salaketa egiten da. Horregatik errepikatzen eta errebindicatzen da formula hau: guk nahi dugun Elizak pobrea izan behar du, librea, eragilea eta bertakoa.

Jokabide honen adibide bat Derioko apaizen agiria izan daiteke. Bizkaiko mugimendu honen baitan hasten da sekularizazioaren fenomenoak. Garai honetako sekularizazioaren xedea hau da: Elizaren lotura zapaltzaileak hautsi behar dira, Eliza desakralizatu behar da kristau elkarteak herritartzeko. Apaizen egitekoa –horien pastoral lana, beraz–, kultura egitea baino gehiago herri kontzientzia piztea zen. Sekularizazio mota hau, funtsean, arrazoi politikoak eragina zen.

*Apaiz ministeriorik ez.* Azkenaldiotan, 1970. urteaz gero bereziki, sekularizazioak beste molde batzuk hartu ditu. Sekularizazioak orain *apaizgintza uztea* esan nahi du. Apaizgintzaren barruko krisi bat bezala agertzen da. Jokabide honen arrazoiak bi mailatakoak dira, inkesta batek dioenez. Batzuk, *personalak*: afektibitate problemak, apaiz funtzionario izaten aspertuta egotea, ideal berriak izatea... Beste arrazoi batzuk, berriz, eliz erakundetik bertatik datozenak dira. Gotzainekin ondo ez etortzea, ondoko apaizekin ere ez, Vatikanoko II. kontzilioak utzi dituen arrastoak...

**Oharra:** Dena dela, eta oro har, apaizen arteko giroa aski nahastua da egun. Bakoitza bere aldetik bezala dabil. Desakralizatu-tako euskal gizarte honetan bere lekua ezin bilatuz dabil eliz gizona, galduta bezala dago, lehen zuen segurtasunik ez du, gauza askotaz dudatzen du. Vatikanoko II. kontzilioak munduan zehar hedatu dituen kezkek sumatzen ditugu gure artean ere. Kontuan har Kontzilioaren ondorengo elizari eman diogun begiradaxoa.

Bestalde, batasunaren eguna urruti samar ikusten da, ikusmoldeak eta jokabideak elkarrengandik urruti samar ikusten baitira. Halere, zenbait gauzatarako batu gaitezkeela ikusten da, eta beharra ere sentitzen da, batez ere herriari buruzko eginkizunetan xede komun batzuen inguruan elkar gaitzen.



## 4. Gaurko egoerak eskatzen diguna

1) Indar bizi eta aurreratzailerekin batera jokatu beharra, fededun izan ala ez izan. Ekonomian, politikan eta giza eta gizarte zientzia guztietan, orobat herri arazoetan, bidea batera egin behar dugu, herrigintzan funtsatzen baita herritarren batasuna.

2) Guretzat, fededunentzat, zientziak asko eta asko argitzen du munduaren martxa, baina guk ez dugu uzten gizonaren etorkizuna zientziaren eskuetan bakarrik. Fedeak itzulikatzen dizkigu bihotzak.

3) Herrigintza honetan ez dagokio Ebanjelioari gizon eta erakunde politikoen lekua betetzea, fedearen testigutza ematea baino herriarentzako zerbitzuan, Kristok gure herriarekin egin zuen bezala. Honek esan nahi du fededunen elizak ez duela derrigorrez erakunde politiko bat izan beharrik. Hemen Herri Gazteriaren problema planteatzen da: kristau elkarte edo mugimendu bat al da? Hala bada, testiga beza; eta ez bada, utz dezala izen hori.

4) Errukizko obrak eta horretarako eraturik dauden eliz erakundeak ez dira on, baldin erakunde horiek miseria eta injustizien kausak mantentzen badituzte, zeren, honela, justiziaren betekizuna zapuzten baita. Pastoral lanak kontuan hartu beharko du ohar hau. Beharbada posible da apaiz mota bat baino gehiago izatea:

– *apaiz herritartua*: herrian bizi dena eta maila profesionalan lanetik bizi dena.

– *apaiz kulturala*: eliz lanetik bizi dena fede klasikoan bizi diren eliztarren zerbitzura.

– *pastoralgintza berriko fede heziketan diharduen apaiza*: katekesia eta liturgiaz arduratzen dena, hitzaldiak ematen dituena, kristau elkarteak zuzentzen dituena.

5) Fedearen testigantzan sinets dezaten, lehenik herritarrak gara behar dugu frogatu.

Guk, euskaldunok, ez dugu geure Elizarik, ez eta erlijiosook geure autonomiarik. Lagundi araudietan eta eliz erakundeetan ez da agertzen Euskal Herriaren izenik ere. Gehienik ere hau: *probintzia*, edo *diozesia*, edo antzeko zerbeit.

Gure jarrera puntu honetan erabatekoa beharko luke izan, hots: erakunde eta legez eliz euskaldun bat lortu behar dugu, ez Espainiakoa eta ez Frantziakoa, Euskal Herrikoa baino. Hau lortzeko biderik efektiboena zein diren pentsatu beharko genuke: agiri

bat Erromara-edo bidali, erlijiosoen etxe nagusietara eta Vatikanora, apaizek eta erlijiosoek sinatua, une berean ekintzaren bat muntatzen delarik eskabidearen berme bezala.

6) Kontuan hartuta herri zapaldu bat garela, jakin dezagun herri sufrituarekin sufritzen. Kristauaren egitekoak dira:

– *Pobretasuna*. Honek eskatzen du ondasunak herritartzea, edo behintzat Herriaren zerbitzurako jartzea. Herri xeheak askatasunerako dituen bideak arras txikiak eta pobreak baitira.

– *Komentuak kulturatzea*. Esan nahi baita Herria zerbitzatzeko lehenik elkarte erlijiosoak behar direla kulturizatu. Hots, Herriaren beharrez kontzientzia hartu behar dela. Euskarak bertako hizkuntza ofiziala izan beharko luke eta, jakina, guztiek jakin beharko lukete.

– Bidea Herriarekin batera egitea. Ez beldurrik izan herri arazoak herri mugimenduekin batera aztertzeko, birpentsatzeko. Herri arazoak hobeto ikus daitezke herritik bertatik ez eta komentuko leihotik baino.

Beharrezkoa da, beraz, gu kanpotik nola ikusten gaituzten galdetzea. Herriaren zerbitzurako bagaude, galde diezaiegun herriko indar biziei nolakoak nahi gaituzten.

*Paulo Iztueta*



## Piarres Xarriton Zabaltzagarai

### Ibilbide profesionala

Piarres Xarriton Zabaltzagarai Hazparneko Ehulateia baserrian sortu zen 1921eko urriaren 19an. Guraso laborarien seme zaharrena. Mutiko zelarik, Hazparneko seminario klasikoan hasi zen ikasten eta handik, 14 urte betetzear zegoela, Uztaritzeko seminario txikira eta geroago Baionako nagusira joan zen eleiz ikasketak egitera. Bere sorterrian apaiztu zen 1947an, Clément Mathieu apezpiku herritarraren eskutik. Erroman Teologiako Lizentzia jesuiten Gregorianum unibertsitatean burutu ondoren, Mauleko ikastetxean hiru urte filosofia eta gaztelera irakasten egin zituen. Apezpikutegitik Parisa Filosofia ikastera joateko deia hartu zuen 1953an, eta hor irakaskuntza lanetan jardun zuen eta hango Euskal Gazteriarekin harremanetan jarri zen Euskal Etxe sortu berriaren inguruan. Paristik Euskal Herrira itzulita 1960ko martxoan, Paul Gouyon apezpikuak Hazparneko ikastetxea zuzentzeko ardura eman zion, lanbide-eskola bideratzeko xedearekin. Ikastetxean gertatutako arazo politikoengatik giroa gaiztotuta, Parisera joan behar izan zuen, Notre Dame des Champs-eko ikastegira.

Handik berriro herriratu eta gero, urte batzuk Saint-Aimand parrokian egin zituen, baina ez luze, Quebec-era joan eta, han sekularizatu eta esposatu baitzen 1976an. Han landu zuen *Le droit des peuples à leur identité* (1979) doktorego-tesia eta hemen bigarrena, *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques*, Jean Haritxelarren zuzendaritzapean. Teologia eta euskalaritza lotu zituen

UPV/EHUn irakasle bezala. Euskaltzain osoa izendatu zuten Pierre Lafitte zendu ostean. Eta Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria eman zion 1999an.

Hainbat liburu eta artikulua ditu eginak, bakarka eta lankidetzan, euskal gaiez, euskaraz zein frantsesez.

## Liburuak

- 1943: *Eskualdunak*, Aitzina, Baiona, 68 or. (Chabier Gasteiz goitizenez).
- 1946: *Petite histoire religieuse du Pays Basque*, Eskual Herria, Baiona. 72 or.
- 1958: *Charamela*, Gazte, Baiona, 124 or.
- 1963: *J. Etchepare Landerretche-n Mendekoste gereziak*, Goiztiri, Baiona, 120 or.
- 1973: *Le fondement moral des droits culturels de l'homme*, Institut Catholique de Toulouse, 324 orr.
- 1979: *Le droit des peuples à leur identité*, Fides, Montréal, 220 orr.
- 1985: *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques*, CNRS, Paris, 332 orr.
- 1990: *Alfabetatzearen historia Iparraldean*, 8 orr.
- 1990: *Euskal literaturaren oinarriko gidaliburua*, 44 orr.
- 1990: *J. M. Moulier "Oxobi"*, Eusko Jauriaritza
- 1992: *J. Mendiague-n bizia eta kantuak*, Etor.
- 1994: *Xabier Diharce Iratzeder*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 88 or.
- 2003: *De re publica edo politikaz*, Elkar, 187 orr.
- 2003: *Euskaltzaleen Bitzarraren historia laburra: 1901-2003*, 16 orr.
- 2005: *Jean Haritschelhar*, Société d'études basques, 97 orr.

## Itzulpenak

- 1991: *Utopia* Klasikoak, Bilbo, 31<sup>o</sup> orr. (Tomas Moro egi-le, Piarres Xarriton itzultzaile).

1991: *Indio aurkitu berriez*, Klasikoak, Bilbo, 330 orr. (F. de Vitoria egile, Piarres Xarriton itzultzaile).

### Elkar Lanean

1998: *14eko Gerla Handia*, 262 or. (Jean Saint-Pierrekin batera)

1997: *Hiztegia: Euskara-Frantsesa/Frantsesa-Euskara* (Xabier Kintanarekin batera), 597 orr.

2003: *Jean Saint-Pierre "Anxubero" (1884-1951)*, 28 orr. (Inigo Aranbarri eta Rosa Miren Pagolarekin batera).

### Paratuak

1988-1996: *J. Etchepare mirikuaren idazlanak*: I, *Euskal gaiak*; II, *Mediku jolas*; III, IV, *Kazetaritza*; V, *Euskal Herriko bizia*. Elkar. Donostia.

1991: *P. Larzabalen idazlanak*: I, *Etxahun eta...*; II, *Bordaxuri eta...*; III, *Orreaga...*; IV, *Matalas...*; V, *Artikulu eta ipuinak...*; VI, *Etnografia solas eta hitzaldi*; VII, *Oroitzapenak*, Elkar, Donostia.

### Artikuluak

1973: "Eliza eta fedea Euskal Herrian", *Zabal*, 3, Baiona, 5-14 orr.

1974: "Eliza berri Baionan", *Zabal*, 9, Baiona, 12-18 orr.

1974: "Gizonaren kultura eskubideen oinarri etikoak", *Zabal*, 6, Baiona, 43-51 orr.

1976: "Askatasun teologia", *Zabal*, 19, Baiona, 10-14 orr.

1977: "Quebec-eko unibertsitatea", *Jakin*, 2, Donostia, 100-107 orr.

1979: "Historiarik gabeko Ipar Euskal Herria", *Jakin*, 9, Donostia, 20-27 orr.

1984: "J, Saint-Pierre apezpiku euskaltzainaren obrak", *Euskera* 1984-2. Euskaltzaindia, Bilbo, 477-481 orr.

- 1986: “Piarres Lafitte zenaren pentsabideak”, *Jakin*, 39, 103-117 orr.
- 1990: «Donibane Ziburu eskal literaturaren iturri», *Euskera* 1991-2, *Euskaltzaindia, Bilbo*, 375-381 orr.
- 1991: “Alfabetatzearen inguruan”, *ELE*, 5, Bilbo, 9-17 orr.
- 1991: “Jean Etchepareren Euskal lanak”, *Hegats*, 4, 31-44 orr.
- 1994: “Literatura tradizioa Iparraldean”, *Egan*, 1941-1, 57-79 orr.
- 1998: «*Piarres Larzabalen oroitzapenak*», *Euskera* 1998-1, *Euskaltzaindia, Bilbo*, 295-296 orr.
- (1992): “J.B. Elissanburu eta Gratien Adéma», *Euskera* 1992-1, *Euskaltzaindia, Bilbo*, 53-63 orr.

## Eliza berri Baionan?<sup>1</sup>

“Eliza berri” izenarekin artikulua batzuk agertzen ditu *Herria* astekarian, ez dakit noiztik gero, J.H.U. adiskideak.

“Eliza berriaz” bagenuke zerbait errateko, Baionako beste fededun batzuek ere, baina non erran gure hitza?

*Herria*-ren buruzagiak herabez daude, apezpikutegiko jaun horiek jadanik aski begietan dituztelako aitzakiarekin.

Baionako diozesiko *Bulletin* ofiziala ez dugu zeren aipa: ez dauka euskararentzat, are gutxiago gurearentzat lekurik.

Hemen dugu beharrik *Zabal*, fededun edo fedegabe, euskaldun guztiei atea zabaltzen dizkiguna. Gure herriak pizten dizkigun kezkek agertzeko ordu eta leku badukegu, beraz, *Zabal*-i esker. Eskerak, beraz, *Zabal*-i.

### 1. Euskal Herrian Baiona

Bi liburu berri irakurri ditut berriki. Biak espainolez idatziak. Bata *La iglesia como problema en el País Vasco. Elizaren problema Euskal Herriaz*, Manu E. Lipuzkoa-rena eta Buenos Aires-en, Ekin editorialak argitaratua. Eta *Síntesis de la historia del País Vasco* bestea, Martin Ugaldereña, *Euskal Herriko historiaren bilduma*, Madrileko Seminarios y ediciones S.A-k argitaratua.

Liburu egileak, biak euskaldunak dira eta biek ezagutzen dute beren Herria, bere betean eta osoan. Bizkitartean, iruditu zaigu leku gutixko uzten diotela Iparraldeari. Ez da, beraz, harritzeko Hegoaldea heldu baitzaie lehenik gogora arrotz gehienei, Euskal Herriaz edo euskal problemaz ari garelarik.

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 9, 1974ko Iraila-Urria, 12-17 orr.

Egia erran, joan den mende erdi honetan Euskal Herrian gertatu diren gertakari aipagarrienak Hegoaldean izan dira: 36ko gerla eta Gernika, Arrasateko kooperatibak eta Ikastolen mirakulua, ETA-ko gazteen borroka eta Burgosko auzia, horiek oro han gertatuak.

Eta aipatu diren gizon eta emazte aipagarrienak, hauek ere Hegoaldekoak, bai Unamuno eta Oteiza artistak, bai Mugika eta Añoveros apezpikuak, bai Agirre eta Ibarruri politikariak.

Gehiago dena, Hegoaldean zitzaigun lehenik sortu Arana Goirirekin euskal kontzientzia. Iparraldean gu lo geundelarik!

Azken hamar urte hauetan, bien bitartean, Itsasuko Ageriaren ondotik eta Enbata-ren uztearekin, badakigu Iparraldean ere hasi direla euskaldun batzuk Arana Goiriren oihuaren errepikatzen: "Euskal Herria da Euskaldunen Aberria".

Ez dugu hemen Enbatak iraun duen hamar urtetako historia-ren gorabeheretan sartzerik. Oraino gogoan ditugu herriko etxe eta plazetan, auzitegietan, ikastegi eta elizetan ibili urrats eta solasak.

Oroi gaitezen bakarrik Burgosko egunez, Iparralde honetan ere euskaldunak jautsi zirelarik milaka Baiona eta Mauleko karriketara. Eta gero eguberriko telebistaren emankizun luze hura, euskaldun gudariek libro utzi baitzuten preso hartua zuten gaizo Beilh alemana, zuberotarrek sekretuan hain ongi begiratua. Ez dut uste egun horiek errazki ahantziko diren.

Eta eliza gizonak saltsa horretan? Hauek beti bezala, bazterraz edo gibelka haste hartan. Badakigu Elizak populuei buruz duen doktrina ongi finkatua dagoela Vatikanoko II. Biltzarraz gero. Bilboko apezpiku zintzoak erran berria digu, euskaldun populuaren-tzat ere balio duela beste guztientzat bezala doktrina horrek. Eta azkenik, Baionako *Bulletin* ofizialak berak helarazi digu Bilbokoaren predikua "à titre documentaire".

Euskal Herriak bere nortasuna begiratzeko eta hazteko eskubi-dea baduela prediku aulkitik entzutea, zerbait bada. Nahiz ez gaitzkeen horretan geldi. Eta hasteko bagaude, bost diozesitako zortzi apezpikuak noiz elkartuko zaizkigun, Elizaren beraren barrenean aplikatzeko lehenik, bere doktrinaren izenean Elizak gobernuai populuen alde eskatzen diotena.

Dena dela, bere buruari, bere berezitasunari, bere nortasunari ohartzen ari da euskaldun herria, Bilbotik Baionaraino. Ez dut uste hori uka dezakeen, (duela) hamar bat urte, gure Herriaren herioa iragartzen zidan kalonje handiak berak ere.



## Euskal problema Baionan

Euskal Herririk ez balitz bezala bizi ginen Baionan, egia erran aspaldian.

Hona non joan den uztailaren 24ko *Bulletin Diocésain* dela-koak jakinarazten digun ofizialki, Baionako Apaiz Kontseiluak lan egin duela “Euskal Problema”ri buruz.

Vatikanoko II. Biltzarraz geroztik sortuak dira Apaiz Kontseilu horiek. Batzuetan, apezpikuak kasu handia egiten die, apaizek berek hautatu kontseilu horren erranei. Bestetan, aldiz, alegia egiten die, berak hautatu kontseilu bereziaren gomendio uzten eta bere eskuetan begiratzan botere osoa! Bakarrik, delako bilkuran barne zen apaiz batek erran dit: “Ez duk gaizki, ez duk gaizki! Ez dik apezpikuak atea hetsi!”.

Eta aitortu behar da Apaiz Kontseiluak jakina zuela “Euskal problemaz” hitz egiteko atea nori ireki. Hor zituzten injineru eta sindikalista, jaun eta andere, adineko eta gazte. Apaizik ez hargatik, menturaz euskal problemaz lehen ere axolatu diren apaizak beren lagunen begietan erreak baitira. Serorarik edo fraiderik ere ez, euskal problemak ez baitu, nik uste, serorategi eta fraidetegietan sartzeko eskubideak oraino!

Baionako *Bulletin*-ek eman dizkigu andere Seguin eta Cadarry, Haristxelar, Aitzager eta Oihartzabal adiskideen solas larrienak. Baina, bilkuraren ondotik, guk geure aldetik bildu nahi izan ditugu jaun andere horien inpresio eta iritziak.

Hona hemen erantzunak.

“Nik hasteko, bilkura horretarako galdea ukan dudalarik, idatzi dit batek, umore txarrarekin hartu dut. Neure lagun askok ere ez dute gehiago interesik ez sinesterik horrelako bilkuretan. Gero hasian hasi, seriocki prestatua genuen gure lana...”

Bilkura horrek erakutsi dit nihaurri Elizari neurri bat, ezagutzen ez niona. Hain desberdin eta diferente ageri diren eliza gizonen arteko fedearen batasunean. Menturaz Norbait-ek obratzen duen batasuna.

Laikoei, apaiz horiek interes handia ekartzen digute. Gogo onez entzun nahi gaituzte, baina ez gaituzte ongi ezagutzen. Ez dakite, bereziki adinekoek, non eta nola leku egin guri.

Biziki bortizki mintzatu garelara irudituta zaie. Bien bitartean balekete... Arrastarik gabe mintzatu bagina...

Beren eraikiduretan osoki lotuak eta preso hartuak iduri zuten apaiz horiek. Langileen mundua, laborarien mundua, ofizialen mundua, gazteen mundua, mundu horiek ezagutzen dituzte beren ustez, baina hor sartzen ez denik badenez ere ez dakite.

Bestalde, beti aho mihitan dute *la masse*. Masa hori aspaldian galdua ez balute bezala. Eta gero ikaran daude *majoria* edo gehien-goia gal beldurrez. Teologo batek erran die gutxiengoei ere ohartu behar dela. Askotan gutxiengoak haziz baitoaz”.

Beste batek hauxe idatzi dit: “Oi zein zahar ematen zuten apaiz horiek orok!”

Hirugarren bati, aldiz izugarri ilun eta triste iruditu zaio apezpikua bera: “Non dauzka gion horrek esperantza eta bozkarioa?”.

Beste batek, berriz, hauxe zioen: “Ni hasteko, azken aldiz mintzatu nintzaien erdaraz. Bestaldian euskaraz beharko didate entzun. Entzun nahi baditate!”.

Hona hemen, aldiz, gazte baten erantzuna: “Gure erranetatik orok zerbait hartu dutela iduri luke. Bat edo beste ziren, oro jakinik etorriak. Betiko berak!”.

Asko erran dugu, nahiz denbora eskasez gure lana laburtu dugun eta bere gatzaz hustu.

Zer ondorio izanen duen bilkura horrek? Joanago eta esperantza txikiagotzen ari zait. Kontseilua jarraituko omen da bere lanari. Ontsa hori. Baina, hor erranak eta galdeginak ez badira entzunak apezpikutegiko beste kontseiluetan, laster laiko horiek bazter jarriko dira eta ez da berriz behin bilkurarik izanen.

Ikusi dugu hurbiletik, anitz estruktura pisutsu badela Euskal Herriko Elizan, eraikidura ari batzuk aski litezkeelarik, problema presazkoenei erantzun bat emateko.

Guk gaztek erramak ez dituzte anitzek sinetsi. Axaletikoak omen ziren. Urrundik prestatuak genituen bada. Gure begiekin ikusiak genituen erraten eta ez gure buru gibelesko xoko batetik ateratakoak.

Badakigu Euskal Problema txapel handi horrek kezka eta grina anitz estaltzen dituela, gazte askoren buru bihotzetan: familiako giro txarra, ekonomia problema, lehertze eta zapaltzen mota guztiak eta ere euskal nortasunaren begiratzeko axola. Ez badira ere lehenbizian euskaldungoagatik elkartzen gazteak gure Herrian, gero dira ohartzen euskaldungoari. Orduan batzuk lotsatzen baldin badira ere, hazia ereina da espiritu anitzetan eta hazia haziko da.

Euskaldungoari buruz jokatzeko, asko bide badira. Ideologia berriak, bereziki. Ideologia horien argitan behar genuke gure fedea argitu. Eta hor behar genuke gure elizaren laguntza. Biharko eliza behar genuke prestatu gaurdanik.

## Biharko gure eliza

Ez dut ahanzten badirela Baionako diozesian, Baionakoan edo Erromakoan bezala, fededun asko, ez baitute batere berri edo berri-tze gosarik. Badute haiek ere beren ideien, beren elizkizun eta beren apaizen ukaiteko eskubidea, baita zinez katolikoa izateko, erran nahi baita, ororen eliza, gure eliza zaharrak behar lioke lekua eman eliza berriari.

Ez dukegu, bera, askiko seminario berrien eraikitzea, ohiko beila, bezpera eta misioei jarraitzea, fedean irauteko. Apezpikuak berak zioen: “Ohiko Euskal Herri tinko, hetsi eta hetsi hura joanen dela. Aldean beste iragaiten zaizkio mundu zabaleko uhinak oro”.

Ez naiz, segur, sorgina, eta, bestalde, badu urtea nire herritik eta lanetik urrundua nagoela. Bien bitartean, urte horretan gertatu diren gertakari batzuek badute nire ustez berriaren hotsa.

Aipa dezagun lehenik apaiz, apaizgai, serora eta seroragaien problema. Sujet minbera bihirik baldin bada. Alabaina, egundaino-ko katiximak baldin bazekien ere bataiatu guztiak Eliza garela, erran dezakegu moda xaharreko anitz fededunentzat apaiz, apezpiku eta serorak zirela oroz gaionetik eta egiazki Eliza. Hortakotz, “persona sakratu” horien mundua inarrosia delarik, Eliza zaharraren zimen-duk berek iduri dute harrotuak direla. Orduan ditugu ikusten gure buruzagiak seminarioen obrarentzat deiez eta oihuka, bokazioaren alde galdez eta otoitzean, baina ez baitituzte apaiz eta serosa etxeak oihu eta otoitzek betetzen.

Behin erran izan da, guk Iparraldean, ez genuela horrelako problemarik. Joaten ziren apaiz edo serora bakarrak, aski urrun eta aski isilik joaten edo joanarazten zituzten. Artaldeak ohiko urratsetan, obedienezian eta isiltasunean jarrai zezakeen. Buruzagiek giderrak tinko baitzauzkaten.

Baina, urte honetan gure eskualdean ere, batzuek erranen duten bezala, “bazterrak hasi zaizkigu nahasten”.

Joaten diren apaiz eta seroren kopurua emendatuz doa eta ez da gehiago hain erraz gertakari horien isiltzea. Bestalde, gelditzen direnetan edo apaizteko urratsetan dabiltzanetan ere ideia batzuk eta solas batzuk kurri dira lehen ezagutzen ez zirenak.

Hala nola, gazte anitzek ez dezake utz apaiz-lana osoki ofizialen gain. Fededun bakar batzuek, zenbait urte iragaiten baldin badituzte ere beren bizian apaizgo hutsetik biziz, askoren arabera, beste ofizio bat behar du eskuetan izan fededun orok, apaiz izan edo ez izan. Ofizio batek, alabaina, gizona osatzen du, eta apaiz orok behar du izan lehenik gizon.

Puntu honetan, iduriz, beren ideiak agertu berriak dituzte apaiz eta apaizgai hauek: Xarles Ouret Garaziko bikario artzain mutil joan denak, Albert Barbier heldu den irailean apaiztera doanak eta Manex Lanatua, Oureten lagun seminariora joan denak.

Beste puntu bat ere bada, gure lagun gazteek elkarretaratzen dituen: politikarena. Gure denboran, erraten genuen apaizak ez zuela politikarik egiten, ez egin behar ere. Gure gazteak, ordea, ohartu zaizkigu ez dela nehor munduan politikarik hunkitzen ez duenik, eta batzuetan nahi duenak nahi duena erranik ere, kargutan gorago eta politikan sartuago. Hala nola Aita Saindua bera, Baionako apezpikua baino gehiago, eta hau bera Urkoiko jaun erretorea baino gehiago.

Horiek horrela, fededun ororen politikak eta are gehiago apai-zenak behar du txikien eta behardunen alde ari izan. Lehertuak eta zapalduak direnen iratzartzen eta altxatzen lehiatu. Ideia horiek bertsuak ageri dira, gutxi gorabehera, aipatu ditugun idazkietan. Bakarrik honek nahi luke lehenik langileen alde jokatu, horrek berri-iz baserritarren alde eta hark, aldiz, Urdirarbeko apaizak bezala euskaldunen alde.

Baditugu, alabaina, gaurko egunean, gazte asko sinesten dutenak, badirela ez bakarrik langile edo nekazari klaseak, zapalduak eta alienatuak edo besterenduak, baina ere badirela herrialdeak eta kultura taldeak.

Azken puntu bat ere bada asko aipatua izan dena bazterretan. Apaizen ezkontzea. Gure lagun euskaldunek ez dute hainbat ibili. Batek bakarrik idazten du haren iduriko, Erromako Elizak behar lukeela aldatu orain arte “Mendebaldean” (?) darabilen legea. Bien bitartean, gazte horrek beretzat hautatzen du ezkongabeen bidea.

Ez da, ordea, apaizen problema gaurko mendean goiz edo berant bide berrietan sartuz gure Elizak trenkatu beharko duena.

Problema horri datxekiola, nolazpait oro elkarri josiak baitira, hona berriz orain Iparraldera heldua indarkeriaren problema.

Dena maitasun eta zuzentasun gose den mende honetan, beren fedea zerbaitetarako daukaten fededun guztiek eginbide dute zuzentasunaren alde gudukatzea. Baina eginbide hori nola bete?

Gure aitzinekoek gobernuen gain uzten ohi zuten guduka horien kezka. Fededun soilak gobernuari amen erratea zeukan bere eginbide lehena. Eta Eliza buruzagiek berek hedeak laxo uzten zizkieten gobernuko gizoni, Eliza bera hunkitzen ez zuten ber. Ez zenuen orduan eliztarrei aipatu behar politika iraultzarik, ez sindikatu konturik, ez lan grebarik, ez gose grebarik. Fededun herriak ziren ere kontserbadore herriak.

Gaurko egunean, aldiz, fededun bakoitzak sentitzen du ez zaio-la zilegi beste nehoren gain uztea bere kontzientziaren karga, berak behar du bere kontzientziaren arabera bere bidea hautatu eta hartu.

Horrela ditugu ikusten bazterretan lo edo logale diren beren haurride edo buruzagien harrotzeko beldur ez diren fededun soilak. Nork ez ditu gogoan gose greba denboretan beren apaiz eta apezpikuen aitzinean gora mintzatu diren gizon eta emazte giristinoak edo kristauak.

Gehiago dena elez eta legez, galdez eta sindikatuz, zuritzen ez delarik auzia, baditugu guk ere Iparralde honetan "Iparretarrak" populuaaren justizia indarkeriaren bidez obratu nahi dutenak.

Nahiz ez dituen aipatzen Baionako *Bulletin*-ek, entzun dituzke apaizen Kontseiluak Behe Nafarroako gertakarien oihartzunak.

*Herria* kazetak, aldiz, aipatu ditu labur eta motz, erranez "indarkeriarik ez"! Baina, badut uste Xan Irigarayk zioen bezala, joan den Otsaileko *Esprit* hilabetekarian, "barnago zilatu beharko den" gazteriaren galdeari erantzun bat ematekotz" (*Esprit*: "Journal à plusieurs voix", J. I. Février 1974).

## Urrungo haurrideen hotsa

Azkenik, gogora heldu zaizkit herritik urrun ditugun haurrideak. Hauek ere badira gure Herria. Hauek ere ari dute prestatzen biharko gure Herria, biharko Eliza berria.

Baditugu herritarrak gaurko Elizan, baina Euskal Herritik kanpo apezpiku kargu handitan jarriak, hala nola Olzomendy baigo-

rriarra Singapurren; Etxegaray ezpeletarra Marseillan. Ez ditut, bada, horiek aipatuko, baina bai horien artaldeetan lanean ari diren bi euskaldun gazte.

Batek idazten zidan Singapur aldetik: “Nahi dut sinetsi Eliza hau Jesusen Eliza dela, baina ez da beti errex. Behatzen delarik honen itxurari. Jasan behar dela ere ez baita besterik. Jondoni Petrik ziona Jesusi: Zu utz jauna, baina nora joaiteko?”.

“Hemendik harat zer eginen dutan ez jakin. Orai artinoko misionestek egin dutena segitu behar badut, nahiago dut Europara itzuli. Heien jokatzeko maneran ez dut parterik hartuko. Beste zer-bait beharko dugu pentsatu era ene gostuko egin ditakena da”.

Besteak, aldiz, jakinarazi dit Marseillatik nola giristino multzo batek idatzi dion bere apezpikuari urte sainduari buruz. Badu horrek urtea. Urte saindua egiteko nahiko zuten egin zedin egiazki, liburu sainduek aipatzen duten bezala, bakea eta barkamena eskainiz behardun orori. Eta fedegabeei edo gobernuei kontseilu eta deika hasi baino lehen, Eliza buruzagiek bere eman dezatela etsenplua, hala nola dibortziatei barkamena eskainiz, protestanteei buruz bakezko urrats berriak eginez, hots, Elizatik eliza legeak eta buruzagiek urrundu dituztenei atea berriz irekiz.

Ez dut erranen noiz eta zer ihardespen izan duten, Marseillako apezpikutegitik ez baita errazki atzematzen gaurko Elizan apezpikurik, berak ez badu erabaki ausartegirik hartu nahi ere, bere fededunen boza Erromaraino publikoki helarazteko on denik. Baina, fededunak berak boza altxatzen hasten badira, Marsellan edo Baionan, etorriko zaigu menturaz orduan, mintzatzen bazekiten artzain handien eguna, Añoveros, Ambrosi, Xipirine eta Jondoni Pauloren eguna!

Guretzat ere Euskal Herrian, Eliza berriaren eguna, ordua.

*Piarres Xarritton*

## Liburuak eta dokumentuak

- AÑOVEROS, Antonio, Bilboko apezpikuaren gutuna: 1974/2/24.  
IPARRETARREk Banakako familiei Iparretarrek bidali letra.  
BARBIER, Albert, apaizgaiak Fontenay-tik igorri letra 74/6/5.  
BERETERBIDE, Urdinarben dagoen apaizaren gutuna, Baionako Santaman Elizako gose grebaren ondotik idatzia, *Miroir de la Soule*, 74/4/6.  
DOMINTXINeko irakasle batzuek bidali paperak.  
EYT, Pierre: *Foi chrétienne et culture*, Baiona, 74/3/20. Polikopiatua.  
LANATUAK, Manex, Baionako Seminariotik igorri letra, 74/4/5.  
LIPUZKOA, Manu E.: *La iglesia como problema en el País Vasco*, Ekin, Buenos Aires.  
OURET, Xarles, apaizak Donibane Garazitik igorri letra (197/5/9).  
RAPPORT au Conseil du Presbytérium, Mauléon, 74/6/13-14.  
UGALDE, Martin: *Síntesis de la historia del País Vasco*, Madril.

## Kazetak

- Bulletin diocésain*, Baiona: 1974/7/24.  
*Esprit* aldizkaria, Paris, 1974ko otsaila.  
*Zabal* bi-hilabetekeria, Baiona: 73-74.  
Eta, bestalde, neure kontu ditudan T.S., L.A., G.A., M.E. eta beste adiskide batzuen eskutitzak.





# **PEDAGOGIA SAILA**





## Luis Maria Aristegi

Luis Maria Aristegi Zumaian jaio zen. Bizibidez Banco Vizcaya-ko lankidea bere sorterrian bertan. Pariseko Vincennes VIII. unibertsitatean Soziologiako Lizentziatura lortu zuen. Mendizalea. 1976an Tanzaniako Kilimanjaro mendi gailurra, 5.855 metrotakoa, gainditu zuen. Eta euskaltzalea. Donostiako Musika Hamabostaldia txalotzen du, euskara, behar den neurrian erabili zuelako (*Berria, Info*, 2008-09-10). Zumaiaiko “Inpernu” elkarteak argitaratzen duen *Orrua* aldizkarian, 1. zenbakian, idazten du.



# Ikastolak Hegoaldean<sup>1</sup>

## Sarrera

Azkeneko urte hauetan giro nahastu eta korapilatsua dago Euskal Herrian borrokatzen direnen artean. Eta giro horren eragina gogorki nabari da ikastoletan ere. Izan ere, ikastolen sorrera eta ondorengo bilakaera beti egon dira halabeharrez Euskal Herriko egoera soziopolitikoari arras loturik. Horregatik, bada, ezin harri gintezke herri borrokaren une bakoitza eta gorabehera guztiak beste inon baino gehiago ikastoletan eragiten badute. Are gehiago, talde politiko guztiak, ikastolen hedatzea eta garrantzia ikusirik, horiek menperatzen eta bakoitzak bere jokabidera ekartzen gogor saiatzen direla ohartzen gara.

Badira urte batzuk polemika, istilu, etiketa jartze, elkar salakuntza eta antzeko kalapitatik atera ezinik gabiltzala. Gauzak ez du oraingoz konpontzeko itxurarik.

Giro honek denbora luzean jarraitzeak badakar arriskurik. Alde batetik, ikastolen beharra garbi ikusten duelako, horiek aurrera atera ezinik lanean dabilen jenderik bada. Beste aldetik, berriz, talde politikoen eragina eta azpijokoa garbi ikusten ez dutenak daude. Jende hau, alferrikako eta kaltegarri iruditzen zaizkien horrenbeste eztabaida eta kalapita ikusirik, guztiz aspertuta eta nekatuta bezala dago. Honela, zenbait irakasleri entzun izan diegu esaten: “Politika egin nahi dutenak doazela beste leku batera. Utz diezagutela bakean pedagogia eta irakaskintzako teknikak ikasten eta lantzen. Ikastoletan ez dugu politikarik nahi”.

Eta jarrera hau arrisku bat dela diogu, zeren, politikaren ukatzearekin batera, joera politiko guztiak maila berdinean epaitzen

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 5, Urtarrila-otsaila, 1974, I-IX orr.

baitira eta denak batera ukatzen ere, hots: joera abertzaleak eta ez direnak, ikastolak aurrera atera nahi dituztenak eta beren joko politikoa egiten bakarrik dabiltzanak, edo beren lineako ikastolarik lortzen ez badute, horiek desegiteko prest daudenak.

Hasieran esan dugunez, ikastolak beren sorreratik egon dira egoera soziopolitiko bati loturik; errealitate hau, gogoko izan ala ez, ez da aldatuko bere aitzinean begiak itxita. Ikastoletan ez dago neutraltasun politikorik, bizi garen gizartean ere neutraltasun politikorik ez dagoen bezala. Eta ikastolez arduratzen den edonori beharrezko zaio ikastola barneko joera ezberdinak ezagutzen saiatzea eta horiei buruz jarrera bat hartzea.

Horrenbeste iskanbilarekin aspertuta eta nazkatuta egotea konprenigarri da, baina zuzen dabiltzanak eta oker dabiltzanak, guztiak batera gaitzetsiz, ez da ezer konpontzen. Ezer ez jakin nahi izatea, norberak bere jarrera ez agertzea, oso patxarakoa izan daiteke, baina, agian, horixe izango da modurik ziurrena edozein joera, nahiz kaltegarriena izan, ikastola barnean nagusi izan dadin. “Mayoría silenciosa” delakoaren pasibotasunak beti ondorio kaltegarriak ekarri ditu, eta beldur gara ikastoletan ere horrelako zerbait ez ote den gertatzen. Hau da, talde handi bat apolitizazioaren mitoaren aitzakian lotan dagoen bitartean, beste talde batzuek helburu politiko oso konkretuekin nahi duten guztia egitea ikastolen kaltetan.

Eta norbaitek hau irakurtzean “fantasmak” ikusten ari garela pentsa badezake ere, espero dugu lantxo honen ondorengo orrialdeetan gure baieztapenen funtsa argituko dugula. Hori da bederen gure helburua: ikastolaren problematika politikoa aurrez aurre, irakurleari bere lekuan jartzen lagunduko dion argibide bat eskaintzea, bide batez oker eta kaltegarritzat dauzkagun joera batzuen kritika eginez.

Baina gaian sartu aurretik eta gure lan hau kokatzeko, bi ohar egin nahi ditugu.

Lehenik, egun ikastoletan nabari ohi diren joeren artean, guxtienez bi korronte aurkitzen ditugu, gure iduriko, kritikagarri direnak. Nolabait esateko, bat *eskuinekoa* da eta bestea ezkerrekoa, edo hobeto esateko, *ezkerkeriazkoa*. Bai korronte bat eta bai bestea, ez dira guztiz homogeneoak edo berdinak, baizik eta talde batek baino gehiagok osatzen dute. Baina talde horien artean, eta askotan azalekoak baizik ez diren diferentzia batzuk gorabehera, badago sa-

konean komuntasunik; horregatik, bada, nola batzuk hala besteak linea edo korrante nagusi batzuen barnean kokatzen ditugu.

Gure artikulu honetan, ezkerreko era iraultzaile bezala beren buruak azaltzen dituzten zenbait taldek osatzen duten joeraren kritika mugatzen gara hemen. Baina honek ez du esan nahi eskuineko indarrek osatzen duten linea bestea bezain kritikagarria ez denik.

Halere, egun, teorian baino gehiago praktikan ematen dela uste dugu eskuinekoen eragina. Euskaldun burges txiki eta erdiko batzuen interesek determinatzen dute joera honen nondik norakoa. Alde batetik, ikastoletan dabilen beste jendeak baino diru gehiago du eskuin honek; eta, bestetik, Eliza tarteko dela bere agintea ezartzeko duen posibilitateengatik, ikastola askotako zuzendaritza bere esku dauka. Aitzitik, teoria mailan, joera hau guztiz ahultzat jotzen dugu. Ideologiaz atzerakoa da, jauntxokeriaz eta apaizkeriaz kutsatua. Adin bateatik gorakoan artean oraindik ere nagusi bada ere, ez dugu uste joera honek gaurko gazteriarri buruz ezer egitekorik duenik.

Baina gure artikulu hau maila teoriko eta ideologikoa izanik, ez dugu uste beheraka erortzen ari diren planteamenduak botatzen denbora galtzea merezi duenik.

Besterik gertatzen da, ordea, ezkerrekoen joerarekin. Hauek oraingoz ez dute eragin handirik praktikan bederen; alabaina, horien teoriak, paperean batez ere, aurrerakoiak bezala agertzen zaizkigu. Zapalduen defentsa, langileriaren interesak, eta abar, errebindikazio hauek hartzen dituzte ikurtzat. Berez jatorrak diren helburu horiek bide direla, irakasle gazte askorengan oihartzunik aurki dezakete, haien idealismoaz eta formazio politiko ahulaz baliaturik. Beraz, beharrezkotzat jotzen dugu korrante horretan dabilen zenbait talderen eta jenderen planteamenduak aztertu eta kritikatzeari, aho betean predikatzen diren helburu jator batzuen aitzakian egon daitezkeen beste helburu ez hain jator eta ez hain garbiez kontzientzia hartzeko.

Eta uste dugu honaino esandakoak gure aukeraren zergatia argitzen duela.

Bigarrenik, gure lanaren ardatza ikastola izango bada ere, honekin zerikusi estuan aurkitzen diren zenbait gai, eta bereziki hizkuntza, ukitzea beharrezkoa ikusi dugu. Zeren, hizkuntzari buruz egiten diren zenbait planteamendu eta ikastolari buruz egiten direnak, logika beraren umeak dira eta elkarriz loturik doaz. Horregatik, ezinezkoa ikusi dugu gai bat behar bezala aztertzea, bestea aldi berean ukitu gabe.

## Ikastolak burgesak?

Azken denboretan zenbait jendeak zalaparta handiarekin jantziak urratuz, ikastolak burgesak direla “deskubritu” du. Gainera, lehen hala ez ziren ikastolak ere gero eta gehiago joango lirateke burgesiaren eskuetan erortzen:

“Egunetik egunera ikusten ari gara, nola ikastolak, abertzale aurretirakoi eta sozialista euskaltzale eskuetatik ihes egiten ari dirazela, ta kontserbatzaile eskuetan erortzen...” (*Berriak*, 13 zk.).

Baieztape hauek eta antzekoak gure artean oso zabaldurik dagoen jokabide baten emaitzak dira, hots, errealtatearen inongo azterketarik gabe, bakoitzak buruan duen eskematxoaren arabera epaitzen da guztia, bizitza errealararekin zerikusirik baduen ala ez aztertzen kezkatu gabe. Honela, norberak alde aurretik frogatu nahi duena frogatzera iristen da, nahiz eta astakeriarik biribilena izan.

Ikastolez zerbait dakien nornahi konturatzen da, hauek sortu zirenean euskal abertzaletasunaren pentsamolde nagusiari zegokion euskal burgesia txikiaren ideologiarena zela, hots, PNV/EAJrena eta kidekoen ideologiarena. Eta ikastoletan ere, hauek abertzaletasunaren emaitzak izanik, ideologia hori izan da urteetan nagusi, beste inongo kontestazio handirik gabe, gainera. Egoera honek gutxi-gorabehera 1969. urte arteraino irauten du. Belaunaldi berrien borrokan parte hartzeak erradikalizazioa eta ezker joerako abertzaleen indartzea ekartzen du, aldi berean EAJren planteamendu berrizale edo erreformistak gainditzen direlarik.

Bilakaera horren eragina ikastoletan ere biziki nabaritzen da. Gero eta irakasle gehiagok du joera berri horien eragina. Honela, bada, ordura arte erabat nagusi zen ideologia bere nagusitasuna galtzen eta kolokan jartzen hasten da. Baina oso konprenigarria denez, euskal burgesia abertzalea abiada horretaz ohartzen delarik, ez da besoak gurutzatuta gelditzen. Hain garrantzizko erakunde bat bere menpekotasunetik ihes egiteko bidean ikusirik, bere jarrerak gogortzen ditu eta klase honetako elementurik atzerakoienak “gurutzada” antzeko zerbait muntatu nahian hasten dira, alde guztietan “marxista”, “maoista”, “ateo”, eta abar, ikusiz eta salatuz, honela herriko guraso eta jende xehea bereganatu nahirik. Eta uste dugu gaur egun oraindik egoera honetan aurkitzen garela.



Ikastolen bilakaerari oso azaletik egindako begirada honek zenbait konstatazio egiteko balio digu. Honetara gatoz.

a) Ez da egia lehen abertzale aurrerakoi eta sozialisten eskuetan ziren ikastolak orain burgesen eskuetan erortzen ari direla. Ikastolak ere herri borrokaren erradikalizazioarekin batera etorri dira bilakatzeko, egunetik egunera aurrerakoiago, hain zuzen ere. Globalean hitz eginda behintzat, uste dugu ikastolak inoiz ez direla izan gaur baino aurrerakoiagoak. Baieztapen honi ez dio ezer kentzen, ikastola batzuk aurrera egin ondoren, edo, behar bada, aurrera azkarregi egin nahi izan dutelako, berriz ere elementurik atzerakoiaren kontrolpean erori direla aitortzeak.

b) Ikastolak herri borrokatik sortuak izanik eta herria klase batek baino gehiagok osatzen dutela jakinik, garbi egon behar lukeela uste dugu ikastolak ez daudela klase borrokatik at. Ezin uler dezakegu, beraz, bere burua marxistatzat daukan jende baten harri-dura. Euskal burgesia abertzaleak bere nagusitasuna ahal duen bezala defenditzen saiatzeari guk guztiz normala deritzogu. Burgesiak, besteak beste, bere klase interesak ere jarraitzen ditu. Euskal abertzaleen artean klase interes ezberdinak daudela egiaztatzea bidezko eta beharrezko da. Horregatik, gure iritziz, egun daukagun borroka baino mila aldiz gehiago harrituko gintuen, baldin eta burgesia euskaltzale hori, orain arte ikastoletan izan duen nagusitasuna galtzeko zorian ikustean, ezer egin gabe gelditu izan balitz. Horrelako jokabide bat orain arte historiak erakutsi digun guztiaren aurka joango zen, hots: inork ez du bere agintea uzten horretara behartu izan ezik.

Beraz, gauza bat da gure artean ditugun kontraesanek jakitun izatea eta beste bat, oso diferentea, gainera, ondoren ikusiko dugun bezala, kontraesan horiek absolutizatu eta gure borrokaren funtsa eta helburu nagusi nahi izatea.

## Ikastolak eta ezkertiareria

Aipaturiko joera ezkertiarren aztertzeari jarraituz, ikus dezagun hauek, ikastolen burgeskeria gogor salatu ondoren, zer proposatzen diguten aurrera begira.

Dioenez, ikastolak bi bide dauzka: edo jauntxo eta apaiz atzerakoiaren eskuetan erori, edo orain arteko autarkia (?) hautsiz gero,

irakaskuntza guztiarekin batera estrategia orokor batean integratu, guztiak batera irizpide libroaren eta bereziki elebitasunaren alde jokatzeko. Eta garbi esaten zaigu lehenengo bidetik doazen ikastoletan lan egitea baino hobe dela horiek bertan behera utzi eta eskola nazionaletan lan egitea:

“Gure ustez premia gehiago dauka bide hortan (eskola nazionaletan) lan egiteak (nahiz eta nekea eta luzea izan), ikastola kontserbadoretan denbora galtzea baino....” (*Berriak*, 13 zk.).

Irakaskuntza ofizialarekin batera borroka berdinean integratzeko ematen diren arrazoiak ez dira oso garbi azaltzen. Batzuetan langileen semerik gehienak eskola horietara doazela aipatzen da. Hurrengoan, berriz, eskola horietako maisuak ere irakaskuntza burgesaren aurka borrokatzen ari direla, edo euskararen aldeko interesak izan ditzaketela, esaten zaigu. Eta betiere, elebitasuna irakaskuntza guztian sartzea jartzen da helburu nagusietako bat bezala.

Honek guztiak zer iritzi merezi digun?

Oso luze joko luke proposamendu horietako bakoitzaren nondik norakoa eta ondorioak sakon aztertzeak. Baina puntu batzuetan bildurik bada ere, planteamendu horiek sortarazten dizkiguten zenbait gogoeta azaltzen saiatuko gara.

a) Herriak bere askatasunaren aldeko borrokan sortutako ikas-tolak batetik eta estatuak goitik behera ezarritako eskolak bestetik, biak elkarren pare jartzea ezin onar dezakegu. Ez dugu konprenitzen “marxista” horien burubidea. Zeren, lantokiaz ari direlarik, oso garbi ikusten dute langileek sortutako erakundeen eta estatuak ezarritako sindikatuen arteko diferentzia. Eta estatuaren sindikatuekin ez dute inolako harremanik onartzen, horrelakorik proposatzen duena erreformista bezala gogor salatuz.

Baina sindikatu ofizialak eta irakaskuntza ofiziala ez ote dira, bada, estatu beraren tresnak? Bakoitzak bere erara, bai; baina ez al dute biek eginkizun bera, hots, estatuaren jabetasuna duen oligarkia eta goi burgesiaren interesak zaindu eta zerbitzatzea? Zergatik lantoki mailako borroka sindikatu ofizialaren kontra egin behar da, eta irakaskuntza mailako borroka, aldiz, irakaskuntza ofizialaren bidez? Batean eta bestean kolaboratzea ez al da era berdinean erreformismoan erortzea?

b) Baina oraindik urrutiagora doaz ezkertiar izeneko hauek. Ez dira ikastolentzat eta eskola ofizialentzat bide orokor bat pro-

posatzearekin bakarrik konformatzen. Horretaz gainera, bata eta bestea epaitzerakoan, ni neurri diferente erabiltzen dituzte; hain zuzen ere, ito beharrean dabiltzan ikastolak epaitzen askoz zorrotza-  
goak dira zapaltzaileen eskolak epaitzerakoan baino.

Horrela, ikastolak gaitzesteko, ikastola batzuetako zuzendaritza atzerakoa salatzen dute, baina ikastola horietan dauden irakasle eta guraso aurrerakoiez ez da ezer esaten. Gainera, horrelakoetan ikastola horiek utzi eta eskola nazionaletan lan egitea proposatzen da.

Eskola nazionalak epaitzerakoan, berriz, hauen nagusia nor den “ahazten” zaie. Bestalde, egon daitezkeen maisu aurrerakoiak bakarrik aipatzen dira. Jokabide honek erakusten digunez, “ezker-tiar” hautatzen euskal burgesia txiki abertzalea etsai handiagoa da espainiar estatua eta honen nagusi den goi burgesia baino, zeren, ikusi dugunez, interesgarriago jotzen baitute hark zuzendutako ikastoletan baino estatuaren eskoletan lan egitea.

Planteamendu honen ahulezia ikusteko ez da oso azkarra izan behar. Nor ez da konturatzen ikastolak, oro har, bai bere ideologian eta bai pedagogian, beste eskolak baino aurrerakoiagoak izan direla, eta direla, egun? Are gehiago: har dezagun ikastolaren zatirik atzerakoiena, jauntxokeriak eta apaizkeriak menperatzen duen hori, alegia. Nork esan lezake ikastola horiek eskola nazionalak edo moja eta fraideen erdal ikastetxe pribatuak baino atzerakoiagoak direla? Badakigu, jakin, besteak gaizki egotea ez dela kontseilagarri; baina zergatik gure akatsak hain gogor salatzen dira, baldin, bestalde, akats horiek berak, edo handiagoak, isiltzen badira gure etsaien eskolez ari direnean? Hitzetik hortzera langileriaren interesak aipatu arren, jokabide hau objektiboki noren zerbitzuan dago?

d) Eskola nazionalen izaera eta eginkizun zapaltzailea ez da baltere aldatzen eskola horietara langileen seme asko doalako. Izan ere, eskola horiek langileriarentzako eskolak dira, baina ez horregatik langileriaren eskolak. Bereizketa hau funtsezkotzat jotzen dugu gauzak alferrik nahasten ibil ez gaitzen.

e) Elebitasuna hezkuntza sistema osoan sartzeari interesgarri deritzogu, baina hori lortuko ez balitz ere, ez litzateke horregatik ikastolaren beharra inolaz ere amaituko. Ikastolek, euskaraz erakustez gain, badute zereginik asko haurren heziera jator bat lortzen, eta egungo baldintzetan badakigu heziera hori ez digutela inon emango, ikastoletan izan ezik, eta inon baino gutxiago oraindik es-

tatuko eskola nazionaletan, nahiz eta egunen batean, beren politikaren justifikagarri bezala, euskara apur bat erakusten badute ere.

## Euskara eta elebitasuna

Eta hizkuntzaren arazoa ukitu dugun ezkerero, ikus dezagun honetaz zer planteamendu egiten dizkiguten. Adibidez, Hazparnen ikastoletako irakasleentzat eraturako lehen ikastaldian gai honetaz zen materiala Eusebio Osaren izena zeraman txosten bat izan zen, ikastaldiaren eratzailleek zentsuratutako beste txosten bat aparte.

Osaren lana beste zenbait panfleto baino landuago eta osatua goa iruditzen zaigu. Bertan hizkuntzari buruz egiten diren zenbait gogoeta aintzakotzat hartu beharrezkotzat jotzen ditugu. Baina bere planteamendu guztia faltsutzen duena baino gehiago isiltzen duena da. Zeren, Osak arazo guztia euskararen barnean kokatzen du; burgesiaren euskara eta langileriarena kontrajartzen ditu; euskara *zer* esateko den, noren zerbitzuan dagoen, eta horrelako galderak egiten dira. Inoiz “euskara bai” esaten digu, “baina zein praxia sozialaren zerbitzuan? Hor dago gakoa”, gaineratzen du ondoren.

Osak ez digu inongo argibiderik ematen euskaraz egiteko arrazoiez, zeren, azken, finean, garrantzia duena *zer* esaten den baldin bada, zer axola dio euskaraz ala erdaraz egin, esaten dena zuzen izan ezkerero? Honetaz ez zaigu erantzunik ematen, hain zuzen ere, Osak darabilen eskemarekin ezin baitezake erantzun hori eman. Analisi osoa eta kontraesan guztia euskararen barnean kokatuz gero, erdaraeuskara kontraesana erabat baztertzen du eta, honela, bere analisisa gezurrezko oinarri batean finkatzen du. Agian, bere planteamendu aski ona izango zen Valladoliden gaztelaniari buruz egina izan balitz, edo Parisen frantsesari buruz; herri zapaldu baten hizkuntza zapalduari buruz egina izateko, ordea, guztiz hankamotz gelditzen da.

Bizi dugun eguneroko errealtateari begiratu ezkerero, edonor jabetzen da, egun hizkuntza mailako kontraesan nagusia ez dagoela burgesiaren euskararen eta langileriaren euskararen artean. Espainiako eta Frantziako estatu zapaltzaileen gaztelania eta frantsesaren eta herriaren euskararen artean, hor dago lehen kontraesan nagusia. Eta errealtate hau ez da batere aldatzen han edo hemen nagusi euskal-

dun batek langile erdaldun bat zapaltzen duela aitortzeak. Estatuen aparatu guztia eta goi mailako klaseen hizkuntza *erdarazkoa* da. Nahiz eta burges handi hauek batzuetan jatorriz euskaldunak izan, erdaraz betetzen dute beren eginkizun zapaltzailea. Horregatik, hizkuntzari buruzko azterketa batean alderdi hau guztia alde batera uztea ezin onar dezakegu inolaz ere. Aitzitik, uste dugu, hizkuntza atzerritarren menpean zapalduta galbidean aurkitzen den une hone-tan, iraultzaile batentzat lehenengo eginkizuna nazio hizkuntzaren alde borrokatzea dela zapaltzaile guztien aurka, eta ez gure artean batzuekin gertatzen ari den bezala, euskara mintzatuz ere zapaltzaile izan litekeela “deskubritzen” jardutea, batez ere.

Eta zer esan hizkuntzarekiko arazo guztiaren konponbide beza-la elebitasuna proposatzen diguten talde politikoei buruz?

Horien praktika guztiak erakusten digun bezala, beren postu-ra hori oso itxura demokratiko batez arazoa likidatzeko modu bat besterik ez dela. Hasteko, gehienetan elebitasuna predikatzen du-tenek berek ere ez dute praktikatzen, zeren beren idazkiak erabat erdaraz argitaratzen baitituzte, edo gehienez ere, konplitzeko, ga-rrantzirik gabeko artikulutxo bat baino ez baitute egiten euskaraz. Jokabide honek objektiboki zapaltzaileen jokoa besterik ez du egiten, abstrakzio huts baizik ez den elebitasunaren aitzakian.

Bai, gure herrian hiru hizkuntza egiten direla emanik, beha-rrazkoa da elebitasun efektibo bat lortzea. Bide horretatik igaro behar-rean baikaude, taktika mailako urrats bat bezala izango da. Baina herri kontzientzian oinarrituta, hizkuntzaren aldeko borroka une eta leku guztietan gogor planteatu behar-rean, zapaltzaileei elebita-suna eskatzen jardutea, hori hizkuntza mailan dugun helburu guztia bezala, azken finean zentralismoak bortxaz lortu dituen posizioak onartzea besterik ez da.

Benetan bitxia da beste maila batzuetan hain erradikala den jendea, hizkuntza mailan Opustarrek berek ere onartuko luketen jokabide batekin kontent izatea. Eta halaxe da!

## Ondorio gisa

Honaino kritika moduan agertutako guztiaren ondorio bezala, gure iritziz ikastolari buruzko planteamendu zuzen baten oinarriak puntu batzuetan bilduta azaldu nahi ditugu.

1) Ikastolari bai. Ikastolak herriak bere askatasunaren alde daraman borrokaren fruitu ditugu. Urteetan zehar borroka horrek eman duen fruiturik jorienetako bat, hain zuzen ere. Gure kultura eta hizkuntzaren aldeko ekintzarik garrantzizkoena 1936ko gerraz geroztik.

Beraz, ez dugu onartzen herriak bere nekez eta izerdiz sortutako ikastolak eta zapaltzaileak ezarritako eskola ofizialak elkarrekin berdintzea eta guztiak estrategia berdin baten barnean integratzea. Ikastolak gure borrokan behar-beharrezkoak ditugu eta beharrezkoak izaten jarraituko dute inoiz irakaskuntza ofizialean hala-moduzko elebitasun bat lortuko balitz ere.

Horregatik, bada, ikastolak hedatzen eta indartzen saiatu behar dugu. Ikastolak desegin nahi dituzten kanpoko eta barneko etsai guztien aurka borrokatu behar gara.

2) Ikastolari baiezko biribil bat emateak ez du inolaz ere edozein moduko ikastola berdin zaigula esan nahi. Badakigu, ondo jakin ere, ikastolek akats eta hutsune asko dauzkatela. Baina, hori dela eta, ez dugu jantziak urratu eta guztia bertan behera utziz alde egingo. Ikastolak gero eta hobeak, gero eta aurrerakoiagoak, gero eta herrikoiagoak, egiten saiatu behar dugu, ondo doazenak bide horretan sendotzen ahaleginduz eta gaizki dabiltzanetan egoera alda dadin bideak urratuz.

3) Egungo egoeran klase bakar batentzako ikastolak eskatzea utopia hutsa da. Ikastolak beren sorreratik herrikoiak izan dira eta beharturik daude bizi ahal izateko horrela izaten jarraitzera. Beraz, ikastolen barnean klase bat baino gehiago dago, hots, klase herrikoi guztiak tarteko dira eta elkarrekin bizikidetzara aurkitu beharrean aurkitzen dira.

4) Aurreko puntuak ezartzen dizkigun kondizionamenduak kontuan harturik, ikastola barnea politika ezkertiar baten oinarriak honela ikusten ditugu:

a) Ikastola barneko klase herrikoiaren artean badago interes komunik nazio eta hizkuntza zapalketari buruz, baina baita ere kontraesanik, batez ere, beren interes ekonomikoetan. Beharrezkoa zaigu gure analisia egiterakoan bai komunitasunak eta bai kontraesanak aintzat hartzea. Bestela, alternatibismo faltsu batean eror gintezke.

Lehen elkartzen gintuena bakarrik hartzen zen kontuan; orain, aldiz, batzuek kontraesanak bakarrik dituzte goioan eta, horiek ab-

solutizatuz gero, ikastolen izateko arrazoia bera zalantzen ipintzen zen.

b) Ikastolen barnean interes ezberdinak dituzten klaseak egonik, normala da klase horietako bakoitza bere interesak aurrera eramaten saiatzea, horretarako beren nagusitasuna eta beren ideologia ikastoletan ezartzen saiatuz. Horregatik, ez da batere harritzekoa ikastoletan orain arte nagusitasuna izan duen burgesia txikia beren aginteari eusten saiatzen bada.

d) Gure egitekoa, sozialistak bezala, ikastolak gero eta gehiago euskal langileriaren interesen zerbitzuan jartzera mugatzen dugu. Baina hau ez dugu lortuko ikastola sozialistak behar ditugula oihukatuz, edo gure bidean oztopoak ipintzen dizkigutenei anatemak botaz. Aitzitik, beharrezkoa dugu, ikastola bakoitzaren baldintzak ezagutuz gero, oreka hautsi gabe ahal dugun urrutien joatea aurrerabidean, egunetik agunera ikastola barneko indarren harremana gure aldera ekartzen saiatuz. Honek etenik gabeko lan luze bat eskatzen du irakasle eta gurasoen artean, zeren ezin ahantz baitezakegu joerarik atzerakoienak ikastola barnean nagusitu direnean, guraso gehienak ideologia atzerakoi horien eraginpean aurkitzen direlako izan dela.

e) Ikastola barneko borroka honetan alde aurretik dakigu batzuetan irabazle aterako garela, beste batzuetan indarririk atzerakoienak nagusituko diren bezala. Baina bai kasu batean eta bai bestean, euskal burgesia txikiarekin ditugun kontraesanak oso errealak izanik ere, ez dugu ahantzi behar gure etsai nagusia egun ez dela burgesia hori, Espainiako eta Frantziako estatu erdirakoiak eta hauen jabe diren oligarkia eta goi burgesia baizik.

5) Sarrerakoan adierazi dugunez, ez dugu sinesten ikastolen apolitikotasunean eta uste dugu hauek behar-beharrezkoa dutela beren nondik norakoa markatuko duen norabide politiko bat.


Horrek ez du esan nahi, ordea, ikastolek inongo talde politikoren menpetasunean jokatu behar dutenik. Herri borrokaren barnean ikastolek beren autonomia osoa behar dute, talde edo alderdi politikoen gorabeheren jostailu bilakatu gabe. Bidezkoa da herriaren alde ari diren taldeek ikastolari laguntzea. Baina laguntza horren baldintza ikastolak erakunde berezi bezala hartzea da, eta ez, laguntzaren aitzakiaz, bakoitzak bere politika eta bere helburuak lortzeko tresna bat bezala erabiltzea.

6) Ikastolako praktika gidatuko duen teoriak, ikastoletako praktikan eta borrokan funtsatua egon behar du eta ez atzerriko ezkertiarraren artean modan dabilen teorien kopia hutsetan. Teoria horien ezagutzea aberasgarritzat harturik, laguntza bat izan dakiguke gure teorizatze lana egiteko orduan. Baina onartu ezin duguna zera da: nazio eta hizkuntza zapalketaren problematik at kokatzen diren teoriak hartu, adibidez *L'école capitaliste en France*, edo antzekoak, eta gutxi-gorabehera hitzez hitz kopiatu eta, ondoren, gure irakaskintza mailako arazoen erantzun bezala proposatzea.

Gure bidea geuk aurkitu behar dugu eta horretarako beharrezkoa dugu errazkeriak alde batera uztea eta, Leninek zioen bezala, “errealitate konkretuaren analisisa konkretutik” abiatuta egitea.

*Luis Maria Aristegi (“Errezabal”)*





## Manex Goihenetxe Etxamendi

### Ibilbide profesionala

Manex Goihenetxe Etxamendi Nafarroa Behereko Ezterenzubín jaio zen 1942ko irailaren 22an eta Bearnoko Biscau mendian hil istripuz 2004ko maiatzaren 2an. Nekazari familia batean jaioa, Bretaniara joan zen ikastera. Batxilergoa Roazhonen atera zuen 1963an. Ploërmael-eko Anaien kongregaziokoa izan zen, 1972an utzi zuen arte. Okzitaniako Tolosan Historiako Lizentzia atera zuen 1969an eta irakasle lanean hasi zen. Paueko unibertsitatean maisu diploma atera zuen 1981ean. DEA delakoa 1982an. Eta doktoregoa 1984an. Irakasle lanetan aritu zen Oloruen, Lourdesen, Donibane Lohizunen eta Bretainiako Kasteillonan. Bi tesi eginak zituen, lehena Nafarroa Beherako Foru modernoaz eta bigarrena Ipar Euskal Herriko historiografiaz, *XVI. mendetik XIX. erainoko euskal historiaren analisia* izenburupean emana.

### Kultur ekintzailea

IKAS elkarteko idazkari izan zen 1972tik 1983ra bitartean eta talde honek, Euskaltzaindiko Jean Haritzelar eta Piarres Xarritonekin batera, lehenik Baionako Kultur Astea eta gero Udako UEUren ikastaroak paratu zituen Donibane Lohizunen 1973-1974an eta, segidan, 1975-1976an Uztaritzen, eta 1977tik 1979ra bitartean UEUko zuzendari izan zen. Seaska-ko lehen langile finkoa izan zen 1977-1981 epealdian eta 1981-2003 epealdian elkarte horretako irakasle lanak eta beste ardurak batzuk izan zituen Kanbo,

Baiona eta Ziburun, jubilatuz arte. Unibertsitate irakasle ere izan Paue eta Baionan.

## **Militante politikoa**

Abertzale bezain euskaltzale izaki, bietan utzi du uzta oparoa. Enbata eta EHAS alderdi politikoen sortzaileetako bat izateaz gain, Baiona Mendebaldeko kantonamenduko Kontseilari Nagusia izateko hautagaia izan zen 1999an.

## **Lanak**

- 1974: *Livre Blanc de la langue et culture basques.*
- 1975: *Les origines du problème basque.*
- 1979: *Pays Basque Nord: un peuple colonisé.*
- 1981: *L'oppression culturelle française au Pays Basque.*
- 1981: *Uztaritze au milieu du XIIe siècle.*
- 1984: *Les origines sociales et historiques d'Eskualzaleen Biltzarra (1893-1913).*
- 1985: *For et coutumes de Basse-Navarre.*
- 1986: *Bayonne: Guide Historique.*
- 1987: *Lapurdi Historian* (Elkar, Donostia).
- 1993: *Les Basques et leur histoire. Mythes et réalités.*
- 1997: *Histoire d'Anglet.*
- 1998: *Histoire générale du Pays Basque I.*
- 1999: *Histoire générale du Pays Basque II.*
- 2001: *Histoire générale du Pays Basque III.*
- 2002: *Histoire générale du Pays Basque IV.*
- Histoire de la Colonisation Française au Pays basque.*

Frantsesez egindako argitalpen horiez gain, baditu euskaraz egindako 46ren bat artikuluz luze eta 20ren bat ikerketa lan. Euskal Herriari buruzko historia lanetan oinarritzko erreferentziak dira bere idatziak. Bere idazlanak aldizkari askotan argitaratu zituen, *Herria*, *Enbata*, *Euskaldunak*,

*Egin, Egunkaria, Gara, Berria, Larrun-en, eta abar. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1975ean. Eusko Ikaskuntzako kidea ere izan zen.*



## Ikastolak Iparraldean<sup>1</sup>

### Kultura zapalkuntza

Euskara gure ama-hizkuntza galtzen ari dela, bereziki gure haurretan denek dakiguna da. Baina hein horretara lerratuak baldin bagara ez da beti gure ezaxolakeriaz ezta ere gurasoen faltaz. Egia da gurasoak askotan hobendun direla beren haurrak frantsesez mintzatzera uzten dituztelarik. Baina predikuan eta zinkurinka artzeak ez du deus balio ere. Gurasoek ahal dutena egiten dute, erran nahi baita gauza gutxi, zeren kultura egoera halakoa baita, egoera politikoaren araberakoa, frantses sistema eta frantsesezko tresnak hor baitira gure artean sartuak, sasiko laharrek bezala inguratuz.

Alde batetik, handitzera orduko, amaren altzotik kentzen dauzkate eta frantses eskolan emanarazten gure haurrak, alokairuak direla-eta. Frantsesa ikasteko, frantsesez mintzatzeko, hots, frantses bilakatzeko. Diozue gure haurrek zerbait ikasi behar dutela, eta eskola horretarako egina dela; bai, segur. Baina Euskal Herrian, frantses eskolaren xedea da frantses sisteman euskal haurren moldatzea, frantses bilakatzeko. Gure haurrek eskolan zerbait ikasten dute, baina euskara galduz, beren euskal nortasuna galduz. Horra hor euskara nola galdu den lehenik Euskal Herrian, eskolaren bidez ez eta familiaren bidez.

Bestela ere gure etxeetan frantses sistemak erro azkarrak eginak ditu. Etxeetako irrati-telebistan goizetik arratseraino frantsesa baizik ez da aditzen. Ohargarri da asteazken eta larunbat arratsaldetan gure haurrak nola egoten diren begiak aterata, ahoa zabalzabala telebistari so, handik frantsesez jagiten diren hitz eta argazki guztiak irentsiz. Euskal haurren frantsesteko zer trena paregabea!

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 5, 1974ko Urtarrila-Otsaila, X-XIV orr.

Parisen zenbaitzuek zer irri zuria daukaten! Euskaldunak frantses-tera bortxatuak direla? Euskal gurasoek berek dituzte beren haurrak frantseserazten.

Eta udan gure haurrak igorriko ditugu frantses kolonia edo udaleku batera. Handik etorriko dira asko kantu, istorio, joko eta josketa ikasirik... Frantsesez. Hots, etorriko zaizkigu hein batean gehiago frantsesetik.

Beraz, zer egin? Zinkurinka artzeak ez du balio; are gutxiago ilusio edo liluratzeak. Teorialariak ere baditugu, baina praktika gutxi daramate: euskararen eritasunaz grinaturik asko mediku dago, baina eritasuna nehorik ez du kentzen, ekintzarako asko herabe direlako.

## Urratsez urrats

Dena dela, duela bost urte, Baiona-Arrangoitze inguruetakoko guraso batzuk lanari lotu ziren eta ikastola xume-xume bat ireki zuten.

Ondoko urtean, 1970ean, beste bi ikastola ireki ziren Donibane-Lohizunen eta Baionan.

1971. urtean beste lau ikastola sortu ziren: Donapaleun, Endaian, Ziburun eta Senperen.

1972an, aldiz, ildo bera jarraikiz, bost ikastola: Uztaritzen, Azkainen, Hazparnen, Maulen eta Donibane Garazin.

1973an Ezpeletan 13garren ikastola irekitzen dute, baina denbora berean Donapaleuko eta Baionako ikastolak bikoiztu egin ziren.

Aitortu behar da, urte gutxi barne, jende batzuek –guraso, andereño eta laguntzaile batzuek–, lan gaitza eraman dutela eta horrelako lanaren finkatzeko behar zuela zinez kar, indar eta kemen.

Lan gaitza eta baita ondoriotsua ere, zeren eta ikastoletako andereñoek 2-6 urteko hurrekin lan izugarria daramate euskarari buruz eta ez dira horiek alferrezko hitzak: ikastolan 6 urtetaraino ibiltzen diren hurrek euskara dakite eta ongi. Ez da axaletiko lan bat, jakinez zer garrantzizkoak diren jende baten bizitzarako lehen sei urteak, epe labur horretan baitira moldatzen adimenaren eraikidurak, egiturak, eta finkatzen hizkuntza baten oinarriak eta zimen-dua. Ikusiz nola gaur egun frantses sistemak kultura bideek euskal kultura itsuski itotzen eta zapaltzen duten, ikastola baizik ez liteke

izan biharko euskal hizkuntzaren oinarri, zimendu eta askatasun bide.

Urratsez urrats bihotz handiko guraso-andeñero-laguntzaile talde batek ildo hertsu bat eraman du fermuki. Dozena erdi bat haurrekin hasitako gauza urtetik urtera goraka doa eta 300 haur nonbait Seaska-n daude, euskaraz hazirik.

## Ikastola eta kontzientzia

Gauza jakingarri eta interesgarria da Enbata-k duela, lehenik ikastola tokia prestatu Baionan. Euskal Herria bihotz baretik pindarretan zeukaten gazte batzuetatik abiatu da Iparraldeko ikastolen oldea, erran nahi baita abertzaletarik. Ez naiz nihaur Enbata-koa, baina aitortu behar dut Enbata-ko abertzaleek beti egin ahalak egin dituztela ikastolen alde, gurasoak lagunduz, haurrak bilduz, eta abar. Bada or irakaspen bat. Ikastolako oinarri eta zimendurik onena abertzaletasuna izan da eta izanen. Ez da harritzekoa azken urte hauetan baldin badira Iparraldean sortu ikastolak; gehienetan azken hamar urte hauetan abertzaletasunean hazitako familietatik etortzen dira ikastoletako haurrak. Hogeita hamar eta berrogei urte bitarteko gizaldiak piztu du eta zabaldu Ipar Euskal Herrian aberri kontzientzia. Eta horretatik sortu dira ikastolak. Baina horien ondolik etorriko diren gizaldiek funtsezko aberri kontzientziarik ukanen ote dute? Hori geroak erranen.

Bestalde, erran dezagun ikastola berez herri kontzientziaren aurreratzaile dela. Asko guraso, ikastolen bidez, ikastolari datzekiola dauden eginkizunei esker. Euskal kulturaren eremuetan sartu dira eta, horrela, beren euskaltzaletasuna iratzartu, azkartu eta sakondu; hori gauza jakina eta osasungarria da, egunero gurasoak gurutzatzen dituenak frogatzen ahal duena. Ikastolen bidez, ikastoletakoek egin dituzten kantaldi eta jaialdi batzuen bidez, euskal giro sakon bat sartzen da ikastolak diren herrietan.

Eta gero ez uste izan, joan den egunetako *Sud-Ouest* eta *Basque-Eclair* kazetetan idazten zuen jauntto baten arabera direla ikastoletako haurrak; ez luke iduri herriaren grina galdurik, Pariseko zokoetan gordez, beren bizia iraganen dutela, *ahalkez*, familia erdaran haziz, erretirarako bakarrik herrira itzuliz eta sukalde

zokoan gorderik zeuzkaten euskal espartin zaharrak jantziz. Euskal ahalkea gure antzinako gizaldiak ukan du, eta denbora berean herriaren galgarri izan da. Baina horrelakorik ez liteke izan ikastole-tarik jalgitzen diren haurretan; euskaraz eta Euskal Herriaz bihotza betea dutelako, frantses eskolan sartu eta ere ez dutelako ukatuko ikastola iturritik datorren euskal kalda.

## **Ikastolen eragozpenak**

Ez dut uste ogi bihi gaineko txoriak diren Iparraldeko ikastolak. Haste-hastetik ukan dituzte etsaikeria, eragozpen eta traba. Eta bistan da lehen-lehenik buruhauste franko daramatela urtero ikastoletako guraso eta laguntzaileek behar den dirua ezin bilduz. Nola frantses gobernuak ez duen fitsik ematen ikastolen laguntzeko, dirua nonbaitetik atera behar da, zakutik edo zorrotik. Dena dela, ez uste izan ikastolara haurrak aberatsek dituztela igortzen. Ez. Familia bakoitzari galdegina zaio bakarrik 20 libera hileru, eta ahal badiu. Orain arte nehorik ez du ikastolan haurra ez eman dirua izanez.

Egia da Kontseilu Jeneralak laguntza poxi bat ematen duela, baita hogeit bat herriko etxeek ere. Baina orotara departamentuaren eta herriko etxeen laguntzak Seaska-ko aurrekontuaren hamarretatik bat du betetzen. Beste guztia Seaska-k eta Seaska-ko ikastolek beren bizkar dute. Beraz, erakunde ofizialek ekartzen duten laguntza arras gutxi da. Zer diote ikastoletako ekonomia arazo horretaz Euskal Herriko erakundeok: U.D.I.B.k –baina hila omen da–, Lapurdiko Biltzarrak, Behe Nafarroak eta Zuberoako Auzapezen Elkarteak? Baita ere Euskal kultur batasunek?

Dena dela, ez dira beti ekonomiatik sortu ikastoletako korapilo zailenak. Tokika frantses eskoletako errient edo irakasle batzuek sortarazten dituzten eragozpenak ez dira txarrenak. Bistan da hemen nire iritzia pertsonala dudala agertzen. Baina gertatu diren eginkizunez mintzo naiz. Eta ahoan bilorik gabe aipatuko ditut, xixtako eta putartxo bildurik ere zenbaitzuek. Zeren eta ez da zuzen orain arte hain kartsuki ikastolak eraiki dituzten guraso, euskaltzale eta andereñoek, beti har ditzaten herriko jauntxo batzuengandik ziztako eta ostiko eskola eta sistemaren zerbitzari.

Oraino berrikitan Belokeko Beneditanoen komentura joan dira eskola libroko irakasle moko fin eta saindu batzuk. Eta nola



Ebanjelio iturriko asmaketak agortuak zituzten, ikastoletako liburu beltza ireki dute, poxi bat gehiago belzteko, komunistak, gorriak eta irri-egingarriak direla eta, eta bistan da “bazter nahasle”.

S.N.I. da, aldiz, “Syndicat National des Instituteurs” deitu eliza gorritxo bat, baina Frantziako amaño onaren esne zuria xurgatuz edaten duena. Eta Zubero alde horretan segurik haren fededunak elkarretaratzen direlarik ikastoletakoak ongi jorratzen dituzte. Eta asto beltzarenak ikusi behar ditu omen beren kideko batek haurrak ikastolan ematen baditu.

Jadanik aipatu dut nola ibiltzen diren batzuk Arrangoitzen etxez etxe, ez bakarrik haurren biltzeko, baina denbora berean herriko ikastolaren kontra beren pozoia botatzeko.

Donibane Lohizunen, aldiz, eskola libroko andere batzuen eta erretorearen lehen aiherkundera eztitu da ikusita ikastoletatik landa haurrak beren eskolara etortzen zirela.

Endaiako ikastola xumeak ere zerbait ikusi du ezin sortuz. Kontra zuen Endaiako burgesia, apez “euskaltzale” bat aitzindari.

Hazpainen, Senperen, Ezpeletan erretoreek azpijoko itsusiak eman dituzte ikastolaren kontra, horiek marxistak, gorriak, herriaren higuinagari, eskolaren, suntsitzaille eta bazterren nahasle.

Orain bederen euskaldunek jakinen dute nolakoa den horrelako jendearen “euskaldungoa” eta non dauden euskararen alde zintzoki jokatzten duten gizonak.

## Herriko ikastola

Halere, emeki-emeki, poliki-poliki, urratsez urrats, ikastolek beren “Seaska” apaindu eta azkartu dute. Orain Ipar Euskal Herri osoan zabalduak dira. Ikastola denei irekia da, herri guztiarentzat egina baita, Seaska-ko agiri batek dioen bezala:

“*Ikastola denentzat*. Ikastola ez da norbaiten ikastetxea, ez alderdi edo talde politiko, ez eta ere eliza batena. Da euskal mintzairaren eskola, eta euskal mintzairan hazten diren haurren eskola. Ez da erronka sozial bihi baten azpiko. Berexkuntzarik ez litake onar ikastola deneri idekia baita, Euskal Herri edo jende osoari.

Haurren multzoa ttipiago izan litake oraino gure ikastoletan alderdi edo erlijio baten esku pean bagine. Gainera ezina litake

diruz herri bakotxean ikastola berezi bat eraikitzea, edo ideologia edo erlisisio edo politika erakunde edo erronka sozial batentzat, zeren ikastola bakar baten kudeatzeko jadanik asko lan behar da.

Ikastola bat, politiko, erlisisio, sozial talde baten eskupean izanez, asko haur urrun litzazke bere ganik eta horrela euskarazko heziketa osatu baten jabe ezin litzazke.

Badira gure artean, ait'ama guzien artean, ikastolen artean politikazko, ideologiako edo erlisionezkko ezberdintasunak. Bainan denen gaintetik, senditzen dugu gutan indar bat, gogo azkar bat, hots batu nahi haundi bat, eta denen zimendu euskararen amodio bera, denek nahi baitugu gure haurrek euskara mintza dezaten, izan diten egiazko euskaldun. Hori da elgarri lotzen gaituena eta lokarri horren izenean ez dugu nehorekin lotura berexirik onartzen, edozoin motakoa izanik ere”.

Hots, herriaren zerbitzari dago ikastola, herriko ikastola da.

## Geroari buruz

Gauza bat argi eta garbi eman behar da: gaur egun Euskal Herrian beharrezkoak direla ikastolak, zeren eta ez baita beste biderik gure haurretan gal ez dadin euskara. Eta euskaltzale zintzoek berdin diote beren kemen osoa ikastolen alde eman baitute. Horrela dira zabaldu ikastolak Ipar Euskal Herri guztian.

Baina zabaltze horrek berez dakartza korapiloak.

### *a) Ikastolako lanaren jarraipena*

Dakigunaz Ipar Euskal Herrian legez 6 urteraino bakarrik dai-teke ikastola egin. Eta gure haurrentzat 6 urtetako muga hori oso txarra da, zeren eta lau urtez bildu uzta bet-betan galtzeko arriskuan baita. 6 urtetarik goitik haurrak frantses eskolan eman behar dira legez. Eta badakigu zer desmasiak daramatzen frantses eskolak euskal mintzairaren kalterako. Bada hor korapilo bat lehenbailehen trenkatu behar dena, Seaska-k bere gain hartu beharko duena, zeren ez baikaitu lagunduko frantses legeak.

Bestalde, euskal hizkuntzaren geroa segurtatzeko haurrak ikas-toletan ematea ez da aski, gero etxeratu eta haurrak erdarazko giro

batean hazten badira. Zer aurrerapen edo aintziramendu dakarte ikastolek, familian gurasoak beti erdaraz ari bazaizkie haurrari, telebistak arrats guztiz bere giro erdaldun higuingarria botatzen badu gure sukalde eta jangeletan.

Erran dezagun ere asteazken eta larunbata arratsaldeko euskal dantza eta pilota taldek ere euskararen galgarri direla bai Orai-Bat-ekoak, bai Oldarra-koak, bai Cesta Punta-koak, denak erdaraz ari baitira.

Udako oporretan handiek ere beren ondorio kaltegarriak dakartzate. Gure haurrak udatiarrak ez eta, zorigaitzez mugaz bestaldeko Bizkaia edo Gipuzkoatik, hiru hilabetez Herria erdaldunez beterik dago, guhaur geure herrian gutxiengo bat bilakatzen garela. Denbora berean, haurrak igortzen ditugu frantses “kolonia” batera, buru-muinak frantses kulturaz moldaturik etor daitezten.

Hemen ageri da ikastola zenbaitetaraino herrikoa den. Herrian sartua da eta, beraz, herriko bizitzan eta politikan. Herriak edo, hobeki errateko, herri gizonak daramaten saila bai ekonomia aldetik bai politika aldetik jasaten du ikastolak. Euskal kultur problema ez dezakegu bereiz beste ekonomia eta politika problemetatik, denak elkarri josiak baitira, euskal problema osoa delako. Baliteke hor ikastoletako arduradunen zenbait gogoeten gaia.

### *b) Seaskaren jarraipena*

Ipar Euskal Herriko ikastolaka Seaska baitan elkartzen dira, baina ikastola bakoitzak hein baterainoko beregaintasuna atxikiz. Zeren eta lehen-lehenik ikastola bakoitzeko gurasoen elkarte guztiz premiatsua baita ikastolen kudeatzeko. Elkarte horretan biltzen dira ahal duten aita-ama guztiak, denak elkarrekin, andereñoa barne, finka ditzaten urrats eta erabil moldeak, Seaska dela orekiko elkarbide.

Bistan da teoria eta praktika bide desberdinetatik joan litezkeela eta horrela gertatzen dela askotan. Zeren eta ikastolen handitze eta zabaltzeak behar ordu berriak sortarazten ditu; horiei ihardukitzeko aterabideak asmatu eta finkatu behar dira. Seaska barnean eta, beraz, ikastolen artean agintaritarik behar ote da? Eta nolakoak? Ez baldin bada behar, zertaz ordain liteke? Zer da ikastola baten helburua? Zein dira andereñoen eginbeharrak? Baina eskubideak ere badituzte? Zein dira? Nola kudea liteke ikastoletako eta Seaska-ko

lana? Andereñoen bizibide egoera nola hobetu? Hona hemen, nire iritziz, korapilo zailenak, zenbait borroka eta buruhauste sortarazi dituztenak. Gauzen haxean ematea ez baita erraz.

Dena dela, betidanik beren artean minbera eta kilikor izan dira euskaldunak, borroka maite dutela omen. Baina oroituta etsaia ez dela gure artean, baizik kanpotik gu zapaldu nahiz ari zaigula, dolugarri litzateke gure aharra, aiherkunde eta alderdikieringatik gal bagenitza orain arte irabazi ditugun tantoak.

Eta burutzeko gogotik eman nezake “M.P.”<sup>k1</sup> *Herria* kazetan (1217.an) zioena:

“Eta ikusi ditut eta entzun ere, Hazpainen bildua zen jende saldoaren nahi eta xedeak. Badela kar eta indar ikastolak azkartu nahi dituzten guzietan. Baina nola gaindi hoinbertze oldar bakotxak ez badagio biharkoari atzokoari baino?

Denen arte behar izan da jarraipen segur bat hautatu, orai arte egin izan den bezala geroak ere erakutsiko baitu nolako bidetarik joan beharko den, ikastolak egon dituen xutik lehenik eta gero egin hala gure herri eta hirietan zabaldu ditezten”.

*Manex Goihenetxe*

---

<sup>1</sup> Manex Pagola?



## Jesus Maria Larrazabal Antia

### Ibilbide profesionala

Zumaian sortu zen 1948an. Lehen ikasketak sorterrian eta Donostian egin zituen. Formazio unibertsitarioa, nagusiki, Parisen burutu zuen. Filosofian Doktorea; Logikan Masterduna; Zientzia Ekonomikoetan Lizentziatua. Gaur egun, UPV/EHU Logikako Katedraduna da.

Politikan sarturik, EAko zerrendetan 2009ko apiriletik 2010eko ekainera arte legebiltzarkide izan zen Gasteizen. Bozeramaile izan zen, Bozeramaileen Batzarrean, eta Erakundeetan, Barne Aferetan eta Justizian, Berrikuntzan, Komertzioan eta Turismoan, Inguru Giroan, Lurralde Plangintzan, Laborantzan eta Arrantzan, Elkartezinetan, Gastu Erreserbatuen Kontrolean kide, eta hezkuntza arloan Lehendakariorde. Osasun arazoak medio, bihotzeko minaldi bat, atsedenaldia hartzera behartuta aurkitu zen ordezkaritza utziaz.

Nazioarteko Amnistia elkarteko eta Intermon Oxfameko kide da.

Haren lanak bereziki aldizkarietan argitaratzen dira. Eta beste aldizkari guztien gainetik sortzaile den *Gogoia* aldizkari unibertsitario zientifikoan. Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntza, Ezagutza, Komunikazio eta Ekintzari buruzko aldizkaria da. *Gogoia*-k diziplinarteko izaera du. Ikerkuntza bultzatzen du, bereziki logika, matematika, hizkuntzalaritza, psikologia, filosofia, informatika eta adimen artifizialetik datozen teoria eta metodoak ekartzen saiatuz. Erredakzio batzordeko kidea da.

## Artikuluak

*Zabal* eta *Zehatz*-en argitaratuez gain, ondoko hauek izendatuko ditugu:

1976: "Krisis ekonomikoak", *Zabal*, 18, 51-55 orr.

1977: "UEUtik Euskal Unibertsitaterako bidean", *Jakin*, 1, 36-44 orr.

2001: "Ekintza kolektiboaren inguruko gogoeta", *Gogoia*. (Jesus Maria Larrazabal eta Kepa Korta).

## Aurkezpen laburrak

### Logika

2001: J.M. Larrazabal: *Logic as Algebra* (P. Halmos & S. Givant). J.M. Larrazabal: *Sets, Logic and Categories* (P.J. Cameron). J.M. Larrazabal: *Éléments de logique* (M.D. Popelard eta D. Vernant). J.M. Larrazabal: *Logic and Reality* (J. Copeland, ed.). J.M. Larrazabal: *Logical Dilemmas. The Life and Work of Kurt Gödel* (John Dawson, Jr.). J.M. Larrazabal: *Egia Motak* (A. Arrieta). (2001) Jesus M. Larrazabal: *Introduction to Coding Theory* (J. H. van Lint). Jesus M. Larrazabal: *Intermediate Set Theory* (F.R. Drake and D. Singh). Jesus M. Larrazabal: *Basic Model Theory* (Kees Doets).

2002: Jesus M. Larrazabal: *Non-Standard Analysis, Revised 2<sup>nd</sup> edition* (Abraham Robinson). Jesus M. Larrazabal: *Nonmonotonic Reasoning* (Gerhard Brewca, Jürgen Dix and Kurt Konolige). Jesus M. Larrazabal: *Thinking about mathematics. The philosophy of mathematics* (Stewart Shapiro).

2003: Jesus M. Larrazabal: *The Blackwell Guide to Philosophical Logic* (Lou Goble (ed.)). Jesus M. Larrazabal: *Mathematical Logic* (Cori, René and Daniel Lascar). Jesus M. Larrazabal: *Philosophy of Logic* (Dale, Jacqueline (ed.)).

- 2004: Jesus M. Larrazabal: *Advances in Modal Logic* (Michael Zakharyashev et al. (eds.)).
- 2005: Jesus M. Larrazabal: *Robert Grossetese* (James McEvoy). Jesus M. Larrazabal: *Histoire de la logique* (Jean-Pierre Belna).
- 2006: Jesus M. Larrazabal: *A Concise Introduction to Mathematical Logic* (Wolfgang Rautenberg). Jesus M. Larrazabal: *An Introduction to Formal Logic* (Peter Smith). Jesus M. Larrazabal: *Grounded Consequence for Defeasible Logic* (G. Aldo Antonelli).
- 2006: Jesus M. Larrazabal: *Propositional and Predicate Calculus: A Model of Argument* (Derek Goldrei).
- 2007: Jesus M. Larrazabal: *A First Course in Logic. An Introduction to Model Theory, Proof Theory, Computability, and Complexity* (Shawn Hedman). Jesus M. Larrazabal: *Logic. An introduction* (Freg Restall).
- 2008: Jesus M. Larrazabal: *Why Read Mill Today?* (John Skoruski).
- Jesus M. Larrazabal: *John Stuart Mill* (Nicholas Capaldi).

### **Erretorika eta Ideien Historia**

- 2001: J.M. Larrazabal: *The Philosophy of John Stuart Mill* (A. Ryan). J.M. Larrazabal: *Isaiah Berlin* (J. Gray). J.M. Larrazabal: *An Introduction to Philosophical Analysis* (J. Hospers).
- 2001: Jesus M. Larrazabal: *La tolérance* (Julie Saada-Gendron, argazkia). Jesus M. Larrazabal: *Metaforak eta Hausturak* (René Thom). Jesus M. Larrazabal: *Russell* (A.C. Grayling). Jesus M. Larrazabal: *Mill on Utilitarianism* (Roger Crisp). Jesus M. Larrazabal: *La Argumentación* (Christian Plantin). Jesus M. Larrazabal: *Stoics, Epicureans and Sceptics. An Introduction to Hellenistic Philosophy* (R.W. Sharples).

- 2002: Jesus M. Larrazabal: *Dos escritos sobre hermenéutica: El surgimiento de la hermenéutica y los Esbozos para una crítica de la razón histórica* (Wilhelm Dilthey). Jesus M. Larrazabal: *Classical Philosophy* (Terence Irwin (ed.)). Jesus M. Larrazabal: *The Cambridge Companion to Mill* (John Skorupski). Jesus M. Larrazabal: *A New History of Classical Rhetoric* (George A. Kennedy). Jesus M. Larrazabal: *La vida mental de algunos trozos de materia. Teorías de la sobreveniencia* (Manuel Liz).
- 2004: Jesus M. Larrazabal: *Discourse Analysis. An Introduction* (Alexandra Georgakopoulou).
- 2005: Jesus M. Larrazabal: *Curso elemental de Retórica y Poética* (Alfredo Adolfo Camus).

### ***Informatika eta Adimen Artifizialaren Oinarriak***

- 2001: J.M. Larrazabal: *Language in Action* (J. van Benthem).
- 2001: Jesus M. Larrazabal: *Acción colectiva: bases conceptuales y lógicas* (Xabier Arrazola.)
- 2002: Jesus M. Larrazabal: *Defending AI Research. A Collection of Essays and Reviews* (John McCarthy).
- 2002: Jesus M. Larrazabal: *Artificial Intelligence: A New Synthesis* (Nils J. Nilsson).
- 2003: Jesus M. Larrazabal: *Systems That Learn. An Introduction to Learning Theory* (Jain, 2003: S., D. Os-heron, J.S. Royer and A. Sharma).
- 2003: Jesus M. Larrazabal: *Logic and Representation* (Robert C. Moore).
- 2003: Jesus M. Larrazabal: *Mathematical Methods in Artificial Intelligence* (Edward A. Bender).
- 2004: Jesus M. Larrazabal: *Mind and Mechanism* (Drew V. McDermott).



### **Hizkuntza, Informazioa eta Komunikazioa**

- 2001: J.M. Larrazabal: *Palabras. Víctor Sánchez de Zavalá in memoriam* (K. Korta & García Murga, comps.).
- 2009: Kepa Korta: *Meaning, Content and Argument* (Jesus M. Larrazabal & Larraitx Zubeldia, argazkia).  
Jesus M. Larrazabal: *The Cambridge Companion to Ancient Rhetoric* (Erik Gunderson, argazkia).

### **Hizkuntza, Kognizioa, Informazioa eta Ekintzarako Matematika**

- 2006: Jesus M. Larrazabal: *Introduction to Cryptography* (Johannes A. Buchmann). Alain Ulazia: *Pauli's Exclusion Principle. The Origin and Validation of a Scientific Principle* (Massimi, Michela), 24x17, 121 or., apirila.

### **Ezagutza eta Antolakuntzaren Gizarte Estudioak**

- 2001: Jesus M. Larrazabal: *Economía de la Información* (José M. Usategui).
- 2002: Jesus M. Larrazabal: *Erbesteko Euskal Pentsamendua* (Paulo Iztueta). Jesus M. Larrazabal: *Economic analysis and moral philosophy* (Daniel M. Hausman and Michael S. McPherson). Jesus M. Larrazabal: *Audiences* (Nicholas Abercrombie and Brian Longhurst).
- 2002: Jesus M. Larrazabal: *Raisons pratiques. Sur la théorie de l'action* (Pierre Bourdieu). Jesus M. Larrazabal: *Knowledge in a social world* (Alvin I. Goldman).
- 2003: Jesus M. Larrazabal: *Les décisions absurdes. Sociologie des erreurs radicales et persistantes* (Morel, Christian). Jesus M. Larrazabal: *The New Knowledge Economy in Europe. A Strategy for International Competitiveness and Social Cohesion* (Rodrigues, Maria João (ed.)).

2004: Jesus M. Larrazabal: *Reingeniería y cambio organizativo* (E. Albizu & M. Olazaran).

2004: Jesus M. Larrazabal: *Txanponaren bi aldeak. Ekonomiaren mito eta elezaharrak* (Iñaki Heras). Jesus M. Larrazabal: *Ekinez egina. Hezkuntza Politika bere idatzien bidez* (Leyre Arrieta). Jesus M. Larrazabal: *The Contingency Theory of Organizations* (Lex Donaldson).

### **Giza eta Gizarte Zientzien Filosofia eta Historia**

2003: Jesus M. Larrazabal: *La antropología ante las artes plásticas* (Lourdes Méndez). Jesus M. Larrazabal: *The Iron Cage of Liberty* (Andrew Gamble). Pello Huizi: *101 experiencias de filosofía cotidiana* (Roger-Pol Droit).

2005: Jesus M. Larrazabal: *Social Justice* (Matthew Clayton & Andrew Williams, argazkia). Jesus M. Larrazabal: *Crítica, Historia y Política* (Sergio Sevilla). Jesus M. Larrazabal: *Practical Reality* (Jonathan Dancy). Jesus M. Larrazabal: *Une certaine idée de la Grèce* (Jacqueline de Romilhy).

### **Zientziaren eta Filosofiaren Historia**

2007: Jesus M. Larrazabal: *The Philosophy of William James. An Introduction* (Richard M. Gale). Jesus M. Larrazabal: *Twentieth-Century French Philosophy. Key Themes and Thinkers* (Alan D. Schrift).

2008: Jesus M. Larrazabal: *Bourbaki. A secret Society of Mathematicians* (Maurice Mashaal).

### **Gizarte Zientziak**

2009: J M. Larrazabal: *Russell* (A.C. Grayling). Jesus M. Larrazabal: *Mill on Utilitarianism* (Roger Crisp). Jesus M. Larrazabal: *La Argumentación* (Christian Plantin). Jesus M. Larrazabal: *Stoics, Epicureans and Sceptics. An Introduction to Hellenistic Philo-*

sophy (R.W. Sharples). Jesus esus M. Larrazabal: *Social Justice in the Global Age* (Olof Cramme & Patrick Diamond, argazkia).

## **Zientzia Kognitiboa**

2004: Jesus M. Larrazabal: *Agency and Responsibility. A common-sense moral psychology* (Jeanette Kennett).

## **Filosofia**

2004: Jesus M. Larrazabal: *L'Espoir de la discussion* (Yves Cusset, Habermas). Jesus M. Larrazabal: *Obras Escogidas* (Miguel Sánchez-Mazas).

2004: Jesus M. Larrazabal: *Liberty* (Isaiah Berlin). Jesus M. Larrazabal: *La nau del coneixement* (Josep Lluís Blasco). Jesus M. Larrazabal: *The Cambridge Companion to Peirce* (Cheryl Misak (ed.)).

2006: Jesus M. Larrazabal: *Foucault on Freedom* (Johana Oksala). Jesus M. Larrazabal: *A Companion to Pragmatism* (John R. Shook and Joseph Margolis (eds.)).

2007: Jesus M. Larrazabal: *Bertrand Russell's Ethics* (Michael K. Potter). Jesus M. Larrazabal: *Leçons sur Spinoza. Nature et vérité dans la philosophie de Spinoza. Servitude et liberté selon Spinoza* (Ferdinand Alquié).

2008: Jesus M. Larrazabal: *The Tasks of Philosophy. Selected Essays, Volume I* (Alasdair MacIntyre). Aitor Izagirre: *The Black Guide to Aesthetics* (Peter Kivy, argazkia)). Jesus M. Larrazabal: *Responsibility and Justice* (Matt Matravers).

2009: Jesus M. Larrazabal: *La philosophie médiévale* (Alain de Libera). Aitor Izagirre: *Art and Intention: A Philosophical Study* (Paisley Livingston). Aitor Izagirre: *On Criticism* (Noël Carroll). Jesus M. Larrazabal: *Labyrinth of Thought. A History of Set*

*Theory and its Role in Modern Mathematics. Second edition revisited* (José Ferreirós), 24x17, 275 or., urria.

## **Logika eta Matematika**

2009: Jesus M. Larrazabal: *Lectures in Logic and Set Theory. Vol I: Mathematical Logic. Vol II: Set Theory* (Tourlakis, George). Enetz Ezenarro: *Introduction to Real Analysis* (William F. Trench).

## **Berriak**

2001: Jesus Mari Larrazabal: *Jon Barwise (1942-2000) in memoriam*. Agustin Arrieta Urtizbera: *W.V. Quine filosofoa gogoratzuz*, 24x17, 148 or., apirila,

2002: Jesus M. Larrazabal: *In memoriam: Laurent Schwartz (1915-2002)*, 24x17, 348 or., urria.

2003: Jesus M. Larrazabal: *Donald Davison filosofoa hil da*. Xabier Arrazola: *ICCS-03: Eighth International Colloquium on Cognitive Science*, 24x17, 321 or., urria.

2004: Jesus M. Larrazabal: *Andolin Eguzkitza GOGOAKi-dea gogoan*. Jesus M. 2004: Jesus M. Larrazabal: *Georg Henrik von Wright gogoan*. Ixiar Bidaola: *SPR-03: Semantika, Pragmatika eta Erretorika*, 24x17, 212 or., apirila.

## **Liburuen kritikak**

2001: Raymond W. Gibbs, Jr.: *Intentions in the Experience of Meaning* (Isabel Gómez Txurruka eta Jesus Mari Larrazabal).

2005: Rod Girle: *Modal Logics and Philosophy* (Jesus M. Larrazabal).

2006: Bruce Kuklick: *A History of Philosophy in America. 1700-2000* (Jesus M. Larrazabal).

2006: Marc C. Murphy, argazkia): *Alasdair MacIntyre* (Jesus M. Larrazabal).

2007: Michael Losonsky: *Linguistic Turns in Modern Philosophy* (Jesus M. Larrazabal).



## Ustaritzeko agerpena dela eta<sup>1</sup>

Uztaritzen bildurik, Udako III. Euskal Unibertsitatean parte hartu duenak badaki han burutu eta argitara eman agerpena zein presaka egina izan zen, eta zenbateraino aztertua eta eztabaidatua ere bai. Inork besterik uste dezakeen arren, plaza publikora plaza-ratua den agerpen hau kritikatu da dadin izan da zabaldua. Ez dugu, beraz, zerbait definitiboa, behin begitakoa. Jorratzea, arakatzea, osatzea... geure esku dago. Batez ere, zera hartzen dugularik kontuan, Agerpenak –duen garrantzia ikusita–, traza franko baduela sobera landua ez dela izan esateko. Izan ere, beraren inizatiba eta elaborazio nagusia Bilboko partetik heldu zitzaigunez, badirudi Uztaritzen azterketarako erabili prozedura ez zela egokiena bilbotar ez ginenontzat.

Dena dela, Agerpena kanpoan da. Eta diot, nire iduriko, guztiz garrantzizko zerbait dela. Zein den beraren xedea? Testua irakurrita, ez da dudarik. Euskal Unibertsitatearen bila egiten den hainbat eta hainbat lan (nagusia, Udako Euskal Unibertsitatearena) alferrik gal ez dadin edo kontrabidera izan ez dadin, egundik oinarri gutxien edo minimumeko eta funtsezko zerbait ezarri, aurrerantzean indarrak plangintzaren nagusitzeari eskaini ahal izateko. (Diotenez, gisa honetan Deustutik Leioarako bidean paseatzen diren sasi abertzale oportunistei eta likidazionista deklaratupei demagogiaren posibilitatea urrutiko omen zaie segurik).

Xedea xede, bost mende luzeetako Euskal Unibertsitatearen aldeko lehiaketaren ohiturari jarraiki, Agerpenean oinarriak marikatzen dira, “oinarriak” eta “berezitasunak”. *Zabal* 15. zenbakian ditugunez gero, ez noa horien aipatzera.

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 16, 1976ko Urtarrila-Otsaila, 42-44 orr.; *Zabal*, 17, 1976ko Martxo-Apirila, 1-4 orr.

Lerro hauen helburua azalduz hasiko naiz.

Ez noa Agerpenaren komentario xehaturik burutzera. Besterik nahi dut. Agerpenean okertzat edo ekibokotzat jotzen ditudan puntu nagusi batzuk agertu nahi ditut, beroien garrantzia funtsezkoa bistatuz eta okerraren ekibokotasunaren arrazoa esplikatuz. Halatan zera nuke xede: Agerpenaren kritikarako elementu zenbait eskaini kritikagintza honetan sartuko den (sartu behar lukeen, bederen) euskal populuko langileriari eta ikasleriari, bereziki politikoki eta kulturalki organizaturik diren euskal langile eta ikasle taldeei.

## 1. Euskal Herria ez da euskal populua

Ez dut esaten Euskal Populua Euskal Herriaren parte ez denik, berez parte propio dela baizik. Hots, Euskal Herriko oro berez ez dela euskal populuko.

Iruditzen zitzaidanez, bereizketa hau aski garbi zegoen markaturik euskal ezker politikoaren izkribuetan nahiz ekintzetan, azken urteotan bederen. Baina, antza denez, bada oraino euskal ezkerrez erreklamatu arren bi kontzeptuok guztiz nahasten dituenik. Hobeto esan, populu kontzeptua gustukoa ez zaionik eta, beraz, “herri” bakarrik erabiliz zernahi adieraztea zilegi zaiola uste duenik.

Gauza jakina da, “herri” hitza erabat polisemikoa dugula euskaldunon eguneroko mintzairan. Ez litzaiguke, beraz, zuzen bere zelai semantiko zabal horretan hartu eta besterik gabe teoriaren mailan (kasuan, historiaren eta politikaren teoria zientifikoan) kontzeptutzat onartzea. Hau edozeinek daki. Esan nahi dut produkzio edo ekarri zientifikoa den horretaz jabeturik den edozeinek. Dirudienez, ordea, euskal ezkerreko zenbaitek ez daki oraindik (edo ez du jakin nahi, errealago dena!) historiaren zientzia badela eta beraren barnean politikaren teoria zientifiko erregional edo eskualdeko bat ere bai.

Hartaz, eguneroko mintzairako hitz polisemiko horretatik “herri” kontzeptura pasatu nahi denean, muga finkatu batzuen mugetan mugatu beharko da beraren esanahia. Eta mugaketa hau jadanik egina da, euskal ezkerrek oinarritzat hartzen duen teoria baitan. Besterik da, arras besterik, mugaketa “denek” ontzat ematen duten ala ez. Bistan da ezetz. Horretarako, klase gatazkak edo eztabaidak determinaturik, egoera ideologikoen aldrebeskeria dela me-



dio, kontra egotera behartuak baitaude abertzale sozialista bezala definitzen den euskal ezkeraren aurka direnak.

Eta gakoa ez da txantxetakoa. Mugaketa kontzeptual hau formalista hutsa balitz, ez legoke arazo larririk. Baina, hala ez delarik, kontzeptuaren mugaketa makur batek aurretik doakion praktikaren desbidea (sic) dakarren heinean praktika desbideratuago bati bidea irekitzen dio. Agerian da honek duen garrantzia klase borrokaren noranzko efektiboan eta beraren ezagutza errealean.

Uztaritzeko Agerpenean “herri” hitza, nahasiaren nahasian, kontzeptu zientifikotik urrun, nozio ideologikoaren gisa zaigu azaltzen. Zorrotzago eta prezisio gehiagoz idaztea edo testua eratzea ez zela posible, edo gutxienez errazago? Ez dut nik horrelakorik pentsatzen, zeren biziki azpimarratzekoa baita prezisio hori lortzen duela honako kontzeptu zehatz hauek bezalakoak darabiltzanean, “herri” nozioaren aldamenean: “klase dominatzaile”, “metahizkuntza”, “produktzio prozesu”, “lanaren zatiketa soziala”, “egoera diglosikoa”...

Zer da, bada, “herri” testuan? Bistan denez, lehenik Euskal Herria “Herri” da. Baina, “populu” ere “herri” da. Eta orobat, herri-ostea, herri-masa, herri-jendea “herri” dira. Areago, itxura denez, gizartea ere “herri” da. Edo behintzat horrelakorik pentsatzeko bidea ematen digun testuak, “premier” eta “helburuen” arteko korrelazio estuari identifikazio gisako paralelismoa ezar dakiokenean “herri” eta “gizarte” bikoteari. Horrela, II. atalean, “oinarriak” izenekoan, hauxe dugu irakurtzen: “(Euskal Unibertsitateak) herriaren premieri loturik egon behar du”, ondotik zazpi oinarri markatzen direlarik, eta hain zuzen, zazpigarren oinarriaren bukaeran zera dator: “... eta beronek (Unibertsitateak) loturik egon behar du(en) gizarte osoaren helburuei”.

Nahasketa honek klase sozialaren mami guztia ezkututuz edo gordez, klase egoeraren marka darama haatik. Ezin zitekeen beste modu batez gertatu. Arras sintomatikoa dugu Agerpen hau guztia “klase” hitza behin bakarrik azaltzea, eta bertan “klase dominatzaile” kontzeptua adierazteko. Hori zeren sintoma den? Funtsean, honena: beste hainbat eta hainbat ideia, kontzeptutzat hartu nahi dena-edo, klasearen marketatik desmarkaturik dagoela erakutsiz, finean kontzeptzio ideologiko bihurturik datorrenaren sintoma.

Gainera, zehatzago esanda, hutsaren hutseko kontzeptzio ideologiko horien gune biltzaile bezala humanismoaren tematika erretrorikoa agertzen da. Horrelaxe da bakarrik ahalezko “gizarte osoaren”

helburuez mintzatzea (“gizarte” ebidente litzatekeen kontzeptutzat harturik, noziorik engainagarrienetakoa dugun garaian). Horrelaxe da bakarrik ahalezko, euskal “gizartearen” osotasuna lau puntu analitikotan mugatzea eta hala mugatu gizarte osoa unibertsitatearen ardatzat hartzea. Horrelaxe da bakarrik ahalezko “Euskal Unibertsitateak Euskal Herri osorako kultur joera eta jokabideak bildu behar dituela erratea, edo “jende guztia hartu behar du(ela) kontuan, ezelako diskriminaziorik gabe” (zer ote ezelako diskriminaziorik gabe “kontuan” hartze hori?). Horrelaxe bakarrik esan daiteke Euskal Unibertsitateak “gure herriko jende guztiek gizabidetsuki hartzeko behar duen egoera ekonomikoaren alde” saiatu behar duela. Humanismoaren hiztegirik ez baduzu, ez duzu erraz ulertuko zer den gizabidetsuki bizitzea, humanismoaren kodigo ideologikoa ezagutzen ez baduzu, ezin konprenituko duzu hori guztia. Baina, egungo sistema kapitalistaren ideologia dominantea humanismoa denez, segur sarriegi aditu duzula.

XIV. mendeko filosofo erretorikoengana jo behar (da) humanismoaren ideologia zer zen (eta zer den) ikusteko. Klase proletarioaren kopuru politikoa emendatzen doan mementoan, klase burgesak, defentsiba politikora pasatu beharra duen garaian, ofentsiba ideologikoa indartzuz darama: humanismoa da haren tematika preziatua. Egia da, mendearan erdian, iraultzaren indarra zanpatzeko aski ez zaiola izanen. Baina, egia ere da zanpatze horretarako arma paregabea izan zitzaioela, eta nahiz fusilez nahiz demokraziaren itxurez mugimendu iraultzaileen jazarkundea menperatu zuenean, berriro ere, indar handiegiz zabaldu zuen humanismoaren kontzeptzioa, bere askatasunaren filosofia metafisiko eta sistema moral bilakatuz. Orduan, giza esentzia askatasuna omen, eta klase burgesak finkatu koadroaren Logikan arrazoiak izatea omen dagokio gizonari. Honen barnean gizona zernahi da, eta gizonaz zernahi esan dezakezu, horrela zernahi justifika dezakezu. (Kristautasunak ez zion laguntza gutxi eman eta ez dio ematen, “progresismoaren” forman den arren—eta zerbaitegatik horrela gainera!—, burgesiaren asmazio honi).

Gatozen, bada, “herri” eta “populu” behin eta berriro bereiztera. Arestian esan dudanez, euskal ezkerak, abertzale eta sozialistak, bere programa politikoan eta bere produkziarako elementu teorikoetan “herri” kontzeptua totalitate (*ethno*) nazionala adierazteko du erabiltzen, eta “populu” kontzeptua, berriz, egun klase popularren prozesuari dagokion beste zera hau adierazteko, kon-

traesanen sisteman, kontraesan nagusia den oligarkiaren eta klase antioligarkikoen antagonismoa izanik, klase antioligarkiko honen totalitate didaktikoa adierazteko, bada.

Hartaz, gauza bat da Euskal Herria eta bestea egungo Euskal Populua. Egungo diot, zeren biharko egunean, klase gatatzaren lekua beste momentu historiko batean, antagonismoaren lekua desplazatzen delarik, populua beste muga batez mugatzera beharturik egonen baikara.

Gaur gertatzen dena hauxe da: hain zuzen, klase oligarkikoa espainola eta frantsesa dela, eta herritasunari gagozkiolarik baldin jatorriz euskal oligarkia batez mintzatzerik badugu, beraren zatirik nagusia (ia osoa) eta dominatzaileena objektiboki espainol eta frantses bihurturik dauzkagula. Horregatik, nahiz kontzeptuak berez ezberdinak izan, hurbilketa askoren ondorioz esan daiteke egun herrian oligarkiari apenas dugula eta herria, hartaz, populua duela betetzen. Baina itxuraz zirkulu hertsian zirkulutasun formalean eroriko ginatete “euskal” adjektiboa populuari ezarri. Itxuraz bakarrik zirkulu hertsian, zeren herri zampaketa objektiboa den klase oligarkikoaren eta klase antioligarkikoaren arteko antagonismoak herritasunari gagozkiolarik populua uniformitate eza dakar ezinbestez berarekin, eta uniformitate gabezia honek hausten digu itxurazko zirkulu formala eta, hortaz, obligatzen euskal populura mugatzera herritasuna.

Euskal populua barnean klase kontraesanik falta ez delarik, ez litzateke aski besterik gabe euskal populua mintzatzea eta kito. Egungo momentu historikoan bigarren mailako kontraesan hauek ere markatu egin behar dira eta ez gorderik utzi. Euskal proletalgotzaren erabateko iraultza agerian jarri behar da; nabarmen azaldu beraz dela kontraesan nagusiari erantzunez, aldi berean kontraesan nagusi horrekiko interdependentsia didaktikoan diren bigarren mailako kontraesanei ere errotik erantzuten dien klase bakarra.

Beraz, Euskal Unibertsitatearen ardatza eraberritzailean, abertzale sozialistak ez du dudarik egiten: euskal populua behar du izan ardatz eta, bereziki, euskal proletalgotzaren. Euskal Unibertsitateak euskal populua behar du izan, eta bereziki euskal proletalgotzarena. Hau oinarrituz gero, argitasunerako zehaztapen analitikorik nahi bada, eman bitez nahi diren guztiak, lau (Agerpenean bezala) edo hamalau, baina zimendu hau tinko finkatu ondoren.

## *Zuzenpenak:*

Presaren presaz aurrekoan eskuizkribua bidali nien *Zabal*-ekoei. Ez da, hartaz, harritzekoa tarteka oker zenbait pasa bada. Orain, berriz, zuzentzeko aukeran nagoenez, batez ere hauxe markatu nahi nuke:

– “didaktikoa” irakurtzen den bakoitzean, “dialektikoa” irakurri behar da, hala nola totalitate dialektikoa eta interdependentzia dialektikoa.

– bosgarren azken paragrafoa benetan oker azaldu denez, bide batez berriro seinalatzen dut “herri” eta “populu” kontzeptuen arteko bereizketa. Testua honela hartu behar da: “Arestian esan dudanez, euskal ezker abertzale eta sozialistak bere praktika politikoan eta bere praktikarako elementu teorikoetan “herri” kontzeptua totalitate (*ethno*) nazionala adierazteko du erabiltzen, eta “populu” kontzeptua, berriz, egun klase gatazkaren prozesuari dagokion beste zerau adierazteko, kontraesanen sisteman, kontraesan nagusia izan, oligarkiaren eta klase antioligarkikoen antagonismoa izanik, klase antioligarkiko hauen totalitate dialektikoa adierazteko, bada.

– Azkenik, XIX. mendeko filosofo erretorikoengana jo behar da humanismoaren ideologia zer zen (eta den) ikusteko, eta ez XIV. mendeko filosofoengana. Erretorikagintza aspaldikoa bada ere (Platonen *Gorgias* lekuko), eta Erdi Aroak hainbat maite bazuen Trivium (eta Quadrivium) delakoa eta beraz Erretorika ezin ahanzt daiteke XIV. mendeko filosofo logikariak, Duns Eskoto eta Occam esaterako, eskolastikaren suntsipena ekarriz, humanismoaren tematika ideologikotik urrun dabiltzala. Izan ere, erromantikoen ondoko filosofo espekulatzaile eta erretorikoak ditugu XIX. mendean humanismoaren lilura zabaltzen lehiatzen direnak; hain zuzen, klase proletarioaren *borroka* emendatzen doan mementoan.

## 2. Demokraziaz

Demokraziaz mintzatzea eta nork bere burua demokratikotzat aitortzea biziki modan den zerbait dugu azken denbora honetan. Atzo arte faxismoaren zale izan den batek baino gehiagok egun demokraziaren itxura publikoa hartu nahi du. Demokrazia hitzetik hortzera dabil eta kasu gaur demokrata ez bazara!

Gauza arras ezaguna da, ordea, demokrazia unibertsalaren asmazioa burgesiaren kontua dela, eta zuzenki beraren printzipio sagaratuena. Demokrazia unibertsala liberalismoaren bilduma eta oinarri agertu zen. “Liberté, Egalité, Fraternité”, hots, hankaz gora “Ancien Régime” zaharkitua eta biba liberalismoa (ekonomikoa –truke libre-, politikoa, juridikoa, ideologikoa...), biba demokrazia, anaien arteko eztabaida bero guztien zelai neurtua.

Egia da, bestalde, bereizketarik egin dela gerora burges demokraziaren eta populu demokrazia nahiz sozialista demokraziaren artean. Baina, adjektiborik gabe doan bakoitzean ezin esan, gutxienez ekiboko ez denik.

Halaxe da kasua Agerpenaren testuan. Oinarrizko demokrazia bat aipatzen da eta bertan askatasun joera kontuan jartzen da. Arestian ere seinlatu dut ez dela batere garbi zer den “kontuan” hartze hau. Garbiago dena eta lehentxeago markatua izan dena zerau da, ideologia humanistaren eremu semantikoan soilik har dezaketela beren esanahi propioa gisa honetako aipuek: askatasun joera, demokrazia (kualifikatu gabea), kultur joera guztiak bildu, jende guztia kontuan har...

Euskal populuaz aurreko puntuan hitz egin dudanez eta Euskal Unibertsitateari beste oinarririk proposatu ere bai, orain lehengo logika berari jarraikiz zera esaten dut, populu demokrazia dela sozialista abertzalegoak egun Euskal Unibertsiterako proposatzen dukeena, bide horretatik proletalgoaren diktadurara heltzeko. Proletalgoaren diktadura egundanik azpimarratu behar da, desbidean erori nahi ez bada gutxienez.

Zer esan nahi du honek guztiak? Sinpleki hauxe: demokrazia osoa egungo euskal populuaren baitan, gatazka eta bortxa oligarkiaren kontra. Populu demokraziak ez lioke Euskal Unibertsitatean inolako inolako sarbiderik utziko oligarkiaren inongo ordeko nahiz miraberi. (Ez naiz hipotesi aingerutar bat aipatzen ari, susmo franko izan baita Oñatiko bidetik sartu nahi zuen haize estrainio batez! Eta horrelako saiurik berriro ez ote da errazago gertatuko oraingo Espainiako Estatuko kinka gutxi edo gehiago berritua dela medio?).

Populu demokraziak sozialista demokraziarako bidea ireki behar du. Eta hauxe da inportantea: bide hori gero eta gehiago zabaltzea, euskal populuaren baitako kontraesanen arrapostua kritika eta autokritika finkatuz, eta frantses nahiz espainol oligarkiaren aurka bortxa altxatuz, horrela proletalgoaren diktadurara jotzeko.

Badakit bere burua sozialista abertzalegoan sartzen duen burges txiki zenbaiti ez zaiola gogoko proletalgoaren diktadura, gus-tuko ez zaion bezalatsu proletalgoaren alderdia. Nahiago du *marxis-moa* (leninismoa “kritikatuz”, errepresentazioa berez zanpaketa dela esanez), nahiago bere espontaneismoa masa baitan proiektatzea, urrunegira sekula ez joateko (tendentzia anarkizanteetan ez bada). Badakit, ordea, euskal proletalgoa organizatuaren (eta, hartaz, dina-mika markatzailearen) noranzkoa bestelakoa dela, espontaneisten jokoak aterabiderik ez duela, kaltegarri den neurri berean ezabape-nera kondnaturik dela. Aski zait. (Agian ez letorkiguke batere gaizki Leninek “Estatua eta iraultza” oportunistetik eta anarkistetik desmarkatzeko, proletalgoaren diktaduraren alde firmeki markatzen duen tesiaz oroitzea).

Bada, bestalde, honen guztiaren barnean aipatu gabe ezin utz dezakedana: intelektualeriaren funtzioa. Badirudi gaur “progresis-moaren” izenenean edo, intelektualeriari zera eskatzen zaiola, zien-tziaz eta kontzientziaz “kritiko” izatea, areago “hiperkritiko” izatea ere bai. Kantez geroztiko jarrera “kritikoa” modan da eta ezker poli-tikan oraindik gehiago estalinismo ofiziala deuseztatu zela prokla-matu zenetik. Dirudienez, “kritiko” ez bazara, zozorik zozoena zara. Guztia behar duzu kritikatu, bestela konformista eta estankatutzat joko zaituzte.

Kritizismo kutsu hau dario Agerpenari zera dioenean, Euskal Unibertsitateak kapitalismoaren sistemari azpia jaten ahalegindu eta geroagoko edozein sistema kritikatu behar duela, alegia. Geroa-goko edozein sistemak edozein izaterik balu bezala, historiaren na-hitaezko bilakatze lineal zuzena arbuiauz ere, kapitalismotik sozia-lismorako bidean mila bidegurutze eta bide berri balego bezala... Historiaren zientzia badela nioen hasieran, euskal ezkerreko batzuek oraino atzeman ez duten arren!

Bistan da intelektualaria ez dela klase sozial bat, beraz, zatitua dela. Gure kasuan populuarekin eta beraren kontra. Euskal popu-luarekin den euskal intelektualeriak, ordea, badu bere autonomia erlatibo bat, sistema beraren konfigurazio egituralak eskaintzen diona, esan nahi baita sistemaren kontraesanak nonahi barreiatzen direlarik, herri zanpaketan ahalbidetzen diren eta produkzio proze-suan funtsatuak diren kontraesanak hor agertzen zaizkigu aparatu ideologikoetan, eskoletan batez ere. Agertu ere autonomia berezi batez.

Honexegatik euskal populuaren aldeko intelektuakeriak bada-ki, haragi bizian sentitzen duelarik. Euskal Herri zanpatuko populu zapalduaren sufrimendua eta borroka zer-nolakoa den. Eta jakin, hain zuzen, herri zampaketan objektibatzen den klase zapalketa- ren birproduktio etengabea, birproduktioa honen borrokarako leku pribilegiatu batean aurkitzen delako, hots, kontraesan oro- ren biltoki nahasi gertatzen den kultur aparatuen zelaian, bereziki irakaskintza sistemarenean. Agerian da zelai honek duen garrantzi aparta, kasuan *status quo*-aren desordenua sostengatzeko eta errotik kontraerasotzeko, zelai bera gudaleku bakarrik ez, guduaren xede ere bihurtu delako (erlatiboki autonomo denez) bere botere propioaren alde ahalegintzen den euskal proletalgora eta populu osoarentzat. Argi honen argitan gauzak behaturik, kritizismo engainagarritik zein urrun den euskal populuaren aldeko euskal intelektuakeriaren egitekoa!

### 3. Plangintzaz

Plangintzaren puntu honetan egiazki motz azaltzen zaigu Ager- penen. Plangintza orokor baten beharra da bertan ondorioztat alda- rrikatzen. Kultur politikazko oinarri teoriko gutxienak finkatzea ezinbestekoa da, pragmatismo merke bezain interesatuaren desbi- dean erori nahi ez denean behintzat.

Haatik, oinarri teorikoak huts eta zentzugabe bihurtzen dira pausoz pausoko ekintzen plangintza bat gabe. Arrisku honen bel- durra erraz sortzen da Agerpenaren testu soilera mugatuz gero. Plangintzaren lehen neurriak (neurri posibleak) zertxobait finkatu beharko lituzke testuak. Eta ez dugu horrelakorik deus.

Egia da Agerpena atera ondotik ildo honetan delibramendu zenbait aitzinatu dela. Hala nola, Udako IV. Euskal Unibertsitatea prestatzeko asmoz lehen bilkura orokorra Donostian abenduaren 26an egin zelarik, erabaki guztiz garrantzizko bat hartu zen: idaz- karitzaren koordinatzaile liberatu bat jartzea.

Ez da dudarik horrelako neurriek bakarrik ekar dezaketela Eus- kal Unibertsitatearen finkatzea. Gakoa, Euskal Unibertsitatea egun- dik *erakunde* oso bilakaratzea baita. Borrokaren borrokaz kultur aparatua bihurtzea, beste maila apalago batean ikastolekin burutu

dugun bezalatsu. Zeren, bestela, gaurdanik lanjerra begien bistan dugu, zoko ertzean zokoraturik hilko da Udako Euskal Unibertsitatea ala liberalismo politiko posible baten poderioz eta laudorioz irentsia izanen da “sistemaren” aparatu integratzaileetan (irakur Estatuaren aparatu publiko nahiz pribatueta, bereziki erlijiosoetan). Kontrabidezko dilema honen aterabide bakarra erakundetze autonomoan ikusten da, zeina ahaleko baita euskal populuaren eta, batez ere, proletalgoaren erantzun gogorraren medioz. Gainera, honexek begiratuko luke erakunde autonomo horrek euskal proletalgoaren eta populu osoaren exijentziei ihardets diezaien, modu honetan plangintza zuzen batez bide horretatik aitzina egiteko.


Bukatzeko zerau azpimarratu nahi dut, Agerpenean biziki ego-ki agertzen zaigula Euskal Unibertsitatearen euskalduntasuna, nahiz puntu honi behar adinako indarra ematearren gehiegikeriazko esaldi bat ezartzen den (Euskal Herriak, beti, bere kultura euskaraz adierazi du”, ikus III, 2.a.), kontraesanak kontraesan III.2.g.an aipatzen denarekin ekilibratzen dena.

*Jesus Maria Larrazabal Antia (“L.J.M.”).*



# FILOSOFIA SAILA





## Jon Sudupe Martija

### Ibilbide profesionala

Jon Sudupe Martija Azkoitian jaio zen 1947an. Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua da eta irakaskuntza eta saiogintza uztartzen ditu. Zumaiaiko ikastolako irakaslea izan da lehenik, eta bertako herri eskolakoa gero, erre-tiroa hartu duen arte.

Marx, Kant eta Darwinen artean egin du bere ibilbide filosofikoa. Pentsamendu moderno eta garaikideaz arduratu da gehienbat, garaian garaiko gaiak landu dituelarik. Marxismoa krisian sartu zenean, *Karl Marx, Teoria eta Politika* (1983) idatzi zuen, Marxen lehen biografia intelektuala euskaraz.

Postmodernitatea modan jarri zenean, modernitatearen aldeko hiru saiakera idatzi zituen: *Modernitatearen alde* (1990), *Ilustrazioaren kriseilupean* (1994) eta *Muniberen ametsa: Euskaltasuna eta Modernitatea* (1996) izenekoak.

Liberalen eta komunitaristen arteko eztabaida sortu zenean, *Euskaldunak, liberalak eta komunitatezaleak* (1998) argitaratu zuen.

Kant hil zela berrehun urte bete zirenean, *Kant eta uso arina* (2003) haren pentsamenduaren gaurkotasuna agerian jarritz.

*Hizkuntza ados jartzeko da* (2007) lanean, Chomskyren gramatika sortzailea eta Habermasen pragmatika unibertsala lotu nahi izan ditu.

*Sapere aude! Erlijiotik etikara* (2013) erlijiorik gabeko etika laikoa defenditzen duen lehen euskal saiakera egin du.

Lan horiek guztiak sarituak izan dira lehiaketa desberdinetan.

2013ko Euskadi Literatura Saria irabazi du *Oi Europa* saiakerarekin. Liburu horretan, Europaren identitatea ardatz hartuta, filosofo ezagunen ideiak bildu ditu, eta bereak gehitu.

Beste lan bat ere badu esku artean, Kant eta Darwin uztartzen dituena.

Voltaireren *Gutun filosofikoak* euskaratu du *Klasikoak* bilduman.

Hainbat artikulu idatzi ditu euskal aldizkarietan. *Berria* egunkarian kolaboratzen du hilero.

## Louis Althusserren autokritika gaiak<sup>1</sup>

### Zergatik Althusser?

Marxismoak, azken hamar urteotan, aurrerapen handia egin du maila teorikoan zein politikoan. Hala uste du behintzat Nicos Poulantzasek (cfr. *Nouvel Observateur*, 526 zenb.). Ghettotik ofentsibara pasatu da. Fenomeno honek, nahiz eta batzuek besterik pentsatu, gauza bat adierazten du klarki: marxismoa inoiz baino biziago eta oraingoagoa da, norbaitek “modan egon zen” esan badu ere.

Althusserrek inarrosi ditu aurrena kateak, Poulantzasek berak dioenez. Eta beste askok jarraitu dio. Teorikoki, marxista estudioen “berpizkunde” bat obrarazi du, “Nouvelle École Française” sortuz. Eskola honen inguruan metodologia oso batek hartu du gorputza, formazio sozialen analisi marxistari aurrerakada izugarria emanaz. Balibar, Baudelot, Poulantzas, Bellelheim, Palloix, Rey... horra hor althusserkume multzo bat.

Frantziari dagokionez, behinik behin, Althusserren lanen inguruan sortu den polemikak dominatu du borroka teorikoa. 1964 eta 1968 artean, haren izkribuek lehen mailako rola jokatu dute frantses intelektualgoan, ikaslerian eta militantegoan. Debate bizi-bizi honetaz (egun hemen aipatzen dudan bere azken liburua lekuko) zernahi pentsaturik ere, jadanik egia da, beroni esker, zenbait problema giltzarri aski argitua izan dela, hala nola ekonomizismoa, humanismoa, Marxen eta Hegelen arteko erlazioa...

Euskal filosofia marxistan zer dugu ikusten? Hasteko, euskal intelektualgoak ez dio Althusserri begitarte ona egin. Gisa da. Gure giro filosofikoa erlijioso-espiritualista-idealista da. Euskal filosofia

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 12, 1975eko Martxoa-Apirila, 48-52 orr.; *Zabal*, 15, 1975eko Iraila-Urria, Hazila-Abendua, 19-24 orr.

dominantea humanista-idealista da. Idealismoa nagusitzen zaio materialismoari, beste maila batean, klase batzuek besteak menperatzen dituzten bezala. Ezen “filosofia klase borroka baita teorian”. Ez dezagun ilusiorik egin. Ez al du oraintsu norbaitek espainol filosofo idealistarik superidealistena euskaldun filosoforik handienetzat hartu?

Bestalde, bada nahasmendu franko: teoria marxistako kategoria filosofikoak (filosofia marxista) eta kontzeptu zientifikoak (materialismo historikoa) nahasten dituzte. Althusser, hain zuzen, nahasketa horri amaiera ematen ahalegindu da eta mugarriak trazatzen, zein baita filosofiaren egitekoa. Ongi egingo digu beraz Althusserren eskutik *Kapitala* irakurtzeak. Teoria marxistan arloste baikara oraindik. Horregatik behar genuke lehenbailehen teoria marxistako nozioak argi eta garbi eman. Komenigarri litzateke, gonbarazio batera, Marta Harneckerren *Los conceptos elementales del materialismo histórico* gisako esku-libururen bat euskaraz prestatzea.

Halaber, euskal kulturgintza gaur egun ere ia bakarrik “bost fraile eta sei intelektualena” denez gero, humanista joerakoa da marxismoari buruzko euskal literatuta filosofiko guztia: Azurmendi, Garate anaiak, Txillardeg... Honengatik guztiagatik, Althusser euskal herriratzeari ez zaio interesik falta.

Poulantzasen iduriko, azken urteotako fenomenorik inportanteena teoria marxistaren eta ikerlanaren bat egitea dateke. Teoria marxistaren argitan kalitate handiko analisi konkretuak egin direla dio eta beronen frogagarri liburu eta agerkari andana bat dakar: André Gorzen izkribuak lanaren zatiketari buruz, M. Castellsenak hirigintza arazoaz, Baudelot eta Establetenak eskola aparailuaz, N. Poulantzasenak klase borrokaz...

Tamalez, guk ez dugu Euskal Herrian horrelako ikerlan zientifikorik. Hemengo intelektualek marxismo dogmatiko eta merke hori atakutzen gastatu baitituzte beren indarrak. Nork jakin aurretantzean lan positiboago bati ez ote gatzazkion lotuko! Gure herriaren historia estudiatu, beronen egitura ekonomikoa, produkzio erlazioak, egitura ideologikoa, masetan dominatzen duten ideiak, eta, batez ere, momentoko klase gatazka nazionalaren koiuntura politikoa, ekonomikoa eta kulturala analizatu. Baina, kasu!, zernahi azterketa eta ikerlan egiten dela ere, behar da kontradikzioen estudiantik abiatu, Maok erakutsi metodoari lotuz, behiala Krutwigek ekin zion eran (*Branka*, lehen zenbakiak). Bai, behar da ardura guz-

tiarekin esploratu nik Nazio kontinentea deituko nukeena, ikus ea Marxen azken boladako izkribuetan problema honen soluzio justurik ematen den, Azurmendik ohartarazten digun bezala, “Marx zaharrari begiratzuz, abertzaleen alde ikusten dugu alde guztietan” (HEM, 141 or.). Garatek, nonbait, ez daki honetaz deus!

## Althusserren obra idatzia

Ikus dezagun lehenik frantses filosofoaren izkribu lan inportanteenak. Althusserrek bide luze bat korritu du, urrats berririk eman du, ez da *Pour Marx*-en eta *Lire le Capital*-en gelditu, askok usteko lukeenez. Althusserren “curriculum vitae” bi alditan bana daiteke, nolabait esateko.

Lehen aldiko lan inportanteenak:

PM — *Pour Marx* (Maspero, 1965) Mario Onaindiak euskaratua.

LI — *Lire le Capital* (Maspero, 1965) Euskaratu gabea.

CPH — *Cours de philosophie pour scientifiques* (Maspero, 1974) Euskaratu gabea.

Bigarren aldikoa:

L — *Lenine et la philosophie* (Maspero, 1969) Euskaratzen ari.

AE — *Idéologie et appareils idéologiques d'Etat* (La pensée, 151 zenb. 1970)

RL — *Réponse à John Lewis* (Maspero, 1969) Euskaratzen ari.

EA — *Éléments d'autocritique* (Hachette, 1974) Euskaratzen ari.

Azken izkribuen argitan jujatu behar da estrukturalismoarekin flirteatzen zuen Althusser hura. 1968an “ebakidura” antzeko zerbait gertatzen da Althusserren eta honen dizipulu multzo baten artean. Hauek maoismora pasatzen dira. Althusserrek PCF-n jarraituko du.

Baina duela gutxi, bere buruaren kritika egiteko ausardia eduki du Althusserrek. Harrigarria benetan, filosofoak ez baitira inoiz tronpatzen! *Autokritika gaiak* deituriko azken izkribu honetan bere

aurreko lan teorikoen autokritika egiten du: “Ebakidura”, zientzia, filosofia, Marx gaztea... hona hemen Althusserren autokritika gaiak.

Entseiu honetan aurkitzen dugu, lehen aldiz, *Pour Marx* eta *Lire le Capital*-eko posizioen azterketa kritiko bat. 1967an, *Lire le Capital*-en italiar edizio batean, joera oker batez kutsatua zela aitortzen bazuen, orain izen bat ematen dio desbideraketa horri: *teorizismoa*. Eta okerkuntza horren “objektua” (“ebakidura”, alegia) argituz hasten da: nola gertakari historiko horri bere dimentsio sozial, politiko, ideologiko eta teoriko osoa eman beharrean, gertakari historiko mugatu baten neurrira ttipitu zuen; nola “ebakidura epistemologikoaren” interpretazio razionalista batera eramana kausitu zen, esan nahi baita nola zientzia/ideologia espekulaziozko etsaigoaren pean okerrari egia kontrajarriz, burges ideologiaren eta marxismoaren antagonismoa bigarren mailakoa bilakatzen den.

Bere desbideratze teorizistaren ondorio guztiak erredukzio honetatik eta interpretazio honetatik datozela aitortzen du Althusserrek. “Erredukzioa + interpretazioa: eszena razionalista-espekulatibo honetatik ia kanpo zegoen klase borroka” (EA, 15 or.).

Hitz gutxitara laburtzen du bere proiektua:

“Burges ideologiaren egiazko erasoen kontra zaindu nahi nuen nik marxismoa: behar zen beronen berritasun iraultzailea erakutsi; behar zen, beraz, marxismoa burges ideologiari antagoniko zaiola “frogatu”, beraz ez dela Marxengan eta langile Mugimenduaren baitan hazi ahal izan ez bada burges ideologiarekin etengabe eta errotik hautsiz, eta ideologia honen erasoetatik eperik gabe borrokatuz. Tesi hau zuzena zen: eta zuzena da” (EA, 14 or.).

Baina “ebakidura” dohatsu horretaz hitz egitera pasatu aurretik, M. Onaindiak prestatu duen *Pour Marx*-en (Althusserren obrarik inportanteena, beharbada) euskal itzulpena aipatu nahi nuke. Obra hori *Jakin*-ekoen eskuetan dago. Lehenbailehen publikatzea ezatela eskatzen diet. Argitarapen horrek euskal marxismoaren historian urrats handi bat markatuko duelakoan nago.

Artikulu hau eta honen hurrengoak Althusserren gainean preparatzen dihardudan entseiu baten aurreproiektua besterik ez dira. Althusserren ekarpen galanta medio, teoria marxistaren oinarriak ezagutaraztea litzateke honen xedea. Euskal errealitatearen analisi konkretuak egitea mugimendu iraultzaileen eta marxista euskaldunen lana da bereziki.



## “Ebakidura”

Lau tesis baliatuko naiz (filosofiak tesiak enuntziatzen ditu eta ez proposizio zientifikoak) “ebakidura epistemologikoa” kategoriarren adierazia eskematikoago agerrarazteko.

– *1. tesis*: 1845 ezkeren Marxen obran marrazten eta jokatzen den politiko-teoriazko esperimendazio harrigarri hori ez da ilusio bat, ezta asmazio huts eta soil bat ere. Bada Marxen pentsamendu teorikoaren historian “ebakidura” baten antzeko zerbait, “deus ez dena, baina langile mugimendu oso-osoaren kondairari axola dio-na” (EA, 17 or.). Enpirikoki, konparatiboki frogagarria da *Aleman Ideologia*-tik aurrera prezedenterik gabeko eta bihurrerarik ukanen ez duen gertakari baten antzeko zerozoer sortzen dela. Aski da testuaren egitura eta funtzionamendu modua analizatzea.

Althusserrek ez du puntu honetan amore ematen. Hain kritikatu izan den tesi hau, azaldu duen eran, oso eskematikoa dela diosku, eta ikerketa eta analisi luzerik eskatuko lukeela, berauen hipotesia besterik ez denez gero. Baina kontrajarri zaizkion objektzio serioetarik ez du uste batek ere, bere printzipioetan, inarosten duenik. Ze, bere biluztasunean, ez baitu finean deus egiten, gertatu bat markatzea baizik. Baina zer nolako amorruez entseiatu diren John Lewis guztiak berau ezerezera erreduzitzen! Ez alferrik!

Baina entzun diezaiogun berari:

“Esana dut: konstata daiteke, Aleman Ideologia-ren duda-muda eta ezbaietan ere, oinarrizko kontzeptu teorikoen antolamendu baten existentzia, Marxen aurretiko testuetan alferrik bilatuko genituzkeenak, eta bere historiaurrean ez bezalako modu zeharo desberdin batez funtzionatu ahal izateko berezitasun hori presentatzen dutenak. Ni ez naiz hemen kontzeptu berrion estudioan sartuko, zentzuei dispositibo berriak lehen agertzen ez zen zentzu eta funtzio bat ematen dien: produkzio modu, produkzio erlazio, produkzio indar, produkzio indar eta produkzio erlazioetan finkaturiko klase sozialak, klase dominatzaile/klase dominatu, ideologia dominatzaile/ideologia dominatu, klase borroka, e.a. ukatu ezinezko gonbarazio bat permetatzen duen etsenplu hau besterik ez hartzeko, zera gogorarazten du, *44ko Eskuzkribuen* sistema teorikoa oinarrizko hiru kontzeptuon gain eraikia zela: Giza Esentzia/Alienazioa/Lan Alienatua”(EA, 20 or.).

*Aleman Ideologia*-tik hasten da, beraz, sistema edo kontzeptu dispositibo berri bat: Produkzio modua/Produkzio erlazioak/Produkzio indarrak kontzeptu hirukote berri horrek (fitsik ez berauetaz *Eskuizkribuetan*) dispositibo teoriko berriaren oinarria egiten du. Dispositibo honen funtzionamendu moduaren aldean zeharo bestelakoa da. “Terreno aldaketa baten aurrean gaude” (beste metafora inportante bat, ezen filosofian ez baitaiteke pentsa metaforen pean izan ezik).

– 2. *tesia*: “Ebakidurak” marxismoaren eta burges ideologiaren arteko haustura markatzen du. *Aleman Ideologia*-z gero, zeharo bestelako haustura bat marrazten eta obratzen da, ez bakarrik teorikoa, politikoa eta ideologikoa ere bai. Haustura hau ideologia burgesarekin, burges mundu ulerkuntza dominantearekin (boterean eta ideologia politikoetan eta teorikoetan nagusi zenarekin) haustea zen, eta ez soilik zernahi ideologiarekin edo historiaren kontzeptzio ideologikoekin. Baina gaur arte ez du Althusserrek puntu hau argi eta garbi azaldu, ez du zehazki ikusi batetik burges ideologiarekiko Marxen hausturaren eta bestetik “ebakiduraren” artean dagoen lotura.

Horregatik, hain xuxen, puntu honetan du oinarri hartzen Althusserren desbideraketak, teoriatzko desbideraketak. Teorizismoak berez zera esan nahi du: teoriaren lehentasuna praktikari buruz, eta xuxenkiago, razionalismo espekulatiboa. Razionalismoa da egia/okerra oposizioan pentsatzea. Espekulazioa da egia/okerra oposizioa Zientziaren eta Ideologiaren teoria orokor batean pentsatu nahi izana.

Ideologia burgesarekiko marxismoaren haustura “ebakidurara” erreduzitzen zuen Althusserrek, eta marxismoa eta ideologia burgesaren antagonismoa zientziaren eta ideologiaren antagonismora. “Ebakidura” beraz termino razionalistetan kontzebitu eta definitu izan du: zientzia/ez-zientzia, zientzia/ideologia.

– 3. *tesia*: “Ebakidurak” zientzia berri baten jaiotza markatzen du, zientziaren eta bere historiaurrearen (ideologiaren) artean mugargi bat trazatuz. “Ebakidurak” eragin duen “terreno berri” horren gainean botako dituzte kontzeptu berriek teoria zientifiko baten zimentarriak. Kontinente zientifiko berri bat bilakatuko denari “bidea irekiko” diote. Zientzia berri baten kontzeptu teoriko berrien jaiotza batera doa antzinako nozio ideologikoen arbuio teorikoarekin. Zientzia bat ez da sortzen ez hazten ezpada ideologiari etengabe

kontrajarriz, eta beronen kategoria eta nozioekin etengabe hautsiz eta ebakiz. Zientzia baten historiaurrea, beraz, bere ideologiaren historia da.

Lehen historiaren filosofiak eta ideologiak besterik ez ziren lekuan Marx eta Engelsek zientzia berri bat funtsatzen dute: Historia kontinentea. Esan dezakegu Marx aurretik bi kontinente handi idoro izan zirela (metafora bidez, berriz ere): Matematika kontinentea grekoekin eta Fisika kontinentea Galileorekin. Halaber posible da Freudek kontinente berri bat idoro izana: Inkontziente kontinentea, alegia.

– 4. *tesia*: “Ebakidura” prozesu etengabea da. Zientzia bat ez da inoiz gelditzen. Kontzeptu zientifiko berriak “egiak” aurkitu ahal, okertzat jotzen dira eta bazterrean uzten. Teoria marxista ez da gauza bukatua, eginkizun dago. Marxek eta Engelsek ez zuten oinarriak jarri besterik egin. Leninek, Rosa Luxemburgok, Gramscik, Althusserrek, Maok eta bestek jarraitu dute marxista teoriagintza debelopatzen eta aitzinarazten. Ebakidura prozesua ez da inoiz geratu, eta ez da geratuko ere. Merezki du hona ekartzea Althusserrek zitazten duen Leninen pasarte hura: “Guk ez dugu inola ere Marxen irakaspena gauza bukatu eta ezin-ukitutzat hartzen. Aitzitik, sine-tsita gaude (Marxek) ez duela oinarriak jarri besterik egin, eta sozialistek oinarri horiek alde guztietara zabaldu eta aintzinarazi behar dituztela, bizitza baino atzerago gera ez gaitezen.” (Lenin, “Gure programa”, 1899).

Bada oraindik marxismoak gaizki esploraturiko kontinenterik: problema nazionala, emakumeen kondizioa, e.a. Baina ez gaitezen gu ere teorizismoan erori, praktikak lehentasuna duela ez dezagun bistatik gal. Errusiar, txinar, vietnamitar, kubatar eta euskaldun iraultzaileak ere ez dira iraultza egiteko teoria osatu baten zain egon. Teoriaren mailan gelditzea “disco errepikatua” litzateke, Maok ongi dioenez, gure egitekoa “berria ikastea”, “berririk sortzea” dela ahantziz.

## Althusserren azken posizioa “ebakidurari” buruz

Ezin uka daiteke Marxen historian haustura bat izan zenik. Tesi hau Althusserrek ez du ukatzen, atxeki egiten du. “Ebakidura” ez da ilusio bat, ezta gutxiagorik ere. Bachelardi zor dion ideia hori bere

lehen entseien kategoria nagusi egin du Althusserrek. Espresio horrek egiatzko batasun saindu baten paktua eragin du bere kontra, burgesak, komunistak eta anarkikoiak tartean direlarik. Kategoria justuagorik proposatzen ez den bitartean hipotesi hori atxikitzen duela diosku, batera arrazoi politiko eta teorikoengatik. “Ez dezagun ilusiorik egin: eztabaida eta enfrentamendu politiko batean dihardugu azken finean” (EA, 32 or.). “Ebakiduraren” gertaera onartzen dutenen eta ezerezero erreduzitu nahi dutenen artean badago politikazko antagonismo bat azken finean.

“Ebakidura” da Althusserren joera teorizistak finkatzeko parada ukan zuen abiapuntua, “objektua”: gertakari historiko horri bere dimentsio sozial, politiko, ideologiko eta teoriko guztia eman beharrean, gertakari historiko mugatu batera erreduzitzen eta “zientzia” eta “ideologia” termino razionalistetan interpretatuz. Honela, “ebakiduraren” funtsa eta arrazoia dena, hots burges ideologiaren eta marxismoaren antagonismoa, kasu partikular bat besterik ez zen bilakatzen. “Ebakidura”, hortaz, erreduziorik gabe interpretatu behar litzateke.

Teorizismoaren autokritika: praktikak nagusigoa du teoriari buruz, esan nahi baita klase borroka lehentasuna duela ekonomia-  
ren eta politikaren mailan, teoriaren mailako klase borrokari buruz.

## Historiaren zientzia

Althusserren azken izkribua dela eta (*Autokritika gaiak*, alegia), orain arte zera seinatu dugu:

a) 45 inguruan “ebakidura” antzeko zerbait gertatzen dela Marxen pentsaeraren eboluzioan. Berau ez dela asmazio huts bat, historian presedenterik ez duen gertakari historiko eta teorikoa baizik. “Ebakidurak” marxismoaren eta burges ideologiaren arteko haustura duela markatzen eta, ber denboran, zientzia berri baten jaiotza: Historiaren zientzia.

b) Teoria marxistaren baitan, zientzia bat (materialismo historikoa, MH) eta filosofia bat (materialismo dialektikoa, MD) direla bereizten. Filosofia, azken instantzian, klase borroka dela teoriarik, esaten genuen. MH edo materialismo historikoz mintzatuko gara.

## Historia: Kontinente berria

Teoria marxista zer den jakiteko, Marxek aurkitu zuen kontinentea berria aipatzetik hasi behar da: hots, ekonomia, politika, ideologia, instituzioak, zientziak, e.a., Historia kontinenteak bere barne dituenak. Althusserren pasarte bati jarraiki, ikus dezagun nola deskubritu zuen Marxek kontinente berria:

“Ene entseiu filosofikoetan defendatu nahi izan dudan funtsezko tesia hitz batzuetara laburtzeko eskatuko balitzait, zerau esango nuke nik: Marxek zientzia berri bat funtsatu du: Historiaren zientzia. Eta erantsiko nuke: aurkipen zientifiko hau giza historian prezedenterik gabeko gertakari teoriko eta politikoa da. Eta are zehazkiago esanik: gertakari honek ez du bueltarik.

Gertakari teoriko bat: Marx aurretik, “Historia-kontinentea” dei genezakeena, bai erlijioso, bai moral, bai juridiko-politiko inspiraziozko kontzeptio ideologikoez okupaturik zegoen, hots, Historiaren filosofiez. Historian eta gizarteetan gertatzen denaren errepresentazio bat eman nahi zuketean beraiek. Baina, historia eta gizarteak gobernatzen dituzten mekanismoak nozio deformatzaile eta engainakorren pean estali besterik ez zuten egiten... Kontzeptio ideologiko hauekin apurtuz “ireki” zuen Marxek “Historia-kontinentea.” Ireki, materialismo historikorearen printzipioak, Kapitala eta gainontzeko obrak direla medio. Ireki, ba, Leninek dioen bezala, Marxek ez baitu etxalde handi baten “oinarriak” ezarri besterik egin...” (EA, 105).

Gertakari politiko bat ere bada. Marxen aurkipen hau hasiera-hasieratik klase borroka errabiatu eta urrikalmendurik gabeko baten jokalekua izan da. Giza historia klasedun gizarteen historia dela erakutsiz eta esplotazio kapitalistaren mekanismoak agerraraziz klase dominanteen interesekin talka egin zuen Marxek. Berorien ideologoek borrokarik gogorrena egiten diote betiere. Gure arteko burges ideologoek leloa ezagutzen dugu: “Marxisten kondaira materialismoa ez da zientifikoa, mitoa baizik.” Esplotatuek, aldiz, eta lehen mailan proletarioek, “beren” egiazat ezagutu dute, bere egin eta langile klase borrokarako armatzat erabili.

Duela ehun urte pasatxo (1867an) bukatu zuen Marxek *Kapitala*-ren lehen liburukia. Marxismoa zaharkitua ote dago, beraz? Joana ote da? Ez zahartu eta ez joan, Marxek sortutako Historiaren zientzia hein handi batean eginkizun dagoela ikusiko dugu ondoko lerrootan.

Historia kontinentearen eremu zabalean Matematika eta Fisika kontinenteak aurkitu zirenean, ez zen anartean hura zientifikoki ezagutzen, baina Marxek gero badakigu praktika sozialak oro haren espazio barnean direla sartzen. Historia kontinenteak praktika sozial historikoen artikulazio ekonomiko-politiko-ideologikoa du adierazten. Ez da gertakari historiko eta sozialak huts-hutsean eta bakarka hartzera mugatzen, ezpada gizarteko elementu desberdin guztien konbinazio eta hierarkizazio konplexuak ditu aurkitzen.

Kontinente honen teoria, zentzu bortitzean, materialismo historikoa da. Beronek kontzeptu formal-abstraktu baten bidez bateratzen ditu gertakari sozial eta historikoak: produkzio modu delakoaren bidez. *Dialektika materialista* da produkzio moduen artikulazioa esplikatzen duen analisi metodoa. Materialismo historikoa, produkzio moduen artikulazioak historian zehar lege bat jarraitzen duela erakutsiz, lege horren kontzeptu zientifikoa ematen digu: *klase borroka*. Hiru pieza horien (produkzio modua, dialektika materialista, klase borroka) artikulazioa gabe ez dago historiako errealitatez diskurtso zientifikorik egiterik.


Produkzio modua eta formazio sozialaren kontzeptuak ematera mugatuko gara hemen, eta ez gara dialektika materialista eta klase borrokaren estudioan sartuko.

## Produkzio modua

“Gizarte guztien estruktura “maila” edo “instantziaz” taxaturik eta determinazio espezifikoko batez artikulaturik bezala kontzebitzen du Marxek: azpiestruktura edo base ekonomikoa (indar produktiboen eta produkzio erlazioen “batasuna”) eta gainestruktura, berau ere bi “maila” edo “instantziaz” osatua: juridiko-politikoa (dretxoa eta Estatuak) eta ideologikoa (ideologia erlijioso, moral, juridiko, politiko, e.a.)” (AE, 8).

Gizartearen estruktura honi produkzio modua deritza Marxek. *Kapitala*-n askotan hitz egiten du produkzio moduaz (kapitalista, feudala, esklabista, e.a.) baina zehatz definitu gabe. Zernahi gizarteren egiturako elementu ekonomiko, juridiko, politiko eta ideologikoren multzo konplexu hori pentsatzeko. Produkzio modua, beraz, bi maila dituen estruktura global konplexu bat da. Marxista

tradizioan, eraikin baten gisa hartua da: azpiko base ekonomikoak goiko parteak, alegia gainestruktura politikoa eta ideologikoa determinatzen dituelarik.



Dena dela, metafora topologiko hau birlantzeko dago, eta ez da inola ere mekanikoki hartu behar. Estructura bat esturktura guztien osotasunean ikusi behar da, “osotasun organiko” diren aldetik, ez atalka. Estructura ekonomiko, juridiko, politiko eta ideologikoen *artikulazioak* egiten du produkzio modua.

Produkzio modu guztiek badute, hortaz:

- 1) Hiru maila edo instantzia osaturiko esturktura global bat:
  - maila ekonomikoa (indar produktiboak, produkzio erlazioak)
  - maila juridiko-politikoa (Estatua, administrazioa, e.a.)
  - maila ideologikoa (eskola, eliza, ohiturak, e.a.)

Produkzio moduak ez du ekonomi maila bakarrik hartzen. Ez da “ondasun materialen produkzio moldeaz” nahasi behar. Azken espresio hau ondasun materialen produkzio forma bat adierazteko erabili ohi zuen Marxek: espresio deskriptibo bat da, beraz. Produkzio moduak, aldiz, ondasun materialen maila ekonomikoa

ez ezik, beste bi mailok ere adierazten ditu (juridiko-politikoa eta ideologikoa).

2) Estructura global honen baitan, estructura erregionaletariko bat beti zaie nagusi, *dominante*, besteei. Garrantzizkoa da seinalatzea: ez du esan nahi honek estructura ekonomikoak zeregin dominantea jokatzen duenik beti. Marxek garbiro diosku *Kapitala*-ren lehen liburuko oharpen batean: kapitalismoan ekonomiak dominatzen badu ere, Erdi Aroan katolizismoa nagusitzen zela (estructura ideologiko bat, beraz) eta Atenas eta Erroman, politika. Baina, “orduko kondizio ekonomikoak dira [...] zergatik katolizismoak kasu batean eta politikak bestean zeregin nagusia (edo dominantea) jokatzen duten *esplikatzen* dutenak.”

3) Azken instantzian, azpiestructurak *determinatzen* du beti gainestructura.

Aipatu testuak adierazten duenez, kondizio ekonomikoak dira zein estructura erregional edo instantziak jokatzen duen zeregin determinantea erabakitzen dutenak. Zeregin determinantea azken instantzian eta zeregin dominantearen bereizketa guztiz fundamental da, eta hala azpimarratu du Althusserrek. Marx eta Engels produkzio modu kapitalista (PMK) aztertzeraz mugatu ziren, batera bai determinante eta bai dominantetzat ekonomi maila duen produkzio modua; horregatik, ez zuten distintzio honen formulazio garbirik egin. Ez dira biak berdin. Erdi Aroan, esan bezala, katolizismoa zen nagusi, ideologia zen estructura dominantea; baina, orduko kondizio ekonomikoek determinatua zegoen ideologia erlijioso hori.

4) Gainestructurak badu *autonomia erlatibo* bat. Maila bakoitzak badu existentzia autonomo bat eta bere funtzionamendu eta hazkuntza lege propioak, nahiz eta, azken instantzian, maila ekonomikoaz determinaturik den. Gainestructura ez da, beraz, ekonomiaren espresio huts. Badu bere mundu bat, bere errealitate propioa. Oso kontuan hartu behar da, beraz, gainestructuraren autonomia eta beronen erlatibotasuna.



- 5) Produkzio modu orok bere jarraipen kondizioak *erreproduzitzen* ditu. PMK-k, etsenplu bidez, produkzio erlazio berezi batzuk (kapitalista/langile esplotazio erlazioak) berriztatzen doan heinean, eta beraren pean dituelarik Estata eta beronen aparailu ideologikoak, bere produkzio kondizioak etengabe ditu erreproduzitzen. Ondasun materialak produzitu ahala, produkzio moduak erreproduzitzeko joera du, bere dinamikak karakterizatzen du. Amaitzeko behar dugu esan produkzio erlazioak direla produkzio moduaren nukleo estrukturatzaile.

Honenbestez, ez gara produkzio moduaren maila edo instantzia bakoitza bakarka aipatzera pasatuko, zehazki egin beharreko lana da berau eta.

## Formazio soziala

Azpiestruktura eta gainestruktura batez konposaturik den produkzio modua kontzeptu abstraktu bat da, osotasun sozial huts eta “ideal” bat. Baina, konkretuki, ez da inongo gizartetan huts-hutsean ematen den produkzio modu bat. Leninek, esaterako, Errusian 1917tik 1929ra ziren produkzio ziren produkzio modu diferenteen berri ematen digu: laboral ekonomia, merkatal produkzio ttikia, kapitalismo pribatua, estatal kapitalismoa, sozialismoa.

Garbi ageri da garai hartan Errusian produkzio modu bat baino gehiago zirela. Beste adibide bat, *18 Brumarioa*-n Marxek analizatzen duen Frantzia da. Bertan ondasun materialen produkzio modu diferentetako konbinazio bat aurkitzen dugu: feudal, patriarkal, merkatal txiki eta kapitalista. Baina, jakina, produkzio moduetariko bat da beti nagusi, eta bere funtzionamendu legeak dizkie besteei ezartzen.

*Ekonomia politikoaren kritikarako sarrera*-n Marxek diosku gizarte molde guztietan produkzio modu jakin bat eta beronek sorrazitako erlazioak direla beste produkzio modu guztiei beren inportantzia eta lekua ezartzen dizkietenak.

Honela, sozietate historikoki mugatu gehienetan produkzio erlazio desberdinak ematen dira, berauetarik bat beti dominante delarik. Desberdintasun honetan bat nabarmentzen eta nagusitzen da

besteen gaintetik. Euskal Herria herri kapitalista bat dela esaten dugu, produkzio erlazio kapitalistak direlako dominante, baina, bada beste produkzio erlaziorik (laboral ekonomia, merkatal produkzio txikia, e.a.).

Molde berean, gizarte konkretu bateko produkzio erlazio dominatzaileek gizarte horretako gainestrukturaren (edo gainestrukturen) izaera dute determinatzen. Estructura ekonomikoaren konplexutasunak eta produkzio erlazio dominanteak “esprikatzen” dute historikoki mugaturiko gizarte ororen esturuktura ideologiko eta juridiko-politikoen izaera konplexua.

Historikoki mugaturiko errealitate sozial nasai eta konplexu horri *formazio soziala* deitzen zaio. Kontzeptu honek, horretaz, errealitate konkretu, inpuru eta konplexu bati erreferentzia dio egiten; produkzio moduak, aldiz, objektu abstraktu, puru, “ideal” bati. Honela, bada, euskal formazio sozialaz, frantses formazio sozialaz, e.a., mintza gaitzke.

Osoetasun sozial oro bezala, osoetasun sozial konkretu eta historikoki mugaturiko hau ere, maila edo instantzia ekonomiko, juridiko-politiko eta ideologiko batez osaturik da; baina, maila honetan, izaera askoz nasaiago eta konplexuago bat dute, noski. Beraz, formazio sozial guztietan, zerau dukegu:

1. Estructura ekonomiko konplexu bat, bertan produkzio erlazio desberdinek koexistitzen dutelarik. Berauetarik batek gehien agintzen du eta leku nagusia hartzen, bere funtzionamendu legeak menpeko erlazioei ezarriz.
2. Estructura juridiko-politiko konplexu bat, klase dominantearen dominazio zeregina betetzen duena.
3. Joera ideologiko desberdinez osaturiko esturuktura ideologiko konplexu bat. Tendentzia ideologiko dominatzaileak gainontzeko joerak azpiratzen ditu, eta jeneralean klase dominatzailearen joera ideologikoa izan ohi da.

Formazio soziala, horretaz, maila erregional konplexuz taxaturiko esturuktura konplexu bat da. Produkzio modu kontzeptuak osoetasun sozial abstraktu bati (kapitalista, mirabea, esklabista, e.a.) egiten dio erreferentzia. Formazio sozial kontzeptuak, osoetasun sozial konkretu bati.

Beraz, formazio sozial bat estudiatzerakoan, herri jakin bat ikertzerakoan, behar da estruktura erregional bakoitza bere autonomia erlatiboan aztertu. Instantzia ekonomikoa estudiatzerakoan, adibidez, ea zenbat produkzio erlazio desberdin ematen den ikusi, nola konbinatzen diren, produkzio dominantea zein den diagnostikatetik hasi behar dugu. Estruktura ideologikoaren barnean, berriaz, burgesia handiaren eta txikiaren ideologia, ideologia erlijioso eta artistikoak, zein den ideologia dominatzailea eta zeintzuk dominatuak, e.a., borroka ideologikoa zein frontetan egin behar den jakin ahal izateko.

Dakigunez, materialismo historikoaren funtsezko tesia honetan datza: produkzio erlazio desberdinez konbinaturiko azpiestruktura ekonomiko konplexuaren arabera esplikatzeko da gizarte batean gertatzen den prozesu historiko mordoa. Tesi honek ez du, halere, gizarteko beste instantzia edo mailen neurri bateko independentzia ukatzen. Azken instantzian, estruktura ekonomikoak determinatzen du aurrerakuntza soziala, baina ez du deus automatikoki produzitzen. Honela, instantzia ideologiko eta juridiko-politikoek, base ekonomikoaren aldean aurreraturik nahiz atzeraturik egon daitezke.

Formazio sozial baten azterketa, funtsean, azterketa enpiriko bat da. Behar dira datu konkretuak, estatistikak, e.a., eta ikerketa kritiko baten galbahetik pasarazi. Estruktura ekonomikotik ez daitezke inoiz eta inola beste instantziak deduzitu ahal. Ekonomikoak “hari eroale” gisa obratzen du, *gidaritzat* egiten du bakarrik.

Baina, elementu fundamental bat gelditzen zaigu oraino: gizarte baten herritartasuna, nortasuna, historia, hots, naziotasuna. Gizarte bat zientifikoki ezagutzeko bazterrezinezko faktorea da berau. Aurkitzeko dagoen kontinentea dela esan daiteke. Althusserrek: “Ezin uka daiteke gertakari bat: ehun urtez gero, humanitatearen historia osoa Langile Mugimenduaren (eta herri zapalduen) eta Teoria marxistaren (Teoria marxista-leninista bilakatuaren) Batasunetik zintzilika dago.” (EA, 108). Herri zapalduen zortea ere, beraz, teoria marxistari loturik dago. Baina ez gara honetaz hemen ihardungo.

## ***Zein den Kapitala-ren objektua?***

Ikus dezagun Marxek berak zer dioen: “Obra honetan, produkzio modu kapitalista eta beroni dagozkion produkzio eta truke

erlazioak estudiantzen ditut. Produkzio horren jaioterria Ingalaterra denez gero, herri horretatik jaso ditut neure tesien argibidetzat zerbitzatzen duten gertaera eta etsenplu nagusiak.” Baina, galde genezake: PMK bere osotasunean ala beronen estruktura ekonomikoa bakarrik?

Marxek, beraz, objektu abstraktu bat aztertzen du bere izkribu nagusian, PMK, alegia. Ingalaterra, hots, historikoki mugaturiko formazio sozial hori, adibidetzat hartzen du soilik. Baina, bestalde, *Kapitala*-k PMK osoki ikertzen duenik ezin esan genezake. *Kapitala*, ezagutzen dugun eran, amaitzeke dagoen obra da: PMKren “maila ekonomikoaren” azterketa zientifikoa eskaintzen baitigu bakarrik. Marxek bazukeen PMKren maila politikoa eta ideologikoa (Dretxoa, Estatuak, ideologia, e.a.) aztertzeko asmorik, baina ez zuen burutzerik ukan. Halaz ere, bada bertan PMKren gainontzeko instantziak lantzeko zenbait elementu teoriko “egoera praktikoa” Althusserren arabera. Izatez, PMK hiru mailako estrukturadun osotasuna denez, estruktura global honen baitan artikulaturik eta konbinaturik dago ekonomikoa ere. Gainestrukturaren teoria elaborakizun dago oraindik.

Materialismo historikoaren kontzeptuok elaborapen desberdina ukan dute: azpiestrukturari dagozkion kontzeptuak izan dira gehien eta ongien landuak, Marxek *Kapitala*-n PMKren maila ekonomikoa analizatzeko bereziki erabili zituenak, hain zuzen. Kontzeptu asko jorratu eta birpentsatu beharra dago oraindik. Lenin eta Gramscirengan bilatu behar dira bereziki politikari buruzko kontzeptuak. Ideologiaren eremua kasik landu gabe daukagu, hortik sortu da desbideraketarik franko. Mao Tse Toungek azpimarraturik du ideologiaren inportantzia. Ideologia materialismo historikoaren pieza nagusi bat baita, produkzio moduaren kontzeptua ulertzeko estrategikoa. Tamalez, PMKren instantzia juridiko-politiko eta ideologikoen teoria zientifiko bat.

## MH: Teoria zientifiko bat

Esan dugun bezala, Marxen obra nagusiak, *Kapitala*-k, PMK du estudiogai, esan nahi baita, errealitatean inoiz ere egoera hutsean aurkitzen ez den objektu abstraktu bat. Aipatu ditugu, halaber, az-

terketa honen mugak: PMK bere fase premonopolistan zegoeneko maila ekonomikoaren ezagutza zientifikoa ematen digu bakarrik. Marxek ez baitzuen bere hasierako proiektua burutu ahal izan: PMKren hiru mailen artikulazioaren teoria.

Baina zerk gidatzen du Marx PMKren estudio zientifikoa? Zein da bere “hari eroalea”? “Hari eroale” hori *Ekonomia politikoa-ren kritikarako sarrera*-n eskematikoki eskematikoki enuntziaturik datorren materialismo historikoaren teoria da. Zientzi hizkuntzan hain erabilia den *teoria* hitz honen esanahia laburki analiza dezagun lehenik.

Produkzio prozesu materialean, produkzio bitartekoen bidez, lehen materia bat (burdina, adibidez) produktu jakin batean (xaffle-tan, adibidez) transformatzen entseiatzen garen bezala, ezagueren produkzio prozesuan lehen materia jakin bat (errealitatearen per-zeptzio axaleko bat, adibidez) produktu jakin batean (ezagutza zien-tifikoa) bilakarazten entseiatzen gara. Transformaketa hori langile intelektualek obrarazten dute langailu intelektual bereziak erabiliz: teoria eta metodo zientifikoak, bereziki. Zeri deitzen zaion teoria? Zientzia baten kontzeptu gutxi edo aski sistematikoen gorputzari (konparazio bidez, errelatibitatearen teoria, inkontzientearen teo-ria freudiarra). Eta kontzeptuon erabilerari *metodo* deritzo. Teoria zientifiko oro ezagugailu bat da: ez digu errealitate konkretu baten ezagutzarik ematen, baina bai kalkulu konkreturik egin ahal iza-teko bitartekorik. MH edo Historia marxistaz mintzo garenean, beraz, formazio sozial desberdinak zientziazki ikertzeko zerbitzatzen diguten kontzeptu abstraktuez dugu hitz egiten.

MHren kontzeptu multzoa ondoko hau da: indar produkti-boak, produkzio erlazio sozialak, produkzio modua, azpiestruturura, gainestruturura, instantzia ideologikoa, instantzia juridiko-politikoa, maila ekonomikoa, formazio soziala, ekonomiaren azken instantzia-ko determinazioa, gainontzeko mailen autonomia erlatiboa, klase sozialak, klase borroka, koiuntura, erreboluzioa, e.a. Kontzeptu mordo hau ez bazuen ere Marxek sistematikoki estudiatu, beraue-taz baliatu zen PMKren ikerketarako. Sistemaren deskribapen soil batetik beronen lege, dinamika eta funtzionamenduaren ulertzapen sakon batera iritsi ahal izan zen.

MHn behar da bereizi: *teoria jeneral* bat eta produkzio modu desberdin bakoitzaren *teoria erregionalak* (esklabista, feudal, kapi-talista, sozialista, e.a.). Esate baterako, proletargoaren diktaduraren

teoria MHren teoria erregional bat da: PMKtik produkzio modu sozialistaranzko igaroaldiaren teoria.

Era berean, MHren kontzeptu jeneralak (goian aipaturikoak) eta, adibidez, *Kapitala*-n PMKren maila ekonomikoaren azterketan erabilitako kontzeptu espezifikoak. Konparazio bidez, lan abstraktu eta lan konkretu kontzeptu espezifikoak PMKren maila ekonomikoa estudiatzeko dute balio; PM feudal edo sozialistaren plano ekonomikoa estudiatzeko beste kontzeptu espezifiko batzuk dira beharrezko.

MHren teoria jeneral eta erregionaletako kontzeptu jeneral zein espezifikoei Althusserrek *kontzeptu teorikoak* deitzen die. Ez digute berauek inolako ezagutza konkreturik eskaintzen. MH teoria zientifiko bat da, eta teoria zientifiko bat denez gero, ez digu errealitate konkretuen ezagutzarik ematen. *Kapitala*-k, esan bezala, ez du gizarte konkretu jakin baten ezagutzarik ematen, ezpada objektu abstraktu batena: PMK soilarena. MHk, teoria guztiak bezala, ez digu ezagutza konkreturik ematen, baina bai objektu konkretu horien ezagutza zientifikoa lortu ahal izateko lan tresnak (teori langailuak). MHk ez luke deusetarako balioko, baldin eta errealitate konkretuak analizatzeko erabiliko ez bagenu. Errealitate konkretuen ezagutza ematen diguten kontzeptuei *kontzeptu enpirikoak* deritzegu. Kontzeptu enpirikook ez dira errealitatearen kopia edo irakurketa huts eta soil bat, baina obserbaziotik eta esperientziazatik datozen daturik gabe deus ez dira.

Artikulu hau idazten ari ginelarik, *Kontzientziazatu Alfabetatuz* izenez, lehen euskal manual marxista agertu da gure artean. Marta Harneckerren ( Althusserren erdal itzultzailea berau) liburuari (*Los conceptos elementales del materialismo histórico*) jarraiki, MHren kontzeptu fundamentalak euskara erraz batean argiro esplikatzen dizkigu. Beronen beharra nabarmen sentitzen genuen euskaldunok; hemendik aurrera, zorionez, badugu euskal manual marxista bat: gertakari (historiko eta teoriko) garrantzitsu bat da guretzat. Gure zorion agurra eta esker ona bidaltzen dizkiogu egileari.

*Jon Sodupe (“Perugorria”)*

# GENERO SAILA







## Kattalin Idiart Jauréguy

### Ibilbide profesionala

Kattalin Idiart Amendüze-Unasonen (Behe Nafarroan) jaio zen. Zientziako ikasketak hasi zituen Pariseko Jussieu fakultatean eta gero Kimikan espezializatu zen “Conservatoire des arts et métiers” delakoan, ber denboran industrialian lan egiten zuelarik. Handik Euskal Herrira itzultzean 1971n, irakaskintzan hasi zen Hazparneko Lizeo Profesionalean, erretiratu zen arte.

Bera ere, bere senarra Battita bezala, preso egon zen aldi bat Fleury-Merogis kartzelan. Beti ere euskaltzaletasun eta abertzaletasunaren ikuspegitik arituz, Baionaldean sortu zen Euskal Emazteen taldekoa izan zen haste-hastetik, sortzaile nagusietako bat. Talde hau aitzindaria izan zen emazteen askatasunaren aldeko borrokan. Lehen ahotsa, ez bakarrik Iparraldean, baita Hegoaldean ere.

*Zabal*-en talde honen hainbat artikulu eta agiri agertzen dira, izen-abizenik jakinik gabe, lan kolektiboa zelakoan. Bestalde, *Zabal* aldizkariaren zuzendaritzan, Kattalin Idiar-tek hartu zion erreleboea Beñat Oihartzabali 7-16 zenbakie-tan.



## Hilaurtzeaz<sup>1</sup>

Beharbada, anitzek bitxi atzemanen dute hitz hori erabil dezagun: kabalenzat da bakarrik erabiltzen eta jendentzat erran behar da haur-galtzea. Hitz hau erabiliz uste dugu ez dela hizketa handirik egiten ahal, gutxienetik galdera bat egin behar delakoan: haste-hastetik umekia haur bat ote da?

Erran gabe doa, nahitako hilaurtzeaz garela mintzatuko. Ez da problema berri bat, baina betidanik izan dena eta gizarte guztietan. Baina, erranez betiko problema dela ez genuke pentsatu behar, ez dela aipatu behar, gauzak horrela ontsa direla. Hori pentsatzen dutenekin ez da elkarriketarik izaten ahal eta guk euskaldunok ez dugu horrelako problemez kanpo egon behar.

Azken urte eta bereziki azken hilabete hauetan, anitz liburu, kazeta eta oldeek aipatu dute hilaurtzearena.

### Azken gertakariak

Denok badakigu gordeka egiten dela anitz eta anitz hilaurtzea. Badakigu ere, ez dela haizu eta legeak gaztigatzen duela hilaurtzen duena, halaber hilaurarazten duena eta laguntzaile guztiak. Hala nola, batzuek erraiten dute badirela Frantzia 400.000 hilaurtze urtean, bertze batzuek 1.000.000 bat, bien artekoa hartuz izan liteke 700.000 bat, erran nahi baita kasik sortze bezainbat. Baina, ez da aipatzen. Behar dira eskandalu edo gertakari handi batzuk gure espiritua iratzartzeko. Horiek izan dira:

---

<sup>1</sup> *Zabal*, 1, 1973, 43-53 orr.

## *Hilartzeko askatasunaren alde*

Frantzian 1971. urtean, apirilaren 5ean, agertu zen “343 emazteren agiria”. Hauek denak burges emazteak, idazle, artista eta abar, denetaz ezagutuak. Aitortzen zuten hilartu zutela eta galdegiten zuten auzitegira deituak izatea. Urte berean, maiatzaren 3an, 560 medikuk galdegiten dute hilartzearen askatasuna eta horiek ere legearen aitzinean hobendun dira, ez delakoan haizu hilartzearen alde ere mintzatzea. Ez da segidarik izan.

1972. urtean, urriaren 11n, Bobigny-ko haurren auzitegian, Marie Claire 17 urteko neskatila bat, mutikoak salatuz, epaileen aitzinean dago. 21 urte ez zuelakoan auzia iragan da atea hertsirik. Hor erranetatik ez dugu deus jakin. Baina auzi horren inguruan, anitz oldeen zuzendariak mintzatu dira eta jendeak karrikara jautsi<sup>1</sup>. Neska ez da kondenatua.

Urte berean, azaroaren 8an, Bobigny-ko Tribunal de Grande Instance-n aitzinean, lau emazte, “Marie-Claire” delakoaren ama, bere haurraren nahia onartu duelakoan, bere laneko bi lagun gaizkide bezala eta laugarrena hilaurarazi duena. Lekuko buruzagiek zazpi ahalak eginik ere, gertakari hori ez dadin sobera aipatua izan, zernahi jende bildu da. Anitz mediku, jakintsu, diputatu, gizon eta emazte ezagun mintzatu dira. Auzi horren xehetasunak agertu dira liburu batean<sup>2</sup>. Kondenatuak arinak izan dira.

Aurtengo otsailaren 4-5eko *Le Monde* kazetak agertzen du “300 medikuren agiria”. Hauek aitortzen dute, berek hilaurazten edo laguntzen dituztela emazteak. Beren arrazoiak ematen dituzte. Hona hemen horien erranen bilduma:

- Frantzia erresuma atzeratuenerarik bat dela sexu, ernalkuntzaren trabatze eta hilartze gauzetan. Medikuen “Conseil de l’ordre” delakoak eta gobernuko gizonak jakinik ere zenbat gordeko hilartze den, ez dituzte begiak ireki nahi. Emazte dirudunak hilartzen du arriskurik gabe Frantziatik kanpo edo berdin Frantzian; aldiz, dirugabeak behar du bere osasuna edo berdin bere bizia arriskatu. Guk ez dugu hori onartzen ahal. Frantziak, alta “askatasunaren herriak”, ez du emaztearentzat onartzen gorputzaren askatasuna.

---

<sup>1</sup> Association “Choisir”, Mouvement de Libération féminine (M.L.F.), Association pour l’étude de l’avortement (A.N.E.A.).

<sup>2</sup> *Avortement: une loi en procès, l’affaire de Bobigny*, Gallimard, collections actuelles.

- Ez da sexu hezkuntzarik.
- Ernalketa trabatzeko bideak ez dira ezagutuak eta legea lo dago.
- Gure buruzagiek ez daukate “M.F.P.F.” oldea<sup>1</sup> baitzezpadakoa eta, beraz, honek ez du dirurik jasoko gobernuaren aldetik. Pentsatzen dugu bakoitzak behar duela bere gorputzaren eta bere osasunaren agintari izan. Nahi dugu: ernalketa trabatzeko bideak izan daitezzen guztientzat. Hortakotz, ezagutarazi behar da eta Gizarte-segurantza delakoak ordaindu behar ditu.
- Hilaurtzea libro izan dadin.  
Egiazko hilaurtze askatasuna izateko, emazteak du erabakia hartu behar eta ez talde batek, Gizarte-Segurantzak behar du ordaindu. Oraingo ezagutzen arabera, hilaurtzea oso erraza eta arriskurik gabekoa da eta hori denei ezagutarazi behar da. Azkenik, bakoitzak erabakia hartu behar du bere sinestean arabera.  
Aitortzen dugu emazteak hilaur ditugula edo lagundu dirurik eskatu gabe eta nahi dugu denak batean deituak izan edozein buruzagiren aintzineran.

Otsailaren 7an 206 mediku, lege-gizon, jakintsu, psikologo, moralista, eliza-gizon, familien alde lan egiten duten gizon eta emazte ezagunek zabaldu dute beste agiri bat:

Ikusiz, alde batetik, gure buruzagiek ez dutela legea aldatu nahi, beste aldetik hainbeste gordeko hilaurtze badela, ikusiz ere dirudun eta dirugabeen artean den injustizia, emazteak hilaurarazi ditugu:

- emaztearen osasuna arrisku handietan delarik.
- umekiak arriskatzen duelarik besteak ez bezalakoa izatea.
- amaren espiritua azkarki hunkitua delarik.
- bortxazko sexu harremana izan delarik.
- ama hamabost urtez pekoa delarik.
- amak bizibide hitsak dituelarik.

Hori egingo dute beraiek antolatutako talde batzuen baimenarekin, dirudik eskatu gabe eta arriskurik gabe. Hartaratuak izan dira ikusi eta beren elkartasunaren (A.N.A.E. jadanik aipatua dugun elkartasuna) nahikundeak, hiru urteren buruan, arraposturik gabe zirela bai gobernuaren aldetik bai lege-gizonen aldetik, bai medi-

<sup>1</sup> M.F.P.F. (Mouvement Français du Planning Familial) olde hau da ezagutua bere ekintza balioisarentzat gazte, emazte eta familien alde, sexu-heziketan.

kuen zuzendarien aldetik. Zenbait, askatasun gehiagoren alde (izan) daitezke, baina denak ados, bederen puntu horietan.

Bi agiri horiek oso ezberdinak izanagatik ere, lehenak askatasun osoa galdatuz, bigarrenak puntu konkretu batzuk proposatuz, erran gabe doa bazterrak harrotu dituztela, bai medikuen artean, baita gobernuko gizonen artean. Ministro batek ez ote du erran ez dela bozak aitzin horrelako gauzarik aipatu behar. Beldurtzekoa da horrelako gizonentzat ez dela sekula aipatzeko mementoa izanen!

Geroztik kasik egun guztiez agertzen dira artikulua edo aitorpenak:

Parisen M.L.F.-aren gerizpean, “Mutualité”ko biltokian bizpahiru mila jendek, gehientsuenak emazteak, eskatu dute hilaurtzearen aldeko askatasuna, askotan bortizki, erranez “gure sabelen jabe nahi dugu izan” edo “gizonek zain ditzatela guk egin haurrak...”.

Tolosan 130 medikuk galdegiten dute legea aldatua izan dadin. Grenoble hirian, jadanik aipatu ditugun oldeen (M.F.P.F, A.N.E.A.), “Choisir” eta G.I.S. (Groupement d’Information Sanitaire) lekuko buruzagiek lan egingo dute elkarrekin hilaurtzearen alde.

Belgikako Speers jaun medikua libratu dute, auzirik gabe eta jendea bildu da milaka Liège hiri nagusira. Medikuri hori preso altxatua izan zen 1973ko urtarrilaren 16an 320 hilaurtze egin zituelakoan.

Otsailaren 25ean, jadanik aipatu 331 medikutatik zenbaitek hilaurarazi dituzte hogeit bat emazte, medikuri eta kazeta egile batzuen aitzinean, Karman amerikano jakintsuaren, hilaurarazteko moldearen ezagutzeko.

Hor ikusten dugu medikuri horiek desafiitzen dituztela lege eta gobernuko gizonak, alde batetik erakutsiz hilaurtzeko moldeak errazak direla eta, bertze aldetik, bortxatu nahiz legearen aldatzera.

### *Hilaurtzearen kontra*

Bistan da, zabalduak izan diren agiriak ez direla denak hilaurtzearen aldekoak. Hala nola:

“Confédération des familles chrétiennes” oldearen buruzagiak erraten du: “haur galtzea, haur galtzea da eta ez du balio izanaren kanbiatzea... ordu liteke ideien zabaltzea biziaren alde eta ez hiltzearen alde...”.

“Syndicat national des Gynécologues et Médecine Français”:  
“Nehork ez eta ere gizarte batek, ez du hilaurtzeko eskubiderik...”.-

“Association des Médécins pour le Respect de la Vie”: “Hilaurtzea gizon baten hiltzea da...”.

“Association des Juristes pour le Respect de la Vie”: “Frantses guztiei elkarraraztea galdegiten diegu hiltzeko eskubidearen tratatzeko...”.

Medikuen “Conseil de l’ordre” delakoa betidanik hilaurtzearen kontra izan da eta aspalditik segurtamen berak aitortzen ditu; “gure moralaren hastapena da biziaren errespetatzea... bizi baten hiltzea ez daiteke onar bere buruaren salbatzeko baizik... Umekia, seguruenik ere, gizon batek ekaia da haste-hastetik... ez dugu onartzen ahal, norbaitek erdiets dezan hilaurtzea, ezta ere, gizarte batek bizia uka dezan...”. Bide bera segiturik, gaitzetsi ditu, Bobygnny-ko auzian mintzatu diren medikuak, Palmer eta Milliez jaunak, baina ez ditu gaztigatu.

Beraz, hunkitu gaituzten gertakariak, gutarik hurbil pasatu direnak dira eta legeak hilaurtzea debekatzen duen erresumetan; hauentzat iduri luke zerbait kanbiantzen ari dela urrunago ikusiko dugu zer diren kanbiamendu horiek, eta horien ondorioa izanen dela aldakuntza bat. Orain ikusiko dugu munduko erresumetan zertan diren legeak, zeren ez genuke pentsatu behar, Frantzia dela munduko zilborra eta Frantziatik kanpo ez dela deus onik, hain zuzen gai honetan, Frantzia azkenetarik baita. Gero ikusiko dugu Frantzian zertan den legea, honen helburuak eta ondorioak.

## Legeak zertan diren munduan

Hiru zatitan ezartzen ahal dira erresumetako legeak: hilaurtzea askatu dutenak, hilaurtzea mugatu dutenak eta, azkenik, gaingaitetik hilaurtzea debekatu dutenak.

*Hilaurtzea libre.* Erran behar da, emeki-emeki direla hilaurtzearen askatasunera heldu erresumak. Ez gara xehetasunetan sartzen ahal. Batzuetan, legeak onartzen dituen arrazoiak hain dira zabalak, non erran baitaiteke hilaurtzea oso libre dela, hala nola: Polonia, Errumania, Danimarka, Finlandia, Norvegia, Suedia, R.D.A., Bulgaria, Hungaria, Txekoslovakia, Errusia eta Jugoslavian.

Besteetan, emaztearen galdera aski da, hala nola: Ipar Ameriketako, Oregon, New York, Alaska eta Hawai estatuetan.

*Hilaurtzea mugatua.* Hilaurtzearen mugatzeko arrazoiak ezberdinak dira erresuma batetik bertzera: Arrazoi berezienak dira alde batetik, medikuntzako arrazoiak: amaren bizia edo osasuna lanje-rrean delarik, umekiak bertzeak ez bezalakoa izatea arriskatzen due-larik eta, bertze alde batetik, arrazoi “moralak” deitzen ahal ditugu-nak: bortxazko sexu harremanak izan direlarik edo 21 urtez peko ama batentzat.

*Amaren biziaren salbatzeko baizik ez.* Hori onartzen dute:

European: Frantziak

Afrikan: Frantziaren lehengo kolonia gehienek

Asian: India, Pakistani eta Kanboiako estatuek

Sortalde Hurbilean: Iran eta Siriak.

Hego Amerikan: Paraguay, Venezuela, Peru eta Brasilgo es-tatuek.

Amaren bizia eta osasunaren salbatzeko:

European: Ingalaterra, Suitzako estatuek.

Afrikan: Kamerun, Marroko, Tunisia eta Etiopiak.

Asian: Korea, Tailandia eta Indiak.

Sortalde Hurbilean: Israel eta Turkiak.

Hego eta Ipar Ameriketako estatu gehienek.

*Umekiak bertzeek ez bezalakoa izatea arriskuan delarik,* Turkiak, Hego eta Ipar Ameriketako estatu batzuek, hala nola Costa Rica, Kuba, Mexiko, Uruguai, eta Ipar Amerikan Colorado-ko estatuek.

*Arrazoi moralak* direlarik, Kamerun, Tailandia, Hego Amerika-ko estatu anitzek: Kolonbia, Argentina, Costa Rica, Kuba, Mexiko, Uruguai, Ipar Amerikan: Colorado-ko estatuek.

*Umekiak bertzeak ez bezalakoa izatea arriskatzen duelarik:* Turkia, Costa Rica, Colorado eta Ingalaterrako estatuek.

*Hilaurtzea debekatua:*

European: Espainia, Italia, Portugal, Luxenburgo, Belgika, Holanda eta Albaniak.

Afrikan: Lehengo ingeles koloniak.

Asian: Filipinak

Sortalde Hurbilean: Jordania eta Libanok.

Hego Amerikan: erresuma bakar batzuek: Dominikako erre- publikak.



Horrelako bilduma labur batean ez da xehetasun handirik ikusten ahal. Lege bakoitzak hartzen ditu molde berezi batzuk, baina goratik so eginik ere, bi gauza ikusten ahal ditugu, bai sistema politikoaren indarra bai erlijoaren indarra.

Ikusten dugu munduko jende erdientzat hilaurtzea libre dela, horretaratua izan dira, bereziki herri pobreenak, ernalketak trabatu behar zirelakoan: alde batetik, ernalkuntza tratatzeko bideak ez zirelakoan ezagutuak, gero ezagutuak izanagatik ez zirelakoan ontsa erabiliak edo onartuak eta, bertze aldetik, bizibide txarrak zirelakoan. Erran behar da ere, erresuma baten barnean, legea aldatua izaten ahal dela: hala nola Errumanian hilaurtzea debekatua izan da 1966. urtean sortze gutxi zelakoan, berehala sortzeak goitik joan dira, hein bererat erortzeko zenbait hilabeteren buruan eta hilaurtzea berriz libre izan da.

Erresuma aberatsagoetan, hala nola Ipar Amerikan, bertze helbururik badauka legeak eta helburu horiek dira Frantzian legearen aldaketa batek hunkitu beharko dituen helburuak (urrunago ikusiko ditugu). Azkenik erraiteko, iduri luke mundu guztia hilaurtzearen askatasunari buruz doala.

## Frantzian zertan diren legeak. Haren helburuak

Hilaurtzearen kontra den legearen pixka bat ikertzeko, ez dugu bereizten ahal orain arte izan den bertze lege batetik. Hori da ernalketak tratatzearen kontra izan den legea.

*Ernalketak tratatzearen kontrako legea.* Luzaz debekatua izan da ernalketak tratatzeko moldeen aipatzea bera ere, bistan da ernalketak tratatzeko pilulen edo bertze edozein trabagarriren zabaltea. Gero, emeki-emeki, jende batzuk eta talde batzuk, bereziki M.F.P.F. taldea, lehenik gordeka, gero agerian hasi dira ideien zabaltean. Horien lana oso baliosa da, baina badakigu jende gutxi hunkitzen dutela eta, bereziki, jende pobreena edo kultura gutxi duenak ez duela hunkitzen Azken inkestek erakusten digute, 100 emaztetatik 7 edo 8k baizik ez duela ernalketak tratatzeko pilularik hartzen. 100etatik 26k ditu ernalketak tratatzeko bideak erabiltzen, eta horietan gazteek dute gehienik erabiltzen (100dik 55ek); 100dik 43k aitortzen du bide horiek ezagutzen dituela.

Azken gerlaren ondotik dira gehienik ideiak zabalduak izan eta Frantziako buruzagiak bortxatuak izan dira legearen aldatzera. Badakigu zein uzkur diren. Neuwrith jaunak 1967. urtean proposatu zuen lehen lege bat. Orduan onartua ez zelakoan izan, bertze bat proposatu du 1972ko buruilaren 19an, behar zen taldearen aitzinean; honek onartu zuen, baina ministroak, Foyer jaunak, errefusatu egin zuen diputatuen aitzinean aipatzea bera. Geroztik, urte bereko abenduan, lege bat anitzez ahulago eta uzkurragoa bozkatua izan da, sexu-heziketaren eta ernalketak tratatzearen alde, baina badakigu ere gobernuko buruzagiek ez dutela behar den dirua xahutu nahi, eta lege horrek ez duela indar handirik izanen, ez baitzaio gehiago garrantzirik ematen.

*Hilaurtzearen kontra den legea.* 1920. urteko legepean bizi dira frantsesak. Lege horrek gaitzitzen ditu hilaurtzen duena, hilaurarazlea, laguntzaileak, baita hilaurtzearen alde mintzatzeko direnak. Hilaurtzea haizu da bakarrik amaren bizia arriskuan delarik. Bestalde, legeak medikuei galdatzen du hilaurtzen duen emaztearen salatza; alta bertze lege batekin erraten du medikuak ofizioko sekretuari atxikiak direla beren lanean.

Legeak aitortzen duen helburua ederra da: biziaren errespetua eta jaiotzeen laguntzea, baina erran behar da ere helburu horiek bertze batzuk gordetzen dituztela. Ez da uste gabean eginga izan lege hori 1914-18ko gerlaren ondotik: jendeak eta, bereziki, emazteak asaldatu ziren gerlako basakerien kontra, erranez ez zutela haragirik egin nahi kanoientzat eta anitz jaiotza gutxiago izan zen. Beraz, sortzeak bai, baina zertarako?

*Legea nahi bezala erabilia.* Geroago buruzagiek legea errespetarazi dute gutxi ala aski. Berriz, bigarren gerla denboran, hobekia. Petainen denboran, 1943. urtean, emazte hilaurarazle bati burua moztu zioten. Horrelako bortizkeria ez daiteke konpreni orduko problemei behatu gabe. Frantzia gerlan zen arrisku handian eta soldaduak eskas.

Geroztik, horrelako lanjerri ez delakoan (Debré, beharbada, oraindik beldur da eta horretarako eskatzen ditu 100.000.000 frantses), legea ez da hainbeste bortizkeriarekin erabilia. Zorionez!

Etsenplu horiek erakusten digute, Frantzian ere, buruzagiek nahi dutena egiten dutela lege batekin, errespetaraziz ala ez, bortizki ala ahulki. Gehiago dena, ez dute berdin errespetatzen erresuma-

ren barnean, leku batetik bertzera. Irakurri ahal dugu “Reunion” irlan, klinika batean, hilaurarazi dituztela, hauen baimenik gabe, 6 hilabete arte haurdun ziren emazteak. Egia errateko, bi mediku beren kargutik kendu dituzte. Laster ondotik, Debré jauna lekuko diputatua (alabaina “Reunion” irla frantsesa da) errezibitua izan da klinika hartan. Galdera bat: lege berezi bat ote da leku hartarako?

Azken urte hauetan, kondenak oso arinak izan dira: presondegia zenbait egun edo hilabeterentzat, ardurago zenbait urterentzat, baina kasu guztietan dirua eskatua izan da hobendunari. Beraz, zigorrak txikiak zirenez gero, zertarako medikuek ez dute onartzen emazte baten hilauraraztea. Bertze edozein hilaurarazte salbai baten eskuetan utzi orde? (100 hilauraraztetik 3 dira bakarrik medikuek eginak).

Alde batetik, beren sinismenaren arabera, azken urte hauek arteraino, gutxi ziren alde eta, bertze aldetik, alde izanik ere, bertze zigor baten beldurra badute: “Conseil de l’ordre” delakoak lana debekatzen ahal diote gutxienez bost urterentzat. Medikuek berak dio: “diruaren ordaintzea erraz liteke, baina lanik gabe bizitzea...!”

*Legeak ez indar handirik.* Frantzian badaitezke 800.000 hilaurtze urtean. I.N.S.E.E-ren zifren arabera izan dira:

- 1965. urtean 588 kondena
- 1966. urtean 720 kondena
- 1967. urtean 623 kondena
- 1968. urtean 698 kondena
- 1969. urtean 471 kondena
- 1970. urtean 340 kondena

Beraz, horrelako lege bat “ona” ote da (ona erraten ahal bada zerbaite debekatzen duen lege bat). Ez badu berak finkatu helburua betetzen, zer balio du?

*Legea ez da zuzena.* Klase sozial bat baizik ez duelakoan gazti-gatzen kondenatuak izan diren 100 emaztetatik:

- 26 dira lanik gabe, jende “xehetatik”.
- 35 bulegoko enplegatu txiki.
- 15 salerosle edo ofizialeen emazte.
- 16 orain deitzen diren “cadres moyens”.
- 5 langile
- 3 ikasle.

Burges emazteen bihirik! Erranen duzue horiek gutxiago hilaurren dutela, jaiotzen aurkako bideak ezagutzen eta erabiltzen dituztela eta aurka gutxiago direla. Horiek oro egiak, baina oroit bakarrik “303 emazteren agiriaz”. Burges emazteek ere hilaurren dute, baina ez dira auzitegietan ikusten! Horrelako lege bat zuzena ote da?

Beraz, legeak bazituen hastapenean helburu batzuk, aitortzen edo gordetzen zituenak. Helburu horiek ez ditu hunkitzen. Galdera bat egin liteke: zein helburu ditu gaurko egunean?

*Emaztea zapaldu?* Hori diote goraki emazte batzuek, bereziki M.L.F.ko buruzagiek. Simone de Beauvoir idazle famatuak dio: “Gizonek dute lege hori eginga eta atxiki nahi emaztearen zapaltzeko. Neskei ez zaie erraten ahal lan tzarren egiteko sortuak direla: etxean, manaiu, baxeren garbitze, kozina eta abar, etxetik kanpo gizonek manatuzko lanak. Hortakotz, behar zaie heziketan erakutsi ama izateko eginak direla eta bide horietatik ez ateratzeko. Horrelako legeak baitezpadakoak dira”.

*Sexutasuna zapaldu?* Hori diote bertze batzuek. Jendeen sexutasunaren zapaltzeko, atxikia dela lege hori eta, bereziki, emazteen sexutasunaren zapaltzeko. Sexu harremanak dituenak jakin behar du zer arriskatu duen...

Aitortua ez izanagatik, beharbada, horrelako arrazoiak dira gaurko egunean premiatsuenak eta horrela pentsatzeko maneraren aldatzea ez da erraz izanen. Legeak zapaltzen du klase sozial berezi bat, hor sartuz emazteen klasea eta, emazteen artean, bizibide txarrak dituztenak.

Gobernuko gizonen aldetik, gauza biziki emeki eta ahulki doaz, ikusi dugun bezala, ernalketa trabatzearen aldeko legearentzat bezala, eta beldurtzeko da hilaurren ez dela luzaz kanbiamendu handirik izanen, buruzagiek ez dutelakoan nahi kanbiamendurik izan dadin, baina jendeen nahikundeak eta pentsatzeko manerak dituztela bortxaraziko, laster ikusiko dugun bezala.

## **Jendeen nahikundeak eta pentsatzeko manerak aldatu dira**

*Aldakuntza ezin uka. Sud-Ouest* kazetak agerrarazi duen Sofres-ek egin inkesta baten arabera.

100dik 26k onartzen du hilaurtzea edozein kasutan; 49k kasu berezi batzuetan; 22k bakarrik amaren bizi arriskuan delarik; 3k ez du deus pentsatzen.

100dik 90ek, erran nahi baita kasik denek, onartzen dute hilaurtzea:

bortxazko harremanak izan direlarik  
aitak edo amak eritasun batengatik ez badu haurra altxatzen  
ahal

haurrak arriskatzen badu bertzeak ez bezalakoa izatea  
jadanik familia handia eta pobrea bada

Arras gutxi (100dik 36) alde dira emaztearen edo bikotearen zoriona arriskuan delarik.

100dik 51k nahi luke erraz izan dadin hilaurtzearen erdiestea:

28k emazteak bakarrik galdeginik

23k bi medikuren baimenarekin.

100dik 3k talde baten baimenarekin.

Azkenik, 100dik 76k pentsatzen du Gizarte-Segurantzak ordaindu behar duela hilaurtzea.

I.F.O.P.k egin duen bertze inkesta batek, galderak ezberdinak izanagatik, ezta ere zifrak ez arras berdinak, gauza berak agerrarazten ditu.

Jadanik erran dugun bezala, hainbeste gordekako hilaurtzeek dute jendeen espiritua ireki. Duela 10 bat urte Marcelle Auclair kazetariak atera zuen liburu bat, *Le livre noir de l'avortement* deitua, problema hori aipatzen zuena, baina ez zituen jendeak hainbat hunkitu. Orain bai, zertarako?

Betidanik, gizonek eta emazteek askatasuna xerkatzen dute beren biziko gauza guztietan; trabak badituzte, baina baita laguntzak eta indarrak ere. Ez daiteke uka egiazko aitzinamenduak ez daudela gure mendean: ezagutzak hedatzen ari dira bereziki biziaren problemetan, gizon eta emazteen beharrak emendatzen dira, emaztearen lekua kanbiatzen ari da gure gizartean eta horien guztien ondorioa da gizartearekin, gizarteko lege eta buruzagiekin eztabaidan artzea.

*Ezagutzak hedatzen.* Biologisten ezagutzak argitzen dute biziaren problema.

Emazteen arrautzak eta gizonen espermatozook dute bizia ekartzeko berekin. Naturela biziki aberatsa da, badira espermatozooak milioika, arrautzak gutxiago. Biek bat egin behar dute bizi berri baten egiteko, bertzela hiltzen dira. Arras gutxi dira elkarretaratzen,

orduan erraten da arrautza ernaldua dela eta deitzen duzu umekia. Umeki hori, emeki-emeki, kanbiatzen da eta biologoek badakite zuzen zer urrats egin behar dituen sortzeraino. Hilabete bakoitzean inaurkin berri bat koskortzen zaio: lehenean bihotza, bigarrenean begiak... bost edo seigarrenean zain sistema... Hori denek onartzen dute. Hemendik hara dira hasten biologoen arteko borrokak.

Batzuek diote: haste-hastetik, zelulak bere 46 kromosometan, haurrak ukanen dituen nabariak ekartzen dituenez gero, bizi berri hori gerizatu behar da. Alta naturalezak botatzen du zenbait umeki eta biologoek badakite, berezko hilaurtzeetan, 100dik 60tik 80ra arte horrelako umekiak bertzeak ez bezalakoak direla. Beraz, galdera bat: naturalezak errefusatzan baditu umeki zenbait, gizonak edo gizarteak errefusatzan ahal ote ditu?

Bertze batzuek nahi lukete muga bat atzeman, errateko: horrenbeste hilabetez petik umekiak ez du nortasunik. Monod jakintsuak dio: "Nortasun baten izateko, behar da buru-muinetako zain sistema..." eta hemen oroitarazten du heriotzaren mugaz izan diren elkarrizketak. Urrunago erraten du: "Enetako ez da haurrik bosgarren edo seigarren hilabete arte. Horrelako aitortpenen arabera, 5 edo 6 hilabete arte, haizu liteke hilaurtzea. Baina horrelako muga ez ote da nahi bezala aldatzen ahal? Eta, beraz, galdera berera erortzen gara: gizonak suntsitzen ahal ote du bizia edozein mailetan?

Ikusten dugu, biologiaren ezagutzak aurreratuak izanagatik eta argi handiak ekarririk ere, biologiak bakarrik ez duela erantzunik ematen ahal eta biologoek berek erantzun bat ematen badute, nahasten dituztela beren jakitatea eta beren moralala edo filosofia. Bestela izan ote liteke?

Ikertze horien ondorioa izan da ernalketa trabatzeko bideen ezagutzaz eta, galdera bat egin liteke: biologiaren aldetik, sexu harremanik ez ukaitea, ernalketa trabatzea eta hilaurtzea, ez ote dira berdintsuak? Arrapostua asmatzen dugu: ez du biologiak bakarrik gizonaren bizia manatzen.

*Psikologoaren eta psikoanalisten ezagutzak* sexutasunaz. Luzaz sexutasuna gaizki ikusia izan da, gizonaren gauza txarrena bezala, ez zen aipatu behar ere. Psikologoaren eta psikoanalisten ikertzeak agerriarazi dute sexutasuna dela gizonaren eta emaztearen nortasunaren korropiloa. Ez da agertzen bakarrik sexu harremanetan, baita ere bizitzako borroka guztian. Ezagutza horiek sexutasuna askatu dute, edo bederen askatzeko bideak ireki, sexu problemak argituz eta bereziki

erakutsiz sexu harremanak beharrezkoak direla elkar maite duten gizon eta emazteen artean. Elizako buruzagiek beraiek halako problemak mehatxatu ondoan, ez ote dute onartzen, ezkontzaren helburua ez dela bakarrik biziaren ematea, baizik ere bi pertsonen zoriona.

Denbora berean, biologoen jakitatearen arabera, gizon eta emazteek jakin dute sexu harremanak ukaiten ahal zituztela, haurrik ukan gabe; beraz, gero eta gehiago bi gauzak bereziak dira. Askok pentsatzen dute bai ernalketaren tratatzea, baita hilautzea ere, bi gauzen bereizteko bideak direla.

*Medikuen ezagutzak.* Ernalketa tratatzeko bideak oso ongi ezagutzen dituzte, baita ere hilautzeko teknikak. Erraten digute gaurko egunean hilautzea oso erraza dela. 12 aste arte, hilautzea arriskurik gabe da, mediku batek egiten badu. Hilautzea libre den tokietan, hala nola Hungarian eta Polonian, 100.000 hilautzerentzat kontatu behar da 7-10 heriotza, 12 aste gabe hilautzea egina bada. Japonian, zifra berak 12 asteetik egina bada, baina berantago ere hilautzeak egiten badituzte, 22 aste arte, 10 aldiz gehiago heriotza kontatu behar da. Jugoslavian, 100.000entzat, heriotza bat. New-York estatuan, bi urterentzat agertu zifratan: beti 100.000entzat 4-6 heriotza lehen urtean, 3-5 bigarreanean. Aldiz, gordekako hilautzeetan, 100 hilautzerentzat heriotza bat.

Baina medikuek badakite ere, emazte batek ez duela anitz aldiz hilauttu behar, orduan arriskuak gero eta handiagoak baitira.

Beraz, medikuen ezagutzak baliatuz, arriskuak badira, medikuen edozein ekintzek badute beren arriskua, baina arriskuak txikiak dira.

Zenbaitek galdegiten dute, mediku gazteei jakitate hori ematea. Orain arte ez dute horrelakorik deus ikasten, bakarrik ikasten dute gordekako hilautzeen ondorioen artatzen.

Medikua, jendeen zerbitzurako bada, luzaz bazterrera utziko ote du jendearen osasuna eta bizia mehatxatzen duen problema bat?

*Gizon eta emakumeen beharrak emendatzen.* Erraten ahal dugu, gizonak errespetatzen duela bizia eta sentimendu hori bere jitean dela. Baina gero eta gehiago, gizonak eta emakumeek ez dute edozein bizimolde onartzen. Usu entzuten da: "Ez da hori gizonaren bizia".. Zer erran nahi du?

Gure gizartean bederen, bere gorputzaren behar premiatsuenak errazkiago asetzen ditu gizonak, baina gero eta hobeto ase nahi ditu:

jan eta edan onak, osasun on bat, bizitoki ederrak eta abar. Denbora berean, ohartzen da bertze beharrak ere badauzkala: heziketa on bat, jakitate gehiago, lan bat eta ongi pagatua, bertze gizon eta emakumeekin anaitasun eta amodio, gizartearekin harremanak. Beretzat nahi ditu eta pentsatzen du, bere haurrek horien guztien eskubidea badutela. Hori arras ongi ikusten da, bai ernalketa trabatzean, bai hilaurtzean, emazteek edo bikoteek ematen dituzten arazoietan. Haurrari ez bazaio bizibide on bat ematen ahal, ez dute haurrik nahiko eta anitzek ernalketa trabatzeko bideak ez dituztelako ezagutzen eta erabiltzen, hilaurtzea eskatuko dute. Ez dutelako sortze hori desiratzen, ez dute pentsatuko ere haur baten ekaia dutela hiltzen, moralistek nahi dutena erranik ere.

*Emaztearen lekua gizartean aldatzen.* Azken urte hautaraino, zer zen emakumearen biziaren helburua? Oroz lehen familia eder baten ukaitea, eta bere senar eta haurrentzat eginahalak egitea. Aski lan baitzuen familiaren artatzen. Gero eta gehiago, emaztea lanean ari da etxetik kanpo, familiari bere diru partea ekartzeko baita ere pentsatzen duelako edozein lanen eskubidea baduela gizonak bezala. Baserrian, betidanik emazteak lan egin du kanpoan, bere senarraren laguntzaile bezala, haurrak berekin zituztelarik edo ardurago etxean aitaxi edo amatxi bazituztelarik haurren zaintzeko. Aldiz, hirian traba asko atzematzen du, nahi badu bere lana segitu eta bere haurrez okupatu. Horren ondorioa da, haur gutxi ukaitea eta nahi dituztelarik.

Bertzalde, emazteek erdietsi dituzte ere (oraindik ez aski) orain arte gizonak bakarrik erdiesten zituzten lanak, bereziki zuzendaritzako lanak; askatasun gehiago erdietsi dute eta bertze emazteentzat lan egitea dute askatasun gehiagoren erdiesteko. Ernalketa trabatzeaz eta hilaurtzeaz mintzatu diren jende ezagutueta, anitz emazte mintzatu dira. Ez balitz emazterik izan kargu handienetan, ideiak hainbeste zabalduak izanen ote ziren?

*Gizartearen zuzendariekin eztabaida.* Gaurko egunean oso ongi ikusten da, hilaurtzearen problema lekuan, diren zuzendariekin, eztabaida baten okasioa dela; beraz, problema politiko bat dela. Legea atxiki nahi dutenak gero eta gutxiago sinesgarriak dira alabaina:

- Nork sinets dezake bizia errespetatu nahi dutela, milaka gizonak hilarazi dituztelarik berek ireki gerletan edo ez dutelarik deus erraten bertze erresumek hilarazten dituztelarik.



- Nork sinets dezake bizia errespetatu nahi dutela azkenik hiltzera kondenatu dituztelarik bi gizon, Buffet eta Bon-temps?
- Nork sinets dezake bizia errespetatu nahi dutela, onartzen dutelarik urtean 5.000 emazte, Frantzian, hil daitezen, gordakako hilaurtzearen ondorioz eta hainbeste geldi daitezen bere biziko eritasun edo edozein tzarrekin?
- Nork sinets dezake bizia errespetatu nahi dutela, ez badituzte nasaiki laguntzen aita eta ama, emanaz haurren altxatzeko behar dituzten erraztasun guztiak: bizitokia, ikastetxea, dirua, lana, eta abar?
- Nork sinets dezake sortzea lagundu nahi dutela, badakigularik zenbait herritako sortzeak mugatu nahi dituztela, hala nola herri pobreetan, beldur baitira herri hauek sobera handituz, arrisku bat izan daitezen herri aberatsentzat?
- Nork sinets dezake bizia errespetatzen dutela, luzaz ezkontzatik kanpo sortu haurrak mesprezatu dituztelarik, hauen-tzat ez onartuz bertzeen eskubide berak (orain gauzak aldatu dira, zorionez!...) eta ezkontzatik kanpo haurrak ukaiten dituzten emazteak?

Horrela segi dezakegu luzaz...

Beraz, arrazoi horien guztientzat, gero eta gehiago, jendeak onartzen du buruzagiek atxiki dezaten hilaurtzearen kontra den legea.

Gisa berean, ikus ahal genezake, jendeek, eta ez bakarrik katoliko ez direnek, ez dituztela Elizako buruzagiek erranak segitzen. Hori jadanik gertatu da ernalketa trabatzearen problemetan. Elizak ez du onartzen berezko kontrola bideak baizik: sexu utzialdiak ernalketa-aldi egunetan. Bistan da, katolikoek ere bertze biderik erabiltzen dutela.

*Sud-Ouest* kazetak agerrarazi inkestan, 100 katolikoetatik 76ek erraten dute legea aldatu behar dela, batzuek hilaurtzeko askatasun osoa behar dela erranez, bertzeek hilaurtzea haizu izan dadin kasu batzuetan galdeginez. Oraino, Frantziako buruzagiek ez dute deus jakinarazi, azken gertakarien ondotik. Ez litakea okasio on bat, problemaren berriz ikusteko bai laikoekin, bai apaizekin eta ez bakarrik apezpikuen artean? Denek parte hartzen badute, Elizaren pentsatzeko manera ez ote liteke sinesgarriagoa?

## Legeak zer izan behar duen?

Anitz taldek edo gizonak ireki dituzte bide berri batzuk legearen aldatzeko, hala nola Peyret jaunak edo P.C.F.-ak. Azkenik, agertu dena da A.N.E.A. taldeak proposatzen duena. Ez gara xehetasunetan sartzen ahal. Ikusiko dugu bakarrik zer bide hartu beharko lukeen?

– Oraingo legeak emaztea zapaltzen du. Hilaurtzen duen emazteak bere burua hobendun dauka. Lege berri batek behar luke askatu. Ez dadin gehiago gordekako hilaurtzerik izan, edo arras gutxi izan dadin. Hortakotz, legeak zabala beharko du izan. Ez duela hilaurtzea debekatzen orain bezala, baina haizu uzten horrelako eta halako kasuetan. Hor sartu behar direla, orain hilaurtzen dutenek ematen dituzten arrazoi guztiak. Batzuek erranen dute: nora ari gara? Nornahik, nahi duen bezala, hilaurtzen ahal badu? Ez dago gehiago moralik? Horiek ahazten dute, hilaurtu nahi duenak, egoera lazarria dela eta, ez duela bertzeen moralak, bere nahikundean geldiaraziko. Zernahi gisaz, lege batek morala egin behar ote du? Batzuen moralak behar ote du bertzei bortxaz errespetarazi?

– Legeak nahi badu gizon eta emazteak askatu, beharko du goraki finkatu, hilaurtzea ez dela jaiotzak kontrolatzeko bide bat, baizik azken beltzean hartzen den bide bat. Hortakotz, beharko da sexu heziketan eta ernalketa trabatzean lege mamitsu bat (oraingoa ez zaigu horrelakoa agertzen).

– Azkenik, lege bera denentzat: ez dezala, ez diruak, ez baitezpadako urratsek traba jende “xeheenak”.

*Kattalin Idiart (“Kattalin”)*

## ZABAL-eko lankideak

- ALFARO, Gexan “G.L” (1973): “Ekonomialaro berri bat”, 4, 21-23 orr.  
(1973): “Euskal liburu berriak direla eta...”, 1, 58-60 orr.  
(1973): “Gardarem lo Larzac”, 4, 35-38 orr.  
(1973): “Informatikaren mundua”, 2, 30-33 orr.  
(1974): “Berrien ondotik”, 6, 27-29 orr.  
(1974): “EHU euskal kulturaren aitzindari”, 10, 44-45 orr.  
(1974): “Handik eta hemendik”, 5, 17-19 orr.  
(1974): “Hitz berrien ildotik”, 7, 51-54 orr.  
(1974): “Kapitalisma eta internazionalisma”, 5, 21-36 orr.  
(1974): “Lehen mailako irakaskintza Frantzia 1833-ko Inkestarren arabera”, 9, 45-49 orr.  
(1974): “Nuklear zentralak auzipean”, 10, 9-14 orr.  
(1975): “Berri zenbait”, 12, 11-13 orr.  
(1976): “Dirua aitzinatu? Autorearentzat bai. Lanarentzat ez!”, 17, 22-23 orr.  
(1976): “Euskara ala baskoina?”, 18, 44 orr.  
(1976): “Ipar aldean argitaratzen diren kaseta-aldizkarietaz”, 18, 3-6 orr.  
(1976): “Iparraldean kultur olde berri baten bezperan ote gara?”. 17, 17-20 orr.  
(1976): “Zeruko Argia eta Anaitasuna-ren ondotik Herria ere... berrituko ote zaigu?”, 17, 24-25 orr.
- APALATEGI, Jokin “Begiko” (1973): “Atzerritarren artetik abots bat”, 3, 21-24 orr.  
(1973): “Hikuntza, pentsakera eta herrikidetasuna Larresoro baitan” (1), 1, 61-64 orr.; (2), 2, 59-64 orr.  
(1974) “Gerra ondoko akordioen urratsak” (1), 11, 15-21 orr.; (2), 12, 1-9 orr.

- (1974): “Carrero Blanco”, 6, 18-22 orr.
- (1974): “Daniel Landart-en *Hil biziak*”, 8, 41-43 orr.
- (1974): “Euskaldun kulturaren bilakaeraz eta etorkizunaz”!, 8, 30-40 orr.
- (1974): “Kultur mugimenduaz ikuspegi politiko bat”, 10, 37-41 orr.
- (1974): “Militargintza euskal iraultzan”, 9, 2-5 orr.
- (1974): “Nazional borroka Itsas Gorrian eta arabeen Itsas-kolkoan”, 7, 30-33 orr.
- (1974): “Portugal: Militarrak iraultzaile?”, 8, 21-25 orr.
- (1974): “Xile”, 5, 25 orr.
- (1975): “Abenduko greba jenerala dela eta”, 11, 22-23 orr.
- (1975): “Abertzale sozialisten erakundetzeaz”, 13, 5-8 orr.
- (1975): “Euskal artista iraultzailerik ez dea?”, 15, 5-7 orr.
- (1975): “Orixe-ren kulturgintza ulertzeko”, 15, 26-29 orr.
- (1976): “Euskal Herri zaharreko pentsamoldeak konprenitzeko bideetan”, 16, 26-39 orr.
- (1976): “Ipar Euskal Herriko mugimenduak sozialismoari buruz”, 18, 37-43 orr.
- (1976): “*Ortziken*”, 17, 10-18 orr.
- APALATEGI, Joxemartin “D2TS” (1976): “Marxismoa eta alderdia”, (1), 16, 17-21 orr.; (2), 17, 31-36 orr.
- APALATEGI, Joxemartin “Hans Yol smile” (1974): “Artegintza herriari Videm Ob Scaunici”, 9, 42-44 orr.
- APALATEGI, Joxemartin “Hans Yol smile” (1974): “Euskal unibertsitatea eta *Guk* taldea”, 10, 42-43 orr.
- ARBELBIDE, Xipri (1973): “Euskaldun eliza”, 4, 58-59 orr.
- ARISTEGI, Luis Maria “Errezabal” (1974): “Ikastolak Hego aldean”, 5, I-IX orr.
- ARROIABE, Karmelo (1974): “Gramsci”, 9, 30-35 orr.
- AZURMENDI, Joxe (1975): “Marxismoa eta euskal arazoa”, 11, 29-44 orr.
- BAKAIKOA, Balere (1976): “Euskal Herriko ekonomiaz”, 19, 3-9 orr.
- BIDART, Pierre (1973): “Udako Euskal Unibertsitateaz”, 4, 7-9 orr.

- BORTAIRU, Jakes “Kalakari” (1973): “Langileak”, 2, 14-16 orr.  
 (1974): “Langileen nagusi izateko etsaminak”, 8, 26-29 orr.  
 (1974): “Zindikata eta politika”, 5, 3-4 orr.
- DAVANT, Jean-Louis (1973): “Xile-ko itsuskeria”, 4, 24-27 orr.  
 (1973): “Aberri Egunaz eta Maiatz Lehenaz”, 3, 40-43 orr.  
 (1974): “Israel eta Ismael”, 4, 28 orr.  
 (1974): “Europaren sabeleko mina”, 10, 23-29 orr.  
 (1975): “Nolakoa den gure sozialisma”, 13, 1-4 orr.
- DAVANT, Jean-Louis “J.L.D.” (1973): “Abertzaleak haste-hastetik laborarien eta langileen alde arizan gara”, 2, 2-5 orr.
- DAVANT, Jean-Louis “Johane Aizager” (1973): “Bego hortan. Jo aintzina”, 4, 53-54 orr.  
 (1973): “Bozkak”, 1, 10-28 orr.  
 (1973): “Euskaldunak Dixmuiden”, 3, 29-30 orr.  
 (1973): “Eustakioren bidea”, 2, 30 orr.  
 (1973): “Israel eta Ismael eta gu?” 5, 27-28 orr.  
 (1973): “*Le Temps modernes*: Aberri zapalduak”, 4, 29-33 orr.  
 (1974): “Chypre-ko gertakariak”, 9, 27-29 orr.  
 (1974): “*Enbata* debekaturik”, 6, 23-26 orr.  
 (1974): “Gertakari bitxiak”, 6, 30-31 orr.  
 (1974): “Idealisma ez aski”, 9, 6-9orr.  
 (1975): “Eritreako borroka harmatuaz”, 12, 29-32 orr.  
 (1975): “Euskal departamentuaz”, 11, 1-13 orr.
- EGUZKITZA, Andolin “Altzarürükü” (1974): “Euskadiko gataska linguistikoaren aurrean”, 10, 30-35 orr.  
 (1974): “Euskal iraultzaz gogoeta zenbait”, 7, 24-29 orr.  
 (1974): “Meakaberriri ohar beharrezko batzuk”, 10, 55-57 orr.
- ERDOZAINCY-ECHART, Manex (1974): “Nun dire santiago-rateko bideak...” (poesia), 6, 52-54 orr.  
 (1975): “Asteri lanotsu batez” (poesia), 15, 25 orr.
- FRANC, Robert (1975): “Nuklear zentralak”. Kontuz!”, 14, 18-21 orr. Itzulpena: Jokin Apalategi.
- HAS <Herriko Alderdi Sozialista> (1974): “Herriko Alderdi Sozialistaren ikuspide oinarriak”, 7, 16-18 orr.
- HAS <Herriko Alderdi Sozialista> (1974): “Bretoi emakumeak”, 9, 20-21 orr.

- GOIHENETXE, Manex (1974): "Ikastolak Ipar aldean", 5, X-XIV orr.
- GONZALEZ, Otto Raul (1975): "Emaiozu", 12, 45 or. Itzulpena: X.P.
- HEGUIAPAL, Arno (1973): "Ziberoko zindikata", 4, 16.18 orr.  
(1974): "Ihizlarien arrazoak", 5, 14-15 orr.
- IDIART, Pettan (1973): "Euskal unibertsitatea", 4, 10-11 orr.
- IDIART, Kattalin (1973): "Hilortzeaz", 1, 43-53 orr.  
(1973): "Hogoigarren mendean, emaztea beti morroi", 2, 34-40 orr.  
(1974): "Emazteen elkarretaratzea", 8, 13-14 orr.
- ITUARTE ETXABE, Jon <Astigarribia> (1976): "Liburuak: *Surveiller et punir. Naissance de la prison*", 17, 47 or.
- IZTUETA, Paulo "Zabal" (1973): "Aintzin-solas", 1, 1-2 orr.
- IZTUETA, Paulo (1974): "*Anaitasuna* berritua", 9, 38-40 orr.  
(1974): "Eleiz-gizonak", 7, 3-12 orr.  
(1975): "Bretainia-Haundiko herriak", 13, 13-19 orr.  
(1975): "Irlanda kolonizatua", 13, 20-33 orr.
- IZTUETA, Paulo "Meakaberri" (1973): "Amorrazooa, joerak eta zentsurak", 2, 48-57 orr.  
(1973): "Egungoi kulturaren hildotik", 1, 54-58 orr.  
(1974): "Eleberri ziztagarri bat: *Hil ala bizi*", 14, 1-3 orr.  
(1974): "Soljenitsyne", 6, 37-42 orr.  
(1974): "Altzürüküri ohar kritiko batzuk", 8, 18-20 orr.  
(1975): "Frankismoaren azken ostikoak", 14, 1-3 orr.
- KANBLONG, Ramontxo (1974): "Ipar Euskal Herriaren industria-tzeaz", 10, 1-2 orr.  
(1974): "Ipar euskal herrian, M.I.A.C.A", 7, 19-23 orr.
- KINTANA, Xabier "Armendariz Sabier" (1976): "Euskaldun izen eta izana", 19, 47-50 orr.
- KRUTWIG, Federiko (1976): "Egiak eta gezurrak sozialismoan eta soziala asmoan", 19, 15-34 orr.
- LANDART, Daniel "Garralda" (1973): "Antzerkiaren Biltzarra", 4, 46-47 orr.

- LANDART, Daniel “Garralda- seme” (1974): “Apez” (poesia), 10, 46 or.
- LANDART, Daniel (1976): “Lantegiko hamar manamenduak” (poesia), 19, 9 or.  
(1976): “Lantegiko komunean”, 19, 51-52 orr.
- LARRAZABAL, Jesus Maria (1976): “Ustaritzeko agerpena dela eta” (1), 16, 42-44 orr.; (2), 17, 1-4 orr.
- LARRAZABAL, Jesus Maria “J.M.L.” (1976): “Krisis ekonomikoak”, 18, 51-55 orr.  
(1976): “Liburuak: *Profil d'une oeuvre: le Capital Marx*”, 17, 48-49 orr.
- LARRAZABAL, Jesus Maria “J.M.L.” (1976): “Liburuen xokoa: *Marxisme-Léninisme et révisionisme*”, 18, 57-58 orr.
- LARZABAL, Battita <F.B.M> (1973): “Kantonamenduetako bozak”, 4, 19-20 orr.  
(1974): “Bozak Ipar Eskual-herrian”, 8, 1-9 orr.
- LARZABAL, Battita “F.B. Munho” (1973): “Maiatzaren lehenaz”, 1, 34-40 orr.  
(1973): “Eskolako bestelakatzear”, 3, 34-37 orr.  
(1973): “Turizmoa eta putakeria”, 2, 9-13 orr.
- LARZABAL, Mattin “Mattin Uztarpekoa” (1973): “Eskualtzaleen Biltzarra Saran”, 3, 38-39 orr.  
(1973): “Zein da *Ikasen* arloa?”, 4, 43-44 orr.
- LARZABAL, Mattin (1973): “Iraila beltza”, 1, 41-44 bis orr.
- MENDIBEHERE, K. (1973): “Ipar Euskal Herriko feriak”, 3, 3-4 orr.  
(1973): “Ikastaldia”, 4, 39-42 orr.  
(1974): “Abertzaletasuna”, 8, 9-12 orr.
- MENDIZABAL, Eustakio “Tzikia” (1974): “Kartzelan egotea...” (poesia), 7, 45 or.
- MENDIZABAL, Eustakio (1973): “Eustakioren bertso batzuk” (poesia), 2, 46 or.
- NGUYEN KHQNH TOAN (1976): “Zendako zaintzen dugun nazio mintzaira” (1), 17, 5-7 orr.; (2), 18, 11-15 orr.; (3), 19, 35-

- 39 orr. Mikel Urteaga “Huarte”k *Le Vietnamien et l'enseignement supérieur en vietnamien dans R.D.V*-tik itzulua.
- ODRIOZOLA, Jose Manuel “Izarreko” (1975): “1975-ko aboztuen 22-ko Dekreto legea”, 15, 8-14 orr.  
 (1975): “ETA-ko batzuk autokritikatuz datozkigu”, 11, 24-28 orr.  
 (1975): “Euskal proletalgoa, Burgoskoak eta LAIA”, 12, 14-20 orr.  
 (1975): “Gizona, dialektika eta beste”, 12, 33-36 bis orr.  
 (1975): “Sozialismoaren egungo zenbait arazo” (1), 14, 27-30 orr.  
 (1976): “*Bat bitan banatzen da*. Teoria eta politika”, 17, 51-56 orr.  
 (1976): “Seksual bizitza. Wilhem Reich-en ustez”, 16, 23-25 orr.  
 (1976): “Zuzenpenak”, 18, 56 or.
- OIARTZABAL, Beñat “B.O.” (1973): “Azken gose-grebaz zenbait gogoeta”, 1, 3-9 orr.
- OIARTZABAL, Beñat <Izenpetu gabekoa> (1973): “Aberri Egunari eta Maiatzaren lehenari buruz”, 2, 17-29 orr.  
 (1975): “*Linguistique et colonialisme*, Louis-Jean Calvet”, 12, 46-47 orr.  
 (1973): “Johane Aizager-i ihardespena”, 4, 50-51 orr.  
 (1974): “Apezzeria, elizakeria eta euskara”, 7, 55-57 orr.
- SUDUPE, Jon “Perugorria” (1975): “Louis Althusser-en autokritika-gaia” (1), 12, 48-52 orr.; (2), 15, 19-24 orr.
- ALVAREZ, Jose Luis “Txillardegi” (1973): “Begiko-ri erantzunez”, 4, 55-57 orr  
 (1976): “Izarreko-ren sozialismoa”, 19, 40-45 orr.
- URTEAGA, Mikel “Baigura” (1973): “Bangladex”, 3, 25-27 orr.  
 (1973): “Laborariak borrokan”, 1, 31-33 orr.  
 (1974): “Liberalizazioa”, 8, 15-17 orr.  
 (1974): “Maiatzaren lehena”, 7, 13-15 orr.  
 (1975): “Hitz bi”, 12, 10 or.  
 (1976): “Ultra ezkertiarak”, 17, 27-30 orr.
- URTEAGA, Mikel “Baigura” (1976): “Portugal”, 16, 7-16 orr.
- URTEAGA, Mikel “Huarte” (1973): “Nora goaz”, 2, 16-17 orr.



- (1973): "Ipar Euskadiko sindikatuak", 5, 5-7 orr.  
 (1974): "Proletalgoaren aginte bakarra", 7, 37-42 orr.  
 (1975): "Likidazionistak eta gu" (1), 15, 3-5 orr.; (2), 16, 4-6 orr.
- URTEAGA, Mikel "Baigura" (1975): "Legezkoa, justua, zuzena", 11, 45-52 orr.
- URTEAGA, Mikel "Huarte" (1974): "Teknokrazia", 9, 10-11 orr.  
 (1975): "Kurdistan eta Eritrea", 13, 34-35 orr.  
 (1975): "Unibertsitarioak", 12, 21-28 orr.
- XARRITON, Piarres (1973): "Eliza eta fedea Eskual Herrian", 3, 5-14 orr.  
 (1974): "Eliza berri Baionan", *Zabal*, 9, Baiona, 12-18 orr.  
 (1974): "Gizonaren kultura eskubideen oinarri etikoak", *Zabal*, 6, Baiona, 43-51 orr.  
 (1976): "Jose-Luis Segundo-ren *Askatasun Teologia*", *Zabal*, 19, 10-14 orr.
- ZABAL (1973): "Aintzin-solas", 2, 1-2 orr.  
 (1973): "Aintzin-solas", 4, 1 orr.  
 (1973): "*Hil ala bizi* eleberria", 4, 42 orr.  
 (1973): "Ixabel Barriola gure borrokabidea joan zauku", 2, 45 orr.  
 (1973): "Unibertsitateaz *Zabalen* oharrak", 4, 5-6 orr.  
 (1973): "Aintzin-solas", 3, 1 orr.  
 (1974): "Aintzin-solas", 6, 1 orr.  
 (1974): "Aditz-laguntzaile batua", 5, 19 orr.  
 (1974): "Aintzin-solas", 5, 1 orr.  
 (1974): "Aintzin-solas", 7, 1-2 orr.  
 (1974): "Aintzin-solas", 9, 1 orr.  
 (1974): "ETA-koek etsaia buruan jo dute", 5, 10 orr.  
 (1974): "Euskal unibertsitatean hartua", 5, 43-44 orr.  
 (1974): "Euskara idatziaren batasunari buruz...", 9, 50 orr.  
 (1974): "Frantses eskualdekatzeak ere Ipar Euskal-Herriari tu", 5, 12 orr.  
 (1974): "Hiztegia", 10, 60 orr.  
 (1974): "Hiztegia", 8, 44-47 orr.  
 (1974): "Hiztegia", 9, 51-57 orr.  
 (1974): "IKAS-en ageria", 7, 46-50 orr.  
 (1974): "*Irati* liburu saila", 5, 2 orr.  
 (1974): "Izendegia", 7, 58-59 orr.

- (1974): “Udako bigarren euskal unibertsitatea”, 7, 43-44 orr.  
 (1974): “Zamorako presondegian”, 5, 8-9 orr.  
 (1976): “Aintzin-solas”, 19, 1 orr.
- ZABAL, “Z” (1975): “Uda honetako euskarazko ikasaldia”, 15, 31-32 orr.
- ZABALETA, Patxi “Gorka Trintxerpe” (1973): “Hamar urte” (poesia), 3, 32 orr.
- ZABALETA, Patxi “Gorka Trintxerpe” (1976): “Agur, zorion labur!” (poesia), 17, 21 orr.
- ZALDUNBIDE, Gilen (1976): “Sikomotrizitatea edo gogoguiden jakitatea”, 18, 45-46 orr.
- ZUPANCIC, Oton (1974): “Bizien eguna” (poesia), 9, 41 or. Jokin Apalategik itzulia.

## Ezizenak

- BELARITZE (1975): “Higuni” (poesia), 11, 57 orr.
- BELTZUNTZE (1974): “Olerki berri” (poesia), 55-56 orr.
- EKITZETA (1976): “Alfabetatzeaz” (1), 16, 39-41 orr.; (2), 18, 7-10 orr.
- EMAZTE BATEK (1975): “Eva Forest”, 14, 34-36 orr.
- EMAZTE TALDE BAT (1974): “Emazte batzuek zer pentsatzen duten”, 10, 15-16 orr.
- ENEKO (1974): “Euskaltzaleeri mintzo”, 10, 52-54 orr.
- ERREFERA (1973): “Bi hitz pilotaz”, 2, 8 orr.  
 (1974): “Pilotaz”, 5, 20 orr.
- ESTALKI (1974): “Aitzin gibel begiratu”, 5, 29 orr.
- EUSKAL EMAZTEAREN TALDEA (1975): “Flamendar emakume deputatu batekin solasean”, 13, 36-38 orr.
- EUSKALDUN EMAZTE TALDE BAT (1975): “Emaztea eta hiltzea”, 11, 53-56 orr.

- GOXO XUME (1975): “Euskararen erakaskintza Ipar Euskadin”, 12, 39-42 orr.
- HEGITAR (1975): “Errezabali gutun irekia”, 11, 58-59 orr.
- IPAR ETA HEGOALDEKO TALDE BATEK (1974): “Sail idekia”, 6, 33-36 orr.
- IPARREKO BATEK (1975): “*Sugarra*-ri buruz Iparreko batzuen erantzuna”, 14, 4-7.
- IPARRETIK (1973): “Nundik heldu dira lantegietako kalapitak eta borrokak?”, 3, 15-19 orr.
- IRAUN (1973): “Español presondegietan ditugun herritarrak ez ahantz...”, 3, 31-33 orr.
- JAUREGI (1973): “Katalanen eta Euskaldunen Udako Unibertsi-tatea”, 4, 12-15 orr.  
(1974): “Larzac”, 9, 36-37 orr.
- LEON XIMIKO (1974): “Turizmaren langile”, 5, 11-12 orr.
- MARTIN LEGARRALDE (1975): “Gauaren erdial hil bost anaiak” (poesia), 15, 30 or.  
(1975): “Herria hire nazkaren...” (poesia), 14, 26 or.
- MIKEL (1975): “LAIA-ren *Sugarra* kritikatu”, 13, 10-14 orr.
- UDABERRI (1973): “Aizto gorria” (poesia), 4, 45 or.
- XORI SORGIN (1974): “Jayarman'en ametsa” (poesia), 6, 18-20 orr.

## Inizialak

- “A.H. laboraria” (1973): “Sohüta, Agorrilaren 29-a”, 4, 48-49 orr.
- “H.I” (1973): Laborariak borrokan”, 1, 31-33 orr.
- “J. eta J.” (1975): “Nukleartegiak”, 14, 14-17 orr. Itzulpena: Jokin Apalategi.
- “J.A.” (1976): “Hildakoak berriro” (poesia), 18, 2 or.
- “J.A.” (1976): “Kandeleri Kandelera” (poesia), 18, 19 or.

- “J.A.” (1976): “Txiki eta Otaegi” (poesia), 18, 16 or.
- “J.A” (1976): “Espainiari” (poesia), 1, 15 or.
- “J.R.E.” <Etxebarria, Jose Ramon?> (1976): “Liburuak: *Valeur et répartition*”, 17, 43-46 orr.
- (1976): “Liburuen xokoa: *Etudes sur le capitalisme*”, 18, 59-60 orr.
- “M.G” (1973): “Aberri Eguneko adierazpena”, 1, 29-30 orr.
- “P.L.” (1976): “Kontzeptukrazia eta kultugintza”, 17, 37-42 orr.
- ”M.U.” (1974): “Ipar euskal herriko laborantza”, 6, 3-17 orr.

## Izenpetu gabekoak

- (1973): “Autobidea ala auzapezen eskandala?”, 2, 66 or.
- (1973): “Euskararen alde”, 6, 59-61 orr.
- (1973): “Eustakiori”, 2, 47 or.
- (1973): “Idazteko libertatea arriskuan...”, 2, 66 or.
- (1974): “Beharrezkoak”, 10, 17-22 orr.
- (1974): “Euskal olde sozialista zabal bati buruz”, 9, 18-20 orr.
- (1975): “Hamar galdera giltzarri erreadioaktibitateaz”, 14, 22-25 orr. Jokin Apalategik *Le Point*-etik (1975-01-20) itzulia.
- (1975): “Euskal Unibertsitatearen ageria”, 15, 16-18 orr.
- (1975): “Iparretarrak mintzo”, 14, 31-33 orr.
- (1975): “Nazioneak”, 14, 31-33 orr. Mikel Urteaga “Baigura”k itzulia.
- (1975): “Neska margolari bat”, 12, 43-44 orr.
- (1975): “Petrolioia” (poesia), 12, 37-38 orr.
- (1976): “Estudianteen lana”. 18, 17-19 orr. Mikel Urteaga “Baigura”k *Pekin Ingorne* astekaritik itzulia.
- (1976): “Euskaldun apezten ageria”, 18, 61-64 orr.
- (1976): “Liburuak: *Euskaldun (berri)-ekin euskaraz* liburuari eranskina”, 17, 49-50 orr.
- (1976): “Udako Euskal Unibertsitatearen alde”, 19, 1-2 orr.

# SAIAKERA

## BILDUMA

1. Jexux Larrañaga Arriola: *Jolas sakona*. 2014.
2. Ibai Iztueta Azurmendi: *Cultura vasca vs Euskal kultura*. 2015.
3. Paulo Iztueta — Jokin Apalategi (prest.): *Euskal pentsamendu berritzailearen sorrerak*. ZABAL. *Testu hautatuak*. 2015.